



Arantza eta larrosa

Tomas Gerrikagoitia





Tomas Gerrikagoitia

Tomas Gerrikagoitia Urionaguena Bizkaian jaio zan, Bolibarko errian, 1909-an; eta bertan il 1997-an.

Bere denboran, bizimodua ateratzearen ez ezik beste milla burruka ere jo ondoren, bizitzaren illunabarrean zala, idazteari ekin zion, Ipar-Amerikako alabak eskatuta, onako liburu mardul au bete arte.

Izkuntzaren aldetik dute orrialde auek beren lenengo balioa. Bizkaiko euskera jatorraren billa dabillanak, emen arkituko du. Bigarrena, berriz, gizon baten bizitza ez-ezik, euskal gizaldi bat eta beraren lurraldea ere argi eta garbi ikus arazten dizkigula.

Poz aundia degu, beraz, liburu au argitaratzearekin; baiña bai pena ere, egillea bizi zala ori egiteko gauza izan ez giñalako, beraren ametsa ori zan arren.



44624
GAS-129/18



EUSKALTZAINDIA

Arabako Ordezkaritza

Tomas Gerrikagoitia Urionaguena
“Beesi”

Arantza eta larrosa

(Nire bizitzaren gomutak)

(Nerea Areta Azpirik egokitua)

Auspoa Liburutegia

269



AUSPOA • SENDOA

SENDOA ARTALDARIA

Ugaldetxo auzoa

Tels. 943 49 35 51 - 49 35 52 - 49 35 53

Fax 943 49 35 48

www.sendoa.com

editorial@sendoa.com

20180 OIARTZUN (Gipuzkoa)

Tomas Gerrikagoitia Urionaguena
"Beesi"

Arantza eta larrosa

(Nire bizitzaren gomutak)

(Nerea Areta Azpirik egokitua)

Auspoa Liburutegia

(2000)

© SENDOA ARGITALDARIA
ISBN: 84-95378-11-6
Depósito Legal: NA-1358/2000
Fotocomposición e impresión: Serinte

Itzaurrea

Tomas Gerrikagoitia Urionaguena jauna zana degu liburu onen egillea; eta esan bearrik ez dago, noski, abizen oiek zituan gizona zein euskal probintzitan jaioa izango zan.

Bai; Bizkaiko biotz-biotzean munduratu zan, Markiñako barrutian, Bolibar errian, Alegria baserrian, 1909 urteko apirillaren 4-an.

Beraren aita, Pedro, Bolibarko Urezandi baserriko semea zan, Alegria baserrira ezkondua. Ama, berriz, Agustina, bertako alaba.

Seme-alaba auek izan zituzten: Jose, txikitan illa; Tomas, liburu onen egillea; Juan, pasionista, Peru-n illa; Santi eta Paulino, bixkiak, ura ere pasionista, baiña emen illa, eta bigarrena Arjentinan bizi eta illa; Felipe, Bilbon bizi eta illa; Emilia, txikitan illa; Gregorio, leen Alegria baserrian bizia, etxe ori erre zan arte, eta orain Markiñan; Karmen, monja; Pedro, Eibarren bizi eta il zana.

Tomas, Bolibar bertako alaba zan Josefa Olaberekin ezkondu zan. Emaztearen jaiotetxean bizi izan ziran: Beesiko-etxebarrin, alegia. Baserri au, Bolibartik Markiñaruntz goazela, kilometro eskax batera antxe dago ezkerrera, malda batean goi samar.

Lau seme-alaba izan zituzten: Jabier, bere jaiotetxea dan Beesiko-etxebarrin bizi dana: Maria Luisa, Ipar-Amerikan dana; Arantxa eta Paulino.

Alegria eta Beesiko-etxebarri baserriak alkarren aurrez aurre daude, alkarri begira bezela, ura muiño baten kaskoan eta bestea aldatz batean, Bolibartik datorren Markola erreka tartean dala. Zoritxarrez,

esan degun bezela, Alegria baserria erre egin zan 1988-ko San Migel egunean, iraillaren 29-an alegia.

Beeko zokoan, erreka ondoan, antxe daude Armolatorre etxea eta Armola-errota, onako au Jose Antonio Ardanza leendakari izanaren ama zanaren jaiotetxea.

Alperrikako lana litzake liburu onen egillearen bitzita itzaurre ontan azaltzea, orixe da berak orrialde auetan egiten duana eta. Irakurtzeari ekin eta aurrera jarrai dezala, beraz, Tomasen nondik-norakoak ikasi nai dituanak.

Onek, izan ere, zaartu ta gero, bere denboran milla burruka jo ondoren, 1986-ko iraillaren 15-ean –eguna idatzita utzi baitzuan–, berak dion bezela “larogei urte atean” zituala, kuadernoa maai gaiñean jarri, boligrafoa eskuan artu eta idazteari ekin zion.

Nundik etorri ote zitzaion burutazio ori? “Ipar–Amerikan ogei ta zortzi urte daroazan alabiak gurari au agertzen daustalako”. Gaia, berriz, zer ote zuan? Bere bizitza.

Etxeko erraiñak, Maria Teresak, onela esan digu:

–Maai orretan jarri eta ortxe jarduten zan, gosaldue ondoren asita. Orduak pasa eta nik esaten neutsan: “Bazkaldu egin bear dogu orain, aita”. Eta berak, arrituta: “Bazkaldu? Eberdia al da, ala?”.

Langintza berri orrek beste mundu batera eramaten zuan, beraz, gure Tomas zana. Langintza berria, bai, baiña orretarako doaia betidanik oso barruan izan zuana, naiz eta izkututik agerira bere azken urteetan atera.

Onekin zera esan nai degu: Tomasek, berak olakorik pentsatu ere gabe, literatur-sena oso berezkoa zuala; orrekintxe jaio zala. Orren ezaugarriak badira liburu ontan: bata, kartzelatik bere andregaiari azken agurra emanaz idatzi zion eskutitza; bestea, an edo emen agertzeko osatu zituan idazlanak eta jende aurrean egin oi zituan berbak.

Urte bete eta geiago bear izan zuan liburu au osatzeko Ondoren, onelatsu esaten entzun omen zioten bein baiño geiagotan:

–Liburu ori, ni bizi naizen arte inprimituta ikusi gura neuke; baiña ez dakit ori lortuko dodan.

Ez; etzuan lortu. Eta itz oiek beraren etxean entzun nituanean, barruko arrak zimiko bat egin zidala aitortu bearra daukat, ortan erru puska bat nik ere badet eta.

Liburu onen kopia bat, makinaz idatzitakoa bera, orain urte batzuk iritxi zan, izan ere, nere eskuetara. Gure Tomas artean bizi zala uste det. Irakurtzeari ekin eta benetan gustatu zitzaidan. Nola ez? Olako bizkaiera jator, garbi eta aberatsa ez da eguneroko ogia izaten.

Erri-jendeak, idazten asten danean, okerbidetik jotzeko arriskua du. Obe bearrez, jende eskolatuaren izkuntza egin nai, eta ez bat eta ez beste geratu. Ez erri-euskera eta ez gizon-emakume ikasiena ere. Berzkoa galdu eta besteena ezin artu. Naturaltasunez jantzita eskeiñi dezaigutela beren emaitza. Arkaitz bizitik sortzen dan iturriko ura izan dedilla, alegia; eta ez kale-etxeko kanillatik datorrena, kloroz eta kimikaz kutsatuta.

Tomas zana, ordea, etzan bide-gurutze ortan galdu edo naaspillatu. Zuzenetik artu zuan. Ala, izkuntzaren aldetik du liburu onek bere leen balioa.

Esan bezela, egilleak bere bizitza kontatzen digu orrialde auetan. Autobiografia degu, beraz. Baiña erri-gizon auen bizitzak beren auzotarrena eta beren gizaldi osoarena ere azaltzen digute. Ona nola esaten nuan, adibidez, Aragoiko Hilario Jarne zanak eta biok alkarlanean osatu genduan *Junto al fogaril de Atarés* liburuaren itzaurrean:

“... con la autobiografía del señor Hilario no sólo ofreceríamos la historia de un personaje concreto, sino también la de

un colectivo formado por el pueblo entero de Atarés, e incluso por la comarca. Que si el libro iba a tener un primer protagonista, en segundo término se vería otro de no menor importancia: un conjunto o comunidad de la que formaban parte todos los hombres y mujeres del pueblo, tanto vivos como difuntos”.

Ori bera du liburu onek: baserritar jator baten bizitza ez-ezik, gizaldi eta inguru artako bizilagun guziena eskeintzen digu; Hilario Jarne jaunarenak Pirineoko lurralde batena bezela, onek Bizkaiko biotzean dagoan Lea-Artibai barrutiaren berri zeatza ematen digu.

Alderdi on auek leen begiratuan ikusi nizkion liburu oni. Baiña, egia esan, ez nintzan ausartu bera inprentarako prestatzen. Zergatik? Ain bizkaiera jatorrez idatzita dagoalako. Ni giputxa izanik, ziur nengon ez nituala gauza danak ondo ulertuko.

Orduan, Bizkaiko Aldundiaren Euskal Zerbitzuko buru zanak, Tomas Uribetxebarria jaunak alegia, zera esan zigun: berak bazekiala zeregin ori nori eman. Nerea Areta Azpiri andereñoa izan da bera; oker ez banago, Eibarko Arrate aldean jaioa. Berak prestatu du liburu au inprentarako, ordenagailluz txukun asko kopiatuta. Bein baiño geiagotan Beesiko-etxebarrira etorri ere bai, duda edo zalantza batzuk argitzera. Baita bide batez etxe ontakoekin lagun miña egin ere.

Bitartean, ordea, denbora aurrera eta gure Tomasi azken ordua iritxi, 1997-an. Etzuan, beraz, bere liburua kalean eta jendearen eskuetan ikusi. Zerutik barka dezaigula, arren!

Izan zan, ordea, gu baiño bizkorrago ibili zanik. Tomasen illoba batzuk Arjentinan bizi dira: anai Paulinoren seme-alabak eta leengusu batzuk ere bai. Aiek one-ra etorri, osabaren idazlana ikusi eta erderara pasatzea nai izan zuten. Lan ori Bilbon bizi eta il zan Tomasen anaiak, Felipek, egin zuan, eta erdal itzulpen ori ere arretaz gordetzen dute Beesiko-etxebarri baserrian.

Igazko zemendian edo azaroan gure etxeko ateak berriz jo zituan liburu onek: inprentarako prest zegoala eta ea argitara aterako genduan. *Disketa* eta guzi bialtzeko erantzun genien.

Eskatu genduan laster iritxi zan gure etxera, eta zera aitortu bear det: nik ere eskua sartu diotala orain. Ez, ordea, izkuntza ikuitzeko, *errata* edo oke-rreren bat zuzentzeko izan ezik. Puntuazioa pixka bat egokitzen saiatu naiz, geienbat. Baita ere alkarrizketak bereizten ere, nork zer dion irakurlea errezago jabetu dedin. Orrez gain, azken atal edo kapituluak eun orrialde baiño geiago betetzen zituan. Geiegizkoa iruditurik, laburragoko ataletan banatu det.

Izenburua, berriz, onela idatzita zeukan: *Nire bizitzaren oroitzapenak*. Baiña azken itz au Bizkaikoa ote zan? Abel Muniategi adiskideari galdetu nion, eta ezetz; bizkaiera jatorrez izatekotan, *Nire bizitzaren gomutak* bear zuala. Ala egin genduan. Baiña andik laster, liburuaren orrialdeetan aurrera eta atzera genbiltzala, zera batez oartu giñan: Tomasek iru-bat aldiz onela esaten duala: "Gure bizitza arantza eta larrosa da". Nere buruari onela esan nion orduan:

—Orra or izenburu dotorea: *Arantza eta larrosa*. Ori baiño egokiagorik ez degu liburu ontarako arkituko, beraren egilleak bietatik ondo probatu zuan eta.

Zer geiago esango degu? *Auspoa Liburutegia*-k poz aundia artzen duala bizkaierazko liburuak argitaratzearekin. Baita Naparrokoekin eta beste lurraldekoekin ere. Euskal-Erri osoa serbitu nai degula, alegia, eta ez Gipuzkoa bakarrik.

Bizkaikoak baditugu leen ere ale batzuk argitara atereak: Muxikako Balendin Enbeita zanaren *Nere apurra*; Zeanuriko Basilio Pujanaren *Egi batzuk aixelataratzen*, *Deabruak ostutako urteak* eta *Oiua*; Ondarroako Jose Mari Etxabururen *Neure lau urteko ibillerak* eta *Ondarroa'ko kontuak*; Dimako Faustino Etxebarriaren *Nor garan azaldu* eta *Nire gazte denpo-*

ra; Zeberioko Lino Ayestaren Gure izkuntzaren mugatik eta Ikusiak eta entzunak; eta Zeberioko Juan Manuel Etxebarriaren Zeberioko kantikak.

Onako au beste bat, beraz. Baiña ez dedilla azkena izan. Are geiago: lanean asiak gera bizkaierazko liburu-mordoska oni besteren bat geitu bearrez. Baiña beraren egillea eta izenburua beude, oraingoz beintzat, ezkutuan...

A. Z.

Aurkezpena

Nere bizitza girua aurkeztu nairik, lerro trakets onek idazten noia.


Ara emen guzti onen zergaitia: Ipar Amerikan ogetairu urte daroazan alabiek gurari au agertzen deustalako.

Badakit naikue gogorra dala lan au ain idazle ez-jakin dan batentzako. Lotsa izan biar iñori edo edonori eskura emoteko, nai ta neure errua ez izan.

Nik ez neban izan gaur geienak daben lako auke-rarik, baña neure almen guztiak emen dira, buru zar onetatik bizitzako gomutarik urtenen guztiak aurkeztuteko alegin guztiak egiñez, buru zar au astin-duz.

Larogei urte atian,
oso astunak lepuan;
bi makilla eskuan,
leen atxurra eta segaren lekuan.
Aixe onik eztabil buruan,
urte onekin
luma artzeko eskuan.

*1986ko iraillak 15, Bolibarren.
Tomas Gerrikagoitia Urionaguena
“ B e s i ”*



Tomás Gerrikagottia Urionaguena (1909-1997).

Jaiotza ingurua

Zer esanik eztago, gurasuakgandik eta abar ja-
kiñak dirala argitasun guzti onek.

Nire aita ogetabost urtegaz geratu ei zan guraso-
rik barik. Bere aita naikue gazterik il ei zan, berro-
getamabost urtegaz, eta amagaz bakarrik, Kantera-
pe baserrian geratu ei zan. Baziran lau neba-arreba.
Zarrena Josepa, moja Cáceres-en; beste arreba, Te-
resa, Ermuan ezkondu, eta anai Manuel, gaztiena,
Ipar Amerikan. Ama, Josepa Jaio, irurogei urte zi-
tua il ei zan 1905ian. Aitak, sasoi ona bai, baña
bakarrik munduan. Bere ogibidea, basarritik; gañe-
ra, eungilie zan, telagiñe.

Nire ama, amazortzi urtegaz geratu zan ume-
zurtz. Bere ama, Maria Teresa Garro, 1902an il zan,
berrogetamalau urtegaz. Aita, Tomas Urionaguena,
eta bere alaba zarrena neba-arreba guztien artian,
Paula, 1906an il ziran, biak ille bi barruan. Bost
anai-arreba geratu ziran: Gregorio, neba zarrena,
Buenos Aires-en; Agustiñe, nire ama; Sotero, kar-
meldar bidean; Ilario, eta Jose Mari, amar urtegaz,
gaztiena.

Aita eta ama ezkondu ziran 1907-II-4an, bi ume-
zurtz esateko moduz.

Onek ezkondu ta laster, Ilario jua zan bere anai
Gregoriogana Ego Amerikara; guztiok tutorien men-
de geratu ziran.

Nire jaiotza, 1909an aprillaren 4an izan zan.
Kontuan izan biarra dago, gurasuon ezkontza orre-
tatik eta nire jaiotzara bitarte orretan, beste jaiotza

bat be badala, Jose izenagaz, baña au amabost egunakaz il ei zan.

Emen, gauza bat dago argi eta garbi: aitita-amomen besarkada eta laztan gozorik jasoteko aukerarik ez genduela izan tamalgarriz. Baña amaren igurtzi eta laztan gozuak ez ziran faltako zorionez.

Onan, ba, nik urte birako illabete palta nebala jaio zan Juan. Inguru onen gomutarik ez dot, esan deustezanak baño... Laster asten naz goguan artzen jazoera batzuk.

Juan jaio ta illabete pasatxura edo olan, izeko Teresari itxi Juan, eta ama Arenetara jua ei zan aundiki etxe batera, sendi aren alaba bateri bularra emon eta aztera. "Aña" izena emoten eutsen oitura oni. Eta emen inguruan ez zan andrarik, esateko moduz, ortik pasau barik; eta baziran bi eta iru aldiz egon ziranak, nai eta derrigorrezkua izan ez: diruagaitik eta abar. Ain subertez be, gero nire amagiñarreba izango zan Franziska Etxebarria, Besiko etxeoandrie, egon zan famili aren semie azten, Federiko Soratxo, eta onen bitartez jua zan gure ama, ondoren jaio zan Maria Soratxo azten. Gitxi gora-berra, urtebeteko egonaldia izaten zan.

Onan ba, nik bi urtetik irura jazua da guzti au. Eta emen bitartian geratu ziran nire buruan lenengo iru jazoerak.

Lenengua, au izan biar, ama maietz aldian jua go zan, eta aita bakarrik edo erdi bakarrik. Sanjuanak aldia izango zan, artajorra sasoi: aita keixe onduen, berari adar bat ebagita, zelan isten ninduen otzara baten zapi batzukin, lo egin nagian. Eta, or tartian noz-beinka zelan etorten zan labako sue egitera, garbiketata batzuk, eta abar: labako su eta garbiketata egiten etorten zana, izeko Antoni zan.

"Izeko Antoni" izenez ezagutu neban, baña ez zan iñundik izeko. Naikue zarra zan, baña nik asko maitate neban, emakumezko bakarra ikusten neban noz-

beinka etxe aldien, eta niri jera utsez ibilten zan eta...

Bigarrena goguan geratu jatana au da: auzuan, Armola Torre baserrixe erretan ikusi neban. Gure etxetik lareun metrora egoan, baña ain gar aundiak botaten ebazan, geuriai sue emon biar eutsela uste neban. Eta nire begiek orduen ikusi eben legez ikusten dabe, eta ori jazo zanian, ogetazortzi illabete neukazan, etxe orretako bat jaio berri egoalako, eta geienbat orregaitik obeto gogoratzen naz.

Eta irugarren goguan geratu jatan jazoera, au izan zan: aitak sarritan esaten eustan ama ikustera Bilbora biok juaan biar giñala, eta ni pozik!, aspaldian eneban bere arpegirik ikusten eta.

Jai goiz baten, oso goiz eldu giñan Berrizera, emen tren artzeko. Ona arte, asto ganien eroan ninduen; eta astua itxi emen lotuta illuntzerako eta trenien, ni pozik, galdetuz ez zaldik ez idik tiretu barrik, zelan juaan ete leiken ain bizkor, keie dariola lapiko aundi bat aurrien dabela.

Eldu giñan ba Arenetara, eta ori ondo goguan jasota geratu jatan: amaren arpegi gozua urriñera ikusi neban, eta, aita itxi urrin atzera eta bere besuetarra nintzen.

Meza entzutera irurok izan giñan; eta gero, berak azten eukan neskato ori burdi dotore baten ebala, ondartzara juaan giñan. Eta an, nire moduko koskorri asko ebillen euren jolas tresnekin. Ni be bategana urreratu nintzen. Onek pala txiki batekin ondar pillue egiten ziarduen; nik eskatu egiten neutsen; eta berak ez emon, eta nik alako baten, derrigorrez kendu egin neutsen. Eta, jakiña, bestiak negar eta garraxi, eta ama etorri jatan eta:

-Ori ezta egiten -esan eustan-. Eskatu egiten jakoko mesedez,

Eta nik amari onan erantzun ei neutsen:

-Eskatuten izan deutsat, baña orrek eztaki berbetan be.

Bai ba! Nik euskeraz egin eta bestiak gazteleraz, eta biok jauntxu, eta azkenian indarra nagusitu.

Eldu zan atzerako tren ori artu biarra; eta nik ama be geuregaz ekarri nai, eta ezin... Nire atsekabiek ez eukan amairik eta, erdi negarrez, trenera, eta andik astora; bide geiena lotan egin ei neban.

Onek iru jazoerok dira lenengo nire gomuta buruen geratu ziranak, iru urte nituenerako.

Eta laugarren urterako ama etxeratu zan, eta amaren ondoan beti pozago.

Urte orren barruan gogoratzen naz, aitik txal bat saldu eban Eibarrera (geienetan ara saltzen ziran emen inguruan). Eta soka bat lotu adarretatik, eta oñez Eibarreraño, ogei kilometro pasauen. Geienetan edo beti, akuluagaz atzetik eragitalle, bada ni izen nitzen txal orri eragiten. Bezpera eberdixen urten giñan; eta gaberako, Ermure: izekuenien lo egin, eta goixien goix, Eibarrera.

An txal dirue artu, eta mendiz, Markiñara, ango perixe egune zan eta. Eta aruzko bide au bost kilometro inguru luziagoa zan: lenengo aldatz gora gogorra zan, bost bat kilometro, Isuko tontorrera. Subertez, emen bat egin giñan peria orretara joian andra bategaz. Eta onek, astua beragaz, eta ni, asto onaren ganian, otzaran sartuta lo edar bat egiñez. Eta ama be perixan eguen astuaz etorrita. Onan ba, mendi-bide orrek be, ez eusten guztizko aldrebek urten.

Onan gogoratzen dot lau urtegaz zelan osaba Joxe Marik lepuen artute kanpantorrera eruaten ninduen kanpai jotera domeka atsaldien bein baño geiagotan, krixau egonda eguan Sakristauanien eta. Au eltzen ez zan leku gitxi zan emen inguruen, bere ezizena be "Xague" eban da.

Nik iru illabete gitxiago nituela bost urterako, jaio ziran Santi eta Paulino bikotie. Emen be, sortu da beste ardura edo biarleku bat. Len be asite nenguen neure egin biarrekiñ: morokil galarie garbitu, iturriko ura ekarri, olloei txabolara jana eruan, beien aurrian itaurren egin eta beste ainbat... Eta bikote orrek ekarri dituenak gañera orain. Geruago eta biar geiago egin biarrez sei urtegaz; eta, emen dator aldi barri bat.



Tomasen aita eta ama



Eskola girua

Sei urte pasau eta laster asi nitzen eskolara. Alegrixo, nire jaiotetxio, bizitza bikua da, eta bestekotik bi juaten ziran: bata, ni baño urte bi zarrare, eta bestie neugaz baterakue. Olan, ba, iru juaten giñan. Baña noz juaten giñan eskolara? Beirik zaindu biar ez zanian, itaurren, ume zain edo beste biarren bat aurrerago ez egoanian. Negu aldien, uts gitxiago.

Eta gero, maixu burgales bat geunken, ardaua bera baño mozkorrigo bat; Baldomero, bere izena. Eskolan ziran zartxuenak ipinten ebazan guri erakusten, eta beti bera lo zurrustada baten.

Eta ni idazten asita nenguen *i*-ak egiten, eta *i* orretatik *l*-ak (eleak) egitera pasau ninduan. Eta *i* orrek legez, goitik bera asten nintzan eta ez eustan ondo urteten; da betik gora asi biar; baña luma zar orren punta zorrotz ori katiante, papera zuloz eban, eta paper ori iraztontzia baño zulo geiagokaz neukan, da iñok ikusi ez egian, besapian tapetan neban. Da olan egunak eta illak aurrera neroiazan.

Alako baten, lagun batek neure eskuaren gañian berea ipiñi eta eragin eustazan mordo bat; eta artu neutsen arte ori ta laster bete neban papera. Baña maisuari erakusteko bildur nintzan, da illabete baño geiago euki neban ezkutuen. Lagunak esaten eusten juateko mozkorrigoz lo egoanien, da plana barri bat ostuteko. Baña bildur nintzen, eta alako baten lagun orrek atrapau eban barrixe, eta zar ori

kolkora neban, sutara botateko. Eta andik aurrera-kuek ondo betetan nituen, da laster aldatu eustan beste letra batera.

Eztago esan biarrik ordezkua eta guk zer egingo genduen: ikasi ez beste guztia... Gañera ni, itzarrik egoenien be, maisu orrek okerreko begiz ikusten ninduen.

Urte bi aurretik inguru zala, gure osaba Jose Marik, eldu anka bietatik eta an baztarrien egoan tramankuluren bat artuz, buruaz jo eragin da burua erdi apurtuta itxi eban. Ondoren, luzero ibili zan osaba ori nunbaiten atrapau gurarik; baña au oso azkarra zan –“Xague” izena ipiñita euken–, da iñoz ezin izan eban atrapau ba! Andik lasterrera, amazortzi-emeretzi urte zituela, Ipar-Amerikara juan zan, eta gaur be an bizi da larogetamar urte pasaute. Lau aldiz izen da emen be.

Sei urtetik eta amabira bitarte izan ziran gure eskolara noz-beinkako osterok.

Laster jaio zan Felipe, bostgarren anaie.

1917-ko martixen juan zan aite Ipar-Amerikara. Eta ondiño illun egoala, aitag ni bakarrik itzartu eta esan eustan:

– Ameriketara noie, eta amari lagundu biarran.

Eta bostoi mosu bana emon da juan zan. Ama se-guru negarrez geratu zan, ardure guztiak bere gan arturik.

Gu bost ume giñan: nik zortzi urte ez neukazan; gazteenak, bat pasau; emeretzki urteko krixadie, Julia, Nabarnizkue, neska ona ta fiñe. Auzokoren batzuk ekarten ebazan korta eta mendi-biar gogorretarako alogerien, eta aurrera. Eskolara uts gitxiago ez zan izango guretzat beintzat.

Guk, gure modukuak dabena, laguntza eta biarra baño jolasa naiago. Etxe biotan, zazpi edo zortzi batzen giñan. Gauza on bat egiten bagenduen, bi al-

drebeskeri egiteko; eta onetan, ni maixu. Gauzarik bildurgarriena bazan be, ezin itxi.

Baten, gaztiok bakarrik etxe aldien giñala, aurretik neukan buruan pasaute, an komoda baztarrian ainbat bider ikusten nituen errebolber baten kartutxuek, eta zelako otsa ateraten eben jakin gurie. Eta, bat artu eta ipiñi arri baten gañien, eta beste bategaz jo neban gogor, beste laurok edo geixago be inguruen gengozala. Eta bai ots edarra atera eragin be! Neuri belarrixek erdi gortute, soñu baten ipiñi eustazan. Eta Santiago anaiek aiena didarra egin eta negar egin eban. Eta nik, maixu legez, danei:

–Orain ixilik gero!

Baña amak jakin eban andik edo emendik, eta, sabai baztarreko komune zan gurien kartzelie, eta an sartu ninduen.

Baña guztia ez zan or amaitu. Andik bost egunera, ama umiei soñekuek aldatzen asi zan, eta Santik, “ai!” eta negarrez: soñekue besuen inkauta odol gogortuagaz eukan, eta barruan, balian kaskilluegaz, besue baltzitude. Eta amak, ostikoz, neu bialdu medikutara, eta nire atzetik laster azaldu zan medikue. Eta ni an nenguen, ez urrin, zuloren baten, zer esaten eutsen entzuten. Eta esaten eutsan:

– Anaiari... tirua emon! Anaiari! Neuk sartuko dot gaur kartzelara!

Eta nik au benetan artzen neban, nai ta be alan ez zan izan.

Atera eutsan kaskillo ori, eta geiagoko barik egun batzuetan ondo osatu jakon. Gure tartian be, naigabeak ziran laguntza orde.

Beste baten, eztakit onek noren burutik urten eban, baña beste bizitzako Maria, ni baño bi urte zarræue, eta Domingo, nire edadekue, juan giñan azkora banagaz, eta apostue egin genduen, zeñek irune arbola bota aurretik. Orduen, oin piñue legez,

aritz, pago eta abar landatzen ziran, eta emen zortzi edo amar urte inguruko aritz totoluek egozan, eta ondue baño metro erdi goragotik bota genduzan! Apostua neuk irabazi neban. Baña okerra egin genduen be bagenkien, eta ixilik.

Onakuetan, geienetan, nire lepo jausten ziran; baño oingoan, batetik, besteko basuen izen zan, eta bestekuek ziran bi. Ez zan nire lepora etorri, eta kaltetie bakarrik lur jaubiari etorri jakon. Gero, bestekuok, an solo edarra egin eben, une lau-laue zan eta.

Gure aitak, ezkondu eta urte betera itxi eban eungintza-biarra. Gela aundi bat bete zan, eta geiago: ganbaran sartu ziran tresna guztiak. Apurka-apurka, geuk apurtu genduzan. Gaur arek, zaindu balira, milla asko balioko eben. Gure lagun artian, zenbat olako!

1918-aren azken aldera, "gripe" izenagaz, gaixote txar bat agertu zan. Bestekuen, Domingo eta Juan anaiak il ziran zortzi egunen barruan, eta olan beste etxe askotan. Egun guztietan il-kanpaie entzuten zan.

Gurien, ama eta bost semiok, eta Julia be bai; eta onen ama be, Nabarniztik etorri bera gobernetara, eta bertan gaixotu! Eta zortzirok batera. Eta onen aita be etorri zan laguntzera Nabarniztik, eta emengo osaba Bizentek eta bixek, ganau eta gaixo. Ardaue sendo edan ebelako gaixotu barik, zaintza eta gobernuen eurek arduratu eta aurrera atera ginduezan, naiku ordu larriak pasaute, zer esanik eztago. Baña bizitza au larrosa eta arantza da.

Sagar-urte ikaragarri bat 1919-an izan zan; eta gañera garau ona eta gaixo gitxikue. Baña salduko baziran, asko mobidu biar zan. Eta negu eta udabarrari aretan, astian iru osterara egiten genduzan: bi, Eibarrera, bat Durangora, auzuetan libre topetan ziren astuek eta abar artuta. Askotan, bost be bai. Eta

ama eta biok juaten giñan: arek zestokadak saldu, eta nik etxietara eruan. Ni amaika urte nituanerako asi nintzen bakarrik juan eta saltzen, erostalliekin burruka asko egiñez.

Eta emen inguruan zan auzo batera ezkondu zan Julia krixadea, eta agur egin geuntsan guk ainbeste maite genduen lagunai. Beran eztegiure etxeko guztiok juan giñan; eta nik, gañera, amari sei bolandera ekarri eragin neutsazan, an neuk botateko gero. Iñok sue emon baeutsen be, nire eskutik urten biar izen eben: bat, etxien urtenkeran; beste bat bidien, eta bestiek, bertara eldu giñanien. Onako gauzak nk buruen dotaz, eta baita ipiñi be pasau ziran lez.

Gauzak asko aldrebestu ziran, eta ama emen ebillen, lantzien mutillen bat edo beste il batzuetarako topau naian. Baña asko nasaitzeko erie etorri jakon: osaba Gregorio etorri zan, amabost urte eginda, Argentinatik, belarrietarañoako bibotiekin.

Baña bibote utsa be apenas ekarri eban. Diru usaintxue be artzen eutsen inguruko neska arroskona guztiek; baeban naikue nobixe...

Nik amabi urte betekera inguruen etorri zan aita Ameriketatik, lau urte eginde. Baña eskoliari itxi egin biar udako bakaziñuetatik aurrera: alan zan gure denporako legie. Neure eskola-denpora guztien sasi-eskola baten egin neban bakarrik, eta bertan amak ortosik bialdu niñuelako.

Goixien, egun atan, bik edo lauk eskuetatik eldu eta tatarrez ekarten neu ibili ninduen, eta abarketa barrixei bibote aundixek urten eutsen: eta ama konturatu eta asarre gogorra egin eustan; eta ez zan falta izan nok esan zertan ibili nintzan. Arratsaldian oin-utsik bialdu ninduen, baña an sasiondo baten pasau neban. Eta, etxera nintzanian, baekien, bestiek esanda, enitzala juan. Asarre gogor bat egin eustan, urreguan berak eskutik eruango ninduala eta abar esanaz. Baña or amaitu zan guztia.

Olan izan zan gure eskola-denpora guztixe. Oin-guek, amabi urtegaz “5º, 6º, 7º, 8º...” eta kontetan etorten dire. Eta guk, urte orrekin, oraingo *básica*-rik be ez. Abeza eta pizarra bat poltsan, eta norberan izen-abizenak ozta-oztan idazten ikasi. Nire lau seme-alabak, seine urtegaz eskolara juan ziranerako, eunera arte zenbakiak, batuketak, eta euren izen-abizenak egiten eta idazten etxian ikasita juan ziran. Ni amabi urtegaz orrenbeste ez nitzen.

Morrontza

Aite eta osabie naikue ziran, itxura danez, etxe-ko biarretarako gizon aldetik; eta ama libre etxequetarako, batez be aurreko urtiei begiratu ez-kero. Eta gure denporako obabide bakarra morrontza izaten zan, eta nirie be bai.

Udan eskolari itxita nenguan, amabi urte udabarrarian pasauta. Urriaren lenengo egunetan, Zeinke auzuneko Goikoetxe baserrira jua nintzan. Auzune onek amairu etxe; bakotxian famili bat, zer esanik ez, eta guztiak alkarren ur. Erri txiki bat emoten eban, guztiak ziran ezagun, errian zan eta. Goikoe-txe orretan, senar-emazte urtietan naikue sartute ziran: seme bat euki eben, neuregaz eskolan ibili zan, eta gripe zoritxarreko orrek eruan eutsen. Amaika olako atsakabe itxi eban ainbat familitan! Eta beste loba bat euken eurentzako artute.

Astelen baten urten neban etxetik naikue penaz, zer esanik ez, nai ta iñori ez agertu penarik olakue-tan. Amaren buruko zapien ipiñi jaietarako jantzi bat, asterako beste bat, eta soñian beste bat; lotu lau puntok zapi orri, sartu makillan eta lepora, eta etxetik kanpora urten neban. Eta osaba Gregoriok bota eustan leiotik narruzko poltsa txiki bat. Erdian eukan gordelekutxu bat. Emen, ogerleko ziderrezko bat; eta albuana, amar txakur-aundi eta lau txakur-txiki. Eta esan eustan:

-Guk orrenbeste ez genduen gastetan urtien.

Eta ni beti izan naz bestiek baño gitxiago ez ize-tue, eta benetan artu neban.

Nire urte guztiko soldatie au izan zan: ogetamasei ogerleko, jaietarako alkondara bat, abarketa pare bat eta, astegunerako, urratzen ziran beste oñetako eta praka alkondara. Orduan naikue ziran Jaungoikuak emondako kantzontzilluek, eta aurre-ra! Illian diruten urteten eban amabost pezeta, egunien errial bi. Olan asi zen nire morrontza.

Baserrian oituten ziran biar guztiek banekizen. Baña emen beste bi biar ikasi biar izen nituen: eskuaz bedarra ebaten eta laixetan. Alegrixelaue zan geixena, eta golda aundixe geunken urte asko aurretik; eta emen, txiki bat eta laixak. Onan, ba, ofizixue guztiz ikasi neban, eta urrenguen soldata geixago irabazi neikean.

Etxekoandriek jakin eban ni juaten nitzala sagar nai beste gauza saltzera Eibarrera, eta noz-beinka bialtzen ninduan, auzotik beste batzuek joiazenian; eta ni pozik! Artutako txanponok emon eran, errial bi emoten eustazan, eta olan, osabian txanponei be lagundu eta abar, ondo.

Urtie aitu baño lentxuago, eztul-katarru gogor bategaz etxera juan da ille bi egin biar izan nituen; eta, urrixen urtie amaitu biarrien, Gabonak arte luzetu biar izan neban. Baña nai eta kontuz ibili gatatagaz, pezeta bire murriztute egoan zorru ori, eta auzoko bost lagunek pentsau genduen Gabon-kantetara juatie. Au izaten zan Gabon bezpera gabien. Nik eta beste lagun batek genkizen bertsuok, eta beste irurok erreza euken. Au bakarrik, bertsuaren ondoren: "*Maria y Jose, Jose Maria*". Gau guztian ibili ondoren, amaika pezeta batu genduzan, eta onan banandu: bertso abestari giñanok, irune pezeta; eta beste irurak, bi eta erdiña.

Eta, Gabonez, ganau jatekuak egin eta morrala artu makillan, eta urteko saria kolkuan; eta osabak emondako poltsan be ondiñok ogei errielekua barruan, amalau illabete egin da gero kanpuan.

Comillas

Gurasuak proposatu eusten, eskola apur bat eta erdera be ikasiaz, an egonaldi bat; eta ni, danerako prest. Erregen bixamon goixian urten nitzen. Baña orainguan morral oi narruzkua zan, Ameriketara be eruateko modukoa. Durangotik joiazan beste gazte bi, an abade ikasketak egiten egozanak, eta onekin bat eginda juan nitzen.

Ara elduta, zer esanik ez, beti baserriko bakartadia baño ikusi eztaben batentzat, aldakuntza gogorra. Etxe aundi, garbia eta abar... Bosteun lagundik gora ziran guztira: fraille, ikasle, morroi... Berrogetamar inguru morroitán be. Anai Guenaga zan gure nagusi egiten ebana, giputze; eta beti euskeraz onek egiten euskun. Baziran zortzi *ermanu* euskaldun, eta danok giputxek. *Padrerik* bat be ez euskeraz egiten ebanik, egon arren lau lurraldetakuak. Napar batek apur bat, eta onengana juaten nintzan konpesetan. Baña onek be aitu bai,baña erantzuna erderaz. Ori be ikasteko asmoz juanda nenguan, eta ondo etorri bedi.

Guenaga orrek artu eustazan zeaztasun guztiak, batez be ara arte izan dotan biximoduarena. Eta eruan ninduan sotanora. Emen afaltzen eben morroi guztiak, eta berton egozan garbiketarako gertakizun guztiak. Eta euren jan oste guztietako biarra, ontzi orrek garbitu, siketu eta euren lekuetan atzera eruan, iru aldiz egunien, zer esanik be ez. Eta onek afalduta egozan, eta ni ez; eta aren biarra ikusiez nik an afaldu neban.

Eta afalondo guztietan, danak ixilik, binaka ipiñi eta bikote bakotxak ontzi ori bete patata zuritu, erro-

sarioa errezauaz eta ondoren beste irakurtaldi bat entzunaz. Nik egun orretan bakarrik begiratu egin neutsen zelan egiten ebezan; eurak be neuri asko begiraten eusten, eta barreak egiten ebezan. Guzti ori bixaramon goixian argitu zan. Bautismo barria ipiñi ezinga ibili ziran, baña atzenerako erabagi eben. Urrengo goixian jaiki nitzenetik aurrera, "Porras" izan zan nire izena morroi guztientzako; eta ni legez beste guztiak be, lenengo egunian ipinten eutsen izenagaz.

Bixaramonian, ni be bat geiago nitzen ekintza guztietarako. Len aitatutako biar aren gain, talde txikiak, baxotxa bere gidariakin eginda egozan. Salak, korredorak, kristalak, komunak eta zer ez egotan garbitu biarrik? Eta ni be an nintzan, onetariko talde baten.

Onetan illabete inguru egin eta baratzen ardura eukan Aita batek eruan ninduan lorategiko bedarrak ebagi eta abar egitera. Eta, emengua amaitu zanian, labanderixan egoan utsunen bat eta ara eruan ninduen. Lau mutillek bakarrik etxe aretako erropak garbitu, siketu, tolostu eta bariku eberdirako eruatzen geuntsen, an praille zar pillo batek, botoiek-edo apurturik baeban, konpontzeko. Eta geuk, arratsalde ori eta zapatue jolaserako ateraten genduzan, eta gu or pozik, pelotan edo fubolian egiteko. Gañera, laurok giñan euskaldunak.

Emen gustora nenguen, baña ni ospitaleko labatibia legez artu ninduen: bakerixan bat jua egin zala eta besterik ez egoala bei jazten ekienik, eta orretarako eruan ninduen. Aurrerantzeko egonaldi guztia orretan izan zan: ogetabost beitik gora egoten ziran, eta onek egunian bitan jatzi, garbitu, jana ekarri, emon eta zer ez? Lau giñan onen arduran, eta iru euskaldunak emen be. Eta nagusi egiten ebana, emengo baserritar bat izandakue eta ezkondu, nabegetan-da ibilitakue. Sudur puntan euli batek ikutzia, naikue birau biribilletan asteko.

Beitegia eta txarritegia andik irureun bat metro-ra egozan; eta geure logela eta guztiok be an geunkezan. Jatera juaten giñan, eta onetara be bestiak ontzi garbiketan ziarduenian. Beste morroiak, apaldu aurrian, ordu beteko eskolie eukiten eben, eta agur gure ikastiok! Beste morroiak baño ordu bete goixago jagi biar izaten giñan, gosariak egiteko sukaldariei esniak ekarteko: bakotxak ontzi aundi bi, aga baten, gabekuak gabian eta goixekuak goixian. Eta esneok ekarri eran egiten genduan gosari bat; eta ganau-gobernue eta kortie garbitute juanda, beste bat. Eta baten, gogoratzen naz bietan zortzi katillukada jan nituala sopaz bete-beterik, eta Gue-nagak zelan esan eustan:

-Tomas, ik gaur egiten duan lanak ezтик balio orrenbeste.

Gu, biarrez, bestiak baño geiago eta gogorrago. Baña beste morroiak ez eben ardaorik ikusten, eta guk bai: lau kuartillu. Amarretakuen asi, bazkari-tan, arratsaldian eta afaritan. Gu irurok baño geia-go edaten euskun zoro orrek. Baña laurotatik gaz-tiena nitzen ezkerro, ni juaten nitzen egun guztietan erdi lurpien egoan despensa aundi batera. An ez eguan gauzarik ez dot uste izango zanik.

Bertako buru egiten ebana *hermano* Santos zan, oso zarra gañera. Eta geienetan, bakarrik topetan neban, eta iñoz lagunik eukanian, bere antzeko zarren bat edo beste. Beti goixian juaten nintzan. Bera asten zan geienetan niri ulia artu nairik, eta nik be bai berari, gozokiren bat kendu al badeutsat edo. Eta iñoz zerbait kendu be bai, gauza aundirik ezpazan be.

Ni ara niñoienerako, prest eukiten ebazan, botille ardaua, zurixe goixerako eta baltza arrastireko. Eta nik eruaten nituan poltsa bi eta an sartzen eustazan bakotxa berien, danak jan eztaiguzan asi batez edo. Poltsa bakotxien, intxaur batzuk edo piko-pasak, eta iñoz arratsalderako gaztaie. Iñoz geitu eragin neu-

tsan menbrillue, an asko ikusi neban da. Baña au lau bider ez neban lortu azkeneko zortzi illabetetan, egun guztietan an izan arren.

Egun baten, bera konturatu barik, ardao zuri bottillie, mezatarako prestaute eukan botilliagaz, artu neutsan, danak an eukiten zituan mai baten gañien eta. Urrengo goixien naikue bildurretan jua nintzen botako eustala arpegira eta, baña mistik be ez. Itxura danez, ez zan konturatu, eta ni pozik. Eta beste nire lagunok geiagotan be ekartie nai eben, baña nik ez neban nai. Konfiantza apur bat baeustan, eta bera galtzerik ez neban nai.

Tratu aldetik, ezin esan txarto zanik. Baña olako bei aldra batek zeregin asko, eta ordu gitxi guk gura genduzan jolasetarako. Ikustia bakarrik merezi eben partidu asko izaten ziran an, batez be zapatu ta domeketan, bai eskuz, bai palaz eta batez be futbolien: filosofuek teologuen kontra; euskaldunek bestien kontra, burruka gogorak benetan.

Emen porterue don Klaudio Gallastegi izaten zan. Nik ementxe ezagutu neban, atie beteko gizona orduen be. Baloia ostikuaz joten ebanian, beste aldeko atie be pasau egiten eban, eta geienetan ikubillez ateraten eban. Ni an nenguala mezaz be ordendu zala-ta nago. Baña an geratu zan, ni aldatu ta gero be, ikasketa bereziren batzuk egiñez.

Amabostgarren illabetian nenguan, eta etxera etorteko asmotan, nai ta ainbat alegin egiten eusten an betirako geratzeko.

Prieto esaten eutsen; jesuitako ikasketak amaitu ta mezie emoteko urtien zain egoana zan. Bilbotarra zan; ez ekien euskerarik. Bein galdetu eustan nungua nintzen, eta nik erantzun:

-Bizkaitarra.

Eta ori izen txarra zala esan eustan; “vizcaíno” esan biar zala. Elementu ona mutil ori; erakutsi

eban Sabinoren dotriñakue ez zana. Ni orduan ondiñok naiku ezjakin nengoan orretan baña...

Etixerako gertakizunetan asi nintzen, eta esan eusten jantzirik-edo biar neban; eta nik eskatu neutsen biderako jantzi oso bat, traje bat, korbata ta guzti. Ori barik etorteko ez neguan ba! Alan egin eusten.

Autobusien urten neban Torrelavega-ra, an trenan artzeko Santander urire arte; eta an urten eusten geltokira *Hermano Arrizabalagak*. Au zan, ni labaderuen nenguenien, gure nagusi egiten ebana, giputze eta euskaldune. Ni ganautegira jua da laster, au be Santanderko Residentziara destinau eben. Eta bera-gaz eruan ninduan etxera; eta an bazkaldu; eta oso kontularia zan eta ainbat galdera egin eustazan, aspaldian ango barririk ez ebala eta. Seiretako trenan artu biar neban Bilborako, eta baso bete ardao gozo eta iru galleta atera eustazan; eta orduan esan eustan:

-Ik olako ardao gozorik eztok edan iñoz.

Nire erantzuna:

-Oker zagoz. *Hermano Santosi* botillekada osue ostu neutsan eta kortako lauron arte edan genduen.

-Arraiua! Enian uste i ain pikarua intzanik -berak oster.

Eta nik an ostu nebana emen konpesau eta tran-kil noie. Geltokira lagundu eustan, eta bapo!

Bilboko geltokian osaba Gregorio egoan zain, eta onegaz, "*Gerniquesa Restaurant*"-era. An afaldu genduen, beste Ameriketako lagun bat eta irurok.

Ni lotan itxi eta jua ziran sasi-eskola batera. Bixaramonien, etxerako jazten eta gorbatori moldau eziñik nebillen, eta esan eustan:

-Ori barik be, bardin da.

Baña ni ez nenguen orretarako; berak ondo ipiñi eustan, eta bapo! Etxera nitzen, eta erderie, ukan-

dotik be bai! Eskola aldetik, abeza aruntz eta bera onuntz; amabost illabeteko soldata, bidia ordaindu, eta amalau ogerleko sobra.

Barrero morrontza

Nik ez neukan iñungo naigaberik egin biar zana egiteko, aruntzago edo onuntzago. Orretan beti egoan enplegue, onague edo eskasague. Oraingotan be, beste erriko auzune batera: Arta, bere izena. amazpi familia bizi ziran. Auzune au leen egon nintzana baño banantuagoa da. Aizpe baserria zan niñuana.

Senar-emazte naiku gazteak ziran, Iru urteko seme bat eta urtia eukan alaba bat eukezan. Ni an nengounian, beste alaba bat jaio zan.

Ugazabak biarra besterik ez eban buruan. Etxekuak arin eta ondo egin, eta kanpokorik ez eban galduko lan bitarte guztietarako: kantera baten, kamiñuetarako arri jotie artute eukiten eban, metroko onenbesteko baten. Neu be iñoz jua nintzen, gustau egiten jatan biar barrixe be jakitie eta. Gañera, etxien erdi edo oso bakarrik baño naiago be bai, ofizio barri bat ikasiaz eta abar.

Nire urteko soldata larogetamar ogerleko zan, illeko 37'50 pezeta; eguneko pezetia ta ogei zentimo. Erropa-jantzia, beti antzera baten: jaietarako jantzi edo oñetakoren bat; eta asterako, urratu ala.

Emen be etxekoandriek bialtzen ninduan Eibarrera, nai Durangora, sagar, indar eta arrautzek plazara eruateko; eta ni orretarako beti prest, etxera kuen txanpon batzuk emoten eustezan eta.

Emen urte oso bat egin neban bakarrik, eta ez neban uts bat be egin, illuntze guztietan ontzikada esnie Iruzubietara eroan barik, amabi litroko kanti-

ñe, beti ez beteta, baña egoenien egoena, iñoz utsik barik, euri nai aterri, edur nai txingor. Milla eta bosteun metroko bidie, eta dana mendi-bidez. Iñoz ez neban bota esnerik, jausi iñoz egin arren be.

Sei txakur aundi litrue, eta egunien bere dirue etxera. Auzo onetatik bi giñan bakarrik ara eruaten genduenak, nai ta geiago be egon beste batzuetara eruaten ebenak.

Niregaz juaten zan lagune ezkondu be bazan; eta iñoz bera ezin juan eta neuri emoten eustan bere kantiña be. Niriaren antzekue izaten zan negurriz. Denpora ona egoan guztietan ekarten neutsan; obeto esanda, eroaten neutsan; eta bost bat txakur aundi emoten eustazan, eta ni or beti. Baña laban edo euria bazan, ez neutsan artzen. Dana egin guraz dana galtzen jartzeko bidie zan, eta oba bakie. Sarritan biok eta beruntz, zer esanik ez, kontuz juan biar estrepezuren bat izan eztedin. Baña etxeruntzian amaika eztabaida eta erdi burruka erabilten genduen, baña iñoz benetan asarratu barik.

Bein baten, an, etxe ondo batetik, beti legez; eta etxe aren ostian, azkora bat egoan arte-arbola naiku sendoa zan baten onduen, eta proposamen au egin neutsan:

-Neuk arte oni lau azkorakada emon arte, ezetz egon gañien.

Eta arek: "nik ezetz esaten badot, zer esanik ez, baietza berak". Nik bestera esaten baneban, bestera berak. Edozenbat duda eta eztabaida, baña jokatu doguz aldian geunkezan esne-diruok. Nik itxi nituen an alboan egoan arri baten gañian, eta berak be bai. Eta igon eutsan, eta igokeran esan eustan:

-Gero, neu azkoriaz ez jo, e?

-Ez aut joko, igoten badok goi samarrera.

Eta alan egin be! Artu neban azkorie eta emon neutsazan iru golpe onak, eta esan neutsan:

-Ez az ondiño bildurtu?

Eta erantzuna:

-Joik, jo, potro zorrixorrek!

Nire erantzuna:

-Kantsau egin nok, eta bixer esniagaz natorrenien emongo dausat laugarrena.

Eta artu diru guztiak eta anka nik! Baña laster atrapau ninduan, ezin neban bizkor egin barrian barrez eta. Astindu edar bat emon eustan, bere diruok kendu eustazan, eta leengo beste lagun geratau giñan.

Baten, ugazabak txal bi saldu ebazan eta eruan genduzan Berrizera, angua zan eroslea eta. Etxera etorteko erreztasune ikusten genduen: egun guztietan Markiña eta inguruetarako enkarguz etorten zan kamioia kargetan ziarduela, eta an etorriko giñala, eta esan geuntsan gidatzailliari gañera, ugazabaren ezaguna zan eta. Jarri giñan kamioian, atze aldie utsik eukan eta. Esan geuntsan txoperrari Zubi Barrin gelditzeko. Baña aztu-edo eta aurrera joi. Neuk esan neutsan ugazabari:

-Jarri atzeko eskiñetxuen, pixkat gora salto emon, eta kamioiek aldeko ebala azpitik.

-Olan ez -esan eustan-, min artzeko bidia da ta. Oni onan egin biar jako: ikusi neuk zelan egiten dodan, eta zuk be, bai, olantxe egin. Eldu emen atzien deuken eldulekutik, segidu bizkor, eta aindu eran, gogor sakatu. Olan egin bide -esan eustan.

Eta, asi zan bera. Segidu bai, elduta egoan arte, baña sakatu ezin, eta or dator atzien ainbat bidian tatarrez, zaku patatie balitz legez.

"Nik olan ez", bat-batian pentsau neban. Atzeko eldulekutik txintxilik, kukil eginde, bat-batian agindu neutsan, eta or noie automobil orren burpil batek urten baleu lez bere ondorik!

Alan da guzti, naikue aberi gitxi egin genduen. Barre egiteko moduen geratu giñan, erre kara j uan

da urratuok garbituez. Bera ni baño askoz geiago urratu zan, baña ondo.

Ondiñok, gañerako egunetan eta illetan be, ori aitatzen zan bakotxien, barre sendo eragiten neban; eta gaur, irurogetaz urtiak dira ori jazo zala, eta nire begixek ikusi egiten dabe eta barrez amaitzen dot.

Urte ori be azkendu zan eta etxian biar nitzen, osabie ezkondu egin zan eta. Ez zan ain errez jausi sare orretara; baña azkenian, inguruan-inguruan dabillen arraiña, barrura.

Onan, ba, morrala lepora eta urteko lan-saria sakelera, eta etxera. Baña bidian kili-kili egin eustan eta pago andixan azpixon jarri, eta zabal-zabal ipiñi nituen amazortzi bost duroko. A zan edertasune!

Gogoratu jatan gaztetan sarri entzundako Peru eta Marixaren ipuiñe: lapurrak, ostutako diruak kontetan arbolapien, Peru eta Marixe arbola orren gañien: Peruk eta Marixek, biek batera:

-Lapurren sarixe, kartzela eta mixerixe.

Au entzutean, lapurrok diruak bertan itxi eta anka. Niri be beste ainbeste jazo eztakidan, batu eta etxeratu nintzan.

Soldautzara arte

Etxeko bizimodua: aita eta ama etxian, bi gaztienekin, Gregorio eta Karmen. Aita Ameriketatik etorri ta lenengo jaio zana Emilia zan, eta au ni Comillas-en nenguela il zan. Juan, Santi eta Paulino, Gabiriara paxionista egiteko asmoz ara juanak ziran, eta Felipe be preste egoan. Eta Tomasek utsune guztiak bete biar zituan, gaixo-etxeko aixuria-labatiba legez, leen be esan dodana; baña danerako prest.

Amazortzi urtera be urreratuez, erromeri usaintxuek be artzen. A zan sasoi! Biarrik ez zala faltako segurua zan, baserrian iñoz eztan legez; eta etxetik kanpo be txanpon batzuk poltsikorako be egiñez, eta abar.

Emendik nik ogei urte nituen bitartian ainbat barrikuntza egin ziran: Simon Bolibarren estatua, pelotalekua; eta elizan be barriztatze aundiak egin ziran. Eta guzti onek Venezuela-k ordaindu zituan.

Onekin batera egin zan kanposantu barria; baña au erriak egin eban osorik, auzolanian eta abar. Zimentuak atera lenengo. Gero, bakotxak onenbeste metro kubiko arri ekarri, guztiak kantera batetik, bakotxak ordainduta arri eta ekarte. Gero, argiñak; onek be errikuak, bat ez bestiek. Errikuak, eurei toketan jaken eguna duan, eta bestiak alogerian.

Eta an be suerte bat izan zan. Lenengo ormagiñen asteko egun orretan, arratsaldie zan; argiñe bat bakarra, eta ni pioi. Sarkaldeko kantoien asikera emoteko esan eustan:

–Bota or arri or.

Eta esan eban:

–Lenengo arria bedeinkatzekue izeten dok; baña emen etxagok nok bedeinketu. Onek, abadiok, eurak dituk utsik aundienak egiten dituenak.

Biok egin genduen Aitiaren, eta:

–Au izan dedilla bedenkaziño. Eta au ez bakarrik –jarraitu eban–, asieran idazti edo agiri bat biar zuan, emen zelan lenengo arria ipiñi dogun biok *Alegrixeko semiak gaituk*.

Berez txistosue be bazan, eta au oin egoki etorri jakon. Ez dago onen agiririk iñun, ementxe izan ezik.

Bera ni jaio baño iru-lau urte aurrerago juan zan ezkontzaz Alegrixen beste bizitzatik Markiñako partera erriz; baña elizaz, emengua. Nire amaren lengusua nire aititaren anaia zan aren aita. Eta ara zelan, irurogei urte geruago, gizon aren burutapenak agiri ontan.

Kanposantuen gai au amaitzeko, ondo dago beste au be: eztakit zenbatek izango daben goguan geldituta nor lurperatu zan azken iltegi zarrian; eta nor lenengo, barrian. Ba au nire barrutik ezta aldendu irurogei urtian. Zarrian azken sartu zana, Zeinkeko Onaindi-aurreko Martin Gandiaga, “Martin Gorri”, gatxizena. Barrian lenengo sartu zana, Munioz-ganeko ume gazte bat. Asko erre eta il zan. Izenik eztot gogoraten, baña Larrinaga abizena. Nagusietatik, Agustiñe Lezartzako; urrengo, bere loba jaio barri bat, Arta-goitikue. Eta onan entzuten zan gañeko egunetan batzuen aotan:

–Lezartzako Agustiñek eruan ditu aingeru bi zerruan sartzeko.

Ogei urtera urreratuz, jaiak, erromeriak eta neskatxak asko buruan, sasoian sasoikuak moduan.

Ogei urte aprillian pasaute neukezan. Iraillaren 16-an, Santa Eujenian, lenengo aldiz lagundu neu-

tsan andrageiari, aurretik be beste askorena juana nitzan arren. Berak amazazpi urte april aretan egiñak zituen. Andik iru bat illabetera juan zan bera neskame Bitorira. Etxeko aiztiari egiten eutsazan karta guztietan bialtzen eustazan lerroren batzuk: eta onakuek beti ikutzen dabe biotzian, eta neuk be erantzun egiten neutsan. Or asi zan gure lorrotza, andik aurrera alkartu arte.

Soldadu juan nitzen aurreko negu eta udabarriaren zati bat, Mallabiko erri-basuak garbitu eta piñu sartzen ibili giñan, Diputaziñoaren konture, ogetabost lagundik gora. Erdiak inguru, emen Goillebar ingurutik; eta bestiak, Mallabi aldetik. Bederatzi orduko biarra, zazpi pezeta, ordurako naikue irabazi ona, beste lekuetan bost-seikua izaten zan eta. Baña ez zan lo egiterik izaten, geienetan alkarren leian ipiñita eragiten euskuen eta. Txakur zarrak ziran kontrata au artute eukenok; eta gazte gu eta eskarmentu gitxiko, olako azerixentzat.

Baña umorie eta jolas gogue, eztabaidie, jokerronkak be, ez ziran falta izaten, batez be geldi bagangozan. An batek ainbeste bider erronka au botaten eban: gizonik burrukalariena berak esku bategaz bakarrik bota baietz! Eta kondeziñuak, onek ipinten zituan: berari eltzen itxi lenengo eta, berak elduta-kuen, norberak berari esku bixekin nai daben lez eldu daiola, eta bota baietz. Bistan egoan truko bat izan biar ebala, baña iñork ez geuntsan antz emoten zer izan leiken.

Alako baten, jokatu eta dudak kentzie erabagi genduen, truko ori be zelan zan jakiñez. Eta neuk jokatu neutsan litro bi ardao guztion arte edateko. Onan zan truko ori: bera nire atzeko aldetik plantau, nire anka bitartetik sartu eskue, aurreko praka gerrikutik eldu ondo, eta orduan agintzen eban berari nai dan lekutik eltzeko. Alperrik zan eltzie! Berak emoten eban lenengo zartadiaz, zeure eskuak lurre-

ra bota biar zenduzan, surraz da buruaz lurra joko ezpazenduan. Truku ori agertu zan, baña olakuetan akatsak topetan be asten da bat edo beste, eta oni be ez ebalira irabazi, esku bixek eukezala aldian eta. Ez-tabaidie ugari sortu genduen. Eskerrak asarre gogorrik barik amaitzen zirala.

Baña andik egun gitxira onek ekarri eban beste apostu bat. Baña au irugarren apostua bigurtu zan. An ziran gure talde orretan aurrerago arte gañera jua zana eta ingurukoak. Zapatu goiz bat zan. An, bide zabaletik kamiñotik ogetamar bat metrora egoan telefono poste baten onduan gengoan, biarra as-teko arduraduna etorteko zain, eta oingotan niregana zuzentzen ziran tiro guztiak. An asten jataz:

-Emen postien onduen begiek itxi, eta ezetz jua beko kamiñora!

Nik:

-Baietz, makilla bat eskuan izatekotan!

Eta joko ontan nai eben bost ogerleko bakoxtaren aldetik. Orduan bost afari egoan, gaur millagaz eziñekuak. Baña... iñok ez geunken dirurik eta ezin depositorik egin. Baña astelenian diruak depositau eta jokatzeko, eta pozik danok irabaztekotan, jokuak oi daben legez. Eta danok biarrera giñan, eta an, batek diñost:

-Edarra jokatu dok! Oinguen jausi az eu be tranpan!

-Zer ba?

-Begiek itxi biar dituk postien onduen!

Bat-batian pentsetan ipiñi ninduen, eta andik lasterrera esan neutsan:

-Jokue eztok izen ba begiek postien onduen istie? Baña etxuau esan neuriak ala astuanak!

Au ez zuann berak be tope makala artu. Eta mur-mur ori danen artian arin zabaldu zan, itxura

danez. Aurrenengo ziran jokulariok ixilik egun guztien.

Illuntzien, etxeruntzien, bidian egoan tabernan, ateburuan esegita egoan arkume bat ilda, eta esan neutsan jaubiari begi-goraberako joko bat egin genduela eta astelen goxerako gordeko zituan begiok, eta orrek baietza emon eban. Eta alan, esan legez, astelen goixian neure bost-duroko ori atera neban eta ipiñi beste baten eskuetan. Baña ez eban bestek aren gañian ipiñi gura izan bigarrena. Nik bildots begiok itxi poste onduan, eta eskuan makilla nebala kamiñora nintzan.

Ara iru tranpa-joko edo joko-tranpa! Berbakizun asko emon eben, baña diru-sari gitxi. "Agindua bat, emona bi, aginduaz konpon adi".

Nire beste afiziño txiki bat zan: emen, Markiña inguruan, egiten ziran txinga eruate sariketa guztietara juaten nintzan, eta guztietan lenengo saria ateraten neban; eta ondiñok kintopeko nintzan. Baña, soldautzatik etorri ta laster, baten deitu eusten Abadiñora, onena nintzelakuan. Baña munduen beste ama askok umiek ekarten ditue, eta emen bigarren geratu nintzen.



Alegria baserria

Soldautza

Gure aitonak ezagutu ez eben zor madarikatua dogu ori, sei urtez gerra zikin maltzur baten nastuta erabili ondoren, Bergarako Itun guzurrezkuaren ondorena, gure Kondairan iñoz aztuko ezтана, barriz kendu arte burrukatuko garana.

Ogetabat urte aprillian pasauta nenguan, eta urrengo urtarrillaren 31-n iru illabete falta ogetabi egiteko. Sasoirik onena etxiari laguntzeko, baña danak itxi ta juan egin biar; eta aitak kriada artu biar izan eban laguntzeko.

Durangon genduan guk *Caja de reclutas* ori, eta batu giñan an. Gure kintie azkenengo errenplazue zan; bestetan bi eruanda egozan aurreko urte barruan. Illaren 30 illuntzia zan Bilbora eldu giñana. An geitu jakuzan Bilboko kajakuek beste ainbeste, eta askoz geiago Bizkai guztikoak, seireun inguru. Bazan zaratie eta zurrute ugari!

Gabeko amabiak inguruan ipiñi euskuen tren berezi bat geuretzako bakarrik. Bide guztian, edan ala; edari guztia ekarren Bilbon artuta: ardao, likor eta zer ez? Eta orren ondorenak ziran goguanga-riak. Gu baserrieta erri txikietakoak giñanok, alakorik nok uste? Baña an giñazenetatik, geienak Ibaizabal ingurukoak ziran, Durangon asi eta Santurtzi bitartekoak, eta ganberrukeria utsa zan bide guztian.

An joiazan lau sarjentu, geu zaintzen bialduta; eta zenbat txarto esate entzun eben ez neban sinistuko, neure begiz ikusi ez baneban.

Baita an joian praille pasiotar bat be, bere jantziagaz, jakaña, ain subertez Aita Patxi ospetsuaren Nikolas Gondra anai zarragua. Onek be entzun eban berriak eta bost lotsagarrikeri, baña ez eban onek bururik jaso be egin. Ni be inguruen niñoien. Eta bertan, ur samarrien joian sarjentuetako bat be, eta ondo gogoratzen naz ori, batzuei zelan esan eutsen:

–Gaur otso zabizen legez, biartik aurrera, arkume bigurtuko zarie.

Arek jakin ondo ori! Geltokira oso urreratu giñan, asi ziran edari ontzi guztiok botaten trenaren leiorik ideki barik, kristalak apurtuaz, bat osorik itxi barik gañera.

Geltokian urten giñan, eta ipiñi ginduezan irunaka edo launaka illera baten, eta sarjento bat aurrian, beste bat atzian, beste biak alde banatan, goixeko zazpiretatik erdietara, kalez kale, erdi edo oso lotan egoan erria esnatuaz, artalde aundiren bat zalakoan. Orduan danok “*bee... bee...*” egiten genduan emen, neuk be bai, bixaramonerako itxi barik, sarjentuak “biar” esan eban legez. Kuarteleko patio nagusira eldu ta gero be, ondiño “*bee...*”-ka.

Trumoie lako arpegie eta belarrietarañoako bibotiekin agertu zan komandante bat:

–Ixilik!

Diadar bat naikue izan zan guztiok aingeru biurtzeko, an egin genduan urte osorako.

1931-ko urtarrillak 31, goixeko zortzirik. Banatu ginduezan izen-deiturak esanez lau-bost taldetan, eta talde bakotxa bere konpañiara. Nire taldia *Plana Maiorra* izan zan; eta andik aurrera jakaña da: darentzako “bat, bi!”, oñak markau ondo, fusil edo erabili biar ziran gauzak ondo ezagutu eta abar, guztiak ondo ikasi arte. Eta lau egunik baten, egun orrei dagokien alogera jaso: pezeta osua lautik baten. Baña urrengo il osuan treneko kristalak ordaintzeko ken-

du euskuezan. Ardien pekatuek bildotxak be ordaindu biar. Kuartel onen deitura, onan zan: “*Infantería de Bailén, n° 24 de Logroño*”.

Emen, ain subertez, beste gatzizen bat ipiñi eusten. Eta augaitik zan guztia: lau edo bost egunien neure negurriko zapatarik barik, ez egoalako, aldian eruan nituenakin nebillen. Eta galdetu eusten zer numerotakua biar neban. Nik iñoz eneban zenbakiz erosi, ondo sartuten zana, axe aurrera!

–Bada emen ezteukagu berrogetairukua baño andiagorik,

–Ba, nik gitxiena biar dot berrogetazortzikua; eta ezpadago, banoia etxera.

Eta an batek albotik diño:

–*Ése tiene pie de Primo Carnera.*

Andik aurrera ez zan beste izenik “*Carnera*” baño. Ez ninduen etxera biraldu, ori ez!; aurkitu eben zapaterun bat aundiagoak be egiten zituana.

Andik illabetera, nire destinue morteru baten ardurea izan zan. Tresna orrek mando baten eruaten ziran mendira edo beste lekuetara, pruebak egitera eta abar. Mando orren arduria be, garbitu, jaten emon da ori dana, nire kontu izaten zan.

Primo de Rivera-ren diktaduria zazpi urtien euki eta azkenien jausi egin zan; eta Berenguer jeneralak artu eban agintea, eta onek auteskundeak emon zituan aprillaren 12-an, eta errepublika sortu zan 14-an. Oso aldakuntza baketsua izan zan, naiz eta andik urte gitxira ondoren baltzak ekarri. Nagusi artian egon ziran naigabiak. Soldaduentzat obatu egin zan, batez be janaren aldetik.

Maietz Pazkuetan, bere erriko jaiak zirela eta nik beste Markiñako lagunagaz juan nai neban Logroñotik amabost kilometrora dagon Lanziego errira, erantzunaz erri ontako lagun baten goguari, agertuz gu, markiñar biok, eruan gura ginduazala. Nire lagun

markiñarra asistentia zan, da arek libre eukan gura ebanian urtetie; beste biok ezin genduan urten, eta lagunak sasoiz eltzia nai eban, da zer egin?

Gure jai egunetako urteera ofiziala amaika t'erdietan izaten zan eta berandu eritxon. An, beti, goixeko amarrak aldian urteten eban karru aundi bategen ogitara Intendentziara, eta an ezkutuan juatia pentsau genduan. An sartute gengozan, eta bagoiez dringi-dranga. Baña alako baten urten egin biar, da ikusi barik ezin, eta alako sustorik emon geuntsan karrudunari! Eskerrak mungixarra eta laguna zanari. Bestelan jai ori ta geiago gerizpian egin biarko genduzan. Alan librau giñan errira juateko.

Lagun alabesak ezagutzen eban alkiler-etxe baten bizikleta bana artuta jua giñan, eta ondo eta sasoiz. Erromerira joan, bazkaldu eta afaldu ondo bere etxian, eta egun edarra. Baña berak andragei polite be baeuken, eta illuntzien ezin banandu beragandik, eta kuarteleko atiak ixteko orduan bertan.

Alako baten soltau giñan, eta bost kilometro egin baño len, aurreko burpillian niri pintxazua. Baña aurrera, ez argi eta ez gabon! Derrigorrian ekarri neban, neu gañian nintzala. Baña Ebro errekoa pasetako sarrerako zubira eldu eta bajatu giñanien, ez eban bueltarik emoten, tatarrez. Lepuen artu, eta segi aurrera... Kalietan, serenuek bakarrik. Alkiler itxite, zer esanik be ez. Kuartelera eldukeran, atezaiñek:

-¡Alto!

Onek, guardian danen ofizialarena eruan ginduzen, *Kuerpo Guardiara*. Ain subertez be, "Niño Judío" izena ebana egoan bertako buru, tenientia. Onek, gure erdi atxaki eta abarreko zeaztasunak jakin ebazanien, manta bana artu konpañian eta beragana etorteko agindu euskun: kalabozora lo egitera amabost egun edo illabetian, mantatxo bategaz. Alabesa ta ni giñan kastigua geunkanak, ze, lagun markiña-

rrak, asistentia, egin zeikian nai ebanian sartu ta nai ebanian urten. Olan pasau genduzan egun batzuk: mantak artu ta, txilixua joten ebanerako, kalabozora.

Eskerrak zortzi egun bete ziranien tokau zana gure lagun asistentian tenientia *Kuerpo Guardixan*. Mantakin bajau giñanien, patixuan bost buelta arinarin eragin eta beti legez, kuartelera bialdu ginduzen lo egitera, konpañiara. Andik aurrerako kastigue antxe altzau euskun.

Onan, bajoian azkenduz kuarteleko bizimodua. Etorri giñan guztiok atzera urten erie be olan izango zan ustez, eta alan subertau be egin zan. Eta au, Ibaizabal erreka inguruko gaztedi au, ardaue edaten eta zaratak egiten lakoxie beste gauza on eta alaitasunetarako be; eta azken egunerako jai bat proposatzen asi ziran, agur alai bat egiteko kuartelari eta batera soldautzari, orretarako, errepublikak giro edo erreztasun geiago emoten ebalako eta abar.

Batek eskatu zituan etxera txistu-tanboliñek, eta ezpata-dantzari talde bat batu eban guztion artian, ekienak baegozan eta. Beste arratiar maixu batek abeslari talde aundi bat sortu eban onen-onenakin. Falta egiten eban zer edo zer erosi biar bazan, bakotxak pixkanan, kutxa bat sortu genduen.

1932-ko goixeko zazpiretan urten biar genduen, ain subertez, sartu giñan urte betean eta ordu berean, eta astelena zan. Bezperie, domekie, oso ondo guztiok egiteko.

Baimenak egun batzuk aurrez lortuta egozan; esaten ebenez, naiku zalantza batzuetan, baña lortuak beintzat. Azken domeka eberdi orretan kuartela agurtzia izango zan: lenengo, abeslariak, denpora naikue luzien, euskal abesti asko tartien zala; ondoren, dantzariak. Soldadu asko zan begira, zer esanik ez, etorri barriak, gure agurraren inbidiz; baña izar gitxi agiri zan.

Ondoren bardin, Udal atadian. Emen, alkatie, zinegozi batzuk eta bere emaztie aurrakaz silloietan ezarrite, eta inguruko beste jendetza aundia, guztiak txalo ugari joaz. Beste lekuren baten egiteko zala-ta nago, baña bi onek egin ziranian, gaututa egoan.

Eta lo kuartelian, eta egun-zabalkeran trenera. Zurruta, abestia eta zaratia ez ziran amaitu Bilbora arte, baña kristalik ez zan apurtu.

Gerra aurreko girua

Juan giñanetik etortera, aldakuntza gogorra ikusten zan. Aurreko zazpi-zortzi urteko diktadura baten azpian ezagutu genduen erri ori, buztarri gogor orren azpitik urtenkeran askatasun giro barriaren inguruan murgilduta ebillen. Ixiltasuna apurtuta, bildurra atzera itxita; eta, gañera, errepublikaren izenian, xaxa gogorragua zan, batzuentzako onerako eta beste askok txarrerako artuaz, askatasunaren zabalera negurtu eziñik eta abar.

Gu be, etxera etorrita, zurrunbillo guzti orren erdian; eta, beste aldetik, jolasak, erromeriak, neskatxak eta sasoian sasoikuak.

Ni Logroñotik etorri baño ille bi aurretik etxera zan andragaie be, eta or asten zara pixka bat geroari begira zentzun geiagoz.

Zortzi urteko zapalketaren ondoren, abertzale mobimentu gogor bat sortuaz asi zan, leen aurretik indarrez itxitako Batzokiak zabalduetz, eta barriak be zabalduetz, gaur batian eta biar bestian, zabalkunde ospakizunak egiñaz eta. Inguru guztietara juaten giñan; eta, iñoz baño geiagotan, arrapaladaren batzuk egin biarra izaten zan txapel okerren aurrian.

Eta onako baten, Goillebarren be gitxiago ez nai izan, eta gela aundi bat atondu genduen euskal jantziz eta ikurriñez, eta onek bedeinkatzeko eta ospakizunerako, alan edo olan, neuk egin neban aurkezpena; eta ondoren, Elias Gallastegik eta beste Ondarruko emakume gazte batek. Onan bada, gu be beste askoren pare giñala eta pozik.

Emendik laster asi zan beste mobimentu bat: Euzko Nekazarien Alkartasuna. Au zan Euskal Erriko baserritar guztien sindikatu bat. Indar aundia ar-tzen asi zan, eta emen ingurutik ni ipiñi ninduen za-balkuntzan, erriz erri ibilteko beste ango eta emengo lagun batzuekin, euren tartian injineru agronomo bat. Eta ainbat erritan ibili giñan.

Baña, eztabaidako lege bat zala medio, problema gogorrak sortu ziran baserrietako ugazaba eta erren-tadorien artian. Urte onek aurretik, ugazabak uske-rizko atxaki batgaitik kanpora botateko almen osua eukan. Martiaren 25-erako emon aldetako agindue, eta azaroaren 30-erako etxia ustu egin biar izaten eben. Eta olan ikusten ziran uda-azken guztietan, euren traste zartxuok burdian zituela, batzuk gora eta beste batzuk beera. Etxe aldaketa tristiak: bere jaioterria, etxia, lagunak itxi eta nunbaiten aurkitu daben zuloren batera. Leen euki dituen guzti orrek guztiz barritu biar.

Errepublikak sikuan geratu eban lege ori, eta erreteruak ontzat, bildurrak asko uxatuta. Ugaza-beri be orain jua jakuez leengo kontuak eta *eztok* eta *baidok*. Jauntxuok ezin ori iruntsi ain batera.

1933-an Gobernuan aldaketa bat egon zan. Au-rrekuan *Frente Popular*-ak artu eban agintie, ezker guztiak batera jua ziran da. Baña bigarren orretan komunistak banatuta jua ziran, eta Gil Robles erdi eskumatarrak urten eban agintari. Onek pixka bat aldatu egin eban lege ori, eta emen etorri ziran iñun-diko iskamillak.

Eta gure Sindikatu Alkarte ori lege barri onen aur-ka jarri zan, eta guztiak onen babesera inguratuten ziran. Eta Bizkaian bakarrik, bosteun erreteru, eta antzera beste probintzietan be, ugazabak etxiak uste-ko aginduta. Eta gure agindua, ez jaramonik egiteko.

Baña ugazaba batzuk juezagaz eta txapel okerre-kin jua, da ganau eta traste etxetik kanpora atera,

eta an bertan itxi. Eta guk, gazte mordo bat alkartu, eta juezak aldendu eta segiduen, atzera sartu. Asko dira olan egiñak. Eta emen, gure errian, illundu ebanian, atzera sartu eta gaur be an dagoz bizitzen. Eta ezta au bakarrik: au ikusi ta gero, asi ziran, kotxia juateko tokia bazan, danak erriko plazara ekarten, eta gabaz atzera bertara sartuten. Aitatu dogun gobernu onek lau urte pasau eroazan jazoera onek ziraneko.

Eta 1934-ko oktubreko matxinada entzutetsua izan zan. Asturiasen baketuko baziran, Afrikatik lejonarioak ekarri biar izan zituen Gobernuak, eta ez zan Asturias bakarrik, toki geienetan. Eta gogorre-na, Kataluniako buru zan Companys-ek independentzia proklamatu ebanian. Guzti au ezkertiarren eragin benetan gogorra izan zan, baña indarrez guztiak menderatuak. Eta ezker-buru guztiak igesari emon eutsen, Frantzi, Portugal edo al zan lekura. Bertan atrapau ebena, gerizpera. Eta onan talde bakarra geratu zan, eta etxakon beste biderik geratzen auteskunde barriak aurreratu baño. Guzti au 1935-eko Gabon aldian zan.

1936-ko zezeillaren 16-rako, auteskunde barriak ipiñi ziran. Eta guzti onen asiera arte, batzuk aurretik asi ziran baserriak derrigorrez usten.

Eta egun gogoangarria benetan zezeillaren 3-a, San Blas eguna, Abadiñorako. Egun onetan, Arbaze-gin bakarrik, zazpi basarri ustu zituan juezak. Eta gure Abadiñon, an izan zan trumoi eta txingor. Beste erri askotatik be etorteko ziran legez, geu be Bolibartik sei juañ gñan illuntze alderako, erdi mendiz eta bide zabalez, iñor gitxi konturatu zedin. Eta an, tontorka baten pasaukeran, telefono poste bat egoan ez ain aundie, eta esan neutsen lagunei:

-Orrek gaur gure usainik artzen badabe, *guardia asaltuak* ekarriko dauzkuez. Ebateko tresna bat bagentu, ebagi egingo neukez.

Guztiok ontzat, baña agiñak baño ez genduezan, eta aurrera. Erri orretako bategaz topo egin eta esan geuntsen bidian artu genduen asmo ori. Ez eban ez “bai” eta “ez”-ik be esan, baña andik ordu erdi batera etorri ta esan euskun:

-Zuek esan dozuen ori, egiña dago ointxe bertan.

Gauza aundia egin genduelakuan geratu giñan, baña biarbada kalterako izan zan.

Gabian banatu euskuezen biarrok: batzuk ara ta bestiak ona. An izan zan injineruetako bat be, bera zan maixu. Guztiok juan giñan zerbait egitekotan, baña dana izan zan alperrik: batetik, txingor da euri; ganauak kanpuan lotuta orruaz; traste guztiak euritan; txapel okerrak zaintzen iñok sartu eztagizan, eta geuk, guztiz bustita, ezer ezin egin.

Eta eldu giñan an errian egoan taberna batera. Onek atzeko aldian eukan serrie eta temajana bat; eskatu geuntsen baimena an su bat egiteko bere onduan pixka bat siketzeko, eta baietza. Alan egin genduen, eta bagengozan erdi sikatuen, eta bat-batian ogetamar *asalto*-kok artu ginduezan erdian eta eskuak lotu. Autokar aundi bi eukezan an. Sartu ginduezan su ondoan gengozan bostok bakarrik: lau goillebartar eta gernikar bat. Beste erriko biek tabernan geratu ziran, barrure ardao asko botata siketuko zirela eta. Onek subertie; eta gu, Markiñako kartzelara.

Guregaz joian bat gaztia zan, amazazpi urte egiteko. Sustau be egin zan, eta mariaua gañera; konortik barik legez eldu zan. Eta eldu giñanian, gugaz barbarik egin ez egian arin sartu eben zuloren baten. Bestiok alkarri esan geuntsen:

-Bixer, gero, dana ez-jakin egin biar dogu -erdi agopian-. Ori bai: danok. Eta zertara juan garien preguntetan badabe, *Asto eroatera*, Abadiñora juan biarrien.

Baña, nire ardurie! Olakorik enenguen iñoz pasaute; eta eurek gazte oi goxien lenengo artu, eta dana zan moduen atarako ete eutsen bildurre neuken.

Gauza grabetzat egoana telefonuek ebatie zan; geuk ez genduzan ebagi, baña nok egin zituan bagenkixen, eta ez genduen salatu nai.

Beste laurok be sartu ginduezan zelda banatara, manta zar zikin bat emonda bakotxari. Trumoie, txingorra ta euri-otsa kanpuen. Goixaldera eta arduraga geiago; atiaren barrenian ipini agoa eta diadar egi ten neban bere izenaz eta etxiarenaz,:

-Joxe Uberuaa!...

Eta baita erantzun be, urrin batetik.

-Bixer, dana ez-jakin, gero! Eta asto bille juañ ginala!

Eta onek:

-Bai!

Onan, lantzien-lantzien deitzen neutsen. Beti:

-Bai, ez euki bildurrik!...

Eta alan egin eban: .Nik uste neban legez, goixian bera lenengo astindu eben, eta gero bestiok banan. Eta danoi telefonuak gora eta bera, baña ez eben ezer jakin al izan gauza garbirik.

Danon eretxiak artu ebezanian, bostok sala aundi batera sartu ginduezan. Aurreko egunian eberdian jan genduenagaz gengoan; eta, guk ezertxu be ez genkiela, Markiñako Batzokitik bialdu euskuen gosari eta amarretako ikaragarri bat; eta orritxu baten esaten euskuen:

-Barruen zagozan bitartean, onan bialduko dogu biar dozuen guztia, zuek ordaindu biarrik barik.

Eta illuntzian, illak 4, oitura dan legez, espetxe ko atian *Santa Ageda* abestu euskuen.

Berrogetazortzi ordutik gora eukiteko eskubiderik ez euken, baña seigarren egunera arte ez gindue-

zan atara. Egun guztietan jueza etorten jakun galderak egitera. Guri leporatu gura euskuen telefonoan ori, guk juan biar genduen bidian egoalako ebagite, eta bazan atzetik nok xaxatu be. Onetan sartu eban eskue gure Alkarteko abogaduek, eta or amaitu zan nire lenengo giltzapia.

Amar egun geruago ziran auteskundiak. Frente Ezkerrak irabazi zituan, barriro danak alkarturik juan ziralako; eta emen geratu zan lege ori deseztuta, barrukoak barruan eta kanpokuak kanpuan.

Onen ondoren, udal auteskundiak be udan ziran izateko; eta nire andrageiaren aita zan EAJ-k autatu ebana udalburu izateko, aurrekuan be kontzejal zan eta.

Nik ogetazazpi urte pasauta nituan eta andrageiak ogetalau; eta oni, etxian, ezkontzie konbeni zala esan eutsen; eta olan aguztu azken aldera egiteko giñan. Gertakizunetan be asita nire aldetik, etxia aldatu biar nebana nitzan eta. Baña bitartean ekaitz madarikau bat sortu zan...

Gerra sorrera

Gure udako ames gozo guztiak zalantza gogorrian egun batetik bestera.

Garagarril erdi aldian sartzen asi ziran andik eta emetik burrun-burrin usain txarrekuak. Batzuentzat, egun gitxi batzuetarako naste bat; beste batzuentzat, il bat edo bi luzeena. Baziran, ostera, beste batzuk, urtetarako gerra zibil bat sortuta egoala esaten ebenak be.

Azkenengo oni federik gitxiena emoten eutsen geienak, nik neuk bai beintzat. Egunak joan eta egunak etorri, geruago eta itxurak txarrago.

Aitatu dogun illaren 17-an Franco jenerala jagi zala Afrikan, il gitxi aurretik lege guztiz eta askatasun guztiz erriak aukeratu eban Gobernuaren kontra. Au zan zabal danongana eldu zana: 18-an, Andaluzia aldian, beste batzuk aren lagun jarri zirela, egun bat geruago moro guztiak artuta etorri zala eta Andaluzia guztia menderatu dabela.

Gobernuaren aldetik be, erriak arpegi gogor emoten asi ziran, inñundik eskuratu al ebezan arma edo tresna guztiekin; eta onetara deitzen eutsen beste errialde guztiei be, gobernuaren eta errepublikaren alde: eta azken bi onen kontra egozan agintari edo kargu guztiak, legez kanpo itxi ebezan dekreto baten bidez.

Lege onek eskuma alde guztia kanpo ixten eban, Eusko Alderdia izan ezik. Emen be sortu ziran duda eta zalantza batzuk, baña gure burukidiek ondo eta sakon aztertu eben, Euskadiren eta Madrillen Korte-

tan erabagiten dagoan Estatutoaren areriorik amorratuenak eurak direla.

Illaren azken egunak ziran, eta eskualde onetako gobernuaren ordezkari egiten ebenak deitu eben Udaletxera batzeko agintari eta gañerako al daben guztiak. Asko giñan batu giñanok. Eta ez dago dudarik, neu legez, beste geienak egoeraren barri jakin miñez.

Itxaropen onak emon baeuskuezan be, gauza ondo illuna eta baltza ipiñi euskun begien aurrean, berba labur eta sakonetan; eta berak ekarren zeregiñari eldu eutsan: erri guztietan, gerraren gora-bera guztien ardura guztiakin arduratuko zan batzorde bat sortu, "*Comité de Defensa de Guerra*" bere izena; eta errian beste aginte guztien gañetik ipinten eban.

Eta au sortuteko, buru egiteko nor eskatzen eban, eta an geienak atza luzatzen eben niregana; eta, azkenez, ori be jaso egin neban, iñungo esperientzi txikiarik eneban burutza baltz ori. Bere aurrian osatu neban neure inguruan izango zan talde ori, idazkari lez erriko emakume bat artuaz, eta berak jaso eban guzti onen agiri bat. Baña emendik aurrerakuak ziran buru apurtziak, iñoz aztuko eztiranak. Bixaramon goixian batu nitzen idazkaria eta beste batzuekin.

Lenengo deia erriari: gerra gogor baten atadian gengozala, Euskadi eta bere Estatuaren aurka etozan arerio guztiakin; eta etxian bakotxak eukazan ixkillu edo arma guztiak Junta onen eskuetan ipinteko berrogetazortzi ordu barruan. Batetik seguridadeagaitik; eta bestetik, Batzordeak biarizan gogor baterako eskuak uts izan ez dagizan. Eta erriak, alan, erantzun ona emon eban.

Lo egoterik ez egoan. Egunetik egunera egoera balztu egiten zan; eta errian, eskerrak aurrien gengozanoi. Idazkari eta beste iruroi, egun bakotxako amar pezetako alogera emoten euskuen. Bestelan, andik aurrerako guztia, zoramena zan.

Gobernua, ordena-zaintzaille guztiak beretzako geratu eta uriburuak zaintzen bakarrik alegindu zan. Eta nire zeregiña, ogetamarretik berrogei urte bitarteko gizon edo mutillei, batez be soldadu izan bakuak baziran, istruziño apur bat emon; eta onekin amabi ordena-zaintzaille ipiñi nituan. Iruko taldeak ziran, eta zortzi ordu bakotxak. Norbaitek ezin bae-ban, an egozan beste iru, eta onek be zortzi orduko. Amar pezeta jasoten ebezan eta ez zan falta nok egin.

Agoztuaren lenenguetarako Naparrua guztiagaz jabetu ziran, esateko moduz tirorik egin barik, erdi lotan eta esku utsik egoan erriagaz. Astia izan ebe-nak, iges; eta beste asko, fede onez geratu, eta egun gitxira tiroz josita or-emen millaka gizarajo. Eta auxe bera Araban be, Euskal Erria bakarrik aitatzia-rren, baña danian berdin.

Donostian be, kuartel bakarra, eta alan-olan ego-an emen erria. Eskopetaz da pistolaz sartu eta aldi baterako arnasa, baña oso laburrerako. Napar indar-rak egun gitxira Irun euregandu. Geure esku genduan auzozko arremán bakarra kendu ligorrez. Au-rrian itxasua bakarrik, eta bera, oztopoz beterik.

Onek ekarritako oztopuak naikue ezpalira legez, indar arroputz orrek asi dira indar guztiz Gipuzkoa oinperatzen. Erria gogor arpegi emoten asita egoan: Ortik-emendik, Europa aldetik, Gerra Nagusian atzera geratutako arma batzuk ekarri eta abar, ka-ñoi, fusil da ametralladora batzuk. Eta batalloiak eta konpañiak eta grupuak egiñez, erria gogor arpegia emonaz.

Baña indarra ondo organizaua beti nagusi, eta au izan zan gure zoramen nagusia, emen izan ziran igesika udal guztiak jausiaz, eta erritar asko be bai eurekin. Udalak Bilbora jarraitzen eben, baña erria leengo errietan geratzen zan.

Eta gure erri koxkor onetan, irureunen bat iges-lari emen atondu biar izan genduzan zelan edo alan.

Eta jateko guztiak razionamentuz egozan: jaki guztiak eta, kamioi bategaz geuk jua amabostian bein edo geiagotan, lenengo baliak atera Abastos-en, eta gero almanetan artu jenerua, eta errian banandu, bakotzak zituan eroslien negurrian denda bakotxari.

Kanpotik etorri ziranentzako duan etorten zan, da gañera naiku ugari, garbanzu, arroz, lenteja... Gañerako onurak, oso urri. Au geuk bakotxari bananduten geuntsan. Geienetan zeregin onetan arduradun ni izaten nitzan.

Eta ardura guzti onen gañetik, buruko miñez gengoan, egun gitxi barru geuk nora jua biarko ete genduen pentsetan. Markiñara oso urreratuak ziran, eta Ondarruko itxasontzi bategaz gertauta geunken illuntze baten urteteko Prantzira; eta bertan egunian erri ori be artu eben.

Eta alan, biarrez-edo, zortzi illabete pasau geldi egon ziran: Ondarru, euren aldetik; Berriatu, su biren erdian; Markiña, gure aldetik; Eibar da Elgeta, Gipuzkuako erriak, gure aldetik. Bizkaia, Santander ta Asturias, gure atzetik. Beste gure ingurua, ego alde eta abar, arieriuen mende.

Gure inguruen barri emon dodan ezkerero, ondo da goi aldeko egoeraren barri apur bat gora-bera baño ezpada be emotea. Madril ingurua, Levante aldia, Alicante, Murcia, Valencia, Cataluña, Aragón zati bat eta olan ziran, gitxi gora-bera, Gobernuaren eskuetan.

Fazistok lenengotik atake gogor asko emon zitu en euren indarrrik bixienekin Madril artu naiez. Baekien au artu ezkerero beste guztia be, egun gitxi barru, dana euren zala. Baña Gobernuaren ardura guztixe alderdi ori gerra-tresnarik aurreratuenekin zaintzia zan, eta iñundik sortzen ziran *Brigada Internacional* guztiak ara eruaten zituan; eta guretzako, berba leun batzuk, xaxa egiñez, egazkiñek eta aginduaz, iñoz elduko ez ziranak.

Goazen barriro be etxera. Geldiune onetan be, or genduzan atzerago aitatu ditugun arazu eta bu-ruauste guztiak. Ez ziran falta barriak: komandan- tiak, egun gitxira, amar asto euren traste guztiakin eskatu zituan, gudariei jana eta muniziñoie eruate- ko; eta niri legez, beste inguruko erriei be.

Astuak bai, baña tresnak derrigor ez izatie eska- tu neutsen. Ontzat emon eban. Baña nora jua es- ke, geienak bana baño ez euken eta? Lenengo, etxe- kue kontau neban, traste eta guzti; eta andik aurrera, edonora lotsa barik. Eta asto guztion pasto- re, ogetamaika urteko gizon bat oso gustora jua zan, eguneko amar pezeta irabaziaz. Komandantiak oso gustora artu eban barri au.

Zenbat onen antzeko eskabide! Bateko, koltxoiek biar zirela, gaixo-etxeak sortu biar zirela eta; beste- ko, frentian egozan gudariantzat esnia, baba, arrau- tzak... direla. Guztiok batu eta eske etorten ziran goix guztietan. Ori bai, arrautzak, esniak eta abar merkatuen baño geiago ordaintzen eben. Emen ez zan iñoz asarrerik izaten, geienetan saldu biarrekua izaten zanez.

Onek arazu guztiok gitxi balira legez, igeslarion etortia baketu eta laster batera, ezker alderdikuak erriko aginte guztia euren esku artzia proposau eben, lege nastu baten bidez. Au zan, itxura danez: partidu ezker bakotxetik bat Junta guztietan, eta sei kredenzial presentau euskuezan, guztira bederatzi izaten giñan eta. Nire Junta au egin genduenian, iru emon geuntsezan. Udalian ez euken bat bera be. Ba- ña danetan nagusi izatia eskatzen eben, legiak alan diñola eta. Ez bakarrik legia: illabete geruago sortu zan Euskal Gobernura arte, ezker utsak ziran agin- tari, Euskadin eta gañekuetan.

Gure errian ogetalau boto eta beti bardin eukiten ebezan ezkerrok, ia lareun botante ziran lekuan; urrengo, eskumatarrak, eundik gora; *Partidu Nazio-*

nalistak, bigarren orrek baño beste eun da geiago, beti berreundik gora ziran guriek.

Eztabaida eta tira-bira asko erabili arren, ez eben lortu gura ebenik. Andik egun asko ez zala, delegaduagandik artu genduen eskutitz bat: *fazistatzat* botaten ginduezan, Junta barri eta Udal eta azkeneko lau kontzejal eta bere idazkaria. Onan itxi eben gure Junta barri au, sortu zan ordu berean, danon agirian.

Eskutitzak au esaten eban gitxi gora-bera: "Gudariak euren bixia eta odola jokatzen dagozanetik milla metrora, *fazistarik* aundiena eta gogorrena zan idazkaria geunkela udalian", gañerako beste pestekeri asko esanaz.

Eta nik erantzun neutsen berak itxi ebalá egoan lekuan eta esan degiela zer egin.

Nik, neuretzako, banekian zer egin biar zan gitxi gora-bera, zergaitik, kargu ori artu nebanetik iru egunerako, aurkeztu neutsan erriko epaikariari idazki bat dimixiñoa eskatuz; eta izenpetu eban eta kito! Idazkari onek be beste orrenbeste naikue eban. Andik iru egunera zaindari bat bialdu eustan; baña esanez, bixaramon goixeko amarretan, gu bederatzirok eta lau Udalekuak batuta egoteko.

Etorri zan bere zaintzalle ori bakarrik, kamioi batgaz, eta kartzela-etxian sartu ginduezan danok, bat ez bestiok. Bakar au, udalian buru egiten ebana, nire aitagiñarraba izatekua, aparte zelda baten.

Gabeko amarretan atera eta delegaduarengana. Onek bere epistolie eta nik be neurie, eskutitzien legez, antzera. Danoi galdera batzuk egiñez, idazti bat egiten eben lau udalekuon artian bik. Idazkari onen lengusuak ziran; eta onek biok alegatu batzuk ipiñi ebezan, amar seme-alaben aita zala, eta abar. Beste guztiok *fazista* zala izenpetu genduen. Benetakue eta azerikeri asko egindakue zan, batez be gizon fede onekuen artian.

Eta ara emen bat, kontzejal onei sartutako ziria. Udal au 1931-n aukeratua zan, erriak diktaduraren azpitik urtenkeran udal barritzen asi ziranian. Idazkari onek onako pastela proponidu eutsen, boto burrukarik ez izateko atxakiz: lau kontzejal abertzalientzako; iru, eskumantzako; eta "fulano" eta "bengano". Onek biok, bata alkate eta bestia kontzejal, independentiak, eta, ontzat emon guztiok.

Auteskunde eguna baketsua bai, baña lenengo batzarrian, azeriak sei ollo bere erpietan, eta bestiak eskuan euken txoriaren penatan... Amaika olako jazo da gure errietan.

Urriaren bata eldu zan, eta gure gatx guztien pozgarria, Madrillek gure lenengo Estatutoa izenpe-tu ebala jakitean. Egoera ondo larrian arkitzen giñan, baña eusko gogua asko eta asko alaitu eta kemendu zan barri onegaz.

Urriaren 7-an autarkiz ateratako alkate eta kontzejal guztiak juan ziran Gernikara, Zugaiizpean gure lenengo lendakaria aukeratzerara. Guztiok ao batez, Jose Antonio Agirre izentatu genduen. Ez bakarrik emen, mundu guztian ziran euskaldunak goraldtu eta maitatu eben bere gizontasun zabala, errien eta gizonen askatasun zalia zanez. Gañera, ogetamabi urtegaz, aldi aretan munduan egoan lendakari gazi-tiena zan. Egoerak be onan beartzen eban, da laster eldu eutsan gogor biarrari.

Gure Junta barri onek kendu, eta Udalak artzen eben guztiaren kargua. Baña Udal asko guriaren antzera egozan: onek osotu biar ziran ordezkos. Eta guk, aurrian giñanok, martxa barri ori artuta geun-kenez, danok jarraitu biar izan genduan aurrera, ara-ona eta buruauste ugariz.

Gobernu onek ogei kilometrora eukan arerioa, belarrietaraño armatua, egun batetik bestera gañera etorteko amorrus. Eta bigarren, gerra, buruauste asko emoten ebana: ainbat sabel gosez egoan erriari,

zelan erantzuna emon? Dana itxasoz izan biar eta bertan arerioa nagusi. Au edo bestegaz, nekez lortuakaz beteta etorren ontzi bitik bat, geienetan are-rioak ondoratu edo kendu. Ni neu, milagro bat zala ta nago.

1936-ko Gabonak eldu ziran. Aurreko urteetan, Gabonei pozez eta itxaropen galantagaz itxaroten geuntsen: jaki gitxi oituak, askoz obiak gozokiak, txurrut ugariak... Guztiak gurasoen ingurura batuak, alaitasunez betiak, osasuna guzti onen gañetik bazan gañera. Onek aldakuntza gogorak izan ebezan guztientzat.

Bezperan, guri deitu euskuen asteko razionamentuan eta Gabon zorion eske juateko. Ainbat giñan eta lenengo baliak artzeko kolan orduak; gero, almazen guztietan bardin... Gabeko amabietan etxera.

Gabon egunera elduta, oera juan, goixian goix jagi, lenengo dendetarako banaketa egin, eta egun guztiaren buruan kanpotarrena, kiloka eta gramoka, geuk banatu biar.

Gabon-sari legez emon euskuezanak: azukrie, bestetako doble; orixue be olan; ardaue, likor, kafe apur bat, mozkor bildurrik barik ibilteko moduen. Etorrientzako be bardin guzti orrek, eta duan onentzako. Baita, gauza berezi legez, makallau edarra be ugariago emon eben. Iñoz etorten zanian uskeria izaten zan, eta pozik. Gabon Zarretan, guztia antzerra zan.

Illak bajoiazan aurrera eta beti kezkatan, noz zer entzungo. Lantzien beinka bonba, kañonazo, ametrallador tarratada, oso ur guztiok.

Abenduaren 26an, Akarregin, Markiña ganian eta Kalamuan, atake ikaragarriak izan ziran egun argi guztian. Bakotxak belarriak eta begiak zur genduzan, noz gañian ikusiko, baña leengo lekuan geraten ziran, eta arnasa pixka bat artzen zan.

Egunik geienetan pasetan zan gure gañetik Bilbo alderaño Franco-ren egazkin bat errekonozimenuen, *run... run...* “*Diario de Irún*” geunken bere izena ipinite. Lantzien bein, or, euren korotz batzuk be soltetan zituen. Lantzien bein urteten eutsen Bilbotik kazako txiki bik, gobernukuek Madrillera-ta juañ biar ebenerako eukezanak. Oñek kontra urtetiagaz gu asko pozten giñan, bildurtu egiten eben da.

Bilbon bageunken bonbardero bakar bat, Matusalen baño zarrague, inglesak erregalautekue; onen izena “*Abuelo*” zan. Au be sarri juaten zan Kiputz aldera; gu pozik, apurtuko ebazalako fazista guztiok eta. Egun baten, itxura zanez, sartu zan aurretzure, emon eutsen zaplatekotxuren bat, eta emen dator, lurretik bost metro altura barik, egua erdi ausi egin-dako txori baten antzera.

Ni nabuek ateraten nenguen soluen pare-paretik etorren, eta an egoan estratara salto egin neban. Jausi biar zala uste zan, baña eldu zan bere lekura. Geiago ez zan a Markiñatik aurrerago juañ. Araño etortzagaz be, gu pozik.

Gure erri guztia egazkin eske egoan, gerrarik irabaziko bagenduan. Madrillek beti: “Datorren illerako, eun edo berreun”; eta emen gu sinistute. Ez genduen bat geiagorik ikusi: Madril beti Madril Euskal Erriarentzako.

Eldu giñan aprillera, eta nire aurreko eta atzeko kintak eskatu zituan gobernuak gerrarako: iru kinta batera.



Arta auzunea, Tomas morroi ibili zana.

Batalloi baten frentera

Aurreko arazo guztiok itxi, eta ixkillua lepora eta mendira. Gure aurrerakuei sarri entzuna gerrarik onena baño bakerik txarrena oba zala. Esaten baeben, lenago be jasan ebelako zan.

Gure aurreko erriko arazuok naiko arazo larri eta buruko min emoten baeben, mendirate au baltzagua zala ezin ukatu. Etxeko maian negurri batez asetu eta etxeko oe bigunian atsedendu, eztira bardin. Gerrak dabenik txarrena, mendia, arerioaren aurrez aur, jakiak urri, lurra oe barri, manta bat estalgarri, negua bada, negargarri. Gerrak gitxi dau barregarri.

1937-ko aprillaren 14-an urten giñan lau erritar Bilboko Gudarosteko buleguetara; egun batzuk atzerago be juan zeikean; baña aurrerago juan ezker, norberak aukeratu eikean au edo beste batalloetara juatia. Bestelan ez egoan aukera egiterik.

Onan, ba, oiñez juan giñan Durangoko trenaren geltokira. Bidian iru bidar egon giñan lurrian etzunda, Berriztik Durangora bitartian, Franco-ren egazkiñak beti gañian genduzan- ta.

Or aurrerago esan dodanez, egazkiñak bat edo bika agertzen baziran be, Gabon ingurutik aurrera, laster asi ziran amar da geiagoko taldeak agertzen, triskantza gogorak or-emen egiten. Gogoratzen naz Bilbora jaki billa noiela, bidien, kamioie itxi baztarrien eta zulo baten etzunde egotaldiek egin biar izan genduzala, bonbardeu bi izen ziran da. Eta bietatik baten, Durango eta Bilbo gogor apurtu, eta ainbat il-dako eta zauritu erri biotan.

Au ikusi ta alkar berotuta, batalloi ezkertiar bik espetxiak asaltau eta barruan ziranak il egin zituen. Eta Durangon be, amairu preso atera, kanposantora eroan da il egin ebezan, iñori ezetarako astirik emon baño len. Egun orretan, ez egoan giro erri bi orretan: bietan egon biar izan giñan. Eta Euskal Gobernuak lotsari gogorra izan eban munduaren aurrian.

Goazen atzera Durango bidera. Guk etxetik onako uste barik urten genduen illaren 14-an. Errepublikaren seigarren urtie egun aretan. Bixaramonian, 15-ian, zan asteko ofensibie Bilbo artzeko. Bide orretan giñoazala, orri batzuk be bota ebazan egazkin orrek. Au esaten eben orri orretan: “Asi zaitezte bizarra bustiten, eta geu etorriko gera kentzera”.

Trenera giñan, eta kontu-kontari Bilbora. Illuntzia urreratuta egoanian, gudarosteko buleguetan artu euskuezan agiriak, eta emon morral bana, bere barruan jateko ontzia eta edaria gordeteko ontzia, praka panazko bana, alkondara bana eta jerse biña; manta bana oetzat. Au erentzia gudariarentzat. Gaberako bialdu ginduezan *Sordo Mudos*-etara.

Bixaramon au, eta illak 15, eskuetara eldu jakun egunkariak lenengo lerro aundienetan:

“Atake ikaragarriak Intxortako frentian, alemanen eun egazkiñ gañetik, tankiak aurretik, su-aga ugari atzetik; onen danon erdian, moro, italianu, aleman...”.

Onek gitxi balira legez, Mola pizti amorratua bere txapel gorriakin, guztiak ametrallador eta fusil aurreratuenekin, euskaldunen izena be betiko lurperatu gurarik. Bizarra bustiten asteko, nok pensau egoenik astirik?

Emen, gu legez, beste asko ziran etorriak errietatik. Baita aurretik frentian egondako onek ziran geienok ofizial izateko egozanak, batalloi barriak sortzeko. Guk be, egun aretan bertan osatu genduen *Malato* batalloia. Izen au daben arbola famatu bat

bada euskaldun zarrentzako. Gure legiekin gogoko ez ziran guztiak arbola orretatik Gaztelaruntz bialtzen zituen. Or dau bere entzute guztia.

Batalloi ori osatu eta geure kuartela Matikon ipiñi euskuen eta gaberako ara juañan. 16-an instruziñoiek eta arma-manajuek erakutsi, ez ekien guztiei; 17-an taldetan, konpañietan, banandu euren buru izango diranekin. Niria, irugarren taldia zan, eta sarjentu ipiñi ninduen.

18-an, goixian goix, kamioietan Orozko-Ibarra, eta andik Gorbeara. Arratsaldeko ordu bietan Igiriñaoko frenteko parapetuan tiroka asita gengozan. Ain subertez, geure talde orri subertau jakon lenengo parapetuetara juatie, bestiek gaberako txabolagiñen geratuta; eta gure mutillek amorratzen aurrien ziran guztiak apurtzeko, atake gogor bat sortu balitz legez. Dana tiro otsa eta esku-bonba ots, eta ezer ez!

Gure eskuma aldetik egoan beste batalloi bateko talde bat, gu legez, euren parapetuetan. Onek jakin ondo ango egoeraren barri, eta ixilik, tirorik barik. Etorri zan guregana aren nagusietako bat eta asarre gogor egin euskun, areriu andik bi kilometrorra egoala eta ez egoala tiro egin biarrik premiña barik. Gañera, bere gudariak egunik geienetan juaten zirela or aurrera ainbat bidian, perretxikuten.

–Gaur be ortik etorri dira, eta zuen balen soñute-tik bizirik urten dabenien, pozik.

Gure aldetik, ain barri eta ezjakin giñanez, par-katzeko eskatu geuntsan eta or geratu zan guria. Baña urrengo egungo fazisten radixuak, geuk al-karren aurka atake gogor bat euki genduela. Nok eta Queipo de Llano-k be bai Sevilla-tik. Au izan zan nire benetako gerraren erakusietako bat mendian.

Emen zortzi egun egin genduzan. Emendik Kampa Arrabara. Emen egun batzuk egin eta Kurutzeko gaillurrera. Emen, beste amar-amabost.

Emendik gu juañ baña aurrerago bota ebezan atzeruntz fazistak. Emen, itxura danez, ez zan jazo beste leku askotan jazoten jakuena: egunien egunez egazkiñen indarrez da abar kendu ebena, gabaz sarrri atzera bertaratu ziran guriak; baña urrengo egunian barriro itxi egin biar geienetan. Au, osterá, egunez artu ei zan; baña oni geiágo ez eutsen jaramonik be egin.

Emen arerio bakarrak, lañua, euria eta otza izan ziran, maiatzan giñan baña... Emen txabola bat eginda itxi neban neure taldiagaz, eta ainbat aldiz buruan pasau neban ikustera juañ biar nebala, baña beti geroko itxi dot, eta berrogetamar urte atzera geratu dira, dana ames utsetan. Esaera zar batek diño: “gaur egin al dozuna bixerko ez itxi”.

Andik bajatu giñan Arrabara; eta egun gitxira, “Pozo Baltz” esaten jakon lautada batera eroan ginduezan. Arrabatik be beerakada gogorra, Zeanuriko gorengo baserrien gañeko aldetxuan dago. Etxe onek utsik egozan, su biren erdian egozan eta.

Goren egoan etxe orretara juaten giñan, bildur da abar be. Zakuek lastoz edo bedar sikuz betetan genduzan, biguntxuaguen etzun al izateko. Etxe barru guztian ibilten giñan; eta gela baten ainbat argazki egozan. Ain subertez, famili oso ezaguna niretzat eta baita gure erritar guztientzat. Etxe orretako seme bat gure errira egoan ezkonduta, Inazio Larrakoe-txea, eta onen guraso eta bi anai, Aita karmeldarrak, oso ezagunak ziran.

Beste aldaketarik ez genduen euki goian egon giñan bitartian. Urtxuen emen geunkezan arerioen trintxerak, baña ez fusil baten tiro barruan. Olan, ez genduan euki aurrez aurrezko tope txikienik, goian egin genduan egonaldi guztian.

Gure areriorik gogorrenak, burdiñezko arrautzez beteta gure paretik pasetan ziran txori aundi ta ugarriak izaten ziran. Onei botaten geuntsezan tiro guz-

tiak, eta iñoz ikuturen bat be artu izango eben, bein baño geiagotan, bueltan atzera joiazanean, bat edo bi guri botaten euskuezan eta. Baten, mulo bi il eta eurekaz egozan mutil biak be gogor zaurituak geratu ziran.

Egunik bildurgarriena, Gernika apurtu eta erre ebena. Talde bakotxian eun inguru, gure gañetik. Da zer trankil! Aidian ez eben iñungo areriorik, gure txinberuak bakarrik lurretik, eta arro ebizan mutillok, guztiok atera nairik gure etxetik.

Gureztat, emen goian egin genduan egonaldi guztian, antzerki bat ikusten bagengoz legez zan. Emendik ikusten genduzan Urkiola, Dima, Sabigain eta inguruko burruka guztiak. Euren artian, Sabigain izan zan gogorrena eta luzena, guriak barriro kendu eutselako. Guriak be emen gudari asko galdu eben, da euren artian komandante bat. Arerioak be emen galtze gogorra euki eban. Euren artian, ospetsuen batzuk. An dago monumentu aundi bat eurak josta; an diñoez eurek galdutako izenak eta bakotxaren graduak.

Gurien izenik ezta agertuten al daben guztia loitzeko eztanik: *“hordas rojo-separatistas”*; eta ori baño eztanian, ondo. Guztia euren goraltzarako egin baeben be, gure kondaira be egiten dau, batera.

Gau baten, gudari bik arerioengana iges egin euskuen. Geienetan alkarregaz ibilten ziran eta lagun gitxi eben, baña norbaiti esan ei eutsen arratsalde aretan:

–Bixer eberdien ogi zuriagaz bonbardiauuko gaitue.

Baña norbait orrek ez eban ezetarako be artu, eta “Portauko dituk” erantzun ei eutsen.

Ara nun, bixaramon eberdixen jatekue eldu eta biñaka formau giñanien, nun agertzen diran egazkin txiki tamaiñuko bi. Ez ziran an egunero guk ikusten

genduzanak, kazakuek baño aundiaguek bai, eta, zuzen geuregana asi ziran korotz botaten. Eskerrak pagadixe-eta aundixe eta gordeleku onak... Bonba inzendarixuek, litroko botillian tamaiñukuek, botaten ebezan. Orri berdez jantzite egozan arbolak be sutan, eta lantzien ametrallador tarratadak. Juan plantak egin eta atzera etorri barriro be. Eskerrak bi baño ez zirana.

Nik pago aundi baten bueltan pasau neban dana: abioiak eskumatik, neu ezkerretik, goikuok ondo zainduetz. Janez beteta egoan ontzia onduen neukan, ondo tenplaute, gañera. Platerera artu eta pago bueltan jan. Naikuerik, mendiko egonaldi guztian, orduan bakarrik.

Gerriek beragaz ditu maltzurkeri guztixek. Onen biok, aingeru arpegiekin, bildotx narrupian ondo amorratuek, ixte bi illebeste eroezan gurekin, eta nok esan? Eskerrak zauritu arin batzuk besterik ez zirala egon. Gorbeako egonaldi guztian guregana zuzendutako istripurik gogorrena auxe izan zan.

Junioaren 12, illuntzian, gure kapillau egiten ebana etorri zan eta esan euskun:

—Bixer San Antonio eguna da, eta nai dabenak autortu, etorri txabola onetara.

Ainbat juan giñan. Gañera, eberdixen kapitanak aitzen emon euskun bixaramon goixien goix urten biar genduela Bilbo aldera, atsedean aldi bat artzera. Olan, goixien goix zan meza ori be.

Traste guztiak artu eta eberdirako Orozko-Ibarran gengoan. Emen, bazkaldu genduenien, esan euskuen manta bat eta armie ez beste guztia ixteko bertan; kamioi bat etorriko zala orrek eruatara, geuk juan biar genduen leku orretara. Geiago ez genduzan ikusi, eta an itxi genduan soñian geunkena ez beste guztia.

Geu soltau giñan ankaz Bilboruntz. Urrintxuago lenengo eta urreratuago gero, su-aga eta bonba-

otsa, ametrallador, eta zer ez? Eta lekuten-lekuten agertzen jakuzan amar edo geiago egazkin. Guztiok lurrian etzunde alde artien ainbat aldiz egon biar izan giñan.

Illunabarrerako eldu giñan Bidebietara; emendik Santo Domingo bistan egoan, eta momentu baten ez zan eteten kañoi eta ametrallador-zarata. Gaba zan legez, ondiño be itzeltasun aundiagoa emoten eban. Urrindik ikusteko obia zan! Baña kañoi obusek gengoan erre be zarta-zarta eltzen ziran, eta geienak aidien apurtzen ziranak, askoz txarraguek.

Lo giro ederra ezpaeguan be, sartu ginduezan frontoi eta zine egiten eban baten, danok lo edo gaba pasetako. Gau guztian ez zan eten zartadie andik eta emetik. Noz tellatua gañera etorriko igaro zan gaba.

Illak 14. Illuntabar egon arte, Santo Domingo azpian egoan baserri batera eroan edo juan giñan. Au zan gure kuartela an gengoan arte. Geienetan utsik egoten ziran ain suaren ur egozan etxiak, baña emen ixerok urte eukezan aitonak ez nai alde, eta ogei urteko loba bat bera zaintzen egoan; neskak polita berau eta bildur gabekue.

Gu emen bigarren linian gengoan geure parape-tuetan, baña aldixek libre eukiten genduzan, eta an inguruen keixe eta makatz batzuk ikusten genduzan ederto eldute, eta gure gosie beste aldetik. Kalma aldixe egoan bitan igon neutsan makatz bati. Guztire enituen lau artu bietan. Igon da segiduen balen baten txistue adar artien zier. Lagun bat keixe gañetik txori bat legez bota eben, eta berau ez zan gudaria. Au zan penarik aundiena emoten ebana: gosie, eta begiek ain ur ikusten ebena bertan itxi biar.

Illak 15. Noz-beinka eten batzuk be izaten ziran aurrien, baña egunez goikua zan txarragua, momentu guztietan gañera etorten ziran da. Illuntze aldera, aurreko linean egozanak albistea ekarri euskuen,

alako tokitan kamiño baztarrian itxita egozan illak jasoteko agindua emonez. Anbulantziari deitu geuntsan, geu an egongo giñala esanez. Bidian giñoazala tiroteo gogorra asi zan. Alako bala-txisturik gañian genduala, kunetan etzunda egon biar izan genduan.

Alan gengozala, eldu zan anbulantzia ori, andik pasau biar eban eta. Gaba zan, eta argi barik ibili biar onek be, an inguruan beintzat. Eldu giñan, eta an egozan bost alkarren inguruan. Euretako bategaitik, anbulantziakuak esan eben guztiz ilda egonik ezin leikela esan, eta au danen gañian ipiñi eben, tresna batzuk zur eta abar ipiñite. Itxura danez, onako asko ikusita egozan.

Illak 16. Gure aurrian egozanak alde eben atzera, eta gu geratu giñan aurreren. Egun aretan, Bilbo partera egoan maldara geiago atakatu eben. Gu Basauri partera gengozan, eta egun orretan guztiz engañau ginduezan. Aurretik ez genduen ainbesteko gogortasunik euki, baña gure atzeko aldian egoan mendi tontor bat, gugandik Basauri bitartean. Amabost-ogei urteko piñadi bat emoten eban, eta egun guztixen ona ekin eutsen kañoi eta egazkiñek. Guk, aurrera begire baño, atzera begira geixago egin genduen egun aretan. An jausi zanagaz mandaeulirik be bizirik ezin gelditu, eta illuntzerako eurak ara sartu: betiko euren tatikie. Eta gu, su biren erdixen.

Illak 17. Goixian, illun egoan arte, Pagasarrire, eurei atzie artuez. Egune ondo argitu baño len ara giñan. Gau aretan bertan egindako zanjak edo trinxerak. Batalloi zapadoriek bidien topau genduzan. Onek geienetan gabaz egin biar izaten eben, eta egunez atsedendu.

Geu be atsedeen artzeko gogoz giñoiezan, baña danak oker urten euskun. Emen geu giñan lenengo puntan; piñadixe bageunken ogei bat metro atzera-go, baña zanjak agiri-agirixen eta lur mobidu barrixe. Asi dire egune argitu dabenagaz batera!

Ametrallador-balak txistue joten eben gure buruen gañetik; eta buruan joten eztabenien, ondo. Edozelan be, ondo urrian egoan arerio ori. Kañoiak be bertara zuzen asi ziran; eta txarrena, geixenak aidien zatitzen ziranak, onek zuluana dagoana be arriskuan ipinten dabe eta. Alako guztietan eztago beste defentsarik: zulokunie nun, an etzun; eta burue, al bada, arripien. Danok lurrari josita gengoza, konpañi osua. Trintxeretan egozanak be, lurrari etzunda *ronpedoren* bildurrez. Ixilaldixe zanien tiroak urteten eben gure partetik. Barriro asten ziran, eta geure kalte dana.

Lau gengoza alkarren onduan edo inguruan zuloak bitan. Iru erritarrak giñan, eta bermiotar bat. Beste erritar biok azemilleru ebizenak ziran. Onen zeregiñak, jatekuak eta biar zana ekarri edo eruan, eriduak edo illak. Onek ez eben fusilik erabilten, kamillak baño.

Egoera onetan gengoza, agertu ziran iru egazkin, eta kapitana agindu eban al dabenak al daben erara bizia salbetako, eta al dabenak al daben lekutik Kastrejanako refujixuan alkartzeko. Nire belarriek ez eben entzun agindu au, baña laster zabaldu zan danongana.

Baña leenguen gañera txori baltzok gañian, eta zer egin? Bestiak zer egin eben ez giñan arduratzen. Geu laurok geldi gengoza; nire onduan bermiotarra. Bat-batera, alako axe gogor, lur dardara eta trumoi-ots! Guregandik bost bat metrora jausi zan bomba bat, eta onek gure gañera lur pillo bat bota eban.

Nire onduan egoanak, bildurtuta, igesari emon eutsan. Ez zituan metro bi egin, "Aii! aii!..." diadar egin eban, eta atzera bertara. Izterretik balie edo metrallie sartu jakon azurrian. Gauza aundirik ez eba-la emoten eban. Odolagaitik goma bat lotu geuntsan, pixka bat baretu zanian, eta beste bien lepura eskuak botata jua zan. Oso amaindu ziran tiruek, gure aldetik erantzunik ez ebelako edo.

Ni be, txakurre legez juan nintzen lau ankan piñadire arte. Ni legez beste asko egongo zirala-ta nenguan, eta iñor agiri be ez. Fusillak, mantak, jateko ontziak eta zer ez? Bertan itxita, zaku bi ogi, ontzi bitan kafe-esnia goixian ekarrita beti legez, ogiak erdiak baño geiago an eta bestia bardin.

Barriro be emen asetu nitzen; eta lau bollo batu nituan lepuan neroian mantan. Neuria eta beste botijo bi bete nituen esnez, eta bidiari ekin neutsan. Andik eta Bilborako kamiñora bitartian San Roke baseliza bat dago: emen, Intendentzixe egonda, au be ebakuatu barri egoan.

Emen bat egin nitzan gure lagun bigaz. Onek be, baktotxak platerkada zopak jaten zierduen. Nik ori bertan egin neban. Onek be, nik legez, baerorien eurentzako kosetxie. Eta emen, aztute edo beste tranpa jokeren baterako, amabost litro inguruko ardaoz beteta barril bat. Neuk iru neukezan esnez, eta bat an ustu neban lurrera, sabela ondo egoan da. Eurek biñe ustu ebezan barrure. Eta urik ez egoan ontziak garbitzeko, baña ardauaz beragaz garbitu genduzan, eta bost ontziok bete eta beste guztia barruan ebalu, basuan bera bota genduan eta aurrera bidiari.

Kilometro bi inguru egozala esan euskuen refujixo aretara. Bilborako kamiñue pasau eta laster, beste batalloi bateko gudarixekin tope egin genduen; eta ain subtertez, Gerniken bizi zan geure erritarra eta gañera neure kintue! Agurtu giñan eta diñoste:

-Au dok gosie!

-Neu be olantxe egon nok oiñ ordu erdira arte.

Eta zelan zan kontauetz, emon neutsazan mantan neukazan bollo bi, esne eta ontzi bata; eta gaur be, berrogetamar urte pasau ta gero, alkar ikusten garien baktotxien, eskerrak emoten deustaz.

Andik lasterrera, irugarren linian egozanekin tope egin genduen. Onek, *Leandro Karro* batalloikuek ziran, komunistena. Onek, oster, txakur artu gin-

duezan: atzera juanda ez zala gerrarik irabaziko, eta atzera pausua emoten daben guztiak il egin biar dirala, eta zer beste olako?...

Guk erantzun geuntsen lenenguan orretan asi baziran, gaur ez giñala egongo ez aurrera egingo ebanik, ez atzera joiazetik. Eztakit zer ulertu eben, baña ez ziran mantso geratu.

Guk aurrera ez genduzan berreun metro egin izango, iru mando eta iru milizianu batalloi onentzako jakiz eta abarrez ondo kargauta, eta onei galdetu geuntsen. Refujio ori urrin egoan, seireun bat metro aurrera.

Geienbat ez genduzan egin berreun metro, or agertzen dira sei txori baltz. Etzun giñan ikusiaz batera; baña muluak ez ziran etzun, eta alako danbarada otsik! Ametralladorakaz be bai gañera.

Urrindu ziranian juan giñan, eta mulo bi ilda. Euren onduan etzun zan milizianue be bai; eta beste biak, urriñago etzun ziralako, ondo. Irugarren muluek alako irrintzirik mendien bera, bere lepoko traste guztiok bidien galdute.

Il ori geuk eruan genduala agindu geuntsen, baña ori kapitanak esan biar ebala esan euskuen, eta guk aurrera jarraitu genduen.

Eldu giñan refujixora. Aundi samarra zan, baña baeukan nok aukera egin. An egozan inguruetatik ekarritako zauritu eta gaixoak, naiko larri zaurituak be ez gitxi. Geuriak be bai sei; eta euren artian, iru zauri larridunak. Gaixo-etxe bat geiago zan ango egoera. Bein edo bein miñarentzat edo berezko kobazulo aundi bat zan, eta ez zan legez ospital bat, gaixozain, sendagille eta sendagai eta guzti.

Gerra batek eztaben miseriarik eztago, eta beti gordeleku billa pausu guztiak.

An inguruan egozan gure batalloiko konpañia bi, lenengua eta irugarrena, gurie. Bigarrena Bilbora

juanda egoan. Komandantia an egoan, eta onek aitzen emon euskun Euskal Gobernuak lau gudari-batalloi Bilbo zaintzera juateko agindua emon ebala, eta guria zala euretarik bat.

Ordena au geienbat zan Asturias aldeko indarrak Bilboko industria eta etxe publiko guztiak minaute eukezalako, azken orduan dana desegiteko, eta Bizkaiaren ondamendia zan.

Illuntzerako juan giñan, eta banandu ginduezan bakotxa bere arduretara. Gu, berrogetamarren bat, an Indautxu baño gorago egoala uste dot, ormaz inguratua egoan etxean ipiñi ginduezan, ara ez iñor inguratzen isteko aginduz, bakotxari esku-lergaillu mordo bana be emonaz. Gaba zan legez, orma orren barrura eztadin iñor sartu.

Eguna argitu ebanian, areagaz betetako sakuen gañetik, orma gañetik begira ipiñi ginduezan, urreratzen ez isteko. Pagasarri partera, gugandik lareun metrora, Italiako ikurriña egoan, eta aren indarrak eta mobimentu batzuk ikusten ziran; baña tiro bat bera be ez, ez geuk ez eurak.

Eberdiko amabi t'erdia inguruan gure atzeko al-dian egoan kamiñutik sartu ziran motor aundi baten bi Franco-ren banderiagaz, eta Diputaziñuan ipiñi eta sirena jotzen asi ziran. Eta ondoren tanke batzuk eta, *zarta-zarta*, tiro bat geiago barik, soldadu moro eta italianu danak barrure.

Gu gengoan etxe onen sarrerako ate ingurutik pasetan joiezan, eta gu triste; baña eurei begire, beste ardure guztixek itxite. Millaka asko pasau ziran ikusi arren jaramonik egin barik, batzuk abesten eta beste batzuk guri agurka be bai.

Baña or dator danon ondoren txapel gorri talde bat "Oriamendi" abestuten. Onek, aurrera barik, guregana, pozoñez beterik egoan kapitan bat aurrian ebela. Formau zituan beriok, armak guregana zuzenduez. Agindu euskun arma guztiak lurrera bota-

teko. Baña fusille ostera jaso eragin euskun, utsik ordea; eta, bere txapel gorrixokin eskoltau eta Diputaziñuan aurrian itxi eragin euskuzan.

Ainbeste pestekeri esan euskun gure aurka. An, gure artian bateri barriak urten eutsan eta artu zituari berriak eta bost. Gero jakin genduanez, txapel gorrien aldekoa ei zan artu ebazan ori.

Emen amaitzen da etapa edo aldietako bat: apirilaren 18-an, lenengoz mendira; ekaiñaren 18-an, Diputaziño aurrian, etsaien mendera. Eta, ikurriña egoan lekuan, Franco-ren bandera. Indarraren aurrian, aula mendera.



Soldaduzkan.

Prisioneru

L 937-VI-19. Sartu ginduezan San Luis-ko ospitalien. Eztakit berez ospitala zan ala ez. Gaixuek eruanda egozan. An egozan soñeko eta oe, zapi guztiak pilloratuta, odolez beterik, egunak aurretik urik barik egoan erria eta.

Baña txarrak guztiak batera be beti eztira izaten, eta ogi zuria ugari ekarri eben, eta beste gauza asko urri be urri gure aldetik egozanak. Lenengo egunian, ogi baltz ori zuriaren onduan ipiñi eta afusilau egin eben. Orrek ez eban naigaberik emon lenengo egunetan, gure daben guztiari duan emoten jakon gañera, beste guztia ordaindu biar bazan be.

Askorentzat emen sortu ziran istilluak. Diruz beterik boltsilluak, mendian eta nun kastaurik ez egoalako, baña berak balio ez.

Eta gure artian baegozan etxequak nun ziran ez ekienak; baña lau-bost egunera danok egunera jarri giñan andik edo emendik.

Nik ez neban nai erriak jakin egien nun nenguan; baña Deustuko Pasionistetan anaia gaixozain egoan. Abadetzie amaituta eukan, baña urtiak falta meza emoteko, eta mendira juan biarran, gaixozain. Alan jarraitu eban barriokin be, eta eskerrak. Berau izan zan nire bizia salbau ebana, zer esanik be ez.

Amar bat egun edo olan geroiazan San Luis orretan. Jan ondo egiten genduan, egosita eta abar, daretik egoan-da. Ondo janak beste ustu biarrak be alan ekarten ditu, eta ez egoan iroletarako eta ez garbikerako urik. Kalian eta inguruetan lurrez edo

areaz betetako zaku pilloak egozan. Emendik eruan eta irolen atietan ipiñi lantzian bat, eta olan irol bakoxtien metro bat eta geiago altura, azkenerako zaku gañera ezin igonda...

Etxe ori kale erdian egoan. Guardia zibillen kuartela be amar metro barruan egoan. Onek antzaren antzaz konturatu ziran, eta zer jazoten ete zan ikustera etorri ziran alako kamioneta batzuekin eta baldekin, eta geuri danak ustu eragin euskuezan. Zisternarekin ekarri ura ugari, eta olan ats txarrok apur bat uxatu ziran.

Andik egun gitxira Deustuko Unibertsidadera eruan ginduezan. Bai lenenguan eta bardin bigarrenian, iñungo galdera-erantzunik eta kontrolik barik sartu ginduezan. Askorentzat, ori mesedegarria izan zan, neuretzat asite. Sarreran agiriak lortu bazituen, gaur ez neban lerro onek idazteko aukerarik euko.

Goazen piska bat atzeruntz, lenengo egunetatik azterketa apur bat egiñez. Leen esan dogun legez, ogi baltza fusilau ebela. Bigarren egunian asi eta goixian eskuratzen ziran egunkariak uliak tente ipinten eutsezan askori: dana kartzeleratua, dana epaitua, egunero ainbat fusilatu...

Ez ziran lau egun sartu zirala, eta egunkarian, lau erritar (goillebartarrak) da beste lau markiñar espetxeratuak, eta euren artian nire aita. Deustuko anaia etorri zan nigana aitagaz egonda. Soñian eukanagaz bakarrik ekarri ebela, eta gengoan lekuan pilloka egozan, eta manta bi eta izera garbiren bat emon neutsazan. eta berari eruan eutsezan. Abade jantziak itzal pixka bat baeukan, eta oni baliatuz, dana ondo.

Orduan, anai orrek *zirt-zart* zerbait egiten asi biar, eta errira etorri zan zelako aixe moduak joten eban ikusiaz. Egunkariak egunero irakurri bai, baña gerra baten, bai batekuak nai bestekuak, amarretik bat egi. Jazo dan legez geienetan ezin ezer ulertu.

Onek ekarri eustazan lenengo barriak: Gernika apurtu eben bixaramonian, moroz bete zala erri guztixe, eliza eta guzti; lau egun egin zituela alde barik eta erri guztia egon eziñeko ats txarrez itxi ebela. Baña emen ez zan jazo San Luisekorik: zikindu ebanai garbitu eragin. Abertzalerik gogorrenak aurrengo zirela, eta euren artian emakume batzuk, gabian artu etxetik, ulie moztu txori bat itxite, eta Españako bandera lazuz ipiñite danen barregarri, garbiketara. Au asteko!

Guretariko geienak, erria kartzela, eta batari au edo origaitik, onenbeste multa. Geien kendu eutse-na, nire aitaginarreba gero izango zana zan. Etxe au lurperatu gura eben, eta amalau milla pezeta kendu eutsezen aurrerago, baserria ordaindu eban beste inguru. Sarri esaten eban au berak.

Baña buru egiten ebenok ondik egarriz egozan, eta ez edozelakoa: odol egarria. Errian kanpan ots nagusia onan ei egoan:

–Orrek, Alegrixeko buru aundi orrek, endredau dau erri guztixe.

Emen nire lepo etozan arri guztixek. Eskerrak euren eskuetan jausi enitzen.

Bilbo jausi zan arte ez zeben iñor espetxeratu. Gure aita lenengo tandan sartziak, neure barri jakin nairik izan zala emoten eban, neuretzat eta baita anaiarentzat be. Beste anai pasiotarra *Kirikiño* bata-lloiko kapellau zan, eta onen barriak erritik ekarri zitan. Atzeruntz joiezala, etxian gelditu gaba paseta-ko eta bertan prisioneru artu, eta Tafallako euren komentuan ezkutauta egon zan. Baña gero Franco-ren aldetik be kapillau juañ biar izan eban.

Bilbo jausi eta amabost egunera, amasei goille-bartar kartzeletan egozan, eta *kanpo-konzentraziñoie-tan* beste ainbeste edo geiago. Ez ziran asetu dirua kenduagaz bakarrik. Eurak bakarrik kristiñaurik, gañera.

Famili eta etxe askorentzat egun larriak benetan onek ziran. Bertatik igaro eztanak, eztaki. Gure amak eta beste askok gordintasun guztiak jasan ebezan. Anaiak asko mobidu biar izan eban. Errian izaten zanian, niretzat ez eban ekarten itxaropen onik. Bilbon nenguala errian geienak ekien, baña nun negoan zigurtaderik ez. Aurre aldekuok esaten ei eben:

–Ori gure premiñarik barik atrapetan dabenien garbituko dabe, eta olan oba.

Ni, eurek olan uste izetiaz poztu egiten nintzan, eneukan olako usterik eta.

Aitak-eta, eruan zituenetik amabost egun edo iru astera, epaia: egunkarian, iru Markiñekuei eta Boli-barko bateri eriotza, eta bestiei, bizitza guztikoa zan zigorra. Erri bientzako au izan zan albiste baltza: zortzirak, familietako gizon ondradu eta normalak. Siñistu eziñik, zerbait egiteko jagi ziran, zerbait egin naian, eta epaiaren barriztapena lortu eben, bitartian lan gogor egiñaz zerbait lortzekotan. Eta beste iru edo lau aste pasau ziran epai barrirako.

Eta au ikusita, niri planak be ipinten eustezan iges egiteko. Errez egin neikian: gura genduenian urteten genduen, beti talde batek, geure kabuz, Unibertsidadeko patixuok, sarrerako eskillarok, kanpoko patixuok eta danak, garbitzalle. Iñok agindu barik, talde guztia giñan kamufletan genbizenak.

Nagusi egiten ebana Galdakaokue zan, mutil argixe eta edonori arpegia emoteko asko balio ebana. Beronek esaten ebanez, ez eukan zigor bildurrik; baña deklaraziñorik emoten baeban, barriro gerrara eruango ebela, eta ori ez eban nai.

Etxe ori ondo kontroletara ez ziran eldu, gu gengozan bitartien. Noz-beinka abisua emoten eben: bere agiria emon eztabenak emoteko, bestelan zigortua izango zala eta. Baña guzti ori militar batzuei pasau jakuela siñestu eziña emoten eban; baña olántxe zan, eta ondo baliagarria guretzat.

Erritik eta abar ixilik etorten jatazan. Batzuk esaten eusten:

-Il egingo zaitue, onek odol egarri dire ta!

Nik danei erantzuten neutsen:

-Neuk datorrena artzeko kontzientzia nasai daukat. Baña neure barruan zarata bat entzuten dot: "Ez zaitue ilgo, Tomas!".

Eta au, emen diñodan legez, askori erantzun neutsan.

Emaztegaia be aste guztietan legez etorten zan. Bere aita Larrinaga espetxian egoan. Oni be, leen esan bezela, amabi urteko zigorra emon eutsen, amalau milla pezeta kenduta. Gañerako sarri legez, au ikusten eban lenengo, eta gero nigana.

Onegazko ikustie, gitxi gora-bera banekien noz etorriko zan eta aurreko patiuan egoten nintzan, giñerraz egindako eskoba bat lepuan edo eskuetan. Ori zan gure alkagutie; geuk egin be egiten genduzan patio orretan, mendire juan da ekarrita. Gure ikuste ori an izaten zan berja bat bitarte. Onek be iñoz itxaropen onik ez. Bein baño geiagotan eskatu eustan mesedez il orduko lerro batzuk egiteko agurtuaz. Negarrez amaitzen zan geienetan, nire itxaropen onezko berba guztiakgaitik.

Beste erriko neska bat bein baño geiagotan etorri jatan; rekete jantzita etorten zan eta barruan be edonora juaten zan. Onegaz, amak Santo Kristo bat bialdu eustan, il egingo nabela esanaz. Niregana eltzen ziran albisterik onenak antzekuak ziran. Amaren erregalu ori beti ibili zan boltsilluan. Baita erre-gu gogor egin be egun guztietan. Baita, ate asko pikaportiak kenduta egozan, lenengotan libre egon ziranak, eta onen zuluana justu sartzen zan. Baña latta bigunezkua zan eta bigur-bigur eginda geratu zan buru aldetik. Gomutagarri legez neukan, baña desagertu egin jatan. Baña uste osua daukat arreba monjiak gorde ebala eta agertuko dala.

Epaiaren barrizatze egun ori eldu zan. Oraingotan albistariak eztabe tutik ekarten: ez kartzelatzerik, ez epairik, ez fusilatzerik. Lenengoko epaien ondoren laster asi ziran dana ixilik egiten, baña gauzak bardin jarraitzen eben gogorrian.

Ara emen epai barrian zer: zigor bardiña lau erioztadunei eta aurrera lenguan, eurakgaitik berriztatze ori eskatu izan arren; aita eta erriko beste bat aske; eta amabi urte laugarren erritarrari, eta beste amabikua markiñarrari. Aske ziranak egun aretan etxeratu ziran; amabikuak txusko asko jan biarko eben ondiño barruan, baña gaitz erdi.

Beste lau gizarajuak? Onek be, bizi ziran artian indulturen baten itxaropenian, eta onan illabetian erioztzaren aurrian. Balez josi zituen illaren 16-an, Santa Eufemia egunian. Bat ez bestiak, familiko aitak ziran. Gure erriko onek iru seme gazte eta laugarrena bidian eukazan. Azken ori naigabearen naigabez galdua izan zan. Egun larriak arek benetan. Nai ta kale bat bere oroitzan gaur erri onetan euki, sendi orren naigabeak ezin parkatu. Onen ilketak errian naigabe eta asarriak, frankisten artian be.

Egun gitxira aita etorri zan ni ikustera. Onek be niretzat beste askoren ustia edo itxaropena ekarren. Onek, Larrinagan egon ziran legez, gauza baltz asko ikusi eben euren begien aurrien, eta bildurre arimaraño sartute euken. Erriko jazoera ori dala ta, onan esaten eban:

—Odol egarri izan dituk. Egin juek pekatu ori. Il juek Boni. Kendu juek bistetik. Baña barruan biztu egin jakuek; errian euretar asko be asko jagi dituk kontra. Errudun diren artian be, burutik eginde jabizek. Etxera atetik sartu biarrarian, maats parran gora igonda leiotik sartzen dan bat edo beste be bai.

Aitari eneutsan esan bat-batian etorri jatan burutapena, eta auxe zan: “Oraintxe da nire agiriak es-

katzeko ordurik onena”. Anaiari be eneutsan esan; eta, birritan pentsetan egon barik, urrengo egunian, bertan barruan egoan Audientziara juan eta emon nebazan neure agiri guztiak. Orduan esan neutsan anaiari. Au be ez zan dana gustora egiñagaz, baña egiña eginda.

Enaz gogoratzen fetxiagaz, baña irailaren 20 edo 28, anai ori be belarriak tente zituala ipiñi neban, eta danok erritik etorren erantzunaren zain guztiak, asiera ortik emon biar eban eta, doiñua zelakua, dantzan alan egiteko.

Ez ziran amar egun pasau; orduko etorri zan erantzun ori. Bulegora eldu zanetik, laster zan deia ara juateko. Eldu nitzen leiora; an ziarduen karpetak astindu eta astindu, eta ez eusten jaramonik egiten. Eta alako baten, itxura zanez, aurkitu eben billa ebizen karpeta ori, eta an sartu eben erritik etorri zan ori. Komandantiak esan eutsen:

–*Eso hay que mandarlo a Burgos.*

Ni an nenguan, leioan, zer esango deusten zain

–*Ya nada. Puede irse* –esan eusten.

Eta laster anaiari etorteko esan neutsan, eta au asi zan gauzak aztertzen, Burgostik etorri biar eben agiriok, an emoten eusten malla edo klasifikaziñoa ikusiaz.

Bitartian, Arratiako erri baten gure erriko semea zan abade bat egoan; eta onek, bertan Audientzian egoan *capitán auditor* egiten ebana lagun aundia eban, eta onen laguntzaz aztertu zituzten agiriak, eta onek bere eretxia Burgoskoa etorri baño len onan emoten eutsen. Erriko informia ez zala grabia, baña oni añaditu eutsen guardia zibillena, besteri egiten ez eutsena; eta azken oni bai emoten eutsen garrantzia. Berba bi, baña eurek au iñuen, “*elemento peligrosísimo*”. Orrek biok ekarten pixu guztia.

Kapitan ori naparra zan, Elortza eban abizena. Nik espetxetik urten nebanien Santanderko Gobernadore zan eta urtietan izan zala-ta nago.

Gauzia oso bizkor joian. Andik egun gitxire etorri zan informe ori, eta mailla gogorreko kategorian. Kasu onen aurrian zelan jokatu biar zan gitxi gora-be-ra be esan eutsen.

Baña anaia urriñago be aillegau zan. Onek aninue eta arpegie ez zituen falta, aurrerago juan biar izan balitz be. Esteban Bilbaogaz sartu zan arremantetan, Justiziako ministrue zan eta; Eleizako nire informie be berak idatzi, erriko abadeari izenpetu eragin, beste eskumatar batzuen izenak nire alde, aretan edo ontan lagundu neutsela, eta abar.

Egun aretan bertan, niri deia, arratsaldeko zazpiretan Audientziara juateko. Eta kapitan batek bere idazkariagaz itauna ortik eta itauna emendik: zer politika, zer kargu gerratian, frentian nun, zertzuk ekintza, nun da zelan prisioneru... Eta olan letaiña luze bat.

Bixaramonian, ordu bardiñian, beste kapitan batek bere idazkariagaz. Onek be guztia antzera. Iru-garrenian, beste barri bat ostera be. Onek be, leengo bien antzera, baña azkenian itaundu eustan eskumatarrei tratu txarra ala ona emon neutsen.

Nire erantzuna:

-Nire agintari-denpora orretan ezkerrei eta esku-mai tratu bardiña emon neutsen, neuria zan ardura edo zeregiñetan. Eta mesederen bat eskatu baeban, etxakon begiratu nor zan. Or dago ejenplu bat -esan neutsen-: gaur nire erriko *jefe local* eta alkate ordeko egiten dabenari, mille pezetako multa bota eutsan inspetoriek, ogixe raziñotik gain saltzen ebalako gerrie asi te laster. Eta etxeko krixedie bialtzen eustan berari laguntzeko eskatuaz, multa ori ez ordaintzeko, al bada beintzat. Berak uste eban, itxura danez, nik Bilbon nun-nai sartzeko almena edo eskubidie

neukala; baña nik berak beste lagun edo ezaupide neban eta *Abastos*-ko nagusiarena juan biar zan. Duda gogorra neuken ez ginduzela artuko despatxuen, eta nire idazkariari agindu neutsan "ofizio" bat idazteko, geu errudun legez antz emonez. Eta bialdu neutsan ondo dagoan ala ez irakurri dagian, eta ontzat emon eban, eta telefonoz Markiñako Transportietara eskatu neban kotxe bat, pasokue edo partikularra, eta erantzun sarjentuek ordu bixetan bera joiala Bilbora eta beragaz juango giñala. Eta alan eruan ginduzen *Abastos*-ko ateraño, eta atzera-ko ordue ipiñi euskun Arriagan egoteko. Sartu giñan barrure eta jo genduen despatxuko atie, eta urten euskun uniforme-zko batek. Eskatu geuntsan berba bi egin al baziran nagusiagaz multa baten gañien, eta ezezko erantzuna. Emon neutsan, eskutitz orri erantzuna emon al baeban egun aretan, eta onan erantzun eban: "*Aste guztikoak mai gañian eukiten ditu; zapatuan danak despatxau eta urrengo astian erantzune*". Atzera txanponik kostau barik etxeratu giñan; an amaitu zan multa ori be.

Baita, esan neutsan amar ordu kartzelan euki ginduezala eskumatar idazkaria Udaletik botateko.

Eta or amaitu ziran aurrerako itaun eta kontu artziok. Eta ez zan falta besterik: guztion gaitzespena edo onespena; eta danok itzar.



Neba-arrebak eta osaba-izekoak, Bolibarren. Beean, eskubitik leenengo, Tomas.

Epaia

1 937ko azillak 14. Egun batzuk aurrez emon euskuen egun onen albistie, olako baten; eta ordu guztietan ames bat: zer izango ete dan.

Egun onetan ogei bat lagun batera epaitu ginduezan. Unibertsidadetik sei, biñaka alkarri eskuak lotuta, Bilboko María Muñoz-era, *txaka-txaka*. Albo-ko gela baten sartu ginduezan, eta andik lasterrera, badator bat lista bat eskuen dabela:

-Tomás Guerrikagoitia.

Neure barrureko: "Bankilluen lenengo jarten direnak, saririk aundiena onakuetan". Eldu nitzan bankillure, eta aurrian dana bibotie! Eta eberdiko amabiak ziran; baña begiek be itsutzeko beste izer aurrien, eta trumoi ots gogorrenetan dagon eguraldiarenak arpegiek, erdi gorri begiek.

Guztiok sartu giñanien, jarteko agindu eben eta banan-banan, baktxaren informiekin edo akusaziñoiekin, asi zan fiskala. Ogeiren banaketa ori naikue luze juañ zan, itxura danez: guri etxakun logurerik etorri, baña bibotedunon artien bat baño geiago ziran zurrustadak egin ebenak. Amaika berba alperriko esan eben; eta geienak edo danak, guk ez ulerzeco.

Defensoriek beste antzeko ekiñaldi bat, aingeru papela egiñez. Zutitzeko agindu eben, baktxari sententzia emoteko. Fiskala asi zan banan-banan, nigandik asite lenengo. Nik ez nituen ulertzen berba motrollo batzuen ondoren:

-*Merecedor de cadena perpetua o la última pena.*

Olan, geiago edo gitxiago, beste guztiena.

Defensoriek beste ekinaldi bat: batzuentzat urtiak gitxitutia eta beste batzuentzat askatasun osua eskatuaz. Bai batak eta bai bestiak etxian ikasitako mezuak.

Atzera, idiak legez biñaka buztartu eta leengo lekura. Nire buztarri-laguna mungiatarra zan. Au Erzañako motorista izana zan.

Aurreko egunak kezka gogorrekuak, eta ondo-rengokuak ez bapere gitxiagokuak. Aurreragoko joera guztiak buruan bueltaka, eta itxaropen osoz onari bakarrik begira ezin egon. Ondo iruntsiak geunkezan onako kasu askotan jazo barri ziranak; euretatik bat ezaguna: Amorotoko alkatie izana, epaian *cadena perpetua* eskatuta; eta, jakiña, gizona eta etxeukuok trankil, salbau zalakoan. Andik egun gitxire, beste abixu barik, illuntze baten, kapillarako deia; eta onek ez eban beste ondorenik: goixian Derioko paretera.

Eta onako jazoerak asko entzunda gengoan. Eta beste jazoera bat, eta ezaguna au be: Errota etxiaren izena. Oni, fiskalak "*última pena*" eskatu eutsan, eta pozez kontari bere lagunakgana: penarik txikiena emon deutsela eta bixaramonian etxera pentsetan. Baña lagunak begiak zabaldu eragin eutsezenian, beste txori batek abestuko eban bere barruan, moral aundikoa zala ondo entzuna neban baña... Alan biarrez, suberte aundia izan eban, zigor ori *cadena perpetuara* jatxi eutsenian. Zorionak!

Onek Larrinagan jazotakuak dira, gure aita an egon zan egunetan. Onakuak eta txarraguak entzutia eguneroko ogia zan.

Beste albiste beldurgarri eta negargarri bat be eldu zan gure belarrietan: gu epaitu eta egun gitxira, Santoñan, Duesoko Penalian, ez epai eta ez arrazoi, biña partidu politiko bakotxetik, eta beste biña sin-

dikal bakotxetik, atera euren zeldetatik eta kanpo-santura, amalau batera eta danak euskaldunak. Ortik kontuak atera eziñik eztago gure buruan zenbat korapillo sortuko ziran egun larri aretan. Txanpona aidera botata egoan, lurrian laster zan. *Cara ala cruz* izango ete zan?

Ordu guztietan pentsetan, gau eta egun amesetan. Nik barruan entzuten dodan diadar ori, aurre-rago be aitatu dodana: "Tomas, ez zaitue ilgo", duda gorrian dabil egunotan.

Eta oso gitxik euken igesteko bidie eskuetan; eta gañera, seguru asko, iñok ez eban jakingo egunetan, an ez zan iñoz rekuenturik eta. Sinistu be eziñekua da, baña au dana olantxe zan.

Beste guztieri eutsi neutsen nire teman, baña emaztegaiak, ainbat erregu egiña zanez, eskatu eustanari erantzuna emon eta bere guraria betetia erabagi neban, eta eginda eukitia gitxienez, olerki modura egiña guztia:

Neure Joxepa maitia:
lerro bi zuzendu nai
eta pultsua dardarrez.
Urte askotan ibilita
maitemindu giñan alkarrez.
Urtea pasa da bat egiteko giñala biok,
pozez eta irribarrez.
Ekaitz madarikatu bat zala medio
atzeratua zoritxarrez.
Gure txoko maite onen areriuak
jagi ziran guzur ta indarrez.
Euskadi guztia ipiñi dabe
bildurrez eta negarrez.
Zapalketa onen aurka jagi nintzan
neban almen da indarrez.
Au dala medio epaitu nabe
eriotza zigorrez.
Onek banatuten gaitu biok

barru-barruko miñez da negarrez.
Baña oroituko zaitut
arimaren indarrez.
Ez bildurrik izan
beste bat maitatzeko nire orde.
Baña ez naizu aztu
zure otoitzez.
Beso artian laztanduz agurtzen zaitut,
Joxepa, azken arnas au emonez.

Guzti au eginda poltsikuan sartuta nenbillen bi-tartian, baten ikusi neban, baña eneutsan emon, le-en larri egoena larriago ipiñi baño ez ebalala egingo eta.

Epaiaren ondoren amar bat egunera, eberdi alde-ra, deitu ninduen bulegora eta irakurri eusten epaiaren sententzia: "*cadena perpetua*". Izenpetu neban amar milloiko txartela neuretzako izan balitz legez, nai ta gose ta miseri askok itxaron atzetik. Andik lasterrera andrageia ikusi nebanian, beste arpegi bat zan beria be, eta orduan emon neutsan agur ori eta poltsara sartu eban.

Amabost egun baño geiago egon giñan Unibertsi-dadean, eta bitarte orretan be, aurretik legez, eskobak egiteko giñarretan Asua aldeko mendixen izan giñan, aurretik be geienetan an izaten giñan eta. Egun aretan ardao mordotxue be edarra ekarri neban sabelien, ez giñarrak bakarrik lepuen. Beste bat be an zan amabi urteko zigorra eukana. Danok be atxur edarrak ekarri genduzan.

Ango kasu areri zenbat eta eragin geiago emon, siñistu eziñekuagoa bigurtzen da: onek ekarri eben eta jarraitu eben ordena ain gogor baten barruan, zelan kabitzen dan siñestu eziña, guzurra emoten badau be, ez geiago eta ez gitxiago, olantxe zan.

Espetxetik espexera

Azaroaren erdi aldera eroan ginduezan Eskolapiotara. Leen itxi dogun ori ondo betie baegonan, barri au ez gitxiago. Benetako tximurri mendia emoten eban; baña au be, espetxe tankera bakue.

Emen, lagun batek sukaldian biarra egiten eban; ezagun bat eukan eta onen bitartez egunero patata zuritzie artu genduen. Sukalde inguruan zan legez gure biar ori, ñoz patata frijidu batzuk be jausten ziran, eta dana txarto be ez.

Beste aldakuntza bat, Gabonetarako bost egun falta zirala, oraingotan, Zorrozan egoan *Upo Mendi* itxasontzira.

Laugarren aldakuntza genduen au, eta ez giñan eldu, esateko moduz, espexera. San Luis eta Deustukotik aldaketa sakonak naikue bai, baña benetako espetxe bateko egoera ordenazkorik ez.

Emen aurkitu nituen Larrinagatik egun gitxi aurretik ekarritako iru erritar; eta euren artian, nobixaren aita. EUNETIK larogetabederatzi, euskaldunak.

Aurreko orretan baño, osasun alderako, beste bat zan emengo egoera. Eguraldi onez beti egon al genduen goixen kubiartan; txarragaz, ikatz zuluetan bodegetan, erdi alkarren ganien. Ori, danetan antzera baten. Lo egiteko, zakuzko litera txiki bana. Onek danak zabalduen ziranien, pausurik emoten erreza ez; eta, biar izanik bazan, ganbaran irola eta guretzat auxe Patxiren txirola. Gorputz aldetik olan zan gauza guztietan. Jana, beti urria eta eskasa; au danetan antzera. Errukarri nok lagundu ez eukena.

Eleizan sarri entzun izan dogu gizonak sabelera-ko ogiari begira eztabela egon biar; arimarenaz be arduratu biar garala. Orretarako be ondo jatorra geunken geu legez preso eguena. Bere izena, Ramon Ortuzar, semez Begoñakue, abadegintzan berandu asitakue. Ni baño zarragoa zan, bazituan ogetamar urte edo olan, eta amaitzeko eukan ondiño abadetza. Oso biargiñe zan, batzuentzat "pelma" izan arren.

Illuntze guztietan, bodega bakoitxera etorri eta berbalditxua emoten eban gura dabenarentzat, eta ondoren *agurtza*. Bere ordu libre guztiak biarrien emoten zituen, aretan edo onetan.

Gu ara juan baño lenago asite eukan *Upo Mendi* ori txikien egiten, metro bat edo olan luze zala. Amaika ziri egin ondoren amaitu eban, baña bera zan legez, iguala taju guztian. Askok itanduten geuntsen zertarako egiten eban, eta erantzuna: gomutaki legez bere lagunik aundien bati eskeintzeko. Laster batera agertu eban nor zan ezkutuan eukan lagun aundi ori:

-Begoñako eta Bizkaiko Amari, betiko gomutaki euki dagian; eta gure daben guztiak, bakoitxa dagoen bodegara izen-abizenakin bota deiela txarteltxu bat.

Pelmatzat eukan guztiak be emen ez ziran atzera geratzeko egon.

Geiago bere barri zigurrik ez neban jakin. Libre urten da gero, esan eusten abade egin zanien Asturiase-ra bialdu ebela; gaur, bizi bada, larogei urte baditu.

Aste Santuen, Ejerzizixuek emotera josulagun gazte bi ekarri ebazan. Onek be, bera legez, mezara eltzen ez ziranak. Aste guztiko arratsaldietan ainbat berba egin eben; eta, geienen eretxiz, ba ondo, orduen entzuten ziran sermo bakoitxaren onduan, da pozik gazte biokin.

Zapatuen, inguru aretako abade eta praile an ziran, gure autortzak entzuten. Eundik gora autortuko ziran.

Pazkoz, meza emotera etorri zan jesuite ule urdin arro bat. Bere aunditasunak aurretik botiaz, kanpokonkentrasiñoetako au eta ori zala, eskerrak Franco-ri, Euskal Erria eta preso gengoanok aren miseri-kordiz gengoazala salbaute... Eta orrez gañera, zer ez eban esan gure erri onen aurka? Mezetatik alde egin ebenak izan ziran. Amar ez ziran Jauna artzera joan. Gazte bien eta Ortuzar-en biarra, amar minutuen triskaute itxi eban.

Upo Mendi onetako egonaldia laburra izan zan niretzat, baña emen era guztietako artistak azaltzen ziran. Danen buru eta asmatzalle, "Txaketua" izenez ezagutzen genduan mondragontarra. Onek asmauko ez ebanik... Aste guztietan antzerki edo kantaldi, bertso, bozeolari eta erromeri, edozer denpora pasagarri ateraten eban.

Barrura ez zan etorten kartzelerurik eta ez guardiarik, nozian bein izan ezik. Aurreko aldian, ligo-rrian egoten ziran; geu barruan, askatasun osuan. Onegaz arrituten ziran Larrinagan-da egon ziranak.

1937-ko Gabonak an pasau genduzan, eta naikue ondo: geienori etxietatik etorri jakun jana; eta edana be edozemat ortik edo emetik, alperrik zaindu, azaltzen zan.

Gabonetatik laster, nobixiaren aita gaixotu egin zan eta naikue txarto emoten eban egoala. Berrogetabat gradu sukar, eta anka bata ardaue baño baltzago eta aundituta. Barizek errementau eutsen; eta Gimón eta baita Gernikeko Alegria anaiak be an egozan, gu legez, barruan. Altzau eragin euskuen goiko ofizialen kamarotera, eta bertan operatu eban Gimón-ek.

Eta ixte ille bi, alako oe estu baten, bere biarrak guztiak geldi egoala egin biar, eta ezelako ontzirik ez. Lenengo monturako bateri kendu neutsan galleta kaja txiki bat, eta aregaz urrengo egunerako lortu genduen. Esan leikien lenengo gaixua bera izan zala ontzi aretan. Bestelan, eztakit zer erantzun euki leikien.

Sei illabete baeroiezan an presuek. Ain egoera txarra batetik, eta bestetik berak txarto emoten eban da ez neban uste bizirik urtengo ebanik. Baña egi biribile da egune aillegau arte eztala iñor ilten, eta onek beste ogetasei urte ondo sendo jarraitu eban. Larogetasei urtegaz il zan, eta bera barruretu ebanak baño barruko kezka gitxiagoz, seguru.

Emendik be, april azkenetan, aldra bat eruan ginduezan Duesoko *Penal*-era. Gure erritik bakarra nitzen onera eruana. Niretzako aldakuntza gogorra. Au bai benetako kartzela zala: iru pixu, eta pixu bakotxak eun zelda, irureun guztira. Ate guztiak zuzendariaren bulegotik ikusten dira. Gela onek, denpora normalian, bakarka egotekoak dira; baño bakotxian bost sartzen ginduezan. Bakotxa bost metro kuadrau ingurukoa, eta burdiñezko oe bat, bertan bi ezin egon, da beeko laurak txartoago.

Alan biarrien subertie, bostok euskaldunek subertau giñan: ondarrutar bi, azpeitiarra, otxandiottarra ta ni. Beste suberte bat: irolen onduen gengoan. Goixien ogei minutu emoten zituen bakotxaren garbiketa ta egin biarrak egiteko; lenengo kanpai otsien zur egon biar eban, batez be urrin juan biar baeban. Bigarren kanpaien, danak barruan eta bat atiari elduta. Irugarrenien, irureun atiak ots bat. Gabien oerakuen, bardin; eta ots bakar orrek ondo urten ezpadau, bixaramoneko ordu bireko patiora barik danok. Eta egun batekua bakarrik bazan, ondo, iñoz irukue be izan zan eta.

Gure alkarregazko ordu bi orrek garrantzi aundia eben. Esateko moduz, irureun familia batzen giñan plaza batera, egunero bi ordu, alkarri geienetan itxaropena emoten. Samiñak arindu al izateko joerak erabilten genduzan, eta au zergaitik egiten genduen be, ezkiñen konturatzen, da guzti ori goguak alan agintzen euskulako. Askotan geure buruak engañau egiten genduezala be konturatzen giñan, baño au-

rrera! Gure atze-aurre illunen onduan lagungarri ikusten genduan, eta beti bardin: aurrera!

Patitok zeldaratuten giñan, eta bost lagunek bost albiste barri ekarten genduzan. Onek izena "*bulos de patio*" eben; eta poz ikaragarritz egoten giñan alkarri onek azalduaz, pozaldi bat igaroteko. Bat erdi badaezpadakua bazan, beste laurak geienetan onak be onak ekarten alegintzen giñan, txar askori sarritan entzungor egiñez-edo, gure egoerak alan biar ebalako. Txorierritar batek, "Fiskala" esaten geuntsan, zelebria zan, eta sarri esaten euskun:

-Guk emendik geienok eulixek koxiten urtengo dogu.

Onegaz esan gura eban danok txabetak nasaitute urtengo giñala egunen baten.

Gure azpiko aldian, *Planta Baja*-n, direktoriaren ate aurrian, iru metro bitarte, *Celda 1^a* utsik egoan, guztizko apainduriz jantzita. Emen egon ei zan Sanjurjo jenerala, 1933-an errepublikaren aurka jagi zalako. Emen ille batzuk eroazala Portugalera iges egin eban. Gure moduan zaindu baleben, igesiko ete eban? Gatxa izango eban, nire ustez, kaiola gogor orretatik iges egitie.

1936-kua asi zanian, askok bera gura eben buru izan zedin. Berak be, berari toketan jakola; eta, egazkiñez etorrela, lurrera jausite il egin zan. Egun aretan, esaten ebenez, alan komeni izan zalako. Emen-go ezarlekuan beste bat egoan, eta silla baten ipurdi bi sartu eziñak, beste gerra bat ekarrelako, edarto konpondu eben.

"*A trankas y barrancas*", esan oi dan legez, emen igaro genduen aprillaren azken aldetik aguztuaren 4-ra arte.

Egun-senti aretan, ondiño illun egoala, eundaka kamioitan artu eta eruan ginduezan Santanderko geltoki batera, ego alderako bidea artzeko, ez gen-

kien nora. Tren luze bat egoan an geldirik. Aurrenengo ontzia eta atzenengua pertsonak juatekuak ziran; bitarteko guztiak, asto, zaldi, idi eta mando ibiltekuak.

Onetariko batera sartukeran emon euskuen txusko biña, iruna lukainka eta amabi galleta. Bagoi bakotxian berrogei, ez geiago-gitxiago, danok zutunik bete-bete egiten genduen.

Bederatziak aldera, *trik* eta *trak* gorunzko bidia. Probintzia batetik bestera pasaukeran guardiak aldatzen ebezan, asto, mando eta ontziak zaintzeko. Lantzian bein baztertzen ginduezan, eta ordu bat edo bi geldi. Badajoz aldian, agoztuen eguzkiak daben indar guztiagaz, eztago esan biarrik zer izango zan guria.

Ainbat pertsona inguratzen zan, geienetan edo beti erri ingurua izaten zan eta. Pentsakera batekuak ez zirana arpegian ezagutzen ziran geienak. Batzuk inguratzen ziran galdezka, aren edo onen ize-na emonaz, ezagutzen ete genduen, gerrara eruan da barririk ez ebela ta jakin miñez, arpegi tristez, geienak aur gazte bat besuetan.

Beste batzuek, “ipar aldetik garoiezan pizti gorri adardunek” ikustekotan, alan esaten eutsen radiotik Queipok eta. Bateri baño geiagori entzun neutsen:

—Pero éstos no tienen cuernos.

Baziran laguntzeko gertu egozanak. Guk ura bakarririk eskatzen geuntsen. Onetariko batzuk bildurrez, baña beste batzuk baimena eskatzera juaten ziran gure aingeru-zaintzalleengana, eta ekarten euskuen botilletan; beste ontzirik ezin eikien sartu. Leio txikiok burdin barrak eukezan, eta ekarten euskuen ur ori, aingeruen eskuetatik artu biar zan.

Ontzi orrek, asko barruan geratu jakuzan, eta laguntza aundi bat ziran bakotxaren txakolin barrikiok gañezka egin gura ebenerako, nora artu eukite-

ko, eta nora bota erreza zan ontzi orrekin. Baziran esan ebenak jan ontzira egin biar izan ebela; eta erdia kanpora eta erdia barrure bota biar izan ebela. Ainbesteren artian, ezta siñestu eziña; eskerrak barrika orrek goitik saka aundirik artzen ez ebana, bestelan...

Onen antzeko egonaldiak bat baño geiago ziran; iru bai beintzat, eta guztietan antzera.

Bidian kurutzau giñan, gu ego aldera legez, egokuak iparrera guria lako trenkada bategaz. Gauez izan zan au. Guzti onen asmua zan bakotxaren familiaratik urrintzia, min geiago emongo euskula jakinéz.

Iru egun eta iru gau bidian igaro ondoren, agustuaren 7-ko goixeko zazpirak aldera, eldu giñan Puerto Santa María-ko geltokira. Batek baño geiagok iñuen:

–Oraintxe pistola bat baneu neure eskuetan, naita neu be laster ilko ninduen, bost edo sei aurretik juan biarko eben.

Gizonari beste gizon batek emoteko tratua ez zan, da iñondiko eskubiderik ez.

Protestarik egiteko gaztiak giñan geienok, baña asko ziran irurogetamar urte eukezanak be, euren azken urtietarako ibillera onek, familiaratik, beren errietatik eta etxetik ain urrinduta... Onek ikusita, guria gatx biarrez be, mun egitekue zan.

Barrura ginduezan, zuzenian zeldak baño ez egozan patio batera. Penal bakotxak bere baldintzak, eta normalian sarrerako illa zeldetan egin biar zana. Emen be bakarrekuak baño txikiagoak, eta iruna sartu ginduezan.

Gu an patixuen zain gengozan. Aurreko txandakuek brigadetara aldatzen ziarduen, eta erritar baten izen-deiturak entzun nituen. Enekién gure errikorik bazan an, baña asko poztu nintzen. Gañera,

entzun neban izen ori, erritik alde neban ezkeru ikusi enebana zan.

Gero jakin nebanez, amar egun aurretik ekarriak ziran Larrinaga eta Karmelotik. Bigarren au, Begoñako karmeldarren etxia, espetxe bigurtute eukena; gañera, Aita karmeldar mordo bat be preso zirela, euren artian, nire amaren neba bat.

Aita onen artian, bat eriotza zigorragaz, eta zigor ori ez eutsen kendu ogetazazpi illabetian. Zenbat ames larri egin ete ebazan il guzti areetan? Ondo ezagutu neban, bai aurretik eta bai atzetik; guztiz burutik be apurtuta geratu zan.

Abade eta praille mordue ziran, eta onek danok alkarregaz, gugaz bananduta, euki ebezan.

Azken aldian, Carmona-n, gerra amaitukeran, Besteiro itxi eban errepublikak, Franco-k burutza artzeko. Oni emon eutsen bizitza guztiko zigorra, eta an sartu eben, abade-praillien artien. Sozialista zan, baña prailliok eurok ez ete ziran sozialistiago?

Noian atzera zelda inguruko patiora: an itxaron genduan eberdi pasara arte. Ekarri eben oiturazko salda, patata, aza-trukutz, sebo bildriz batzuk uretan dantzan da txusko bana. Santanderko geltokiko lukainken ondoren, laugarren egunera dijestiñoie dezente eginda egongo zan... Bankete onen ondoren, banandu ginduezan zeldetara.

Bakotxaren izen-deiturak entzunaz, irukote bakotxa zelda batera. Nire beste lagunak bilbotarra eta gallegu bat ziran, Duesotik etorriak irurok. Nai ta alkarren ideen barri gitxi jakin, arpegiz sarri ikusiak giñan. Emen amar egun euki ginduezan, ogetalau orduak andik urten barik, derrigorko biarrik ezpazan. Naikue ordu, bakotxak genduzan kezka ta nalgabiak alkarri emoteko. Bizkaitar biok JEL-kuak giñan; bestiak be gerra emen egin eban, baña bere erriko informiekin epaitua izan zan. Gallegista ta ezkertiarra zan. Ordu luziok asko laburtu genduzan.

Emen, normalien, ez zan Dueson legez, zelda utseko bizimodurik: eguna geiena patixuen, gura badau –penal guztian sei patio egozan–; baña baxotxa berian egon biar zan, nai ta au sarritan austen genduen, pixka bat beteranu egin giñanien. Olan, emengua Duesokue baño askoz zan obiague. Zelda guztiak ementxe egozan bakarrik patio onen inguruan.

Amar egunok eginda, emendik eruan ginduezan *8ª Brigada Patio Tallerretara*; gañekoak an egin nitan. Urte bietan eneban geiago zeldetako patixuan ankarik ipiñi, eta sekula bururatu be ez beste patio bat.

Iñoz ankarik ipiñi enebana, gaixotegikua; parte bat subbertez esan leike ori. Bertan egozan Bilboko medikurik entzunetak: Gimón, Arrazua. Baita beste bat entzuna zana; enaz gogoratzen bere izenagaz. Baita an egon ziran Gernikako lau anai Iruarrizagak: euren artian, bat ala bi eztaikit, medikuek, eta beste bat botikarioa, antzertilaria eta abar. Eta ez bakarrik Bizkaikuak, lau probintziakuek. Niri bi aldiz sukarra artu eustana, donostiarra zan.

Guazen barriro bizileku barri onetara. Emen izan zan, Puerto-n, nire egonaldi guztia askatasunera arte. Urte bi, gitxi gora-bera.

Brigada onetan sartu ginduezan irureun lagun, eta bardin gure albuán eguan zazpigarren brigadan be. Zutunik dana betetan genduen; zelan etzun? Ez uste izan buruausterik ez ebanik: lasto, auts da zikiñez betetako zaku bitan iru lagun sei baldosen barruan, buruakin alkar jotén anketan eta baldosa bat libre iroletara juateko. Lasto zakuok lastotan aiña pixu baeben zorritan; au, aurretik egon ziranen erentzia, eta gañera geuk geroezanak. Eta alperrik onen laguntza barik bizi nai izatia; ez egoan biderik ez modurik ori lortzeko gure esku.

Patiokua zan gure egonlekua geienian, eta eskerak. Seireun lagun, eguzkia artuez, egoanian; edo

otzik, ez egoanian. Beste gauzarik ez zan ikusten, goian zerua izarrez edo urdin da laiñuz, eta trenaren txistu batzuk. Geltokia egoan bastante urrian. Nire begiak ez eben ikusi beste gauzarik urte bi aretan.

Brigada bi onen onduan, *Tallerra* deitzen eutsen beste brigada bat. Biargin mañoso samarrak ziranak emen egiten eben biarra gura; eben guztiak ez, baña al eben guztiak bai. Asko egiten zana, alpargatie, minbrezko otzarak, eskobak, kapazuek, zapata konpontziek eta gañerako txutxilleri asko. Direktoriek, pieza bakotzeko uskeri bat ordaintzen eutsen, eta onek be pozik, praka zarrei aldien eusteko moduen; diretoriek, barrixek.

Nire ardurie, erritarren berri jakin naia zan, eta gure patio onetatik zelan pasau biar eben Tallerrera penal guztikuek, aregaz edo onegaz eldu nitzen barri jakitera. *Penal Zarra* deitzen eutsen lekuan egozan; baña barruko barririk ez, eta Penal Zarra ori barruan ala kanpotik eguan be ez.

Lau egun baño leen, an kartel baten irakurri neban arratsaldeko bostetan gura daben guztientzat errosarioa egoala Penal Zarra-n. Edarto etorri jatan eskura neuk gura neban txoria. Andik aurrera, bazkal ondo guztietan juaten nintzan. An aurkitu nintuan bost erritar. Iru ziran Karmelotik eta bi Larrinagatik ekarriak. Zer esanik ez, bakotxak jasan daben egoera kontatuz lenengo egunak. Ez ziran bardiñak Larrinagakuenak eta bestiak; kartzela beti kartzela.

Penal Zarra au, lekaime-etxe izana zan: eliza zar aundi bat; erdian klaustro ta patio aundi bat; lekaime-etxe guztiak daben legez bizilekuak, eta ate aundi bakar bat. Onek emoten eban patio zentral nagusira. Ona datoz beste patio guztien urteerak be.

Itxura dabenez, lekaime-etxe ori zan bakarrik *penal*; beste guztiak egitura barriak ditue, gitxienez ekiñaldi bat baño geiagotan egiñak. Guzur edo egi,

Cristóbal Colón-ek, lenengoz Ameriketara urten ebanien, eliza orretan entzun ei eban mezie.

Ille bi ingurura, lau erritarrak eruan zituen Huelva-ra. Erritar bi geratu giñan; inguruko errietako asko be baegozan, eta egunero jarraitzen neban juaten.

Errosariora, sei millatik, ogetamar-berrogei lagun izaten giñan. Kapillaua geienetan ez zan etorten eta gutariko bilbotar batek egiten eban. Iñoz txarlarren bat ipinten eban, baña ona jende gitxiago etorten zan.

Nik *agurtza* atxaki neban legez, eurak be artu al eben beste atxaki bat tallerretara juateko. Emen gauza asko egiten ebezan presuak gomutaki legez erosteko, ta eragin be bai alako edo zerbait. Onako atxakiz, dana edo konbeni jakuna egiten genduan batetik bestera ibiltiagaz. Esakera da “ibiliz egiten da bidia”, eta egia da.

Ekonomatua zan dirua eukanaren salbamena. Gure patixuen amarretan zabalduen eben, gura dabena ezer erosi. Zer esanik ez, jakia gure erostekua: galleta, pikopasa, arrain-lata, lukainka edo olako zerbait. Emoten euskuenen gañetik zeozer derrigor biar zan. Niria, geienetan, iru pikopasa izaten ziran, beste ogetalau gañetik jateko gogoz geratuta.

Emoten euskuena miseri utse zan: goixien gosari legez, ur loi apur bat –“leixebe ure” esaten geuntsen–; baña letxe-kondensada apur bategaz, zeozer zan. Gerrie amaitu zan egunetik aurrera, goixeko ori emoteari itxi eutsen; eta andik aurrera, illuntzeko zortziretatik bixaramon eberdiko amabiak arte, baru.

Eta eberdian, betikua: egun guztirako bollo txiki bat; bera artuaz, beste kazu txiki bat bete uretan igerian patata, garbanzu, lenteja, sebo bildriz batzuk... Barriro kolara, bera be, dan txarrien, beste apur bat jausiko balitz! Baña amarretik bederatzi uts.

Illian bein-edo, etorten zan naikue jan al izatie. Eztakit zer zan, patata edo erremolatxa klaseren bat,

“moniatue” eukan izena. Gozo-larri emoten eban. Etxakon askori gustetan eta ez eben artzen. Lau bider kolara juaten baziñan, danetan artu al zenduen. Eun kilo jan biar ziran arrautze baten indarra eukiteko; “*uno-ra por kilos*” esaten genduen, eta aurrera!

Urtian lau aldiz baso ardaue emoten eban preso bakotxarentzat *Osborne* Etxiak. Onek eukan penal au surtitzeko eskusibie gauza guztiakin, esaten euskuenez; baña eskertzekue zan gogoramen ori. Egunok onan ziran: *Virgen de la Merced*, Gabon, Pazko eta bere urte betetzie. Egun onetan, ekonomatoko leiuek izaten eban nok zaindu, zortziretatik asite. Amarrak arte ez eben edegiten, baña danak artuten eben. Banaka batzuk, edo geienak, tratue eginda eukiten eben onenbeste diru alde. Bilbo aldeko txikiterotan be asko egon, eta auek, egun onentzat aspaldian baru eginda, atxur galantak egun orretan.

Presuentzat baño obie ondiñok, etxe onen amnistraziñuarentzat. Basokadie emon biarrien, txikitue be txikixe emoten eben. Sobretan zan ori, nozbeinka, zuzendariaren grazia balitz legez, emoten eben, baña ondo ordainduta, kalian baño be garestiago. Zenbat lapur gure lepotik!

Emen ez zan astian entierru bat edo bi baño, eta gaztiak geienak: amazortzi urtetik ogeira geienak ilten ziranak, bularretik batez be, geienak iñundik laguntzarik ez eukenak. Batetik alimentu eskasa, eta bestetik osakairik ez. Osakille on asko, baña osakaiak urri.

Euskaldunok ixillien egin genduen fondo bat onei laguntzeko, eta onan batzuk salbau ziran. Baña, alan da guztiz, banaka jua, beranduegi tratau zirelako eta abar. Askori agur egin izan biar geuntsen. Gaxotegian ilten ziran danak, eta patio zentraletik pasetan ebezan. Ara juaten giñan geienok edo asko, azken agurra emotera.

Beste au be, ezta siñesteko erreza: kanpoko ate nagusian kanpora aterateko, direktoriak anka azur

biak austen ei eutsezan mailluka bategaz. Penalaren baldintza ei zan au.

Eldu ziran 1938-ko Gabonak be, bakoxta bere familiarik urrin. Baña askori, batzuei eskatuta, edo eskatu barik, eltzen jakun pakete bat, askotan apur bat murriztute bidien edo ona barrure sartueran, ondo astinduta emoten zituen eta. Alan da guzti, alegintzen giñan egun orrei berezitasuna emoten al zan negurrian, iñundik laguntzarik ez ebenei be parte artu eragiñez eta abar.

“Diruak ate asko zabaltzen dabela” da esakerie, eta emen be baegozan denpora guztian kanpotik etxeren batek jana ekarten eutsenak, bat eta bi baño geiago. Onek ez genduzan guk ikusten nun jaten eben. Baña geienetan edo beti egiten eben, lenengo emengo kolan emoten dabena artu, beste bateri emon eta gero euren lekura jua jatera. Au be beste batzuentzako laguntza zan.

Onen artian, famaue zan “*Baranda de Atxuri*”, bilbotarra, jakiña. Au iru laguneko zeldetan egoan. An egotie be, biarbada, txintxiñaren otsak lortuko eban. Onek, zeldako irurena ekarten eban: “Idazkaria” eta “Maiordomue” deitzen eutsen bere lagun bioi.

1939 urtian, asikera aldi, atera eben presuentzako astekari bat: *Redención de penas por el trabajo*. Onen zuzendaria, Pérez de Pulgar, josulagun bat zan. Preso eta kanpo-konzentraziñoetako nagusi egiten eban. Onek atera eban, egun bateko biarragaz, egun biko zigorra ordaindu. Lege onegaz uste eban preso guztientzat ama errukiorra bigurtu zala. Lantzien artikulu aundi bat ateraten eban astekari orretan. Emondako zigorrak arintzeko, bere benebolentzi guztiz, Franco-k bakarrik artu eban errebajia gora eta bera egun guztietan.

Astekari ori ez zan duan etorten, baña brigada bakoxtara iru edo lau sartzen ziran. Neuk be artzen neban; gauza garbirik ateraten gatxa zan bertatik,

baña lagunduten eban kanpoko barri batzuk jakiten. Guzur tarte orretatik ateraten genduzan, eta aurrera.

Urte onen azken aldian, albistea astekarian bertan, Pérez de Pulgar ori il zorian egoala. Sinistu ezin ga giñan geienok. Andik amabost bat egunera, il zala. Astekariak, iñungo gorantzak, zigortu guztien aitarik aundien bat il dala, eta guztiori otoi egiteko eskatuaz. Zuzendariak dei egiten deusku guardianen bitartez, arratsaldeko lauretan asi biar zala errosarioa, goralmen guztiak emonaz gizon santu orri.

Patio zentralian ospatzen ziran olako guztiak, domeketako meza guztiak eta abar. Penal guztitik biñan formaute jua giñan, brigada-buru egiten eban aurrerengo zala, au be presue. Amaitutakoan, atzera lengo lekura biñaka formaute, tronpeta soiñuz, gudariak legez. Era onetan egin biar zan errosarioaren asiera ori: *tirit* eta *turut*, ara ginduezan bost millatik gora. Ni patio erdi inguruan toketan nintzan geienetan edo beti.

Kapillaua bera zan, eta beti meza laguntzera ekarten eban amabi urte ingurukue. Asi eban berbaldi labur baten ondoren, "*Gloria al Padre y al Hijo y al Espíritu Santo*". Naikue urrin nenguan, baña monagilluaren erantzuna argi eta garbi entzun neban bakarrik. Patio guztian euli baten burrundaririk be ez zan entzun.

Aurreko illedan egozanak esan ebenez, suteko prasa baño gorriago egin ziralapaiz eta zuzendaria. Jagi zan zuzendaria bere ezarlekutik, deitu eutsen kartzela ori zaintzen egozan gudariei, eta ipiñi ginduzan soldauz eta ametralladorez inguratuta. Berak be ez ekiela emoten eban zer egin guregaz; guri txarrena be burutara jakun baña ez zan olakorik jazo.

Danok atzera brigadetara, denpora negurribageko zigorrez patiora urten barik. Guk geuk egin genduen ori sinistu eziñik, alkarri galdezka zelan urten

leikien bost millaren artien danak ain bat etortie. Niri ez eustan esan iñok:

–Au edo bestie egin biar da.

Eta beste geienak be onan esaten eben. Gaur be gatxa da au irunstie. Au baño milagro txikiarik bada, nire eretxiz, sinisten dogunik. Guzti au or dago ondiño testigu askorentzat.

Lau bat egun barruan geroiazan. Geu be ez gengan ondo, baña tallerra be geldi, ekonomatue be geldi... Onek beste batzuei be aiena pupue emoten eutsen. Guardianak asi jakuzan esaten egoera txarrien gengozala, eta bederatziurren orri jarraitu egin biar jakola; eta, errezauko ezpadogu be, egingo bagendu legez, burruna bat aterateko esaten.

Onan, barriro asi eragin euskuen. Nire inguruen, *Agur, Maria* ez beste guztiak entzuten ziran. Eskerak bederatzi egin biarran, iru egunekuagaz amaitu zala, eta atzera bizimodua normaldu zan.

A trankas y barrancas, egunak eta illak aurrera. Udabarria; eta onegaz, gerriaren amaiera. Dana fanfarria eta gogorkeria. Leenguekin gañera, txistu garratz asko iruntsi biar gure aldetik.

Au gitxi izango balitz legez, aurretik ogi zuria emoten eben eta gero baltza. Aurrerago esan dodan gosari moduko ori be kendu eta beste erosteko gauza guztia karutu. Madril jausi baño gitxi aurrerago, ogi zuriz bonbardeau ebela etorri zan gure belarrietara. Dana engañue!

Batzuentzat, negu baltzetik udabarrirako aldakuntza alai bat izan zan. Baña gure begiak laño baltz eta astunak ikusten ebezan: Euskadi, otso amorratuen erpietan. Bere aldez burrukatu ziran asko, illak, erbesteratuak, espetxeratuak... Aske ziranak gaitz erdi, baña ondo bildurtuak piztien aurrian.

Naigabe guztion artian be, ortik edo emendik eguzkiari asi ziran laño tarteren batzuk agertuten.

Uda orretan bertan, emen erpiak zorrozten ibili zan Alemania, bere Hitler buru zala, lantzian erri bat zapaldu eta bereganatuez. Onen ondorenak argi ikusten ziran. Auzorako gauza ona ez etorrela ikusten zan; baña onegaz guk emendik urteteko bide bakar legez ikusten genduen, dan gitxienien be. Kaiolatik igestie genduen ames.

Askorentzat ikaragarriz illun eta baltza izan zan 1939-ko udazken ori, guk itxaropentsu artu genduen. Guretzat, espetxeko egunik alaitsuenetako bat, zer esanik ez. Gure astekari orrek, guzur da naste, gauza barri asko ekarten ebazan. Zer esanik be ez, Hitler-en goralmenak eta olan ziran lenengo egunetan, illetan eta urte geiagotan be bai; 1914ko gerra ezagutzen genduan zelan izan zan eta bere amaiera. Au zan gure ames.

Iskamilla guztion artian, 1939-ko Gabonak oso ameslari, Urte Barria oso barri zala, nun datorkun *Boletin*-ian “*revisión de penas*” kartzelako guztiontzat. Emen baieztatuten zan gure udazkeneko amets ori. Munduko txar guztion artian, gu pozik giñan.

Eldu zan maietz aldia, eta asi ziran batzuen urteteko egunak jakiñez. Gimon sendagillea izan zan lenengo urten ebana, bakarrik; eta olan aurrerantzian, bi, iru, launaka... Aste guztietan bakotxa adi, noz norberana entzungo.

Ara emen arrezkero izan dodan eta sarri esan dodan egun alaienetariko bat: 1940-ko ekainaren 13-a, San Antonio eguna. Beti legez, errosariora juanda nitzen. Andik neure patiora eldu nitzenian, an ebillan nire albistiagaz buleguan biarra egiten eban gernikar lagun bat, berau be presue, 18-an goixeko bederatzietan biar genduela urten beste lagun bategaz esanaz. Au be, semez gernikarra, Bilbon bizi zana, ogetalau urteko legegizon gaztia. Bost egunok askoren zorionak artuaz pasa eta askatasunera.

Kartzelatik kanpora

1 940-ko ekainak 18, goixeko bederatziak aldera izenpetu genduen geure urtenkera; emon euskuezan bakotxari biar ziran agiriak, eta kalera, egia zanik be siñestu eziñik geure buruagaz be.

Nire lagun au, kaletik eguneroko jana artuten ebanetarikua zan, eta ango nagusia agurtzera juañ giñan. Onek, gura genduanetik emon euskun gosaria, eta ondo etorri zan beteteko otzaria. Gero berandu izango zan bazkaria.

Bagoaz Sevilla-ko bultzia artzeko geltokira. Kaio-la aundi orretatik urrintzia da gure poz bakarra.

Azken egunetako gerraren jazoerak goibeltasun aundia sortu eben espetxian; eta antzekua, zer esanik be ez, askorentzat kaliañ be. Iñok ez eban uste ain samur Paris bat artu al izango ebenik, bestiak beste ziran arren. Eta guregana eltzen ziran albiste guztiak, egun batetik bestera mundu osuaren jabe egin biar ebela. Nai ta ainbesterik ez genduen sinisten, txistu larri asko iruntsi eragin eban, ez gure artean bakarrik, mundu zabalian be bai. Eskerrak kaleratiak arindu euskula zartada gogor ori.

Arratsaldeko irurak aldera eldu giñan Sevilla-ra. Geltoki inguruan bazkaldu genduan. Inguruan ibilaldi bat egin ondoren, Iparrerako Geltokira juañ giñan zaldizko ibilgaillu batean. Illuntzaldian apari moduko bat egin, eta beste ogitarteko bana biderako, eta trenera.

Bidian, ainbat ordu lo eta kontu Madrillera. Bakotxak eskutitz pillo aundi bana genkarren barruko

lagunenak. Nik banekazan berrogeitik gora bidian botateko; eta beste ogetalau, etxietara eskuz eruateko. Lagun orrek, antzera edo geiago.

Pixka bat urrindutekuen botatie pentsau genduen, sospetxaren bat sortu ez dedin, eta Madrillen bota genduzan, bakotxak iru-lau ontzitarra. Ona, eberdi berandura eldu giñan. Egoko Geltoki inguruan bota genduzan batzuek; andik Iparrekora tasi baten egin genduen, eta emen bota genduzan beste guztiok.

Emen bazkaria egin eta siesta luzie egin genduen, gauberdian urten biar genduen eta.

Geratu jatazan ogetalau eskutitzok, Bilbo eta inguruetan zabaltzeko ziran, Santurtzen asi eta Galdakao bitarte guzti orretan. "Zelan arazo ori artu? -norbaitek esango dau-. Bolibarko batek Bilbon arazo ori?"

Baña onan jazo zalako: nire anai nekalditar orrek, urten baño illabete inguru aurretik eskutitz baten esaten eustan, nire espediantiar buruz euki ebalak kartazko entrebista alako jaun edo ministrua-rekin, eta seguru urtengo nebala eta laster, eta lenengo denpora aldirako Deustuko konbentua ipinteko egonleku-residentzia. Nik eneban onako usterik, baño alan egin neban. Eta, au jakiñian, batak eta bestiak eskatzen eusten mesedea, eta ezin ukatu.

Anai au Galizian egoan. 1938-ko San Pedro egunian emon eban bere lenengo meza. Nire arazo gogorretan ibili zanian ez zan ondiño abade. Ikasketak eginda eukazan, baño urtiak falta.

Meza emon da urte bat pasaure, anai biak etorri ziran, iñoz ikusi barik Cáceres-en egoan aitaren arreba monjia be ikusiaz. Onek be, etxetik urten ebanetik eta il arte, onetxek bakarrik ikusi zituan. Oso gustora geratu ei zan, zer esanik ez.

Eta ni be enitzen asarre ikustiagaz, urte bian ori izan zan ikusketa bakarra, eta orrenbeste euki ez ebenak geienak ziran gure artian.

Anai zarrago ori alde bietan kapillau ibilita egoan, eta prailiek eztira errimiak, baña txanponak itxi ebazan, eta dana ondo.

1940-ko ekainak 20, eldu giñan Bilbora. Eberdi aldia zan. Alakorik ez genkarren buruan, baña iru urte Bilbo jausi zaneko jaiak egoazan. Dana txapel gorritz, falanjez, bandera fazistaz, pankartaz “Hitler Europaren jabe” eta olakoz, kale guztiak oztopoz.

Emen banatu giñan alkar agurtuaz, bakotxa bere lekuetara. Geiago eztoгу izan alkarregaz tope egiteko suberterik berrogetabost urtian, eta biok bizi garala uste dot Bizkaian. Beste askorekin eta ainbestegaz izan dot tope egiteko suberterik, askotan gañera.

Neure aldetik, zarata edo burrundada gitxien egoan lekuetatik eldu nitzen San Felicísimo-ra. Emen bakie ikusten zan kalekuaren onduan. Anai zarra be emen egoan, eta beste asko be bai ezagutzen nituanak, eta Aita Patxi euren artian. Aita Martin Elortza zan nagusia. Probintzial be bi aldiz izan zan. Azkenien, Perú-n gotzain egoala il zan. Benetan jatorra eta entzuna.

Kaliak baretu ziranian, asi nintzen neure bana-keta ori egiten. Eneban pausu gitxi emon biar izan kalez kale, zapatak be erdi apurtu arte. Gosalduta urten neban. Guztietan edo geienetan, barriak jakin guraz egozan. Danak zerbait eskinka eta abar. Olan izaten ziran bazkari, nai merienda, nai apari. Lotarako, praille artera.

Egun gitxira ama etorri zan; ni gabera arte enitzen etorri, eta ikusi barik ez juatiegaitik, bertan lo egin biar izan eban. Bixaramonian San Juan, eta erriko jaiak, eta illuntzera arte nun juanik ez, eta telefonoz konpondu biar. Beste olakoren bat subertau eztadin, begiak zabaldu ziran.

21-ian andrageia izan zan, baña ondiñok asteko nenguen biar ori egiten, eta bost bat egun biaroko ni-

tuela uste neban, azkarren ibilita ori, eta zazpigarrenian amaitu neban: guztiak jakin minez. Illeroko tarjeta postal txiki bat baño ez egoan andik egiterik. Eta ori, geien egiten ebanak, eta kito.

Baña Joxeparen ardurarik aundiena konbentuan egotie eta residentzi legez ori ipintiarena zan, *ya-ke-eta* barruan ainbat egonda nenguan, barru-zaletasun orregaz praille abitue eskatuko ete neban, eta berak be monja edo beste bideren bat artu biarko ete eban, ez zan gitxiagorako burubide ain aldrebek ori eta.

Azkenian, dana geure moduz konponduta itxi genduan: 29an, San Pedro egunez, bera Durangoko bere osabakgana etortia, eta nik be biar ori amaitu eta ara juatie. Emen egune pasau eta biok errire, au zanda legie.

Kalian tope egin neban nire osabagaz, denderue zan eta erosketak egitera etorrite. Onek kontau eustazan txiste bi politek. San Juanetan, errian idi probak eta abar egon ei ziran. Zuzentzen ebillen jauntxuren bati norbaitek esan ei eutsan:

–Tomas Alegrixek kartzelatik atera eta kanpuan ei dabil.

–Etxuat sinisten: baño ori alan balitxok be, arek ondiñok euko dau nundik eldu, barriro atzera leengo lekure eruateko be.

Bigarren txiste au, berari osabari esandakua nire auzoko batek. Berau ez zan jauntxueta rikue, aurrengokue lez, baño bai aren gerizpien ebillena, urte bat edo bi zarragoa eta laguna zana. Osabak aurreko egun baten topo egin ebanian, onan esan ei eutsan:

–Badakik Tomasek kartzelatik urten dabenik?

–Kartzelatik urten arek?. Gerrie geuk ez gendun irabazi ala?

Ikaraz gizona...

Ortik aurrera kontuek ateraten ez dago gatx, zenbateko balio negurria genduen erriaren aurrian. Gizon orrek erriari iruntsi eraginda eukan gu geiago ez giñala errira agertuko! Siñestekue danik be!...

Nire egin-biarrok amaituaz, 28-an agur egin neutsan Deustu aldiari.

Galdakaorako neukazan eskutitz biak Durangoratzian egin eta amaitu neban lagunak emon eusten zeregin guzti ori. Batian bazkaria eta bestian arratsaldeko gogorra eginda, urten neban trenez Durangora.

Emen baekien juango nintzana. Aita zarra eta alaba bat bakarrik ziran. Onek be, beste famili asko legez, ondo zapuztute geratu ziranak: seme bakarra, *Kirikiño* batalloian, bonbardeo baten buruan metrailak jo eta bizitza guztirako gorputz alderdi bat osua inutil geratuta. Au jakinda, bere arreba ori, bera ikustera joiala, beste bonbardeo batek begi-bakar itxi, eta neba-arreba biak Euskal Gobernuak Ipar Euskal Errian eukan gaixo-etxera eroan eta aita zarra bakarrik egoan, irurogetamar urtegaz. Alabie etorri jakon pixka bat sendatu zanian, baña semia ondiño Iparraldetik zan San Pedro egun orretan. Andik lau bat illabetera etorri zan etxera. ogetabederatzi urte eukazan eta bizimodu gogorrari eldu biarra egoan egoera triste orretan. Alan eta guztiz, gaiztasun eta ezbiar guzti onen aurrian, ogibide bat aurkitu biar.

1940-ko San Pedro eguna. Oso alai igaro genduan. Joxepa be etorri zan goixeko berebillean. Tabirako San Pedron danok entzun genduen meza santua, eta ekaitz txar guztiok albora itxi eta bide barriak urratu naiaz, asmo onez, eguraldi txarrari arpegi ona ipiñiz igaro genduen.

Durango aldekuak ainbat geratu ziran nik urten neban leku orretan; eta beste asko, or eta emen. Ainbat azaldu ziran barriak jakin nairik. Batzuk etorri-

ta be baegozan egun batzuk aurretik, baña ez Puerto-tik. An ziran etxekoren bat edo beste, jakin minez, eskuetan gozoki edo edari eta abar. Guztiak eben itxaropena urrengo il barruan geienak edo danak etxeratuko zirela. Eta ez zan umore ona falta izan; abesti eta dantza, eguna argitzen ikusten asi giñala zirudien.

Ekaineko eguna luzea da; illundu baño lenago, iru gaztek euren kotxian ekarri ginduezan etxera, errira. Gazteria ordu orretan joian illuntzeko erromerira. Bidien tope egiten genduen guztiak agurtuez goiezan. Batzuk, barri ez ekienak, Aitiarenga asten ziran, ikusten ebena siñestu eziñaz.

Guri, etxe bietako ikusketak egiñez gautu jakun, eta kontu-kontari bixaramonian, illak 30.

Barriro gaztearoko bizimodura: aste guztian biar, eta domekan, jai eta erromeri.

Andik iru egunera etorri zan Joxeparen aita. Nik *Upo Mendi*-tik Duesora alde nebanien an geratu zan, baña egun gitxira Burgosera eruan eben; eta andik il batzuetara, Astorgara. Iru urte pasauan, etxeko arazo eta ardura guztiak emakume utsen esku. Baña alan da guztiz be, pozik bizibideari barriz gogor eltzeko. Eta utsetik asi biar, gañera barrien barriz, irurogei urte lepuan-da.

Nire lenengo biarra artajorran izan zan eguzki bero-berotan, euri lanbrue baño ohea biar ontarako. Lau urtian tutik egin ez eben esku azal fin-fin onek abade batenak emoten eben, baña atxurrari eta ortik aurrerako guztieri gogor eta gogoz eldu biar.

Garagarril orretan espexetan ziran erritar guztiak etxeratu ziran. Guztiak Udaletxera aurkezten ziran gañeko egunen baten. Eta emen sortzen asi zan burrun-burrune:

-Beste danok mantso-mantso datoz; eta lenengo erriratu zana, urreratu be ez.

Au niregaitik zan. Gogor arduratuta ebizan jaun-txuok. Beste guztiei askatasun agirian esaten eutsen Udal eta Kuartelian aurkeztuteko, baña nire agiriak ez eban agintzen alakorik. Niria askatasun osokua zan, eta beste orrena, askatasun mugatua. Onen barririk ez ekien, eta estu mutillok, zer pasetan dan jakin nairik! Ortik edo emendik jakitera eldu ziran Deustun ipiñi nebala bizileku edo egonleku, eta ortik asi ziran azterrenak jakiten. Baña ni an be ez nitzen iñun aurkeztu.

Etxera etorri ta berrogei bat egunera, Deustun egoan anaiak deitu eustan, Elorriagako kuartelera deia neukela. Eta jua nintzen anaiagaz, eta orritxu baten izenpetu eragin eusten. Neuk galdetu neutsen residentzia aldatzeko zer egin biar neban. Erantzuna:

-Askatasun osua daukazu, eta gura dozun lekuan biziteko libertadea dozu egoera ortan.

Baña, Goillebarren bizi banitzen, Markiñako kuartelian aurkezteko. Au be egin neban, baña buelta guzti onekin be, iñok ez eustan agindu Udalera aurkeztekorik. Or geratu ziran, leengo legez, kezka utsetan.

Uda azkenera giñan; da, biar bitartetxue aprobe-txatuez, Urkiolara jua giñan, amaren promesa betetera, etxera nintzanetik beti esaten egoan eta. Onan zan: bizirik etxeratzen banitzen, bederatziurrena Urkiolan, baña Durangotik gora oin utsian juateko biok. Joxeparen amak be promesa eukan bere senarragaz. Onena, bestera zan: bera oin utsik eta senarra oiñetakoz.

Or goiez, *txiki* eta *txaka*, bat zapataz eta iru ortozik, Durangon gosalduta Mañarian gora pozik. Gora eldu giñan da santuaren aurrian apalik, eskerrik be-roenak auspaz emon nairik. Oso atsegiñak izan ziran bederatzi egun orrek. Baziran bai, leku geiagotik gu legez gai bardiñez ziranak, istillu gogorretik igaro zi-

ranak. Otoitz eta bakotxaren pasadizu asko alkarri esanaz, oso atsegin eta labur iruditu jakun egonaldia.

Egun baten, danok juañ giñan batera Sabigaingo kurutze edo monumentu ori ikustera. *Por Dios y por España*-tarrak eginda dago, eta gorantza guztiak orra zuzentzen dituen arren, Kondaira edo Istoria aundia dauka, nire ustez eta len be esan dodanez, gure azken guda eta Euskadirentzat.

Eldu ziran 1940-ko Gabonak. Zalaparta guztion ondoren, barriro ainbat maite genduan sukaldian, guztiok pozez mai baten inguruan. Zorionez, eguraldi txar eta luzearen ondoren, eguzki epela pozkarri.

Urte barrian sartu eta laster, erriko idazkariak deitu eustan Udaletxera aurkezteko al neban bizkorren, nire garbitasunak jakin naiz ofizio bat etorri zala esanaz. Juan nintzan, eta berak irakurri eustan. Onan esaten eban: nire agiri guztiak desagertu egin zirala, soldadutzie egin neban ala ez; eta egin baneban, noz eta nun; gerratekuak bardin.

Guzti onek siñestu be eziñekuak ziran neure ustez, baña alan iñuan idazti orrek. Nik neure arridura azaldu ondoren, lenengo esan neutsan:

-Erri onetan eztago, Udala buru dala, nire ibillera guzti onen barri eztakienik.

Baña banan-banan esan neutsazan danak azkeñeraño; eta, jakiña, emon neutsan eskura nire askatasuneko agiria. Asi zan irakurten, baña obeto ikusi nairik-edo, betaurrekuok ondo-ondo garbitu zituan. Jugada guztia auxe eskutan eukitearren izan ete zanda nago gaur be.

Beste jazoera au be, bat-batian gogoratzen jatan ezkerro, esan biarrekua da. Enaz gogoratzen otsaillaren zenbata zan. Gau bateko *huracán* aixe gogor batek kalte ikaragarriak egin zituan baso edo mendietan. Piñadi asko deseginda itxi zituan. Baña ez zituan bakarrik baso-mendietan egin; etxe bakotxeko tellatuetan egindakuak ondiño txarraguak. Zapatu-gaba

bat zan. Igande orretako meza, bakotxak bere tellatuak konpontzia izan zan; eta egun baten konpontzeko moduan ebanak suberte aundia izan eban.

Tellia etxian subertau bazan, ondo; bestelan, oillo-etxiak eta olakuak barik itxi, eta etxia lenengo. Geuk be, etxeko guztiok, eberdia pasa arte, jo ta ke; eta arrastian, Joxeparen etxera. Emen, aita tellatuan, da emakumeak oni biar ebana eruaten. Tella lepadiaz joiala, ganbaran azpiko ola apurtu ta beko pixure tella ta guzti jausi zan Joxepa ori. Min gogorrik ez eban egin, sustua geiago eta biarrerako falta. Gaberako etxe biok ipiñi genduzan eta naikue pozik.

Etxe asko ziran astietako biarra konpontzen biar izan ebenak. Baita or-emenka teillatu osua egur da guzti kendutakuak. Zarrak esaten eben, euren us-tez, ez zala olakorik jazo izan zan gomutaik Euskal Errian.

Arrez gero be, aixez eztoigu izan baña bai ugelte naiku bildurgarri: 1983-kua bat, ondo goguan izango doguna.

Istripu eta astrapaladok alde batera itxi, eta guazzen barri alaiagoetara. Urtia pasauta dago etxera nitzala eta ezkontzeko eguna be pentsau genduen, irailaren 11ie.

Agustuaren 24. Igandie eta San Bartolo egune: lenengo deia elizan, oitura dan legez. Eberdian albiste bat ekarri eusten, bixaramonian Udaletxera juateko.

Juan nitzen; eta aurreko ipuin bera aurkeztu eustan idazkariak. Nik eztakit zer asmoz ebillen gizon ori: leenguari erantzun eutsala, baña atzera eskatu ebela. Emoteko neuri esan neutsan, eta baita emon be. Etxian neuk bete eta bota neban; eta or amaitu zan guztia, gaur arte.



Beesi-etxebarri baserria.

Ezkontza eta ogei urteko ondorenak

Egun bat aukeratu badogu eta orra eltzeko zain bagagoz, oker gogorren bat ezpada, bitarte orretan eztago utsik; elduko da eta beteko da, batez be, onako kasu bat danian.

Onek be eldu biar eban, orretarako ustez genbizen da. Amabi urte bost egun gitxiago ziran gure lenengo pausuak alkarregaz emon genduzala, eta bost urte ezkontzia pentsaute geunkela, gerra zala bitarteko atzeratu genduena. Izan da bizkorragorik gure au baño, baña buru guztiak eztabe bardin oldozten.

Egun orretan, anai zarragua etorri zan buzterrigille. Zarata gitxiko eguna, olakuetan bestera oi dan arren. Amarretan eleixara. Etxe biotan bizi giñanok alkarregaz bazkaldu, eta lagun baten autuan Debako geltokira Donostirako.

Urte aretan baserriko ogi zuriak entzute aundia eukan, eta nire amak eskuko zorruan ogi aundi bi sartu eustezan: bata, bere lengosiñe eta besuetakue zanarentzat; bestia, Donostian bere lagun batentzat. Asieran esan dodan legez, urte aretan, saririk, erregalurik onena zan.

Lenengo ori, Lasarten Txikiierdi auzunean bizi zan, geltokitik eun metrora. Urte bi eroiezan emen, ezkondu ziranetik. Biak bizkaitarrak ziran. Gizonak erri aretan biarra egiten eban. Geltoki onetan geratu giñan urrengo trena artzeko ustez. Laster tope egin genduen, lau illabeteko bere lenengo semetxua esku-burdian ebala, Maria Garrogaz.

Semetxu ori andik berrogetabost urtera Euskadiko lendakari izango zala inok esan baleusku, sinistuko ete genduen? Egun orregaz gogoratzen nazan guztietan, itaun au egiten deusat neure buruari.

Maria Garro zan bere ama; auzo urrena, Armola Errotie, etxiaren izena. Ainbat alegin egin euskun gau aretan bertan geratzeko: senarra, Damian Ardanza, biarretik bederatzietan etorriko zala eta aregaz be egon al izateko eta abar. Alan da guztiz be, aurrera jarraitzeko ustez, guztiok geltokira juanda gengoan. Tren ori, atzerakuntze aundiz, ez zan agiri. Illuntabartu eginda eguan, da geratzie pentsau genduen. Berak esan euskun *restaurant* bat nun egoan, eta ara juan giñan afaltzera; eta lotara, bere etxera.

Etorri barri egoan gizona, biak afarian. Andik eta amabiak aldera arte, amaika ipuiñi eragin geuntsen. Zer esanik eztago, gure gerra onen ondorengo ibillerak. Bera be batalloi disziplinarioan egonda egoan, eta kartzelako gure ara-onak...

Orrek guztiok atzera geratuaz joiazan. Orduan, guztion gogo eta aotan munduko Gerra Nagusia zan, eta bero-bero ebillen aldi aretan. Gañera, ondiño naikue zeregin emoten eban Hitler orrek: Rusian be aurrera eta abar. Baña muturreko edarrak be artzen asita egoan, eta guk onakuak pozik artzen genduzan. Kontuok itxi eta oeratu giñan. Goixian, gu jagi baño leen biarrera juanda egoan.

Gosaldu ta geltokira giñan. Laster giñan Donostian, eta zuzen *Kojuena* restauranterara. Emendik, amak emon euskun beste opil ori be eruan geuntsan bere lagunari. Oni be amarretako ederra artu geuntsan kontu-kontari, eta bapo.

Donostia jaietan egoan. Ainbat ikuskizun egoan: zirku, estropada... Eguraldia be ona egoan da, ondartzak be pil-pil egoan...

Guzti au gitxi balitz legez, "*Patxi Paredes*" esaten geuntsena *en persona* lenengoz emen ikusi neban.

Belarriak bere izen ori entzuten ondo antsituta baegozan be, begiak ikustera eldu biar izan eben kakanarru ori. Elizara joian eta atarira zeruakin urten eutsen. Gotzain, apaiz da erri, bazan alako eta onako "gora!" didarrik! A ikusita, nok esan baegoan Euskadirik?

Domeka gaberako etxera giñan. Bizimodu barriari eldu biar geuntsan arduraz, txanpon ondakin guztiak ez amaitzia genduan buruan eta.

Astelena. Emen asten da benetako bizimoduari adarretik eldu biarra. Zarrakgandik sarri entzundakua eta esaera da, "Ugazaba edo gizon barriak Erromara albua goikuaz bera sartu besterik ezpada", eta onen antzekuak egiñez.

Gerra madarikatu orren ondorenak urtiak jarraitu eben. Etxian ainbat izardiz artutako arto-gariak eta gañetikuen kupo bat errira eruan eragin lenengo, da geratzen zana aprobetxetako alde guztietako trabak eta oztopuek. Batian, gari-errotak prezintau; bestian, arto eta gari. Or-emen, mendi errotaren batzuk dana egiten ebenak. Zoratuez, baserritarrak mendiz mendi urriñeko errotetara, jango bazan; da ez baten bakarrik: gaur jua da bixer etorri, ainbeste batera ezin urunduta. Askotan, biar zan bestian ondo eta gitxiagorik be ez, asko alperrik galduaz. Ainbat onako ibili egin biar izan neban ezkon aurre eta atze.

Azkenez, gari guztiak or-emenka egoazan urunlandola aundietan urundu biar ziran. Asto-periak galantak ikusten ziran ola orren inguru, eta ortik aurrera. Emen ez zan itxaron biar aundirik egoten: garaua ustu, eta urunez bete biar zana bakarrik. Baña an egoten zan Gobernuko gizon bat zeetasunak eruateko, eta emen diruz eukan ordaiña. Dana zan, gure ustez, endredu bat: baserritarrak iñungo mesederik ez, da errotari gaixuei bizibidie murrutu.

Au onan ikusita edo, Armola Errotako orrek argi indarra ipintie erabagi eban, noraezien. Berak baeu-

kan aurretik be beste leku batetik ogei urte aurrera-
gotik, baña oso eskasa zan. Batetik, urrindik eto-
rren; eta bestetik, ur-indar gitxikue.

Bederatzi baserri beregandik ur gengoan eta po-
zik. Iñoz petroliue, karburu edo kandelie erretxinie
besterik euki ez genduanok giñan bederatziok. Geuk
agindu geuntsezan esku-biar guztiak, eta biar ziran
argi-postiak duan; berak *teknikie* eta beste dana. Ez
genduzan nekez biarrok egin; ille bireko, argi ori
geunken. Lasterrera, beste bost an ur egozanak be
sartu ziran; euren artian, nire jaiotetxia. Onek baeu-
ken beste argi ori, baña onek urrien artzen zituen da
askoz argi obie. Argi ori 1944-tik 1945-era zan.

Etxe aldian baneukan zer barrizturik eta zer egi-
ñik ugari. Guztiak al zan negurri baten aurrera
eruateko gogorik be ez zan falta, baña oztopuak be
eztira falta izaten. Amagiñarreba gaixo txar batek ar-
tu eban, eta zazpi urtian mobimentu guztiak iñok
eragin biarran gertau zan: oera ta andik sukaldera
egun guztitan, eta norbait biar inguruan.

Baña, onek ez ziran naikue. Mungiako lagun ba-
ten bitartez artu neban albistea, alako egunetan, Bil-
bon *Bar Gorbea*-ra juateko. Juan nintzan. An egozan
sei lagun; euretatik bi, kartzela-lagunak ziran.
Emendik beste Bilbo barruko pixu batera jua gi-
ñan, danok batera barik, biñaka. Emen baegozan
beste amar-amabi, batzuk ezagunak eta abar.

Batzar orretan sortu zan Baserri-Erri Txikietako
Resistentziako Junta, baserritarren artera be sartu
nairik, urietan asita egoan-eta asko aurretik. Bako-
txaren nundik norako biarrak banatzeko erabagia
artu zan: egun orretatik aurrera eskualde bakotxe-
kuak nun alkartu eta eguna. Guk Gernikan ipiñi
genduen, illaren lenengo astelenetan.

Lenengo batzarrian eskuan genduzan bakotxa-
ren nundik norakuak. Niriak: Arbazegi, Murelaga,
Gizaburuaga, Amoroto, Ispaster, Mendexa, Berriatu,

Ondarru, Markiñan baserri-partie, Etxebarri, Mallabi eta Goillebar.

Benetan zeregin gogorra eta arriskutsua zala ezin iñok ukatu. Leenguak leengo dirala, otsuen erpiak ikusten nituen, nai ta al dan seguruen jokatu. Guzti orren bueltan, dirua eskatzia zan, kanpuan da barruan, gure buruzagiak eukezan biar izanetan laguntzeko. Baña au gatxa da askori iruntsi eragitia, batez be baserriarren artian, urrindik-urrindik arpegia emon eziñk askotan, da norbera lotsatuez geienetan.

Mungia aldetik il guztietan etorten zan niregana karreriste ebillen bat. Onek ekarten ebazan orduan ixilpian Alderdiak ateraten ebazan orri edo *Euzkadi*-txuek. Emen isten eustazan lau-bost, zerbait atxaki euki neien iñoren poltsikuan eskua sartzeko lagungarri legez. Nik lagun aundizat neukan, baña ez zan arritzekua. Batzuek kezka da bildurrez artzen eben. Gatxa zan asko zabaltzie. Emoten ebenak, bost pezetako bat izaten zan; baña orduan diru orregaz gaur milla pezetakaz dagoan baño aparti ohea egin al zan, eta ezin esan ain gitxi zanik be.

Gerniken illeroko batzar ori mueble-almazen baten egiten genduen, dana ixilpien, eta orra autobusa egoan. Baña beste ibili ori ainbat aldiz egin neban bizikleta zarATEGAZ. Jai eguneko nire atsedena ez zan edarra izaten noz-beinka. Erri guztietan neukan kartzela-lagunen bat edo beste, eta urte orreetan ferixarako oitura edo jokera aundia egoan erri guzti orretatik Markiñako illerokora. Onan, al bait ibili gitxienaz konpontzen neban, jentia lar belarriak al tzau eztagizan eta abar, bizikleta zar orri be atsedena al dan guztian emonaz.

Dirua ez zan ekintza bakarra. Resistentzian genbizenontzat beste onek be bai: Franco-n irudien kontra au edo beste, eta kaleko protestak. Onek biok, urietan ikasleak eta abar egiteko, tira; baña baserri-tarrei, oso gatx.

Beste gauza bat, noz-beinkako onen edo orren *referendum*-ak. Orduan, onen astenziñorako edo kontrako papela sartzia. Baña emen be gatxa zan biar asko egitia: esan arren ori egin biar zala, azken orduen bildurtu eta juan egiten ziran. Gaur baño astenziño gitxiago agerten ziran bixaramoneko albistarietan. Amar urtez atzera be il ziranak botua emon ebela esan eikian, eta danak era batera “bai”. Derri gor bota biar olan, ez egoan askorik eta.

Onetariko baten, gure etxe zar onetan orman eukan lur eta karez egindako zati bat artuz juan nitzen lenengo mezatara. Negua zan eta illun eguan. Onan idatzi neban bide zabalian, kanposantuko ate aurreko kaminu ganien, “Gaur ez jagi botorik emotera”. Eta eliza-atadiak lau sarrera daukaz eta lauretan, “*No votar. Es una farsa*”. Eta bardin Udaletxeko pillar baten. Meza entzunda, illun egoala etxeratu nintzen. Gero, azken mezatik etorrita ziranak ikusi ebezan gizon bi eta txapel oker bi baldakada ure eta eskobiaz kentzen. Au ez eban ekarri bixaramoneko albistek; lapiko ondo betiarena bai.

Beste aldi bateko nire ekintza olan izan zan: portasello mordo bat ingurau neban “*si*” orren gañian, eta “*no*” bategaz inkau neutsen; berrogei preparau nituan eta zabaldu be bai. Askok bildurrez, ori bai. Neuritari iru “*no*” ipiñi neutsazan. Egun orren ondoren, jakin neban ez eta burrun-burruna urten eban ez, amabost bakarrik agertu ziran “*no*”-kuek. An egoan jauntxueta bateg esan ei eban, iru “*no*”-kue ikusi ebanian:

– Au bota dabenak dauka barrue...

Eskutitz bat zala bitarteko, sakabanatu aldia oni jarraituz be izan genduen ondoren. Bik Iparraldera juan biarra be izan eben aldi baterako.

Beti legez juan nintzan Gernikara. Gauza garbirik enekian, baño zeozer pasau zana, bai. Eta jakin-guraz, autobusetik urten da pauso batzuk emon ni-

tuanian, "Tomas!" deitzen eustan abade jantzidun batek. Gure batzarrian nagusi egiten ebana zan astelenetan, meñakarra eta kartzela-lagune be bai. Eskerrak naiku bizkor konturatu nintzan nor zan. Abade-sotana ederra, betaurreko illunek, brebiario aundia galtzerpian,... ondo begiratu biar bere aitak be ezagutzeko. Niri emon eustazan barri batzuk eta bialdu ninduan beste betiko lagunak aurkitu alan aitzen emoteko, eta banan bera egoan lekura bialtzeko. Eta alan egin neban. Bera Bilbon ebillen gordeta eta jantzi orregaz.

Urrengo bi alkar ikustiak, Bilboko Iturribide kalian egin genduzan. Azken baten, guzti ori iñor epaitu eta barruan egote barik zuzendu zan. Eskutitz bat esku guztiz ez onetara jausi, eta dana txanpon batzuen gora-berie, eta onen konture beste *Euzkadi* orretariko batzuk atrapau. Ez zan gure artien metralletarik.

Ortik edo emendik sortzen ziran buruaustiak, eta daneri zelan edo alan erantzuna emotia nai, al dan negurrian. Otsoen erpietan egoan gure erri au bide-ratzeko sortutako bidiai lepua emonda, alperriko ziran gure eta aurrekuen odol eta ekintza guztiak. Guztiz eten ez dadin aletxua ipiniz, baña bizitza aurrera atera biarraz, egunerokuari be begiratu.

Onek jazoerok ziranetik baziran lau urte pasa, eta seme-alabak bi bai beintzat, eta beste eguneroko ogibideari be gogor eldu biarra egoan; jokerak aldatu biar eta abar.

Ogeitaz urteak gora, etxe onetan amabostetik ogeira bitarte ardi eukiten ebezan, amazortzi-ogei ektarea lur ditu, eta danak esparru baten, eta emen konpon-tzen ziran. Bere arazu-saria isten eben, baña buelta guztian auzo solo-landak, eta alperrik ardura asko erabili. Buruauste eta zer esan ugari emoten eben.

Eta saldu eta lenengotik garbi edo libre egozanak piñua sartzan asi nintzan; eta beste zati batzuk su-

egurrez egozan, eta onek be kanpora eta etxera kenduaz, bardin. Ogetamasei urte nituan, neuretzako lenengo piñue sartu nebanian.

Aldakuntza barri au oso onuragarria izan zan: buruko min gitxiagoz sari ugariagoak. Gañera, oso auje gogorra etorri jakon piñu kontuari, eta diru aldetik ez bakarrik, azpigarri bigun eta ugaritze aldetik. Oso indartsu etorri zan: zazpi urtera, tartian botaten asi giñan; eta apea ondo ordaintzen eben, eta etxeko indarrez egiten baziran, txollo bigurtzen zan. Egin da papelerara bialdu ezkerero, dirua segiduan.

Gaur, ogei-ogetamar urte geroago, egite biarrak asko ordaindu biar, salneurri merkiagoa eta andik urte betera ordaintzen baditue, ondo; eta, alan da guztiz, kiebra zarata utsian guztiak, eta bildurretan piñu-jabiak.

Orduan ondiñok baserritarrak ez eutsen piñuari bakarrik begiraten, solo, landari be bai. Neuk be ektarea bat baño geiago solo, landa eta sagardi egin nituan; eta beste askok be olan, jango bazan, etxian artzeko ustez.

1958-ko udabarrian guztiz amaitu neban baso orren pinu sartzea. Aitak aurretik sartuta eukazan eta beretzako apartaute; urtiak bete ziranian saldu eben, eta onitxek artu eban, guk genkiela, metroko mille pezeta. Eta alboko aldian egozan tantai, pago eta ostantzeko, eta emen dira nik azken sartu nituan orrek; ogetazortzi urte dira eta laster txarri lodiari egiten jakona, zer esanik be eztago, eta dirua.

Pinuak eta abar dirala-ta, bizimodu barri onetan amazapi urte aurrera eroan nau; baña pinuetatik aparte, bitarte guzti orretan euri zaparrada asko egin ditu.

Ezkondu ta zazpi urtera lau seme-alaba banituan; bederatzi bagiñan mairako, biarrerako ez ainbeste, baña sasoi onak eta gogo onak danei arpegi emoten deutse.

Jazoera au be kontau biarrekotzat jatorkat burura. Semerik gaztienak urte bete pasatxu eukala, bat-batian legez, buruan ondiñok ondo itxi barik eukan lekuan bultu batek urten eutsan. Domeka arratsaldia zan, baña eruan genduan erriko osagillearena. Onek be, bere garrantzia emon eutsan, “*meningitis*” edo olako jokeran bat izan leikela, eta onetarikuetan bizkorra eta jakintsua be bazan, eta segiduan lepo azurrian sartu orratz garbi bat eta ur garbi-garbixe atera eutsan. Bixaramonian berak agindu eustan Bilbon nora eruan ur ori analizetara, eta itxoin negiola bere zeaztasunari, al bait leenen gaixuari aurrie artu al izateko, orretarako osakai onak atera barri zirala eta. “*Pelizilina*”, “*estratomizina*” orren izenak ebizen askoren aotan, karu zarata aundiagaz baña. Agindutako moduan eruan neban, eta arratsaldeko seiretan artzera juateko.

Emen asten da nire istoria kontagarri au. Banebillen kalez kale denpora emonaz. Ertzilla kalia tope egin neban emakume bategaz, eta bildur balitz legez, erdi ixilian eta belarrira berba egin guraz eta abar (berrogei urtez azpitik emoten ebazan, okozpera zapi baltza ebal), ni txapelagaz ikusi ninduanian konfiantza artu eustala esanaz, bera Burgos ondoko abade baten neskame egon zala, abade ori il egin zala eta berari itxi egin eutsazala gordeta euki ebazan ainbat urregorrizko diru: 5, 10, 16 eta 20koak. Niri, erdi gordian, iru pieza erakutsi eustazan eta saldu egin gure zituan. Eta beste andra baten izena esaten eusten, andra arek erosten zituala esan eutsela eta nik laguntzeko topetan. Nik esan neutsan bera baño urriñago bizi nintzala Bilbotik.

–Eta, diñozunez, emen kale onen inguruan bizi bada, an dagoan aguazillari preguntauko dautsagu,

Bildur emoten eutsan aguazillari berba egitiek, eta ni finien nenbillen lagundu naiez:

–Guazen biok eta neuk preguntauko dautset eza gutzen daben.

Ez genduzan amar metro egin. Giputz euskeran diñoste:

-Zer nai dik emakume orrek?

Esan geuntsan aguazillari zer galdera egitera goiezan, eta berak:

-Izen ori naiku edo asko entzuna jua.

Eta orduan esan eutsan, niri legez, bere urre gora-bera guztiak. Eta nik orduan esan neutsen andra orri eta bie:

-Onek nik baño obeto dakiz zuk biar dozuzan bi-diok.

Eta agurtzera egin neban; eta diñosta giputzez:

-Ez ari izen tontua; emen, onek diñon legez, txollo itzela dagok, biontzat milloe bana gitxienez.

Astian fede onian banebillan be, berba orrek argi bat biztu eban nire barruan, ez egoala dudarik bina-ka zirala lagun eta timadoriak. Gizon orrek eskatu eutsan urre piezatariko bat, eta bestiak emon. Orduan esan eutsan:

Nik ortxe aurreko etxe aundi orretan daukat dentista famatu bat eta momentuan jakingo dot onako bakotxak zenbat balio daben.

Gengozan lekutik berreun metrora egoan juan biar eban etxe ori, eta abiatu zan; nik neskiagaz geratzera egin neban da:

-Etor adi neugaz, bardin dok euk egin edo nik. Ez adi izen tontu.

Eta jarraitu neutsan; etxe aundia, luju aundikua emoten eban. Eldu giñan ate nagusira, eta barruan pausu bi emon genduzaneko, eskillara barrenean azaltzen da ondo jantzitako bat, pajarita eta guzti. Biak, lagun aundi legez, besarkatuta agurtu ziran.

Oni gazteleraz. Biarbada irurak ziran euskaldunak, baño batek giten eban nire aurrian. Oni, one-la diñotsa¶

-Y oficios hacen ezkeru, onek urre pieza onek zenbat balio daben?

Eta bestiak:

-*¡Qué casualidad!* Oraintxe noie batengana agiñek probetera.

Poltsillotik atara eban agin postizu muestra bat, ipiñi eutsan ortzen ganian pieza ori eta esan eban:

-*Esto poniendo aquí vale un dineral.*

Esan euskun zenbat bakotxa, eta zenbat eta geiago naiago. Enaz gogoratzen bakotxeko zenbata: millatik bi millara. Atzera emakume orregana giñoezala, diñoste:

-Neska ori tonta garbi bat dok, eta bakotxeko eun ta berrogetamar pezeta agindu deuskuzala esan, da kitu, eta gañerako guztia biontzako geratuko dok.

Irugarren onen jokeragaz garbiago ikusten zan zer joko ebillen. Neuk be, denporie emonez, ofizio barri bat ikastiak ez ekarrela kalterik pentsau neban eta azkenera arte jarraitzia, laugarren alkarte onetan sartuta. Esan geuntsan pentsautako legez: eun ta berrogetamar. Aren mirariak eta pozak, ainbeste balio izatiagaz! Gañera esan eutsen neskiari:

-Zuk dozuzan pieza guztiok egiak badira, guk biok bixer eberdirako ogetamarna milla pezeta ekarriko deutzuguz, bion arte irurogei milla”.

Besti ori zoratu biar, uste baño diru geiago eskuratatu biar ebalu eta. Baña diñotsa emakumeari ori egia dan jakiteko ikustia al zan, da erantzun eban ordu ta erdi bat itxaroten bagenduen, baietz. Eta gure erantzuna, itxarotia. Juan zan; eta nire lagun ori asi zan arkatza eta paper baten numeruak egiten: ixe bakotxarentzat milloia ataraten eban, da ura zan benetako ganga egiten genduana.

Galdetu neutsan nun bizi zan bera, eta semez tolosarra zala, eta urte askuan Galdakaon. Ola baten

eroazala urte asko, enpresa orretako enlaze zala, da ango zeregin batzuetara etorri zala, askotan etorten zan legez.

Barriro jo genduen diru kontura. Diruok zelan bi-xaramon eberdirako bakotxak atondu. Neure aldetik zailtasunak be ugari ipinten neutsazan. Batetik, dirutan. Neuria zala baserria, baña ez neukela orren-beste, dana atarata be. Atxaki gogorrak ipiñiaz, berak be ez eukela guztia eskuetan, baña lagun artian aurkituko ebala. Egi bat ez geuntsen esaten alkarri. Garbi ikusten zan: lau negoziante, eta iru bateren kontra.

Beste au be atara neutsen platerera: familiako arazu larri bat zala medio naste aretan gaur egotia; esan neutsan zer arazok ekarrita nengoan, eta seiretan jakin biar nebala ona edo txarra izango zan, *Meningitis* edo olakoren bat balitz, *penicilina* erosteko. Milla pezeta pasatxu artu ditudala; olako familiako ezbiar baten beste guztiak albora istia be subertau zala, eta olakuak. Berak esan eustan *estratomicina* askoz karuago baña obia zala:

-Baña olakorik eztedilla subertau, eta bixer eberdian emen, besterik ezpada, diru ori izango da ipotekaz edo lapurtuta.

Agindutako aldia bete baño leen, esandako lekutik an zetorrek beska ura fiñian. Eskuan dakarren zorruan pisua ekarrela ikusten zan. Pare bat kilo gixienez emoten eban. Baztertu giñan Parke eskiñan egoan ezarleku batera, ikusi bat emoteko asmoz. Jarri ziran biak; eta ni be, neska erdian zala, jarten asi nintzan, eta:

-I emen jarri, -esan eustan-. Neuk ikusita, iri emango didaz”.

Eta lantzian bat nire eskura pasetan eustazan, eta neskari preguntetan eutsan:

-Zenbat dozuz onakotan?

–Onenbeste dozena onakuak, onenbeste alakuak, leen esan ditudan moduan danak, dana dago ondo.

Eta esan eutsan:

– Bixer eberdiko amabietan, ementxe, utsik bari-rik”.

Juan zan poz arpegiaz neska ori; gelditu giñan biok bakarrik, azken erabagiak artu eziñik. Nik be ez neutsan eziñezko biribillik emon nai, diru ori lortu ezin eikenik eta abar. Biok genbizen tranpan da guzurrez. Errez eskuratu neikena amabost milla zirala esan neutsan; ganerakua lortzeko aldi laburra zala; eta, bestetik, semiaren gora-beragaz kezkatua nenguala. Azkenez esan eustan amabost orrekin baño ezpadabe, ara etorteko, konponduko geñala bion artian da:

–Baña pentsaik ondo; ni ezpanajatok negozio au aprobetxatzera, pentsaik gauzak txarto urten deustelako dala. Baña bardin dok. Zuek biok bost’erdiko autobusian etorten bazaree, ni an egongo nok Markiñako geltokian, orrekin amabostokin edo zigur guztiakin –nire esana.

Ez eustan esan ezetzik be, eta onenbestegaz bannandu giñan “biar arte” esanaz.

Bakartadian geratu nintzarian, buruan ainbat buelta emoten neutsan joera orri, lau-bost ordu jente orregaz nastuta. Inok siñestu eziña zala, ames bat zirudiela esaten neutsan neure buruari. Baña, zoritxarrez, fede oneko eta dirua eskuetan darabillen bantentzat ondo montauta dagoan tranpa gogorra, eztago dudarik. Nire buruari galdera au egiten neutsan, “Dirua buruan ez bakarrik; baita ere aldian euki baneu, zer izango ete zan?”. Ain ondo egiten eben montauteko biarra, ikusten neutsen eta.

Eldu ziran seirak eta jaso neban zeaztasun agiria; eta aitzen emon eustan ez egoala ezer arriskutsurik, eta ni pozik. Sendagilleari emoteko txartel ori

sartu neban, eta poltsilluan beste bat aurkitu neban. Nastu ez negizan barrukoa atara nebanian, konturatu nitzen auzoko andra zar batek emon eustan osakai agiri bat zana, bertan eskatzen dabena ezin dabela aurkitu Markiña eta inguruetan esanez, eta ia Bilbon aurkitzen neban. Baietza agindu neutsan, baña burutik iges, da barriro etxerakuan eskuratu jatanian, barriz burura.

Ordu ta erdi neukazan Enkarnazionen autobusa artzeko. Bidian ziran sendagai-etxe guztietan sartzen nintzan, eta danetan ezezkoa. *Café Arriaga*-ko parian, ibai partetik bizkor samar netorrela, ordua be gañera etorren eta urten deust batek berba emotera buzo zikin bategaz, ikatz autsez beterik eta arpegia be olan. Emengoa ez zan tonu batez, au bakarririk esaten eustan:

-¿Chicas de Bilbao, dónde hay?

Nuntarra zan galdetu neutsan, eta Noruegatik polizon etorria barku baten. "*Para ir a chicas*" dirurik ez eukela, baña ondiño emen gitxi egoan osakai bat eukala: *estratomicina*"; eta alako ontzi bat ataraten eustan, eta iru ta lau mille pezeta balio zituana, milla pezetan emongo eustala, neskakgana juateko dirua euki daian:

-Las chicas de Bilbao están allá arriba. Y para que no te echen a patadas, vete a la ría y lávate esa cara, por lo menos.

Goixeko irutariko bat ez zan; laugarren bat izan zeikean. Neu talde orretakotzat nago.

Etxera nintzan, baña eneutsan iñori aitetu be egin, urrengo egunian autobusian etorten ziran ala ez ikusi arte. Baña ez zan iñor agertu. Batak bestiarri ziria sartu nai ugari erabili genduen, baña or amaitu zan guztia. Nire buruan ganeko egunetan buelta asko emoten neutsan tranpa-joko oneri, eta, onako esperientziekin jakiñian egotia gauza ona be ona zala esaten neutsen etxe eta kanpokuei.

Nik orduan egun guztietan irakurten neban egunkaria. Markiñara osabari esnia bialtzen neutsan; eta onek, esne ontzian, *Correo Español*. Illa bi inguruan, nun irakurten dodan jazoera antz aundiko bat Panplonan egun aretan jazoera baserritar bati, erdi tratuen ibiltzen zan bati. Emen be, emakume bat zan urriakin asiera emon eutsana, eta beste baten bitartez ikustera eldu ziran baserritarrak ogei milla pezeta aldian eukazanen truke artu eban ontzi bera artu ebalakuan pozik, eta juaten da *bar* bateko irolera. Begiei poza emotekotan ideki eban, eta perdigoz eta txarroz beterik! Baserritar ori, zer esanik be ez, kalerik kale baztarrak zapalduaz au arkitzekotan... Ez egoan txarto gizarajua! Egunkari orren zatiak urte asko egin zituen etxe onetan gordeta, baña alako baten... Ona arte guzti au.

Urtiak aurrera eta familia be bai. Asi ziran aurre-rakuntza aundiak: zapi garbitzeko tresnak, plan-txak, radio eta beste olako trepetxuak ortik eta emendik eskinga, eta gure argi indar orrek ez balio; eta ez egoan beste biderik: argi indartsuagua lortu biar, eta orretarako bide bakarrera jo biar: *Iberduero*.

Gure antzeko indar txikia eben iru auzune bat eginda, asi giñan batzarrak eta planak egiten. Irurogeitaz gora giñan iru auzoetan. Baña batzuk bai eta bestiak ez, eta bestiak, karu eta bildur diru aldetik. Eta zenbat batzar, zenbat berba, alkarrekin ados jarri eziñik! Geienok giñan baietzarakuak, baña ainbeste tira-bira genbillan, da Iberduero-k, bere eskuak libre euki egizan baldintza bat eskatu euskun, kooperatiba sortu biar genduela, bestelan ez euskuela emongo argirik. Ez egoan beste urtenbiderik eta "*Cooperativa el;ectrica San Pedro de Cenarruza*" izena emonda egin genduen. Ez zan izan ara-ona gixigaz egitekue, baña ekiña okerra da. Kooperatiba Junta orretan idazkaritza emon eusten, eta amaika arazu emon eban.

Leenengo biarra, Iberduero-gaz nun artu biar genduen; bigarren, bere zeregiña gure argi linia orretan.

Onek errez da ondo garbitu zituan bere eskuak eta lerro gitxitan. Guk artzen genduen leku orretan berak indar neurkin bat jarri eta ille bitik baten ordainketa orren txartel bat Kooperatibari pasau. Ortik aurrerako guztia gure kontu geratzen zan. Guk berak egitia eta zaintzia nai genduan, baña iñundik be ori ez, aldi aretan danakin jokabide ori ebillela eta.

Obra ori egingo eban tekniko bat aurkitu biar. Nok egin ez zan falta; laster azaldu ziran bat baño geiago). Nundik pasau biar eban linia orrek eta nun iru transformador orrek eta abar, plan oso bat.

Ona artekua errezena izan zan. Gure auzuetara artu biar genduen lekutik kilometrora egozan, eta geienak solo-landa ziran; eta, indar ori pasauko bazan, onen jabien baimena biar ezetan asteko. Domeka arratsalde baten juañan etxerik etxe lau junta-gizon. Bederatzi ziran lur-jabiok. Arrasti guztia pasau ta berbak eta kejak bakarrrik entzunda etxera. Batak:

-Andik eruan biar zenduen.

Bestiak:

-Or basuetatik eruan biar zenduen.

Bederatziren artian, piñuditik pasetan jakuezan bi egozan. Onek, oster, dana soluetatik juañ biar ebela; pinuan kalte aundia egiten ebala. Eta guztiak ziran Iberduero-tik argia eukenak, eta esaten geuntsen:

-Zeuek etxien daukazuen argi ori, eztozue ikusten beste batzuen lurretan postiek sartzen itxi dabelako daukazuela?

Ori be bistan eguan da ezin ukatu, baña batzuei urteten eutsen:

-Nik bestiak egiten dabena egingo dot.

Onan, esku uts etxeratu giñan.

Bigarrenerako, or da emen jakiten alegindu giñan postien ordaiñe zenbat oitzen zan, soluen, basuen eta abar. Batzuk baziran urteko errentara eukezanak. Guk be egin genduan piska bat goragotik ipinita sari ori; bagenkien zeñi zenbat poste sartu biar jakozan; bakotxari bere orria eginda urterako, edo guztia batera ipinita, gure daben aukera emonda. Barrero lau gizon etxerik etxe; akaikulu utse barrero, eta urrengo iganderako ondo pentsetako esanaz, buruak berotuta, amorruez etxera.

Irugarrenian, lau gizon, danak "arek-onek..." eta paperik izenpetu ez. Guk be gogortxuago egin biar, da esaten geuntsen:

-Planak teknikoak eginda dagoz eta ezin leikez aldatu. Aldatu al balitz be, auxe berau jazoko litzake, arek be eman jabiak daukez eta. Emen eztago beste bueltarik: papel onek izenpetu edo expropiatziora sartu. Guri geiago kostako jaku biarbada, baña zuek diru gitxiago jasoko dozue. Seguru egon.

Alan da guzti, irugarren ori be utsik, eta zer pentsaua ugari.

Expropiaziñoari luzero itxaron biar eta kastua be geiago... Dudan genbizen, eta *zirt* edo *zart* egin biar zan. Buruan milla buelta emoten neutsan egunian, eta zer? Beti neure buruari egiten neutsan galdera.

Arrasti bat zan, segidako astea bera, barikua ain zuzen. Nabo-jorran nenguan bakar-bakarrik, buruan ez nebillan besterik, eta, artu atxurra lepuan da etxera. Jantzi, artu bakotxaren izenpetzeko papalak eta bizikleta zarra, eta banoie guzurrez beterik, danak ordu bete aurretik nabo-jorran bururatuak. Banoie berengo etxietara, an astekotan neure ipoi orregaz. Ain subertez, gorengoak ziran biak bide zabal eskiñako orma ganian jarrita egozan kontu-kontari. Bata zarrenetakua zan eta oni piñutik pasetan

jakon. Gazte au biarlekuan min artuta egoen, eta denpora-pasa, biok alkarregaz. Geratu nintzen, eta:

–Arratsalde on! Beti legez, berengotik astekotan urten dot, baña goitik bera asi biar dot, bardin joten dau ta. Goixian izen naz Bilbon, zer egin geinken jakin nairik. Esan deutset zertzuk atzera-aurrera da-biguzan, eta iñok ez errezoi ez baimenik ezteuskula emoten. Emon deusten erantzuna auxe izan da: “Juan zaitetz atzera eta izenpetzen ezpadeutzuez, ekarri bixer eberdiko atzera onaxe, beste batzuk be oraintxe doiez expropiaziñora- ta.

Eta gañera esan neutsen:

–Juntako batek be eztaki ni emen nabillenik. Pasau dan domekan irugarren bueltie, eta uts izan genduen; danak esan eben, “Geiago pausorik be ez, nai ta argi barik geratu”.

Alkarri begira egonda, zarrenak eskatu eustan luma, eta bestiak be bai; saillian, bat uts barik, nik andik aurrerakuak, nire rollo orren ondoren.

Etixeratu nitzen txitxia baño pozago. Eneutsen guzurre esan; bakarrik, firmie emon biar ebenien, rollo bardiñe sartu neutsen Juntako eta argiko askori. Illabete gitxienez pasau eben egia jakin barik.

Baña ez zan iñor asarre buruauste aundi ori eskuetatik kentziagaz. Beste orren antzeko asko be azalduko zirana uste genduen. Barruko zeetasun asko egoan ondiño aidian edo erdi aidian; baña danei, eztabaida askoren ondoren bazan be, adosetara leena-geruago eltzen giñan.

Argi indarrak ipinten ebazan etxe bati emon geuntsan. Altako linea bere iru transformadoregaz, teknikoa eta beste material guztia bere kontura; akazizko postiak eta esku-biar edo piontza gure kontura.

Obra erdi inguruan joiala, milla pezeta mordua geitu gura izan eusten egindako tratua, guk ezagu-

tzen ez genduzan txapuza batzuen truke. Zipi-zape-txuek urten eben, baña txintxina gure eskuan egoan eta mantsotu egin biar izan eben. Altako gastua edo guztia, danok bardin-bardin ordaindu biar izan zan; eta, ganetik, transformador bakotxequak bakotxa berien aparte.

Gitxien kosta jakonari, bost milla pezeta kosta jakon biar eta guzti; eta geienguari, sei milla pezetara ez-baian. Bildurra geiago izan zan, eta ori argi onetan iñungo laguntzarik izan ez genduela. Buruan pasau be ez iñora eskatzerik, ez zan olakorik entzutenda.

Argi onek ogetairu urteko istoria izan eban. Gauza aundia egin genduelakuen egon giñan, eta alan zan aurrekua ikusita. Gura genduzan tresna guztiak ipini al genduzan, baña arrisku eta arazu guztiak gure gain izatiak kezka gogorra emoten euskun. Batez be transformadoreak, amar metroko poste gañentan egozan.

Au zalakoan edo ori zalakoan, askotan fusibliek erretan ziran, eta iñoz bi edo iru aldiz. Eta urren egoan etxiak izaten eban ipinteko arduria; eta gurian be eun ta berrogetamar metrotara geunken, eta ogetairu urtian bildur aldi asko igaro biar. Baña, zorionez, ez zan jazo ezer graberik ainbeste olako eta ganerako guztietan, Jaunari eskerrak, Mariari alabantzak.

Gizonaren bizitzak geiena beti aurrera begira izan biar dabela esan oi da; iñoz eteten ez dan katea luze bat, oiturei jarraituez da abar.

Aurrerago aitatu dodan orri barriro elduez, 1958ko martian, azken pinuak mendian sartuta eta lenengo sartu ziranak laguntza emoten asita egozan.

Lau seme-alabok be, bat ez bestiak, eskoliari itxita egozan; eta, zerbait onek be lagungarri ikusita, udabarri aretan asi neban etxe zar orren barrikuntza gogor bat. "Besiko Etxebarri" dau izena, baña ondo zar eta aldrebesak ziran batez be barruak eta

abar. Tripa guztiok lenengo kanporatu geuntsazan, lurrian asi ta tellaturaño, eta amaika auts iruntsiaz. Eta, barriekin bete egin biar. Gabonak etorri ziran amaitu bat emoteko, baña ondiño ikutu askoren biarrian: astiro, norberak eta abar egiteko, asti-tarteka. Diruaren azkurak kendu zituan; eta, gañera, iñoren poltsillora be eskua gogor bota biar. Baña, alan da guztiz be, pozik.

Andik urte ingurura, neure lenengo sartu nituen pinuetan egin neban entresaka gogor bat, eta iñoren poltsilluok bardindu nituan; da laster geiagon etorpidea, eta aurrera.

Amabost urtetik amaseirako alaba nagusia Azkoi-tiko kolejio batera bialdu genduen il mordo baterako. Bere lagun batzuk be an egozan, eta berak be nai eban, eta interna, batetik eskola eta bestetik mundu oni arpegi emoteko esperientzi apur bat artu egian, danak dirala biarrezko guraso legez pentsaurik.

Au etxeratu zanian, bigarren alaba, amalautik amabosterakue, juan zan, bardin. Bigarren au an egoan arte, 1960ko lenenguetan, amarretik amaikarako seme gaztie, Gabiriako Nekalditarren kolejiora juan zan. Emen ibilten ziran eskien eta abar, praille-gei barriak topauez; eta onek be baietza emonda eukan onetariko bati, eta sasoiaren emen datoz eske eta juan zan. Gañera, osaba bi an taldean ziran sasoi aretan, biak Ego Amerikan ziran; da onek be atzerakuntzarik be ez. Eta guk be, bere gogua bazan, ondo.

Ona elduta gengozala, uste genduan bizitzako bide-gurutzerik aldatzenak eta txarrenak igarota geunkezala, eta biziko giñala pozez beterik guztiok. Bat-batian, nun estaltzen gaituen lañu baltz illun aundi batek goixalde baten.

Bat-bateko alarguntza

L 960ko azaroak 15, goixeko zazpirak. Eguneroko nire biarra onan zan urte areetan, esateko moduz egunik utsik barik: goixian beiak jatzzi, eta gabe-ko eta goixekuak Ondarroara doian esnedunari kamiñora atara, etxetik berreun bat metrora dago eta. Beste auzotar batek be ona ataraten ebazan, eta biok, egunero legez, kontu-kontari, esneok emoteko zain, zazpirak gitxi gora-bera beti. Argia biztu zan nire gelako leioan eta urten eban nire aotik:

–Gure andriek oiturie baño aurretik jagi biarra dauka gaur. Zortziretako autobusera juan biar dau, bere aiztari sendagille batena laguntzeko”.

Alan subertau zan, bai, berau goiz jagi biar ori. Azaroan zazpirak beti dira illun. Eta betiko jagiera: nik esneak eroanda, sua biztu, esnea egosi ta gero arte, ez zan jagitan. Da, itxura danez, sua bizteko egur zeerik ez sukaldian, da salara juan zan egurre-tara. Kortara sikua botateko tranpiaren estalkia ondo egon ez-edo, ta konturatu ez zelan egoan, argia berak biztuta eukan baño. Andik kortara jausita arkitu neban, berbarik barik, baño arnasa ondo artzen eban. Etxeko guztiak lo, gazte eta zar. Naiku astun zan, baño besuetan eruan neban, ez nekiela be garrasiak egiten nebazala. Oe ganian itxi eta leiotik dei egin neutsan nigaz egon zan auzuari, eta ondiñok etxera eltzeko egoan. Eta andra-gizon biak lenengo etorri ziranak auzotik. Onek etorri ziraneko, bialduta neukazan seme-alabak sendagilletara eta beste bere iru aiztei barri txar ori emotera.

Nik enekien zer egiten neban be. Iñun etxakon ikusten ez golperik nun artu ebanik, ez odol piskarik. Arnasia naiku nasai artzen eban. Sendagilleak Bilborako bidia emon eban. Bere aizta bi etorri ziran tasi baten; bertan sartu eta eruan genduan *Poliklinika San Antonio*-ra.

Egun aretarako eukezan proposamenak eta amesak aldakuntza izan eben ordu batetik bestera. Aiztari laguntzeko ustez eguna asi, eta berari lagundu biar beste aizta bik. Olan dira gure ames asko erbeste onetan, beste esku bat dabil gure ezkutuan eta...

Sendagilleak begiratu bat emon eutsan. Iñun ez zauririk, ez odolik ez eban agiri. Ez eban ebatzirik emon. Lantzien indiziño bat emoten eutsen. Ogetalau ordu biar zirala esan eban, zer edo nora joko daberen ikusteko. Arnasa naikue ondo artzen ebalala emoten eban. Zenbat alturatik jausi zan galdetu eban, ain iñun agiri geiago ez eukiteko.

–Iru metro ingurutik –nik.

Buruari eragin eutsan, da bera juan zan, gaixozaiñari zerbait esanda. Gu an; bizi zan, eta itxaropenez alkarri begira, noz begiak zabaltzen ikusi nairik. Belarrira deituta be, zirkinik ez eutsen eragiten, eta ez zan dana señaleari ona.

Arratsaldeko zazpi t'erdietako autobusa artzera juan ziran aizte biok. Onen nebie be, nire koiñetue, an egoan eberditik. Deustun, San Felizisimo-n, anaia zan. Au geratu zan gaberako nigaz. Baña, aiztak autobusien Bilbotik urten ebeneko, ikusten zan laster emon biar ebalala azken arnasa. Arnasan zarata bat ataraten asi zan, eta gaixozaiñek deitu eutsan sendagilleari. Laster etorri zan, baña orduan neu be naiku mediku nitzen azkeneko orduetan eguala igeritzeko, agotik eta sudurretik naiku odol-bitse botaten eban da.

–Eztago zer egiñik –esan eban.

Nik, bizirik egoan arte ataratie eskatu neutsan, eta:

–Ez euki bildurrik, gero be atarako dozu eta.

Onek berbok amaitu ta laster emon eban azken arnasa, jausi zanetik amairu ordura, gitxi gora-bera.

Koñetue tasi baten bialdu neban etxien aditzen emotera barri triste ori. Eta, eruateko, anbulantzia bat laster etorriko zala esan eusten. Eta egun aretan ainbat bider etorri zan monja batek, atzamarrian eukan eraztuna kendu eutsan eta neuri emon, gorde-teko esanaz. Eta errosario bat bion arte errezetie eskatu eustan, da asi giñan. Eztakit nik errezaue ala zer egiten neban, burua beste bide batetik juaten zan eta.

Anbulantzia etorri aurretuan, Barakaldon biarra egiten daben anaia eta bere emaztia etorri ziran –Begoñan bizi ziran–, arratsaldera arte ez geuntsen zer jazo zan esan eta. Anaia etorri zan lagun egiten, anbulantzian bertan atzera juateko, biarra galdu ez egian. Illetak egun bat atzerago izango zirala, alan oitzen zan eta.

Etixerako bildurre be enekarren txikie, leenguak leen zirala. Bide zabaletik berreun bat metruan, lepuan eruan biar zan; *jenbeziak*-eta, igoten eben, baña euria be egin barri egoan da anbulantziak ez eba-la arrisgau gureko, eta an egozan lau auzotar eruateko. Etxeko eta kanpoko ainbat egozan, olakuetan oi dan legez, guztiak itun. Ortik aurrerako guztiak eztauka berba biarrrik olako kasuetan. Errosarioa, eta batzuk etxera.

Illeta eguna, egun bat uts eginda, martitzen 1 zan, eta eguenian izateko geratu giñan. Eta orduan ondiño goixeko amarretan egiten ziran illetak. Bixaramonien, amaikak aldera, juez nagusiko aguazillek agindu eban arratsaldeko iruretarako gorpua eruateko illobiko depositora. Bialdu neban bat abadiagana; baña, legia lege, dana alperrik. Kilometro bat bi-

de errira, eta lepuan eruan biar. Eruatalleak aurreko egunekuak ziran, Bañá etxeko artekuei be esan nai zer jazoten zan, eta ordu gitxi. Baña, auzo eta abar, ainbat batu giñan. Eruan eta elizan parrokiek errosarixue, eta bixaramon amarretarako illeten deia, eta bakotxa etxera.

Nik be etxerako lau pausu emon nituanerako, atzetik deitu eustan aguazillek, Udaletxian egoala jueza eta ara juateko. An egozan bera eta beste batzuk, eta txapel oker parie be bai. Neure buruan gauza asko pasau ziran. Ezarteko agindu eusten an egoan silla baten, eta galde bat eta beste galde bat, ordubete inguru. *Autosi* ori amaituta edo, etorri zan sendagillea bere lagunagaz. Eta onegaz berbaren batzuk egin ondoren:

–*Puede ir* –esan eusten.

Eta azkeneko berbak, onan esan zituan:

–*Una cosa está clara: que cuatro hijos se han quedado huérfanos.*

Nire erantzuna onan izan zan:

–*De madre, sí, por desgracia; pero de padre, no todavía.*

Eta, naikue pentsakor, etxera bakar-bakarrik, leenguak leengo dirala. “Ori gañetik!”; eztakit, biarbada, oker pentsau baneban, epaille baten zeregiñe ezagutzera enaz eltzen da. Biarbada, alan egin biar eban.

Bixaramonian illetak, eta berrogei lagun bazkari-tan. Onek esateko baño lotsagarriago emoten dau gaur. Azkengua bera izan zala uste dot. Andik laster asi ziran illetak arratsaldetik, zorionez da bide onez.

Batak eta bestiak dolumiñak, baña etxerako pausuak artu biar. Eutsi egin biar, danez ganetik, bizi-bideari. Etxean utsune aundi bat, eta, sinistu be ezinga, lotan ames, itzarrik be ames, eta konponbide onik ez.

Ez nenguan bakarrik etxian, sei lagun geratzen giñan, seirok zein baño zein miñago: amazortzi urte seme nagusiak; amaseitik amazapira, alaba nagusiak; bigarren alabiek amabost urte, kolejiotik illetara etorria, etxian jarraitu biar.

Laugarren, semerik gazteena, amaika urtegaz, au be illetara etorria konbentutik. Atzera juateko naigaberik ez eban azaldu etxean, baño, Eibarren eukan izekuagana jua zan atzeruntzien, eta ari agertu eutsan ez ebalá jua gura atzera frailetara. Eta koñetuak telefonoz deitu eustan, eta erantzun neutsan bere gogoz ez juatekotan, etxera etorteko; eta alan egin eban.

Seigarrena, larogei urtegaz, aitita, aitagiñarraba, genduen. Seirok, zein baño zein pentsakorrago. Etxeko gora-bera nagusiena eroanaren aulkia utsik bat-batian.

Onako jazoeratan geienetan jazoten dana gurian be: alabak jakin gauza asko, baño amak egin geienetan, eta aren buruan ardura guztiak. Alako sasoiá be, eta gaztiak beste txori pillo bat buruan. Baña eldu egin biar jakon zezenik baltzenari bere adarretik. Eta laster artu eben antxe eratxuan eta aurrera, esakeria dan legez, *a trankas o barrankas*.

Esakera asko dira gure artian, tabernan txurrut polito eginda dagoenian esaten diranak:

–Gizona alargun geratzia obia dok kortan bei bat iltia baño. Andra barria, eta beragaz, diru pillua ekarri al dok. Ostera, beia ekarteko norberak emon biar dau pillue; eta biarbada, ganera, txarrak urten.

Au onan danik ezin ukatu. Naiz feria batera andra barri billa jua, naiz beste feriara bei barri billa jua, eztozu faltako gairik. Onarern edo txarraren urtetiaren arriskua bietan dago, ta gora-bera ori gañera oso ezkutuan dago.

Baña beste esakera bat be badago. Onek eztauka tabernan urtendako itxurarik, etxeren bateko sukál-

dian baño: “Andra barria artu neban gauza bat konpontzeko eta beste alde baten amar nasteko”.

Esakera guzti onek etxetik urrinien direnerako dira barre egitekuak bakarrik; bere aragian artu dabenantzat, negargarri.

Bizitze laburrian irugarren aldaketa: ogetamabi urte eta il batzuk, ainbat ixkamillagaz ezkongai; emeretzi urte eta iru illabete ezkondata, berrogetamaikagaz, alargun.

Irugarren oni be, benetan eldu biar, biarretik eta lurretik urten biar eban eguneroko ogiak eta...

Aize barriak

Baña 1961eko urtiaren asieran mobimentu barri batzuk sortzen susmetan nituan Lantegi Eskolako zuzendariaren bitartez. *Extensión Agraria*-ko ajentzia bat zabaldu zan, Bizkaian lenengokua berau. Bertara buru etorri zana be, ain zan euskaldun jatorra. Tolosarra, gañera. Kursilluak emoten asi zan, baserriari aldakuntza bat emon biar jakola eta abar.

Eta esakeria da: "auntze larrera". Golpe txar ori jazo barri nenguan, baña kili-kili beti niri olakuek, eta asi nintzen kurtsilluetara eta abar juaten. Juanago eta pozago, beste gauza batzuetan pentsetan burua ipiniaz, batetik; eta neure jokera be, olakue-tan, olako mobimentu guztietan, buru-belarri barruan nitzen beti. Etxeko arazuei be erantzuten geuntsen. Ogei-ogetamar batzen giñan kurtsilluotara ainbat errietatik: Markiña, Etxebarri, Mallabi, Goillebar, Munitibar, Aulesti, Gizaburua, Ondarru, Berriatu eta geiagotik. Geien batzen giñanian, berrogetamar goien.

Lankide Ikastola zan batzar leku. Emengo zuzendariarengandik sortu zan ekintza barri au, leen aiatu dogun legez: kurtsilluak, gure aurrekuengandik eundazka urtietan genduzan oiturak zelan aldatu biar genduzan: garia edo artoari, orain arte legez edo beste bide bat, nundik, nora...

Au zan gairik gogorrena asikeran. Emengo lur da solo aldatzei begiratuta, lurrak gitxiago mobiduz gizonari nekea asko gitxitzeko biderik egokiena, bedar-zelai bigurtzia zan; baña ez aurretik gen-

karren oituran, alpalpa, sekulebedar, pabotx, eta onek ipiñita. Kanpo-errietan legez, zelai bereziak sortu ta ainbat belar-azi alkarregaz nastuta. Aziak bereziak, selezionatuak beti. Eta lurrak be analizatu, alako ongarriak eta abonauak botateko, eta zenbat bota ektare bakotxian: eta onek be, ainbat klase nastauta, lurrak falta dituen laguntzei dago-kien legez.

Bedarra asko sortu bai, baña zelan gero ainbat bedar konpondu? Oni bere bidia emoteko, *siluak* de-rriorrezkotzat joten eben.

Eta ganau osasunari be gogor ekin eutsen. Nun-dik asi gure ganautegiak barriztau biarra, guztiz al-drebes genbizan eta? Iñundik aixerik sartzen ez zan ganautegiak geunkezan; eta ondiño, epelago euki daien, simaurrak be barruan, lurrunik geien botaten daben aldian; eta, ori gitxi balitz legez, zer esanik ez, negua bazan, estalkia *Apala* ta *Gorriri*. Gai oneri gar-rantzi aundia emon eutsen kurtsilloetan. Eta orain konturatzen gara gauza asko aldrebesak gendueza-la, aurrekuengandik kortei buruz genduen jokabide-an.

Aitatu doguzan barrikuntza orretan gogor asi gi-ñan. Kurtsilluok asi ziranetik iru urtera, gari-ortuen lekuen, bedar-zelai eta siluak ziran euneko berroge-tamar baserritan, eta oso laster beste guztiak be. Eta iñori etxako entzuten atzera itxi dogun ori atzera ar-tu gura dabenik. Buruan pasauta bakarrik, bildurra eta otzikara emoten dau, atzera begiratziak baka-rrik.

Or atzian aitatu ditugun guztion artian, geien eta biarrezkuentzat, alkartasun bat edo kooperatiba sortziaren eragiña zan. Ori, guztien gañetik. Urte bi edo olan egoan martxan Konsumoko Kooperatiba, kalian, "*La Marquinesa*" izenagaz, gero *Eroski*-ra pa-sau zana. Emen ni be sartuta nenguan aurreko ur-tian.

Lankide Ikastola orren ekintzak bide orretatik abiatuta egozan. Asikera au ondo joian, eta baserritarrena be gogor matxaketan eben kurtsillo guztietan. Emen guztiok motel edo bildur. Urtiak aurretik sortu ziran “Baserritarren Sindikatu” izeneko alkar-te guztiak, edo geienak, jaiotako urtian ilten ziran, eta pauso emoten bildur.

Baña zer jazo jakuen aurretik sortu ziran guzti orrei? Gorengo mallatik asi eta bera sortuak zirala, Madrillen urtendako dekretu bidez. Urrengo, Bilbo aldetik etorten zan jauntxueta-rikoren bat; alkatiak edo abadiak batzen zituen baserritar mordo bat, eta danak jarten ziran patxadaz. Batzorde baten izenakin bete papel orri bat edo bi, izenpetu bera; edo-ta bazkari bat, asteko. Ori debalde, eta dana eginda. Urte guztiaren buruan, ogei zaku baba, beste ainbat birrin eta zai, eta urtian amaitukeran alkarte orrek jai. Patxadan jarrite asi, eta olan jarraitu nai.

Gure oztasun ori uxatzeko, askotan esan euskuen olako gauzak edo alkartiak ez dabela izan biar goitik beera sortuak, beetik gora baño. Ainbat eragin eta tira-biraren artian, asi giñan batzuk baietza emoten.

Asi zan burrun-burruna, “Baserritarren Kooperatiba” sortzera goiazala. Onen inguruan sortu zan ainbat esamesa; euren artian, pentsu almazeneruena: “Emendik urte batera, orren enterrua daukagu”, zan onek atara eben burrun-burruna.

Baña guztion aldetik talde bat bagiñan gañetik aurrera egiteko. Amabost ziran naikue sorrera emoteko bere batzorde sortuaz. Bagiñan irurogei bat lenengo izena emonda gengo-zanak; baño oso zabal, bai, or aurretik aitatu ditugun erri guztietatik. Alkarte onek komarkala, eskualdekua, izan biar eban. Asteko ez zan errezago, baño luzarora bai, gure us-tez. Alkarte barri onek bere *lema* barri bat eukan:

bere jokera guztia pentsu nastuetako indarra egitia piskanaka, or-emen asita egoan eta. An be, beste bidegurutz bat sortzen jakun: baserritarrok onako al-daketakin ez dogu susmo onik geienetan, baña kurt-silloetan barritze onen alde egoan jokera guztia, eta emendik jokatu genduan.

Bidegurutz, bildur eta zalantzak albora itxi, eta asiera emotia erabagi genduen irurogei inguruko talde arek. Alkartea "Markiña eta Inguruko Baserritarren Alkartasuna", MIBA izenagaz bataiatu genduen. Bere lenengo ordezkari-tza, Junta atarateko batzarrerako eguna ipiñi genduen, jai eta leiaketa batzuk eta abar. Beste olakotan enaiz gogoratzen utsik egin dodanik, eta orduan egin neban: piska bat ondoezik nebillen egun batzuk aurretik, eta egun aretan txarren. Birritan jagi eta sukarra gogorra eta otz-ikera be bai gogorra, eta ezin juan. Pena neban, baña...

Urrengo egunian aitzen emon eusten Junta onetan lendakari ordeko aukeratua nintzela, eta aurre-ra, zorru ori lepuan artuta. Ixilpekuok baño bildur gitxiago emoten eustan onek. Au agirikua zan, eta onek asko laguntzen eustan beste orretan.

Lenengo pausua emonda egoan, eta zezena aurrarian, adar sendoduna gañera. Oni zapi gorria atara biar. Nundik? Zelan? Urtebete luzeen joten eben gure iraupena. Emen, patxadaz jarrita egon barik, zutunik eta itzar jokatu biarra ikusten genduan bakotxaren aldetik. Gure egoera zabal onetan, erri eta auzunek, amasei junta-gizonen osatzen genduen lenengo pausu onen ardura guztia. Datorren lekutik datorrela, zezen orri be adarretik eltzeko prest.

Lenengo pausuak, almazen baten bulego legez leku bat biar, eta geldi egoan garaje aundi samar battegaz tratua egin genduen. Lau-bostgarren egunera-ko, onek be atzera egin euskun. Lenengo atara

geuntsen zapi gorria kendu euskun eskuetatik zezen orrek.

Beste baten, ondoren, beste garaje bat eskini euskun, baña oso txikia zala ikusten genduen: amar toneladako kamioi bat ustutakuen, apuntiek egiteko mai txiki baten lekue geratzen zan bakarrik. Berau, illian bi-iru milla pezeta.

Lenengotik, euneko berrogetamar pentsu konpuestuagaz asi genduen; baña beste guztietatik be eukitia derrigorra zan. Baserritarron mentalidadia ikusita, zer egin? Batzarra, ta berari eldu ingururako pentsuak eta bulego-ofizina lez eukiteko; eta erri ta auzune bakotxian ziran junta-gizonen ardurapian, bakotxaren inguruan, temajana, etxe edo aterpe, batzuk ordainduta, bestiak erdi ordañez eta abar, zuzenian ara pentsuak.

Onek banatzeko ardurie, junta-gizon orrek euken; illuntzetan orduak ipiñi ta abar. Lastuak, abonuak eta onek datozanian, baserritarrari esan nun ustu biar jakozan, eta usten lagundu. Lastua be ez zan dana ona, baña abonuak ez asko obiak, batez be, baltzak, kokotian sartu ta orkatzetan urten. Urte bixen askotan egin biar izan neban, eta nik legez beste guztiak be; eta guzti onek, duan.

Orduan, junta-gizon izateko, *praille lego* izateko lakoxe bokaziñoia biar zan. Baña sistema onetan, ikusten genduan biarragaz laguntzen geuntsana. Ainbat almazen txiki eta inguruko sagu-arratoia guztiak dantzan asi ziran.

Eskerrak jazoera bi onei: bota emen, gure bulego txiki onen aurrian, iru metro gora eukazan orma edo arresi bat, eta oni atara ate bat, eta barruan gura genduan bulego, denda eta almazen egin al izateko baimena lortu euskuen. Gure buruan pasau be egin ez, genduena monjen ortue zan eta. Baña konturatu giñan gure atzetik baegozala esku batzuk laguntzeko be, eta orretariko bat sartu zan bitartian.

Eta ara emen zertzuk baldintzak zituan berau aurrera atarateko: geuk gura genduan moduko lokal bat egin geure kontura, eta ogei urterako guretzat, illian milla pezeta bakarrik ordainduta; andik aurrera, beste tratu bat. Guri au oso ondo iruditu jakun, eta segiduan baimena lortu. Eta gure bazkide artian bazan bat baño geiago orretan aitzen ebana, eta onek egin eben alogerien, beste guztioi tokau jakun piontza, duan, laster genduen martxan.

Au amaitu zaneko, bagiñan eundik gora bazkide. Bakotxak iru milla pezeta emon genduzan lenengo Junta sortu zanian, eta almalzen barri au egin atzetik sartu ziranek bosteun pezeta geiago. Esi gogorrik ez genduen ipini gura. Pentsua bera be beste almalzenak baño txakur pare bat merkiago geunkan, indar piska bat artzeko bidie emendik ikusten genduelako.

Bigarren pausua, garrantzi aundikue izan zan beste au, eta aurrerakada biak batera legez egin genduzan. Or-emenka genduzan auzo-errietako pentsu banaketa orregaz galtziak atara eta arazu gogorrik ikusten genduzan. Alde batetik, sagu ta arratoi ugari; eta ori ez bakarrik. Geure artian oitura txar asko geunkezan. Ainbeste ziran zaku erdi pentsu prepa-rau, beste bat ogei kilo baba... Eta urrenge astian bardin. Olantxe oituta, eta alan izan biar dalakuan aurrera be. Au arritzekua zan: bere kalterako zala eta dendiak be, mesede baño, kalte geiago, naita geiago kobrau.

Junta berezia eta gogorra, eta erabagia: "Emendik aurrera erdikiñik eta zatiketarik ez; bakotxak atara kontuak il osuan zenbat pentsu biar daben, orri baten ipini eta emon auzoko junta-gizonari; auzo urrenakin batera ipini lekua nun ustu, etxera ezin dan lekuetan".

Urrindik eta kamioi aundietan etorten ziran, eta bide nagusian izan biar eban. Junta-gizonek,

emen ustu eragin eta parte emon pentsu jabiei, bako-
txak eruan dagizan. Au izan zan bakerik aundi-
ena, erosotasuna emon eta alperriko pausu eta
arazu asko kendu euskuna. Ez eban eragozpen
aundirik izan sistema barri onek. Danak kontura-
tu ziran danontzako mesedegarria zala: batetik,
bakotxarentzat; bestetik, alkartiarentzat: ainbat
biar da gastu gitxitu. Junta-gizonak onegaz ez zi-
ran gitxi nasaitu.

Tira-bira guzti onek urte bete pasatxuaren ba-
rrukuak dira. Ez zan, ez, patxada edarran jarrita
egoteko urtia, goixeko iruntza legez, goitik berez
etortekotan egotekua. Gure burutik ez eban aldetan
alkarte onen jaiokeran epaitu ebela urtebeteko bizia
luzeena, eta geienak trajia be jantzi eben astebete
baño leen kanpai otsa zanian juateko.

Urteko batzar nagusia San Isidro. Ez nago zigur,
baña, eun ta berrogetamar milla pezeta garbian ge-
ratu zirala-ta nago, eta au eztago zigur jakin eziñik,
liburuetan dago eta. Jakiña, duan egindako biar as-
ko egoala irabazi orretan, baña borondate on guztiz
egiñak ziran.

Bigarren urtie, antzera jarraitu genduen, bia-
rrien; aurrekuei begiratuta, polaiñek be jantzite, au-
rrekuan letxe.

Gañera, iru edo lau illabete aurretik, batetik as-
ko biar genduelako, eta bestetik modak asko alda-
tuaz joiazalako gazte eta zartxuaren artian be, batez
be bizikleta zarrak baztertu eta *Vespa* edo *Lambreta*
sartu, eta guk be gitxiago izan gura ez. Neu be as-
pertuta negoan traste zar aregaz; eta, gañera, asko
ibili biar nebalako, erosi neban *Lambreta* barria.
Goiz baten jua Markiñara eta ordainduta itxi ne-
ban, arratsaldian semia eske juateko. Pozik etxian
guztiak, eta neu ez gitxien. Bizikleta zar ori begira-
tzeko eneban. Berrogetamairugarren urtia aurrera
joian, da iñoz eneban artu olako tresnarik neuk zu-

zentzeko edo erabilteko, baña ez nenguan orainguan isteko.

Egun guztian semiari, zelan diran kanbixuak, zelan au eta zelan bestia. Lenengotan baneroiazan guztiak buruan buelta ta buelta; ez neban pentsetan illuntzea urrera zanian *tekniku* be eginda ez negonik!

Semia eske juanda zan, eta neu, bera etorrenerako, beko kamiñora. Bixaramonerako itxi barriak, eta etorri zanian, begirada bat eta "Au, onan; bestia, alan", naikue maixu be banitzala pentsaurik gañera, arrankau neban. Benetako maixue banitz lako urtera normala egin neban; amar-ogei metrora bitartera, bigarreneira aldatzen asi nintzan, eta okerrera: lenenguaren aldera. Txoriak burutik iges, eta naikue bizkor azeleraute neukala, soltau dot enbragia, eta bolanderie baño bizkorrago giñan motorra sasitzara eta ni beste aldeko kuneta zulora! Eskerrak sasitzari, motorra marrauz bai, baña aberi gogorrik barik, eta neu be bardin, minik barik.

Semiaren asarriek! Akabo ba! Baña, alan da guzti, sustotxue emon eustan arren, neure buruai au esan neutsan: "Tomas, zuk ortxe ibili biar dozu". Eta sasitzatik atara eta kilometro batzuk egin nituan etxera orduko. Ondo goguan geratu jatan bigarren ori artzeko nora eragin biar jakon. Bixaramonian beste ibillaldi galant bat, eta bizikleta zar ori ganbarara.

Jazoera orretatik berrogetazortzi ordura, Arrateko Radiotik diño:

-Tomas Besik Lambreta barria ekarri dau, eta gañera barria. Igon da ogei metrora, motorra alde batera eta Tomas beste aldera egin dau.

Orrexek berbok oso-oso esan zituan eta lau probintziak jakin eben. Zorionak, danak ondo juan ziran eta. Andik aurrera, amaika ibili egin eban,

batian bategaz, bestian bestiagaz, eta suberte bat izan genduan beragaz: iñok ez genduela minik artu. Eta bizikleta zarra, laixe zarrak legez, baztarrarian.

Bigarren urtie amaitzerako, berreundik gora giñan. Bigarren San Isidroko batzar nagusien, gure MIBA mutiko mardo-mardue, praka motz senduakin agertu zan. Onek ondoren ebizan eiztarion tiruei ige-si eutsen; igarri barik berandutu jakuen. Jaio zanian bere entierurako trajie jantzi eben batzuen entier-rura berau juan zan, bost urte zituanerako. Lenengo urte bietako istoria dogu ona artekua. Gogorra bai, batez be zuzendariarentzat: buruaustez gañera, duan biarra, aurrera atara naiak eraginda, gogo guztiz gañera.

Beste biñe urte geunkezan juntan. Emen ez egoan ordainik, ez eban lasto, abonu, pentsu isterik. Emendik aurrera, gizona ipinten zan bere sariakin. Juntakuak ez ziran gitxi nasaitu. Duan egiteko gauzarik, bere auzo inguruko abixuren batzuk; eta, illeko nai bitartian ipinten ziran batzarretara uts egiteko eragozpen gogorrak biar ziran, duan izan arren.

Alkarterik aurrera atara biar bada, batzarrak dabe garrantzirik aundiena. Batzarrak gaur bai eta bixer ez asten diranian, alkartiak asi dira tinbilin-tanbalan, eta urte birako pikutara.

Urte bi onek pasau ziranetik aurrera, bildurrak uxatu ziran gure artetik. Gure au asi genduaneko *profetok* buruari eltzen asita egozan, da urte gitxira batzuk atiak itxi be bai.

Alkartia, denda barri ori martxan ipini ebanien, pentsuz gañetik, perrateri kontuan be gogor sartu zan. Era guztietako aziak, eta selezionauak gañera, azi onak landara obiagoa atara daian eta abar.

Zuzendariarentzat, asko saltzia ondo ikusten zan, baña onek beste ardura gogor bat sortzen eban: ko-

bratzia. Dendara ekarten zana, ogetamar egunera ordaindu egin biar zan, olan egin ezik beste prezio bat eukan eta. Askok eskuan pagetan eben, baña beste batzuk, sei illabetera edo dirua txalakin artzen ebenian, alan oituta egozan-da. Ori be, zaku erdika eta ogei kiloka pentsua eruatia legez zan, baña geienetan, gitxi eruaten ebenak eskuan pagetakuak ziran. Gure kasuan, il barruan ordaintzia, *eskuan pageta* ori zan).

Onek ardura gogorrek emoten ebazan batzarretan. Illa pasetan zan momentuan, interes bat ipinten jakon; eta bira eltzen bazan, beste bat. Jokera au gogor zaindu biarrekua zan. Bestelan, ainbeste kostata jaso genduen kastillotxu au laster zan lurrian.

Emen aitatu dodazan tira-bira guztiak gure lau urtekuen barrukuak dira. Utsetik asi biarrak buruauste asko dau. Emendik aurrerakuek be, asko erreztua badabe be, eztabe lo egiterik, bide asko geratzen da egiteko eta.

Juntako arduraz gañetik, etxia be ezin albora itxi. Urte orren barruan, ganautegia barriztu eta iru silo be egin nituan, etxian lau urte orren barruan dana bedar ipinita neukan eta. Ondiño kurtsilloak gogor matxaketan eben, eta aurrera egin biar zan. Eta nituan txanponak eta geiagok laster agur egin eben. Bedarra asko geitu genduen; lekuak be bai kortan. Baña onek betetiak arazo gogorra dau. Onek be, Kooperatiba bidez asita gengoan Torrelavega-tik ekarten: jaten emoteko txal, naiz beiek. Onek danok barriro zorretan ipini ginduezan, aldakuntza barri orrek.

Gure aurreko bizimoduari aldakuntza ekarri eutsan: gariak, artuak, nabuak, euren jorrak, bedar muskiñak, bata amaitu orduko bestia gañian eta beti estu eta prisaz... Udazkena eldu ta mendirik mendi azpigarritan... Bestera bizi leikenik be burutau ez.

Aldaketa barri onek, bat ez beste guztiak desagertu zituan geienentzako lau urte barruan. Bedarra eta ganauai begira ipini ginduzan. Bedarra asko ibili biar bazan be, siluak zirala medio, eguraldia zelakua, biarra alakua egiteko erreztasunak aurkituten ziran. Udabarria eta uda bitarteko estualdi bategaz, urte guztia nasaitasun geiagoz ikusten genduan. Udaguen aldian ez aldakuntzarik txikiena. Agur garia ereitiari, baita azpigarritan mendirateari, korta geienak azpigarri barik pasau al izateko ustez egiten ziran eta.

Batzuk nekez itxi eutsen oni: batetik, ganaua erruki; da bestetik, satsa erabilten errezago. Bigarren onek badau zailtasun apur bat. Gurian, kortako atetik ogei metrora asten da azpigarria, eta dana sail baten. An dagoz azken ogei urteko guztiak.



Tomas, etxeko bi loba bixkiekin, auen leen jaunartze egunean.

Familiaren gora-berak

Familiaren uste bageko zatiketa be eldu da. Mundua ez dago geldi momentuan be. Bizitza be bardin: beti aurrera. 1964ko uda sarreran, Ipar Amerikan, Reno Nevada-n ain zuzen, berrogeitamar urte an eroazan osabak nire alaba nagusiari proposamen bat egin eutsan: berak ordainduko eutsala bidie eta beste biar eban guztie, euregaz an sei bat illabete pasetako jua gure badau.

Ogei urtegaz olako bat eskura etorrira, nok itxi?. Laster zan baiezkuia. Eta lagun bat ipinten eutsan: au, alargunduta etorrira, Durangon bizi zan andra bat zan. Ara, bere gizona zanaren jubilañoie konpontzera jua biar eban.

Gure osaba orrek, andria Ipar Euskal Errikoa dau. Alaba bat euki eben, eta emeretzi urtegaz il jakuen. Eta osabiek eta beste emen euken Aita karmeldar anaiak bistaz jokatu ebela-ta nago. Nik, eta ez jua zanak, ez burutik pasau be urte bi aurretik emen egon ziran osaba-izekuok, eta, garagarrillaren 4rako gertau zana; eta alan jua be sei illabeterako ibillal-diaren barriak jakiñez, atsegin izateko uste osotan.

Bixaramona, illak 5, seme nagusia soldau Santanderrera, urtebete pasaurako.

Etxian, biarrerako lagun bi gelditu giñan: alaba gaztie amazortzi urtegaz eta neu berrogetamairugaz, eta ogei ganau kortan. Seme gaztiek egun guztie Lantegi Eskolan. Eskerrak aurrerago aitatu ditugun aurrerrakuntzak eginda egozan. Danei aruntzago-onuntzago erantzun geuntsen naikue patxadaz.

Sei illabetiak, iñungo minik eztanian, bizkor jua-
ten dira; eta lenengo seirak bete ziraneko, beste seira-
ko luzatu eutsan sagu zarrak. Onek be bete ziran, eta
beste ainbeste. Eta urtebete pasatxura eskontzeko
baimena eskatzen eustan alabiek. Eta nik, zer esanik
ez, baiezkoa: beran gustua alan bazan, suberte on bat
euki daiala bizitza guztirako, gogoz gañera. Emen be,
beste ainbeste egin biar eban: bizimodu bati eldu.

Izekuaren iru lengosu egozan an, urte batzuk au-
rretik egozanak, irurak Aldude Iparraldeko errikuak.
Iru euretatik bategaz alkartu zan, eta “dana etxekar-
tian”, esan oi dan moduan. Eta ondo eta martxa go-
gorrian bizi dira. Seme bat dauke. Emen be bi-iru al-
diz izan dira, baña atzera jua biar, an daukelako
eurak bota daben izerdi saria.

1965eko azken aldera, semie etorri zan soldautzie
amaituta. Andik lau illabetera, gure MIBA Kooperati-
ba onetan biarrerako gizona biar zala, eta ara asi zan
biarren, ordu libriek etxien egiñez. Da zer esanik be
ez, baserri utsekua baño, mardulagoa bietatik dato-
rren bizimodua, eta aurrera. Onegaz, nire lepo gera-
tzen ziran nekarik geienak. Baña ondiño eninduen
biarrak eta nekiak ainbeste bildurtzen, eta danok
itxura baten aurrera eruan al genduzan. Eta an ja-
rraitzen dau, ogei urtian utsik barik, esateko moduz.

Kooperatiba bera be ondo joian: urte guztietan
aurrera egiten eban, gauza guztia zerbait merkiago
ateraten genduan, eta bosteun bazkidetik gora be el-
duta egoan. Sortu zanetik amar urtera, pentsu fa-
brikie geuk egiteko bestian, gogoz da animoz egotia
naikue. Konfiantza egoan zuzendaritzaren jokeriagaz
eta ganerako bazkidien artian. Guztien eretxia jakin
biar zan, milloien pausu bat emotia zan eta. Dane-
tan aurrera juatia atara eben, eta olan geuk eginda-
ko pentsu konpuestoak serbitzera eldu giñan. Gure
Alkarte onen sortukeran aurka jagi ziranen profe-
ziak uts ederra izan eben. Uste dot mesede galanta
izan genduela bildurtziagaz.

Kotxea

L 966ko udaguen aldera, Reno-ko osaba etorri zan. Emen, bere anai aita karmeldarra, gaixo larritz aurkitzen zan, eta etorrikeran bigarren eskuko "Dauphin" bat erosi eban. Iru bat illabetera juan zan atzera, anai ori asko sendatu zan-da. Juan biar eban aurreko egunian esan eustan kotxian:

–Or isten deuat kotxia temajanan, da nai duana egizak. Nai bok saldu, edo euretzat geratu.

Ez neban dudan denpora alperrikorik emon. Berez eskura etorritako txoriari eskapetan itxi? Orixe ez! Gañera, irurogei milla kilometroan egoan itxi ebanian. Bizikletatik Lambreta-ra lako edo bentaja aundiagoa egitia zan ibilteko.

Danok pozik suberte onegaz, eta neu pozen. Seme-alabak, batez be alabiek, bazituen kezkatxuek, Lambretiaren ekarrera gogoratuz. Osabiagaz bergaz be asko ibili nintzen kotxe orretan, baña iñoz enitzen arduratu zer egin biar jakon martxan ipinteko, ez martxak aldatzeko. Baña azkenian, geratu zan orduetan, galdera asko egin neutsan, batez bere enbragiarena, orregaz leziño ona artute neukan eta. Eta nire burua, zer esanik eztago, gau eta egun orretan nebala, baña ixilik, banekien alabiek ez ebalagure ni arrisku orretan sartzie eta. Baña ni beti izen naz buruen sartu jatanagaz aurrera egitekue.

Biarbada, bera, osabie, egazkinez Amerikako lur aldera eldu baño leen atarako neutsazan lenengo murruzadak temajanan. Semie biarrien, da alabie buruai eldute etorten jatan noz zer ikusiko bildurrez.

Baña oitu egin biar giñan, ni kotxiaren maiñak arzen eta bestiak euren bildurrak uxatzen, eta apurka-apurka, alan juañ zan.

Ni, bi-iru egunerako asi nintzen etxe inguruan ara-ona batzuk egiñez, ardura guztiz eta astiro, ango deskuiduek karu urten eikien eta. Uts txiki bat zan asko, eun metrotik gorako erripe baten bera koxe ta guzti juateko. Etxe inguruan lautada polita egoan, baña etxetik beeko kamiñora beste aldatz bat dago. Goixen ,asieran batez be, etxe aldien polito nenbillela ikusiaz eta konfiantza apur bat be artuaz, asi nintzen beeko kamiñora. An kilometro bat inguru egin da etxera.

Egun guztietan onako aprobatxuek egiñez, permissue atarateko eskatu neban auto-eskola batera. Ez eusten deitzen, ez eusten eskolarik be esaten, gitxiago noz asi biar zanik. Eta, oni kasurik egin barik, beste gure erriko bat ebillen Eibarko auto-eskuela baten erakusten, jaietan etxian egoten zan, eta oni esan neutsan zer jazoten jatan. Eta onek erantzun eustan:

–Nai dozu bixer astelen goixeko zortziretan asi? Neu etorriko naz zure etxera, eta olan zeugaz asiko dot nere asteko biarra, eta zeuk ikasi arte.

Eta olan asi nintzan: zortziretatik amarretara izaten zan kotxeko ibillaldia, eta amabiak arte kodigua ikasten ofizinan, eta ordu orretan neuken autobuse etxerako.

Amar egunera, esamiñak, beste askogaz batera, goixeko bederatziatan. Arrateko elizaldeko solo baten ogeiren bat bagiñan kodiguen esamiña egiten. Angue ontzat emon eusten, eta segiduen bolantera, beste ori aprobau eran.

Aprobok modu askotakuek egiten ei ziran, baña gurie onan izan zan: injineruagaz, beste iru kotxian; bat bere albuñ bolantian, eta Arratetik beruntz iru kilometro inguru eragin eutsazan. Urte aretan bide aretan oiñezko asko ibiltan zan, eguneroko merkatu-

tik eta abar, asto eta guzti; eta Eibartik, kotxe bana-
kak be bai. Baña esamine errez egitekue: agindu eus-
tsan geratzeko eta buelta emoteko. Alan egin eban.
Bere señale guztiak biar dan legez eginda izan biar.
Dana ontzat emon eutsan, “Vale” esanaz.

Ondoren, niri deitu eustan. Neuk be naiago ne-
ban goitik bera jarraitu balau neure prueba orrek
be, errezagua iruditzen jatan eta. Asterako, bide au
oso erripia da, eta lenengo arrankian ei zan suspen-
ditzeko arriskurik aundiena: soltau-era orretan zen-
timetrorik be ez eban egin biar atzeruntz.

Niri erakusten ibili zan orrek esaten eustan antxe
betik gora aprobetan zituela injineru orrek, eta egun
guztietako probetan onan eragiten eustan: etxetik
Eibarrera, ogei kilometro; kalietan ibili bat, eta atze-
neko saioa beti aldatz orretan, ardura guztiz, utsik
geienak antxe urteten ebela-ta.

Eldu zan, ba, *kara* edo *kruz* ori, eta ondo urten
eustan. Soltau ta gero, berak agindu biar eban biga-
rrenera aldatzeko. Martxan ogei-ogetamar metrora,
esan eustan:

–*¡Cambia!*

Ain subertez, bost andra, ta eurekin bi edo iru
astogaz, kaletik etxera, eta, neure eskumatik onen
pare-parien niñoela:

–*Intermitente* be emon! –agindu eustan.

“*Cambia*” ori, baña eneban egin aldakuntza ori
bideztiok aurrera pasau nituan arte. Guztira be, ogei
bat metro izango ziran, baña duda gogorra sortu ja-
tan, uts emongo ete eustan beragaitik. Andik be-
rreun metrora:

–*¡Para!* –agindu eustan.

Señaliak emon da baztertu nitzen; martxatik ata-
ra eta eskuko galgie emon neutsan.

–*¡Vale!* –esan eban, eta ni pozik, nire duda guz-
tiak ondo urten ebelako. Eta irugarrenagaz jarraitu

eban aurrera, eta beste biok esan geuntsan derrigor jua biar ete genduan atzera Arratera. Ezetz, libre giñala eta egun gitxira etorriko jakula gaurko onen agiria auto-eskolaren bitartez.

Biok anka Eibarrera, eta autobusian, eberdirako etxera. Prueba guztixe, irureun metro barruen: soltauerie, martxan aldatuerie, eta bidien baztertute istiagaz bakarrik, ibilteko baimen guztiak eskuratu. Errezagorik!... Ainbeste duda ta bildurren ondoren, aprobau genduenaren agiria egun gitxira etorri zan; ixe illabetera edo geiagora etorri zan karneta.

Eta bitarte orretan bete jatazan berrogetazortzi urte, naikue zartxo eginda olako traste bateri lenengo aldiz eskua botateko. Lerro onek idaztera, ogei urte dira, eta gauza asko kontau biarrekuak, on eta txar. Apurka-apurka emen azaldu gura nituke, tarteke baño ezpada be.

Berrogetalau urtera arte nire ibilgaillua bizikleta izan bazan, naikue bizi luzia izan eban. Lambretiak niretzako iru urtekua bakarrik euki eban. Semiak be, kotxia libre baegoan, ari elduko eutsan. Neuk eneban geiago artu Lambreta. Urtietan aurrera juanda asi baintzan be, ainbat ibillaldi egin nenazan kotxe onegaz.

Urrinen jua nazana, Burgosko uri nagusira. Uri ori aruntz eta onuntz pasau neban, arreba monjie ikustera jua giñanian osaba karmeldarra eta nire anai pasiotarra, Perú-tik etorrita oporretan egoanagaz, irurok. Au, karneta atara barri zan. Ondo egin genduen ibillaldia, gurpil bateko zulatze bat bakarrik ezik, eta txarto ezin esan origaitik.

Beste ibili luzenak, Logroñora izan ziran. Ona, guztira, seiren bat egin nituan. Onetatik iru famili artekuak ziran. An egoan nire loba bat, karmeldar ikasketak egiten, ango aixiak biarrezko zitualako bere birientzat. Gure osaba Rafael karmeldarrak lortutako saria izango zan berezitasun ori. Onan, ba, iru aldiz jua giñan ori ikustera bere etxeko anai zarra-

gua eta Aita Rafael. Onek bazituan irurogetamabost urtetik gora.

Iru osterara onetatik, batek naiku aldrebes urten euskun; bigarrena zala uste dot. Ekainaren 22, egun luzia. Goixeko zortzirak aldera urten genduan. Gasteiztik aruntz, Herrerako bidetik. An geldituta, kopa bat artu eta trago bat egin ondoren, jarraitzeko sartu nitzen kotxera eta bidera atarateko desenbragau neban, eta kotxiak metro erdiren bat atzera egin eban; eta, itxura danez osaba zarra txixegiñan egoanari ikutzen dautso ipurdien, eta aurreko kuneta zuloko bedar-lartzara, mux! Loba bion arte altzau genduan; da danok barre zantzuek baño besterik ez genduen egiten, da guztia ondo.

Amabiak joten da Ebroren gañeko burdin zubian giñoiazan, da uri guztia beste alderaño igaro biar genduen. Bariaren martxa geroien oñezko eta kotxek. Emen, albotik pasaukeran, beste kotxe bati ikutu txiki bat egin neutsan. Geratu nitzen, da Seataren jabiak be urten eban, da ez egoala aberirik eta aurrera juateko agindu eustan.

Ango zeregiñak egin genduzan, da lauretatik bostetara urten genduan onuntz, atzera leengo bidetik. Oso oztopo gitxi egoan ordu orretan; baña, itxura danez, egun aldrebes utsak urten biar eban derrigor. Bidezañari jaramon egin barik, neure alderako bidie artu neban. Osabie be "Orraxe juan biok" esaten neukan albotik. Laster zan txilibitu otsa albotikatzetik ugari. Geratu giñan eta bronka gogorra bota eustan. Osabak be berba egin eutsan; eta, zigor barik apartau banitzen, prailiegaitik izan zan.

Baña egunak ondiñok beriak emoteko eukazan eta andik amar kilometrora, kanbixetan asi eta embragie apurtu! Lenengo beruntz joiengaz, Logroñorra. Zapatua, eta garajiak itxita. Eskerrak neu eruan ninduan orrek lagundu eustana guardian egoan garajia topetan.

Emen be, gizon bakarra deiei erantzuteko. Onek lanerako inor topatu ebanerako, pare bat ordu. O-lako baten agertzen da bat, elixie be osorik eruateko moduko grua aundi bategaz, eta, orregaz juan da ekarri genduen.

Nik nai nebana orduan konpondu al izatia zan, baña zortzirak ziran. Ez egoan zer egiñik: bixaramona, domekia. Astelena biar gitxienez konpontzeko. Martitzena ipiñi eusten eske juateko. Iru lagun giñan, eta artu tasia eta etxera. Esandako egun orretan juan nitzan autobusian, da barrero etxera.

Ez zan izan ibillaldi erosua, eta gitxiago merkia. Baña orrek gauza normalak dira bidian dabillen guztientzako tresna orrekin. Ogei urteren buruan aldrebesagorik barik, gatxa. Nik egin ditut beintzat neure erruzkuak eta neure erruz eztiranak. Kontagarriak dira onek be.

Lambretiagaz ogei metro barruan egin banituan kontagarririk, onegaz milla bat kilometro egin da gero egin neban lenengua. Bilbora iru txal salduta neukazan, eta goixalde aretan kamioien bialdu, eta nik legez, beste iru lagunek emen inguruan. Ganaun pixuak ikustera nire kotxiagaz giñan laurok juateko. Negua zan; illunez urten biar zan. Eta alan egiteko, kotxia beti atzeka egoten zan temajanan; frenue eta kanbixue kendu ezkerro, martxan ipiñi barik aurrera jarten zan beerako bidera. Emen be, geienetan martxan ipini barik jarraitzen neban, baña orduan apur bat atzerago eta arrankau barik juateko konturik ez.

Otz be baegoan, da, emon kontatuari eta arrankau ez, ainbat bidar emonda. Ezkerreko ankia atarata emon neutsan sakada txiki bategaz soltau zan, eta nik egin nituen almen guztiekin, ezin eldu ankia frenora. Eta neu, erdia barruen eta beste erdia kanpuen, ogei bat metrotara, bota neban neure burua kanpora; eta andik eta eun ta ogei metro edo geiago,

soloz beera juan, da bide zabalerako amar metro faltan geratu zan, argiak be biztuta zituala. Kasurik be ez. Orduan, illun egoan. batetik; eta, bestetik, ez egoan iñoren enbarazoan. Alan biarrez, neu be salbonitzen eta errira oñez juan nitzen; da artu tasisa eta Zorrotzara laurok. An bazkaldu, eta etxera.

Goixian, barritan, eneban sentitzen ezer egin nebanik; baña illuntzera agertu ziran or-emengo miñak, ez bildurtzekorik. Iru egunera, ezer be ez. Kotxia ikustiak min geiago emoten eustan. Barriz konpondu ala barria ekarri, dudak. Konpontzia erabagi, eta ogetamaika milla pezeta kostatuta, eta alan da guztiz be, direziñoian zer edo abar akats geratu.

Gizonok, uts egin da gero ataraten ditugu geientan kontuak, "Au egin baneu..." eta beste. Nik be gañeko egunetan esaten neutsan neure buruari iñoz parkatu be eziñeko utsegitia egin nebala, "Martxan sartu eta kontatuari emon baneutsa, naikue eban soltetako, nai ta arrankau ez". Baña eginda eguan, da beranduegi. Or amaitu balira utsegite guztiak!... Bai zera! Aundiagoak egiteko geratzen diranak, da goazen aurrera!...

Andik laster batera, seme gaztiak Eibarren egiten eban biarrera eruaten eban noz-beinka, batian Lambretia eta bestian kotxia, eta *Pesa*-ko autobus batek jo eutsan geldi egoan lekuan. Arek arreglau eban, baña uskeri baten saldu eta *Seat 600* barrixe erosi eban, eta etxerako, 850 barri bat semiaren ize-nien.

Au barri samar zala, beste iru erritarregaz juan nintzan Bilbora, *Beiena* esne kooperatibako urteko batzar nagusi batera. Eta batzar ostian an bazkaldu, eta etxera eltzeko iru kilometro falta genduzela, astiro gentozala, geure eskumatik errebueltan zan eta lar belozidade ekarren aurretik etorren orrek, eta josten nau ezkerreko argiaren aldetik, eta tope ikaragarria: lan batian eta bardin bestian.

Iñok ez genduan aberi gogorrik egin. Nire atzian etorrenak, buruagaz nire burua jo eban: betaurrekuak apurtu eta sudurra pixka bat loditu jakon; danak nire buruaren kontra egin zituan, eta ni enitzen konturatu, geroago bestiak esan eusten arte odola neukala buruan atzeko aldetik. Betaurrekuen kristalak ebagitxu bat egin eban, itxura danez.

Kotxiaren bolantia *ocho* bat eginda neuken, eta danak pregunteten eusten paparrian minik neukan, ustez paparragaz jo izango nebala alan egiteko. Ni enitzen konturatzen zer egiten neban eta zer egin neban; baña atzen momentuan ikusi zan jo biar ninduela, eta nire eskuak eta besuak gogortu ziran bolantian, eta egin neban indar guztiaz besuak zaindu eben golpe guztia.

Karabana aundiak sortu ziran atzetik eta aurretik, eta an subertau ziran txapel okerrak be. Eta onek egin eben atestaua, eta kotxia garajera eta osagillearena juaan biarra genduanok, arengana. Guztia-kin kargau zan jo ninduen, baña kotxe barriarentzat golpe gogorra. Eta olako jazoerarik geienetan baltzagorik jazoten da, eta pozik alan geratu zanian: giñan zortziretatik, inok ez eban egin osagilleagana juatekorik, neuk eta atzetik jo ninduanak bakarrik.

Nire kotxiagazko abenturei jarraituez, andik urte bat edo bire, seme gaztiekin kotxie saldu eta barrixe erostie pentsau eban, eta nik erosi neutsan.

Onegaz be, beste kontau biarreko bat, andik laubost urtera. Ezin naz iñundik gogoratu zergaitik eskatu eusten medikuen analisis bategaz juateko, juaan biar neban zeregin orretara. Sekula analisisik egin barik nenguen ni, baña iñoz entzunde bai, txixe eta odola biar dirala analizau. Da txixa goixian barurik dagoan arte artu biar dabela izan entzuna-gaz, badaezpada, alan artu neban goixien fraskotxu baten. Eta Durangon geunken guk urren anbulato-rixue, eta juaan nitzen.

Baña ez eusten eskatu txixarenik, eta kotxien atzera an nekarren bolantiaren onduen txixe ontzi ori, begien bistan; eta axe botatie buruen sartute neukan bide guztixen; begiratzen neban atzera eta aurrera, eta iñok ikusi barik nai, eta beti atzetik edo aurretik kotxeren bat. Arek ez eban enbarazurik egiten, etxeraño be bardin etorriko zan, baña nire amak sarritan esan oi ebana:

–Diabrua ebillen tentaka, eta azkenian be berriagaz urten eban.

Etixeruntz bide erdia baño geiago eginda neukala, iñor ez atze-aurretik, da bota neban indarrez, eta neu ontzi orrek nun lurra joten daben begira, eta kotxia bere martxan aurrera. Eltzen dautsat eskumako baztarrari, itzultzen da ezkerraren gañera, eta berrogetamar metro edo geiago tarraz. Alako lata zar otsik!

Zaratara laster azaldu ziran inguruan biarran ebizan baserritar batzuk eta kotxiak be bai. Eta ipiñi eben buelta emonda, eta urten neuk, aberi barik. Kotxiek, alderdixe ondo maluskaute, besterik ezer be ez. Eta sartu barriro eta zuzenian txapistara. Danentzako perixe txarrik ez. Emen nun egin dodan urte gitxira bigarrena, neure buruari be parkatu eziñekue.

Baña bada gazteleraz esakera bat, “*No hay dos sin tres, y a la tercera va la vencida*”, eta nire kasu onetan be olan urten eban.

Irugarren au, urte mordo batera, irurogetabost urte nituela, oin bi urte dirala. Gaztiak egun guztirako kanpora juan biar izan eben, eta bakarrik nenguan etxian. Bazkaria gertaute itxi eusten, eberdian epeldu bat emon da jan baño ez ebal. Biztu butanue eta ipiñi neban; eta butanu ori amaitu zan, eta gero be ekarri egin biar zala, eta segiduan juan nintzen barriaren eske errira.

Banator artuta etxeruntz, eta etxerako bidie artukeran an egozan beste iru esne-ontzi uts, goixian

esne-batzalliarri ateratakuak. Onek be artu nituan bide batez. Artu ta ogei bat metrotara, aldatz gora asikeran, ontzietariko bat jausten jat alboko ezarlekura, eta esne ondakiña ara bota eztagian, ardurazten naz aregaz eskua berari botaz, eta emen be kotxie aurrera doiela. Onetan, aurreko burpillak artu dauste beko aldeko bide eskiñie.

Sikuen geratu banau, metro bat atzera jo eta ez zan ezer be pasauko. Baña bolantiari emon da indarrez bidera sartzekuen, urten eusten atzekuek, eta albazka iru *buelta kanpana* emon nituan, eta solua-ren lau unean lau erruberen ganian geratu zan.

Butano ontzi orrek, iru esne ontziak eta neuk, euron artian, ainbat dantza egin genduzan iru buelta orretan. Kantiñak ez ziran ezer, pixu gitxi euken eta, baña butano orrek, batian goia eta bestian beia, eta bietaruntz niri, arek erabili eban jolasa! Azkene-ko bueltan nire eskumako atia jo, apurtu, eta soloz beera jua zan.

Geratu zanian, esan neutsan neure buruari: “Ondiñok bizi nok”. Eta, astiro asi nintzen zabalik egoan atetik urteten. Eta urten da zutundu nitzenian, mundua bueltaka asi jatan; eta jausi baño leen, jarri nintzen jarlekuan, anak lurrian nituala erdi alan.

Olan nenguala bide nagusitik bost metrora nengoan, eta Markiñako gizon bik euren kotxian sartu ta eruan ninduen erriko sendagillearena. Onek be ez eustan gauze graberik ikusten. Neuk, barritan batez be, alan uste neban.

Etxian ez egoan iñor. Markiñan ezkondata dagoan semiagana eruateko esan neutsen. Onek be ondiño ez ekien ezer. Biarrera urteteko orduen eldu giñan; onek be, erdi susto ta abar, ikusi eban ez egoala ain gauza larririk:

–Bueno, aita! Iru bider intentau dozu zeure burua suizidetie, baña irurak uts emon dautsuela esan zeinke.

Juan zan biarrera. Etxeko semiari be deitu eutsan telefonoz, eta au be, astiro ibili biarran, etorri zan arratsalde erdirako.

Orduak juanez, geruago eta min geiago sentitzen neban gorputz guztian, eta erreiña bialdu neban medikuarena ospitalerako baimenaren eske, ambulanzian juateko. Eta alan egin neban etxequak etorri ziranian. Emen, astindu edar bat emon eusten eta iñungo apurturik ez neukala, baña bi edo iru egunian bertan egon biar nebala esan eusten. Etzuten, jagiten, jarten, eztul egiten... gorputz guztian min gogorra artzen neban, baña laxter uxatu zan.

Baña zer esan? Nik onek egitia ez neban gogoko, ez gitxiarik. Baña emen beian *txaka-txaka* gabizenok, bidian pasau biarrekoiei ezin iges, olan edo alan pasau biar dira eta. Azken baten, askoz txarragoak eztiranean, pozik. Eguneroko ogia dogu gaur egun tresna orrekin, diran eriotza eta abar, eta zer ez geiago?

Or aitatu ditut nire istripurik txarren guztiak. Neure buruaren kaltetan izan dira guztiak, ogei urteen barruan ordaindu dot kotxiaren seguru bat, eta ondiño eztau izan seguru orrek zentimorik emon biarririk izan, nik egindako ezbiarririk txikien baten be. Zenbat dira olakuak? Millakaren artian be esku bietako atzak beste?...



Bolibar.

“Itziarren semea”

Ibil-tresna orren barriak urte askoz urrindu nabe, eta atzeruntz amabost bat urte jo biar naz atzera, urrin itxi dodan bidiari eltzeko.

1966 aldera atzera eginda, beti legez, etxeko arazoak: lenengo, biarren bizibideari eusteko, goitik behera berezkorik ez dator eta. Onegaz egiten dau tope lenengo eta toki guztietan, biarretik bizi bada.

Urte onen inguruan, gaztediaren artian mobimentu barri asko sortzen asi ziran, pixkanaka urte gitxira asko geituaz; Gobernue, Eliza, gizarte molde... Sistema zar guztiak gauetik goixera aldatzera dirala be uste ebela emoten eben batzuen jokerak.

Baña, nire pentsamoldian, tartian zentzuna eben joko molde asko ebillen gazte askoren artian, Euskal Erriari, euskarari eta beren alde egingo daberen gobernu moldien eta abarren alde. Onek, urtietan ixilpian genbizenoi bidia asko samurtzen euskun. Eta emen, neu be, neure almen neurrian, buru-belarri sartu nintzan konturatu barik, beste onako jazoera guztietan izan jatan legez.

Gazte mobimentu guzti orrek gurian atiak zabalik aurkitu zituan. Amarretik gora ziran euskera ikasten egin ebezanak. Bateko Aste Santua zala eta bestian bestia zala, sapa guztiak beteta, neska ta mutil, geienak ikasle eta irakasle, guztiak ogetabost urte ingurukuak, edo bai gaztiauak be.

Nik beti eneban astirik onen eztabaidetan sartzeko edo entzuteko; baña, bateko euria zala eta abar, euren asmuak, planak, eztabaidatzen ebezan, eta

gauza askotan ikuspuntu desbardiñak eukezan. Azken elburuan, geienetan bat etorten ziran: diktadura apurtziagaz, Euskadigaz, euskeriagaz, geienetan gizarte oneri itzuli osua emotiagaz... Geienak, ezker ikuspuntukoak onetan. Urte orretatik, 1966-1967tik eta 1978 arte, amaika olakoren testigu izan nitzen. Neure almen-jakintza neurrian, guztietan edo geienetan barru izaten nintzan.

Baña or inguruan baneukan beste erritar bat lagun, gaztiagoa eta bizkorragoa. Eta ixilpeko batzar guztietan an giñan. Urte orretan gogor asita egoan ETA. mobimentuan, 1969ko lenengo aldian. Ixilmandatu bat, "albiste bat", emon eusten, artu al baneban etxien, ezkutuz ebillen gazte bat.

Arriskua ikusten neban, baña urte orretan nik guzti orri zentzuna emoten neutsan, eta baietza emon neutsan, iru egun atzeratuz berak ipiñi eustan eguna. Bilboko neska bat geunkan etxian euskera ikasten; egun bira etxera juateko zan eta alan egin eban onek. Eta neure kotxiagaz juan da ekarri neban. Albistia emon eustanak eukan etxian. Kaletxe oso txikixe, eta ume pillue, eta bildur atrapauko ete eutsen.

Gordeta egoan au entzuna izan da: "Itziarren semea". Ille bi pasau egin zituan gurian. Ez egoan gurien lekuaren ezik, eta gañera etxe bakarra. Gatxa zan emen iñok ikustia, ardure pixka bat artu ezkerro. Lau giñan etxien: neu eta alabie bakarrik egunez etxien, eta seme bixek euren biarleketan. Bera *delineante proiectista* zan, eta planuak egiten ebazan; neguan sukaldian geienetan. Txakurrak ots egiten ebanian, laster zan bere gelan. Iñok ez eban ikusi, ez susmurik egon. Orregaz zigur nago. Eguraldi ona egoanetan juaten zan gure basuan gora, mendira joiala, jinasi apur bat egiñez; da batzuetan, goixian juan da illuntzian etxera. Guk iñoz ez geuntsan galdetu ezer. Baña zitak eukiten zituan nunbait, berak egiten zituen biarrak emoteko eta abar. Bein esan

euskun ez zala etorriko gaberako; baña egun orretan basoz beko kamiñora joan zan, ara etorri jakon ko-txedun bat, eta egun bi egin zituan kanpotik. Eta barrero bere biarrari. Lerro guztiak euskeraz idazten ebazan. Bere irakurgai geienok, Mao-nak eta olakuen joerakuak ziran.

Diktadura baten azpitik urten ezinga genbizan buru-belarri sartuta, eta beste bat gogorragoan sartzeko bidia ikusten neban irakurgai orretan; eta iñoz aitamene batzuk be euki nebazan. Nigaz ados egoten zan nire eretxietan, itxuran beintzat. Gizarte burruka ikasteko biar zirala esaten eban orren irakatsiak.

Oso gustora ikusten zan; gaztiokin be ondo konpontzen zan. Seme bat geiago baneu legez, neu be bardin. Baña leenago edo geruago, egoera arek bere emaitza saria emon biar eban, eta, ekarri eutsen albistea bere lagun bat, "Baltza" izenekua, atxilotu ebela. Andik bi-iru egunera, beste bere lagun batena be ekarri eutsen, biak bera legez igesik ebizenak. Onek biokgaitik ez zan ainbestian larritu, "Orrek biok eztakie ni emen nagonik, eta ez au nun dagonik". Baña, pixka bat kezkatuta edo, berak gorde gura ebazan gauza batzuk nun gorde leikezan galdetu eustan; eta esan neutsan nun, eta neuk lagundu neutsan gordeleku ori egiten.

Eta trankil jarraitzen eban itxura baten, baña sokia luzatuaz jarraitu eban. Andik egun gitxira, irugarren albistea: beretzako egon-abixe au topau ebana, bera atxilotu ebela. Orduan bai benetan larritu zala; eta ez bakarrik bera, geuk be geure burua eta bizimodua ondo zapuztuteko bidia ikusten genduen. Eta zer egin?

Berak uste eban, danon egoera au ikusita, aurrekuak egin ebana egingo nebala, beste etxe batera eroan, akerra auzoko auntza akertzera eroan oi dan legez. Baña jokabide ori oso ezbardina zan. Oso bal-tza zan nire ikusbidetik; neu galdibian ikusten nin-

tzan, eta beste bat ipini? Ori ez eban nire kontzien-
tziak agintzen, neuria galtziak min emoten baeus-
tan, beste batena neure erruz galtziak min gogorra-
goa emongo eustan da. Bein da birritan esan
neutsan:

–Oraintxe leku txarrian zagoz. Oso gatxa izango
da orren eskuetara jausi barik geratzia.

Nik be onek danok esaten neutsazan. Aurrerago-
ko egun bi orrek egin zituan lekura juango balitz,
etxian atrapetarik eneban gure eta...

Baña, gero ikusi zanez, aldrebes nenbillen. Berak
azken albiste orren inguru ez eban aldatu mendira-
ko jantzia oerako be. Egunez beti egoan leio batetik
begira beko kamiñora eta inguruetara. Alabiak esa-
ten eutsan:

–Orrek ez datoz egunez. Gabaz egon biar da itza-
rrik, ez egunez.

Itxura emoten ebanez, iru bat egunian ez eban
oerik zapaldu, ezere susmorik bazan igesari emote-
ko. Eta oso errez egingo eban, etxia inguratu barik
egon ezkeru, orretarako oso egoki dago etxe au eta.

Baña iru egun da gau pasau ziranian, gitxienaz
pentsau ebala-ta nago geiago be bazirala “Itziarren
semia”-ren lakuak. “Alperrik gogor makildu, ezin di-
ranak kikildu”. Uste onegaz egin zan larregi trankil-
du. Laugarrenian eldu eutsan leengo biarrari.

Bostgarren egunak ordu gitxi zituan: goixeko iru-
retatik lauretara. Ain subertez, Eguen Santu goixa.
Txakur aundia geunkan atian lotuta, beti legez.
Onen zaunkak, geruago eta gogorrago, ez ziran nor-
malak, ez gitxiagorik. Urten neban leiora, eta illar-
giaren argian ikusi neban ogeitaz gizonak etxia alde
guztietatik ingurau ebela. Niretzako ez egoan esan
biarrik nortzuk ziran. Juan nintzan gazte orrengana,
eta arria baño gogorrago lo, txakurrak erabillen es-
kandalu guztiak eta abargaitik. Jagi zan oeko jan-

tzian, pijaman. Zapatillak oñetan sartu, eta ez ekian zer egiten ebanik. Gauza jakiña, olako baten, mesille ganian eukazan papel batzuk eskuetan artu eta igesari emotia.

–Etxe guztia inguraute dago. Alperrik asiko zara –esan neutsan.

Alan da guztiz be, aurrera egitera egin eban, atzeko salako atletik urtetia gura eban, eta esan eustan:

–Argia biztu!

–Txarrago, ikusi egingo zaitue eta.

–Biztu! –barriro esan eban, da alan egin neban.

Salako atia eregi eta lenengo egoan bedar pilluan sartu zituan eskuan eroiazan papelok. Eta kanporako atia eregikeran lotu eben mantso-mantso; eta, beragaz atzera etorrita, gorde zituan paperetara zuzen, ikusi eben eta. Emen amaitzen da gazte onen ixilpea.

Zein gela zan berak lo egiten ebana galdetu eutsen alabiari, eta, bera aurrian zala juan ziran gela ori aztertzeraz. Etxe aurria gizonez da poliziaz beterik egoan; eta euren artian, gurera aurretik euki ebana bera. Onek ez eban uste emendik aldeta ez egoanik. Esan geuntsanian, lenengo berbia “Galdua dok ba” esan eban. Geuk be, ori alan pentsetan genduan, eta pena emoten euskun.

Eta orrez gañetik, guriak be ez ginduzan gitxi kezkatzen, zer izango ete zan arduraz. Aste Santuan gengoan, eta gure artian pasau barri zan jazoera orrek beste kalbario bat sortzen eban gure barruan, entzuten ziran gauzekin olako jazoera bakotxarekin. Nik zigur legez ikusten neban: lau giñan etxian eta laurok barrurako ginduezala, eta ogei ganau egozan kortan...

Baña ez zan olakorik izan, ain subertez. Onek neu be engañau ninduan. Seme nagusia bakarrik eruan eben kuartelera, eta galdera batzuk egin eutsezan bakarrik. Ezer aren gauzarik, gordeta nai gor-

de barik, eruateko kuartelera. Eta, jakiña, pijaman da zapatillan bakarrik eruan eben, eta beste jantzi ta abar emen itxi zituan. Eta eruan ebazan guztiak.

Guztiak onenbestian geratziak aldrebeseko susmo asko sortu eban errian da inguruetan. Gure salbaziño bakarra etxian atrapetia izan zan. Eta gañera, atrapau erari begiratuta: batetik, ain trankil itxuran; bestetik, eskuan eroiezan papelak atrapau eutsezan. Eurak aurreko egunian, trankildu zanian, egiñak ziran. Beste ezer arriskukorik ez eutsen atrapau, eta au izan zan gure salbaziñoaren bide edo motibo bakarra.

Origaitik esan dot leen aldrebes ibili nintzela etxetik alde dagian alegiñak egiten, alegindu nintzan da. Bere eukitiagaz galbidian egon bagiñan be, berak, alan etxian artziagaz salbau ginduzan. Arek zigur etozan berak etxe onetan gorde ebanagaz; eta, emen aurkitu ezpalebe, etxeko laurok eguna zabaldu baño leen barruan giñan. Da... noz arte?. Gurera ekarri ebanak be, urtebete baño geiago egin eban, eta bizkarrekuak artuta gañera.

Erri eta inguruetan burrundada gogorra zabaldu zan, eta gu guztiok aske ikustiagaz, ondiño duda eta kezka geiago sortzen zan auzo ta jentiaren artian. Txapel okerrok mistik ez aterateko agindua emon euskuen, barrura juan ezipagenduan gura; da gu be lenengo egunian ezin asi zer jazo dan kontari.

Alako eguna be subertau zan, elizara erri guztia juaten zana. Eta olako egunak dira albisteak orduko milla kilometroan zabaltzen diranak. Gure auzuan be, ain txakur zaunke gogorretara eta etxeko argi guztiak biztuta ikustiagaz, jakin nai ugari sortu eban. Eta arratsaldian, eleiza atadian onako galderak:

-Zer jazo dok gaur goixaldian, ainbeste txakur zaunke gogor eta etxeko argi guztiak biztuta egoteko? Oker gogorren bat jazo ete dan-da pentsetan, leiora urtenda egon gaituk.

-Bai mutilla! Neu be ondo bildurraz egon nok. Iñoz etxuat ainbeste txakur batera ikusi neure etxe inguruan. Kataian bat eta ogetamar solte.

Onenbestegaz geratu zan ordukoa. Orrek, gañerako egun eta astian, geu etxian ikustiagaz, zigur uste eben geuk salatu izango genduela eta orren an- tzerakuak, garbi jakin zan arte.

Baña orrenbestegaz bakarrik ez zan amaitu guz- tia. Gañerako ille bian zerko gogorrian egon zan etxia, guztiz inguratuta egun guztietan; urrin sama- rretik, auzo inguruetan ebezan gordelekuak geiago gure eben gurian atrapau. Ez ziran konforme atra- pau ebenaz bakarrik, eta zerbait geiago egon biar ebala uste eben.

Azuetako gorde lekuan, anaiaren txakur txa- txar batek salatu egiten zituan eta benenoz il egin eben. Orretatik aparte, beste batzuk, paisano-ano- rak baltzakin, beeko errekan kangrejotan balebiz le- gez ibiliten ziran. Onakuetan, baten baño geiagotan, astiro-astiro txapel okerrak gure etxera bidian gora, iñor ezetara mobiduten ete zan, gordelekuren bate- ra edo. Onan, ille bi pasau egin zituen. Auzo buelta guztia kejaz, zer pasetan ete zan-da, ainbeste zain- tzegaz.

Egun baten, seme nagusiari bere biarlekura juan jakozan, eta esan eutsen, eberdian biarretik urteten ebanian, etxerakuan eurakgana juateko, eurak be beragaz juan biar ebela, eta etxe registro zeatz bat egin biar ebela eta. Semiak zer esan eutsen albistia bialdu eustan gure alderuntz etorren bategaz.

Subertez, beeko kamiño onduan nengoan bedar ebaten eta alabiari astua kargetan. Kamiñotik solo- ra salto eginda esan eustan semiak zer esan eutsan, da juan zan.

Baña orduan be an ebizen lau kangrejotari. Guk ez genduan aparteko mobimenturik egin. Topau deiela eurek, biarra eginda, guk gordetan egin gen-

duen legez! Bedar biarrok amaitu genduzan eta etxe aurreko ezarlekuan jarri nintzan. Eta an egon nintzan, noz etorten ziran zain. Kangrejotariok andik ikusten nituan; eurak ni zaintzen baegozan, ni be eurak zaintzen.

Semiak ordu batetan urteten eban bere biarretik, eta beragaz ekarten eban Eroski-n biarra egiten eban auzoko bat. Ordu erdi ingurura, txapel okerren *jeep* bat, gure kotxie bere atzetik, eta bigarren *jeepa* bere atzetik. Gurerako pista-asieran geratu ziran *jeep* biok, eta guria bakarrik etorren gora, beste lagun ori eruan deiala beti eruaten eban lekura, arek ez eukela zertan jakin eurak zertara joiazan eta. Beste gazte ori geure etxian isten eban, eta emendik oñez bere etxera juan-etorrie. Orrek guztiok ondo jakinian egozan sujeto orrek, baña euren mañak egin biar. Ori dan ori eginda, atzera eurakgana juateko agindu eutsen, alkarregaz gora igoteko. Juan zan, eta atzera bakarrik etxeratu zan; eta eurak be euren lekura, itxura danez, biarrerako gogo gitxi edo...

Egun orretan amaitu zan ille bi pasauko ingurazte gogor ori.

Jazoera onek ziranetik urte bat ingurura epaitu eben, beste batzukaz naste, eta bere-aldezlariak, aita-semioi bere aldezko testigantzara deitu euskun, gurera bialdu ebana eta beste batzukin. Aurreko egunez juan biar izan genduan, ordurako elduko baginñan. Bazan garbitasunok zeatz azaldu biarrik epai lekura sartu al izateko, bai ametrallador da ixkillurik ugari be.

Barrure ginduezan, oztopuak oztopo be. Epaitegiko onduan egoan gela batera sartu giñan. Asko giñan. Sei epaitzen ziran batera; geugaz egozan, batenbaten testiguntza emoteko, Mario Onaindia eta Gorostidi. Presuak ziran legez, biak alkarregaz esku banatatik lotuta. Onek eta bestiok zainduetz, txapel oker parie, zer esanik ez.

An gengoan, erdi dar-dar geienok, noz deituko. Eta orduak pasauaz joiazan, eta lotuta egozan biok esaten eben:

–Egon trankil, iñori be ez deuskue deitu eta.

Onek ondo ekien zer pasauko zan. Laster batera jakin eragin euskuen ez egoala testigantza biarririk. Itxura danez, *Defensa* biarrera eldu zanian epaia, “Itziarren Seme” ori jagi eta euskeraz ukatu zituan epaia, epailari eta gañera ziranok. Eta or amaitu zan testigantza emon biar genduen guztiona, da gure aldetik ez zan iñor asarre. Guri deitu euskun defensoriak –ñandres zan bera–eta aurkeztu euskun rollue oso gogorra zan.

Andik beste urte bat ingurura amaitu genduen onegaz asi genduen istoria ori, gorde ziranak agindu eben tokira eroanda. Berak amnistian urten eban, eta ez zan barriz leengo bidietan asi. Alpinista istripu baten il zan. Goian bego. Bere illetara juañan.

Beste gauza bat itxi dot aurrerago esan biar nebana: gurian esku ezarri eutsenetik laster batera, bere aita eta ama etorri ziran, bere barriak jakinda, zenbat ordaindu biar eben esanaz. Nire erantzuna izan zan.

–Eztaukezue zorrik txikienik be, neure seme bat balitz legez euki dot eta.

Euren erantzuna:

–Eztabe danak olan pentsetan.

Eta eskerrak emonaz juañ ziran.



Beesi-etxebarri baserria.

Kanposantua

L 970 buelta zan naste onetatik urten nebana; baña emendik 1980ra, eta aurrera be, ez zan naste gitxi izan. Eta onetariko askotan edo geienetan nasteko izaten giñan erritar biok, batez be 1980ra bitarte orretan.

Urrengo nastia sortu zan parrokuaren da erriaren artian: kanposantuan nitxuak egiteko plan bat asi eban, eta bere buruz bakarrik pentsaute.

Olan egiten ziran gauze asko gure errietan; eta “abadiak esan badau”, dana ondo geienentzat. Emen be olan jua zan ordura arte. Abadiaren proposamena, domeka bateko mezatan kulpitutik, kanposantuan nitxuak egitia pentsetan ebala eta bakotxak esan deiala zenbat biar dituen alik eta ariñen.

Bertan egunien asite, batzuk bat, beste batzuk biña, eta irunakuak be bai.

Abadiak laster kontratau zituan nitxuok egitia, sarrerako atiaren eskuma aldetik, irunaka alkarren gañian, berrogetabat urteten eben da. Egunak jua da egunak etorri, or-emenka marmarra geruago eta geiago. Nitxuok danak ontzat artzen ebezan; baña euren banaketa sistemía, ez. Zer da guztien errezoia? Goilibarko kanposantuan orain arte egon dan oitura bat, leku gitxitan eta oso gitxitan gañera dagoana; eta guztia aldatzen eban.

Emen ez genduan ezagutu jaubetasuneko illobirik. Dana zan bardin danena. Etxekoren bat il bazan, zerrendan saillian lurperatzen zan. Gañian, etxeakuak gura ebena ipiñiko eben. Baña, zazpi urte

betetakuan, enbarazu egiten baeban, jaubiari kentzeko aginduten jakon. Eta, berak kentzen ezpae-ban, illobien arduradunak kentzen eban eta bazta-rrian itxi. Ez zan ezagutzen “au niria, onek zuriak eta arek bestiarenak”. Dana zan danena bardin.

Aurkitu al leike gaur egun olako asko? Askotan entzun eta irakurri dogu zero-lurren Egilliak guztia itxi ebalu guztion laguntza bardiñerako. Entzuten da, bai, besterikorik: “Munduan garan irutik bat ba-ño geiago gosez ilten dira, beste irutik bat baño gi-txiagok zartain guztiak eskutik dituelako”.

Gure errian be, illerriko lau ormen barruan dago bakarrik Egilliak emon euskun *don* ori, eta bera gal-tzeko arriskuagaz konturatu egin dira batzuk, eta euren artian, gaztiak dira geienak.

Neuk be neure utsa autortu biarra daukat: aba-diaren deia entzunda, laster neuretzako be bi eska-tu neban, burua kantsetan denporarik galdu barik.

Geruago eta ugariago ziran marmarlariak, gaz-tiak geien zirala, baña adin guztietakuak. Neu be asi nintzen lenengotik marmarren zentzuna ausnartzen eta sakonera begiratzen, eta geruago eta zentzu geia-go emoten eustan. Baña gure errietan eta batez be baserritarron artian jazo oi dana, atxaki guztiak su onduan, lagun artian, lan tokian da tabernan, da or amaitzen eta konpontzen dira.

Alako baten, neure burua berotu neban eta orri bat ateratia erri guztiari zabaltzeko erabagi neban, neure almen negurrian idatzita. Jarraian azalduko dot, bere akats eta guzti. Garbian modako letran ipiñi eustan lagun batek, eta multikopian ugari atera.

Onan aurkeztu neban:

“Erritar anai arrebok, lerro onek:

Goillebartarron azken atsedean lekuan izan diran nitxo edo illo-bi barriok dirala-eta, ainbat mar-mar sortu dabe errian. Da zer

egin marmarroi? Entzun-gor egin da begiak itxi eta geuriagaz aurrera? Ala beste au: atxakitza artu "orain berandu da eretxiak eta planak aldatzeko"?

Lerro onek idazteko lumia artu baño aurretik erritarren artian eretxiak jakiten alegindu naz, da eretxi guztietakuak dagoz, baño geienen eretxia da ez dagola berandurik, geienen aldetik borondate on apur bat badago gauzak al danik ondoen konpontzen alegeñak egiteko. Bakotxaren eretxiak, gizon legez, guztien eretxiak be entzunez eta biarbada onartuaz. Onegaz ez nator esatera egin diran sistema edo plan ori usterik onenagaz ez tala egin, geienetan gauza barriak obatzat egin oi dira eta.

Baña biar edo etzi tamal damu izan geinke, erritarron artian sortu dan kezka guzti oneri entzungor egitiagaz. Gaur eztabaidatu al izan da. Origaitik orain dala sasoi ta nago marmarrok guztion aurrian argi eta garbi eztabaidatzeko. Zergaitik askotan jazoten da, batez be gaurko egunetan, egirik biribillenak, sakonenak auspian estalduta geratzen dirala? Augaitik aztertu daiguzan eta bakoitzak ondo ausnartu.

Urte bi inguru badira abade jaunak nitxoan asmo ori agertu euskula gura dabeen guztientzako. Eta bakoitzak esan deiala zenbat egitia gura daben beretzat. Egun orretan bertan asi zan edo entzun zan lenengo marmar burrundatxua be.

Eztaikit zenbat famili diran parte artu dabenak: bat da iru artu dituana, asko dira biñakuak eta geien banakuak. Guztira be-errogetabat dira, sarrerako eskuma aldetik diranak. Bakoitzaren ordain negurria bi milla ta irureun lau erleko. Zozketa be egin dabe, batek edo bestek ordaindu be bai, eta esamesa eta burrun-burruna geruago ta geiago zar eta gazte, gizon eta emakume. Zer diño geienak?. Geienak edo danak diñoena da: "Ez gagoz nitxuok egitiaren aurka, ondo dago egitia. Baña eurekin egin dan banaketaren aurka gagoz". ¿Zergaitik?

1.- Goillebar-ko kanposantuan iñoz ez talako ezagutu: "au niria, ori zuria ta bestia, arena", iñozentzako leku berezirik. Da onek doiazan sistemara banatze orrek gizarte mallakeri bat sortzen deuskula, orain arte euki eztozun lekuan, mundu zabalian ainbeste burruka mallakerion aurka dabillen bitartian. Da gurian zorionez edo zoritxarrez gaur arte iraun dabena apurtzeko bidia artu dogu.

2.- Eztago ikasketa aundirik egin biarrrik amar edo amabost urte barruan zenbat eriotza gitxi gora bera izango diran erri onetan, da egin beste ainbeste atiaren ezker aldetik eta ogei urte inguru iraungo leuke guztiak betetan, eta orduan asi barriro lenengotik eta onetara naikue nitxo dira gura daben guztientzako, bat be lurpian sartu barik be.

3.- Bat daukazula? Bi daukazuzala? Zelan zagoz? Amar-ama bost urtian eztozu izan eriotzarik etxian, baña urrenge baten bost urte barruan bi edo iru subertau jatzuz, eta aurrekua kentzeko bari-riegi ondiño. Zer egin? Beste utsik dauken bati eskatu? Emoten ezpadautzu, lurpian sartu?

Or nun dakartzun erriaren mallakeri orrek zeure sendi barrura beste bat. Eztakit nun dagoan edo aurkitu leiken beste kanposantu bat Goillebarren egon dan sistema onetan. Nik ainbat ikusi ditut: danak edo geienak, arenak dirala edo bestiarenak dirala, il da geroko be zeñek baño zeñek palazio aundiaguak eta ederraguak. Eta guk iñok edo gitxik baño eztaben aberastasun berezi au gordetan zaintzie biar biarrezko jokabide bat dala esango neuke.

Batzuren betiko erantzuna: "Nun egon zarie orain arte eretxi orrek aurkezteko?". Au diñoen guztiei errezoi guztiak dituela esan biarrian gagoz, lenengo mar-marrak sortu ziranian egin biarreak ziran-da.

Badira, bai, beste au diñoenak be: "Orain ezta ordu ta sasoi gauze orri aldakuntza emoten asteko, berandu da". Onei ez de-tsege erantzun bardiña emongo. Eztago ordu txarrik eta gitxiago berandurik, batez be darabigun arazo au atontzeko, guztion alde-tik borondate apur bat ipinten badogu, da batez be naimen edo borondate ori abade eta erriaren gizon aurrelarien artian badago. Zigturtasun guztiz bagagoz uste txarrez iñor eztala ibili orrexkk olan egiten. Eta ondiño denporaz gagoz leen legez dana danena izaten jarraitzeko, orain arte ezagutu dogun legez.

¿Da zelan ordaindu eginda dagozan nitxuon biarrok? Egiteko agindu genduenok errezozkuena dogu ordaintzia bakoitxaren ize-nian dagozanak. Eta bateren bat edo beste geratuko balira ordaindu gura ezta erri guztiarentzat biar diranak egin arte, egin lei-kenena da, Eleizako kutxatik ordaindu eta olan alik eta bizkorren egin biarrok eta denentzako diru negurri bardiñian eta zer esan gi-txiago alde orretatik beintzat.

Eskutitz au erriari banantzia pentsau genduenon artian, sei gara bana edo biña doguzanak, eta iruk ordainduta be bai. Onan, bada, usterik onenagaz gatoz eretxi au ontzat artzekua izango da-la geienentzat.

Eta parka eskatzen dogu onan uste eztaben guztientzat.

Tomas Besik".

Eskutitz onek izan ebazan beren ondoren batzuk andik edo emendik, katuari bostgarren ankia topau nairik eta abar. Betiko leluagaz, geienetan onakue-

tan gure artian oi dan legez: eskola umien urtera bat zala ain berandu ibiltia, endredua sortzia zala guztia,

-Zergaitik geure aurrekuen azurrak eztoguz gordeko geure nitxueta, danak, orain arte legez danak nastera bota barik?

Eta antzekuak. Eta onek baeukan bere zentzuna.

Eta beste eskutitz bat atera ta zabaldu genduen. Eta emen esaten genduen, orretarako, nai daben guztiak egin dagiezala nitxo txiki batzuk, kanposantuan naiko leku egoala eta. Bardin etxian gorde nai baditu. Eta eskutitz orretan egun bat ipiñi genduen guztion artian batu eta eta berba egiteko. Egundori, 1971ko urtillaren 10 zan, domekie, meza nagusiaren ondoren sakristian edo bere ondoko saloian egiteko.

Eldu zan eguna. Ainbat batu giñan, baña ez guztiak, erdiak pasautxuagoko bat. Laster, berbaz asi giñanian azaldu eban maiak zein ankatatik erren egiten eban: leen aitatu ditugun aurrelariona, beste guztiok nastu guraz. Eta ori zan batzarraren luzetasuna ekarri ebana, berba alperriko askoz, eta, olakuetan eztira falta izaten berba min emongarriren bat edo beste, eta gañera askoz geiago baserritarron artian badira.

Alako baten, amaiera emoteko, nitxueta parte artu ebenen eretxia eskatu eban abadiak, eta eskua altzau deiela egindako moduan ondo dagoela uste dabenak; eta gero, aldakuntza gura dabenak. Lenenguen artian esku bat geiagok urten eban, eta olakuetan oi dan legez, irabazitzat, eta pozik, naizta ez egon an nitxo orretan parte eben guztiak. Orduan, guk eskatu genduen baimena geure sistema barrian jua gura eben guztientzako alkarte bat sortzeko, nitxo alkarte bat, eta baiezkuia emon eben.

Andik il pare batera, beste orri bat zabalduaz, bertan eurak izango zituen baldintzak agertzen zi-

ran; eta Erregen egunerako pentsau eta emon deiela parte onako gizonei, auzo inguru guztietan banatu-takoak ziran-da, olan batzarrera etorri ezin atxakirik euki eztagien. Erririk erdiak pasauk parte artziaren alde emon eban; gañerakuak, eurak, leengo legez, lurrian esaten eban.

Olan, batzar orretan sortu zan Batzorde bat bazkun barri ori aurrera eruateko. Onek asi eban bere biarra: andik urte batera, sarrerako atiaren ezker aldetik be eginda egozan beste berrogetabat nitxo; da onan guztira larogetabi, eta naikue dirala ikusten da. Amasei urte dira, eta ondiño eztira bete, Ogeira elduko dira, olako bat; eta bitartean il diran guztiak sartu dira nitxueta; lurra eskatu ebanak be, ordu-ra eldu diranian danak eskatu dabe, dagokiena ordainduta. Euren apartekuekin geratu ziranak, bi edo iru ez beste guztiak, alkartiari emon eurenak eta nastera sartu dira. Batzuk diñue iru-lau urte barru, danak dirala barruan, baña ori askotxu da. An dago barruan bat, bera, andik Josafat-eko Zelaira esaten ebana be... Eta oneri, nok ikutu?.

Emen amaitzen dot nitxuon tira-bira guztia.

Beiena esne-kooperatiba

1 970 urte orretatik 1980 bitartian, ez genduan tira-birarik falta. Esateko moduz, ainbat nastetan giñan barruan erriko lagun biok. Lau edo bost nasten barruan genbizen batera. Euretatik bat, *Beiena* Esne-Kooperatiba-gazko tira-birakaz, ainbat atzera-aurrera eta berba izan ziran. Baña orrei begira bakarrik egoterik ez zan izan: 1973-an Ipar Amerikan oporretan be juan nintzen.

Andik etorrita, MIBA gure kooperatiban be, lendakaritza leporatu eusten lau urterako. Ori amaitu baño leen, Markiñan kontzejaltza proposatu eusten Sindikal aldetik; eta nire lagunari, Guraso Alkarte aldetik. Emen be, biok barruan giñan.

Kargu bi onen bitartean, ebakuntza gogor bat egin biar izan neban eskumako kaderan: desgastiarrena. Ebakuntza au baño il batzuk aurretik, Aste Santuz, beste amar eguneko ibillaldia, Italia geiena arakatuez. Onek guztiok eta geiago be badira. Guztioi guztion berezitasunak aitatzia gura neuke lerro onen barruan.

Lenengo eldu biar dautsat aurreragoko urtietatik ainbat buruauste eta berba eragin eban *Beiena* Esne-Kooperatiba-ri. Emengo bazkide giña. Bizkaian eta, batez be, gure inguruko errietan ateraten zan esne guztia, onek batzen eban goix guztietan. Basarriaren aldakuntzak esne ugaritze aundia sortu eban, eta biarrezkua zan dagoanian dagoan guztia jasoteko egokitasunak egotia, ateraten zan guztia kalera zuzenian eziña zan-da.

Hermanidad Sindical-aren bitartez sortua zan berau, legez goitik beera. Dekretu baten bidez zuzendaria aukeratu zan: Bizkaitik *Prokurador en Cortes* zana zan; eta bere aita, bai Sindikatu eta bai *Beiena*-ko lendakaria. Zer ederto egoan dana etxera begira! Da, eztago esan biarrik olako gizonak berba-iturri edarrekuak izan oi dirala, eta onek bebaeban maratilla edarra. Aurrian jarten giñan guztiok, baserritarrak. Agoa zabaltzen asten zan bako txari, berba bat ateraten ebaneko, amarregaz oinperatzen eban. Berrogei urtetan Franco-ren diktadurapian egotia naikue izan ezpalitz legez, onek beste bat.

Estatutuak irakurri, ta geure aldetik eskubide asko geunkazala uste genduan, da urteko batzar nagusietan gogor jagiten ziran asko: esnearen ordain txarteletan bako txari etorten jakuzan deskontuak diru murriztiek danei, uraren atxakia leporatuaz; beste batzuk, estatutoak bazkide legez emoten euskuzan eskubidiak zuzendaritzak zapalduten euskuzalako, eta beste onen antzeko zapalketa...

Baña onek, beti berak gura ebana aurrera aterateko zartaiña eskutik, eta berari komeni jakon kritika komenizkoa egiten ebanari bakarrik eruaten eutsan mikrofonua muturrera, eta bestiak garrasika ao bete agiñez. Bere Junta Erretora aldatu biar ebanean, berak atzamarrez aukeratzen ebazan eskualde guztietakuak, eta esne batzalliaz bialtzen eban esnea ateraten eban, guztiei izenpetu eragiñez bere gizon bat, junta ori ontzat artu dagigun.

Onek ekintza guztiok illunpian gelditzen ziran erriaren aurrian, eta dana geratzen zan sutondoko tertulietako eta tabernako marmar uts baten. Milla ka bazkide zituan, baña batzarretara erdiak edo gixiango juaten ziran. Geienok, numero pillo batzuk. Ari bai burue mariatako be naikue numerotan. Da bazkari galanta Somera aldien egin da etxera.

Urte guztietan, Aialako zar batek protesta gogor-
rarak egiten eutsazan zuzendaritzari. Onek, trapu
loiak ateraten eutsazan eguzkitara. *Injineru agrono-
mue* zan berau; bei asko eukazan granja moduan.

Domeka baten, lagune ta biok juan giñan beragaz
egotera, zerbait egiteko biderik egin al bagenduen,
Beiena orrek bazkide legez emoten euskun tratue edo
jokabidiegaitik. Irurogetamabi urte eukazan. Eta be-
ra eta andrie topau genduzan ganaujiran, domeka
zan eta semiak Bitorira juan biar izan ebala ta.

Gure aldetik esan geuntsen beragaz berba egite-
ra juan giñala *Beiena*-ren gañien. Batzar guztietan
berak egiten zituen salakuntzak guk eta beste askok
ondo ikusten giñuzela eta kanpaña gogor bat zuzen-
daritzaren kontra egiteko. Eta ontzat artu eban.

Ganaujira egiñez erakutsi euskuzan ganau eta
gañerakuak, gero an urran eguan taberna baten
amaiketakue egiñez. Inñungo kezkarik barik eta za-
baltasun guztiz, bere bizitzako gora-berak azaldu
euskuzan; guk be bardin guriok. Gerra aurrian eta
gerran erri aretako alkatia izana zan, eta ondorenak,
gitxi gora-bera, jakiñak: urte asko Frantzian atzerri-
ratuta eginda egoan, andra ta famili guztiagaz. Eta
orain biarra gogor egin biar, urte asko lepuan euki
arren. Alde onetatik, ain subertez, bat gentozan,
buztarri orren azpian neu be ondo ezita nenguan da.

Emen asi zan gure asmoak aurrera eruateko ale-
giñak egitia, bakotxaren almenen negurrian. Lagun
ori ez zan piska batez bildurtekua. Diktadura guz-
tien aurka batera eruan biar genduela, *Beiena* be
aurrien artute; eta olan urten eben gure aurrerako
batzar da biar guztixek.

Urte areetan, mobimentu gogorra sortuaz joian
diktadura eta gogorkerien aurka; eta gure au be,
guztiakin batera burdi baten barruan sartuta joian.

Andik aurrerako batzarretan, pentsakera askota-
ko taldiak batzen giñan alkargana leku batera; ori

bai, danok etorten giñan bat Franco-ren sistema zapaltzalea apurtzeagaz, orduan orixe ikusten zan lenengo eginbiarrik garrantzitsuena eta. Gañerako nor, zer koloretako, ori geroak agertzeko geratzen zan eragin geienetan. Gu, *Beiena* aldetikuok, burdi batekuak subertau giñan zorionez. Batzar onetara, Euskal Erriko lau lurraldetakuak batzen giñan bein baño geiagotan.

Batzar egunak, domekak; iñoz, gitxitan, zapatureren baten. Geien batuteko lekuak, Bilbo, Markiña, Gernika eta Euba. Erri bakotx oneetan, leku bat baño geiago genduan batzarretarako. Geienetan leku baten egon giñana, Bilboko San Antongo sakristiatik eskillaran gora juan, da an gorengo plantan. Emen batzen giñan talderik aundiena beti.

Or aurreratxuago esan dot lau errialdetakuak batzen giñala; baño oker egon nazala esan biarra daukat. Etxe onetako pastore urte askotan izan dan orren agerpen edo deklaraziño batzuetan irakurri dodanez, albistariei erantzunez, Gorlizko gaxo-etxian bere atzen urtiak an eruan eta il dan Don Klaudio Gallastegi izenpian diño: sasoi orretan bere baimenpian an batzartu eztanik eztagola, Felipe Gonzalez bera be bai". Olan diño iñungo tapujorik barik.

Bildurtiagorik bazan urte aretan. Felipek be, orduan da gerotxuago egin zituan promesak eta eskintzak gaurkuakin aldakuntzarik badabela esan leike Euskal Erriari begira. Amaika azpikeri jasotekoa da gure *aitaren etxe* zar au. Euren lortu arte, lagun gaitue guztiok, eskintzak samur egiñaz; da atzia emon dagienian. "¡Agindua bat, emona bi, aginduz konpon adi".

1972tik eta 1974a amaitu bitarte orretan ziran iskamil edo naasterik geienok, danak alkarren nastian legez.

Beiena-ri jarraitzera noia. Urte aretako batzar nagusia urreratuaz joian, azaruaren 25a.

Asi giñan *beienatarrok* gure batzar bereziak egiten, egun orretarako apur bat gertau nairik, zezen ori nundik ondoen ziritu asmau nairik. Iru batzar egin genduzan. Azkenengo orretan batzarrerako ekintza eta baldintzak idatzi eta onen aurkezpenetarako, nor izan? Da nire laguna bat, eta bestia aialatarra. Baña, batzar au erdiz erdi egoala, leiotik ikusi genduan berebil batetik urteten *Beiena*-ko zuzendaritzak dituan aingeru biak; ondo ezagunak genduzan eta. Gorde genduzan eskuetan genduzan agiriok eta esan geuntsan alkarri:

-Onak guria onez edo txarrez apurtzera datoz; sartzen diranian, guk, amaituta bageunko legez, baktzak bere erriko bidari eldu. Baña, andik edo emendik, Markiñara jo danok ordubietarako.

Amabi t'erdia ziran banatu giñanian. Au Euban zan. Baimena eskatu izango eben eta sartu ziran, modurik onen guztiak ebezala. Gauzak, itxuraz, batzarrera aurretik konpondu edo baretu nairik legez azaltzen ziran. Gure taldian batzuk asi ziran an edo emen konpromisua ebela, agurtu ta etxerako bidea artuaz; erdia inguru geratu giñanian, esan genduen:

-Geienak alde dabe eta alperrik gagoz.

Eta artu genduan geure bidea. Eldu giñan esandako lekura, eta ara agertu ziran esandako ordurako.

MIBA-ko buleguan biarra egiten eban neskatxari kendu neutsan giltza, eta an amaitu genduan geure eginbiarra. Beste baldintza askoren artian eskatzen genduan aita-eme biak euren esku eukezan karguok isteko: bata lendaritza eta bestiak zuzendaritza; eta onen lekuak beteteko bazkidiak izan daiela, ondo pentsauta askatasun guztiz aukeratzeko modua, eta abar.

Eldu zan eguna. *Coliseo* antzerki -ekua zan batzar-lekua. Nik eta beste askok ez genduan dudarik

antzerki gogorra ikusi biar genduela. Bete samarrik ikusten zan, eta ondiño sendo etorren barrura.

Zuzendaritza sartzeko be ordua eldu zan, eta an agertzen da lendakaria, bi gizonek alde banatatik eldute erdi aidian dakarrela, ondoezez edo atxakiz. Baña guztioi azken agurra emotera, ainbat urtian izan daben aulkiari eta guztioi agur egiteko. Au ikustian, guztiok edo geienok:

–Emen dok gure garaipena! –esan geuntsen alkarrri. Gitxien konturatu zanak be, bere kolkorako gitxienez alan usteko eban. Bere ondoren sartu ziran ordezkari guztiak.

Euren artian, zuzendariaren lekuan –esan leikio oni “zuzendaria” be–, semia; ezarri zan aitaren onduan, ezker aldetik. Uste neban aitak berbaren batzuk egingo zituala, baña ezarrita egoan lekuan be eutsi egiten eutsen. Egia bazan, nai ez izan, gaxo antzerkia oso ondo egin eban.

Jagi zan zezen ori aitaren ordezkari guztiok agurtzera eta eskerrak emotera, batzarrera etorri diran eta ezin izan daben guztioi, aitaren benetako barruko samiñe agertuaz, arek guri berba onek zuzendu al ez izatiarekin, bere zartasunez gain, daben gaixo edo ondoezagaitik. Bere gorantza-alabantza guztiak aurkeztu euskuzan berba leun da ugariz. Aurkezpen au amaitu ebanian, aita ori ekarri legez eruan eben birren artian. Agur ogetamar urtez lendakari izanari! Txalo mordo bat be entzun zan eta txisturen bat edo beste be bai.

Zezen ori geratu zan aurrez aurre. Asi eban rolue, bere berba-iturri samur eta ugariz, zuzenian, azpijanez *Beiena*-ren ondamendia ekarri guraz dabilzenen aurka, zuzenian guregana su-agarik gogorrenak zuzenduaz. Alako trumoi otsik atera eban, guztiok bildurtu eta oinperatu nairik.

Alan da guzti, guriok be asi ziran aurka, batez be, Aialako ori. Onek almen geiago eban olako bati ar-

pegi emoteko, karrerako gizona zan da. Onek gogor eraso eutsan, guztiok amenazau eta insultau egin ginduezalako, eta pasillora urtenda esan eutsan:

–Insultau biar badozu, jatxi zagozen palkotik eta etorri nere aurrera!

Ez zan bajatu. Baña orduan be, betiko soñua: aurkako protesta geienetan, mikrofonorik ez; da ñnoz emoten baeben, euren esku, gura dabenian moztu egiteko moduan. Da olan, ezer garbirik jakin barik geratzen giñan geienok.

Zipi-zape gogorren ondoren asi ziran azaltzen urteko gora-berak: numeruak gora eta bera, dana ondo, urte guztietan irabazi aundiak eta emen danak ixilik, danak bertan itxi biar ziran eta.

Badator azken egun orretan dagoan azken gaia: itaun-galderak. Emen beste tira-birak barriro; baña zuzendari onek aurretik eginda ekarten eban batzarraren elburua, eta alan amaitzen eban. Lenengo tantua guretzat legez aurkeztu eban; beste guztiak bere zakurako egin ebazan. Azkeneruntz, guztiok menderatu ginduezala uste ebanien, *Beiena*-ko ondrauenak ziranen kartak irakurri zituan, ñnok eskatu barik, ñnun ziran *Beiena*-ren alabantzak egiñaz.

Orduan, onek neri ikutu eustan, edo neuretzat artu neban zala ostikada ori. Aurretik barbarik aterra ezpaneban be, jagi, jua palkuaren aurrera eta eskatu neutsan neuriak be irakurteko, il gitxi aurretik zuzenduak zirala zuzendaritza orretara eta. Aibat aldiz eskatu neutsan, baña guztia alperrik. Berba au erantzun eustan bakarrik:

–*Sus cartas son personales.*

Bestiak zer izan ete ziran? Anonimuak? Bai, itxura danez, izenpetzallearen deiturarik ez eban irakurri eta. Onan amaituten ziran emengo batzar guztiak edo geienak. Eta onena ez zan izan bapere obia.

Azkena emoteko, lendakari barria atera biar zan. Zezenak, beti legez, berak aterata eukan aurretik poltsilluan. Gure proposamena atera geuntsen, baña ez eban onartu; eta orduan, gure alderdia astenitu egin zan eta beriagaz urten eban.

Iñoz aurretik ez zan egin batzar aretan antzez-kunde simulakrorik be, baña egun a apartekua izan zan, sospresa utsezko eguna. Goixian, sarrerako atian aingeru bi, lendakari barria aukeratzeko txartel bana emonez, gero lapikuan sartzeko. Guztientzako lenengo sorpresa auxe izan zan, eta gero, andik aurrerakuak guztiak: bat eta bost galdu partidue, eta ixilik etxera.

Emen azaltzen dot nik lenengo zuzendutako eskutitza:

"Sr. Director de la Cooperativa "Beiena"

Bilbao

Muy señor mío:

Me apresuro a dirigirle estas pocas líneas mal trazadas con el noble ánimo de pedir aclaración de un descuento que me ha venido en mi última cuenta de la leche. En la cuenta correspondiente al mes de septiembre último viene un descuento de 585 pts. por deficiencia de calidad.

En vista de esto, y como estaba tan seguro de que no le eché agua, para la aclaración me apresuré a mandar la leche de las cuatro vacas que ordeñaba al laboratorio de la Cooperativa MIBA. Y el resultado de la misma es lo siguiente: 1ª: 3,68; 2ª: 3,70; 3ª: 3,60; 4ª: 4,80, que casi sale un promedio de "4". Me pregunto cómo se entiende esto. Aquí tengo entre manos la cuenta correspondiente al mes de febrero de este año. En 1.329 litros entregados me abonaban 339 pts. de prima por calidad con sólo 3,30 de densidad. Y esta vez en menos litros entregados y en calidad muy superior, y me viene un descuento superando en doble. Yo no entiendo esto, de no ser un error, por lo menos.

*Sin más, en espera de su contestación, le saluda atentamente,
13-10-1972".*

Tomas Guerrikagoitia

Bigarren eskutitza, illaren azkenaldian:

Sr. Director de la Cooperativa Lechera "Beiena"

Bilbao

Muy señor mío:

Con fecha 11 del corriente mes le dirigí una carta, rogándole que me aclarara sobre el descuento que me han impuesto en la última cuenta de la leche. Ya han pasado más de quince días de espera y no hay contestación de ninguna clase. Debo confesarle que, entre otras muchas faltas de correcta expresión y de ortografía, después de poner en el correo, caí en la cuenta que, para colmo, la fecha también la puse mal. Pero esto no creo que sea motivo suficiente para no merecer contestación.

Por lo tanto, insisto que no puede ser más que un error, y espero aclaración y rectificación.

En espera, le saluda atentamente, Socio 81. Ruta 7".

Onen eskutitz bion ondoren, illebetera edo olan, *Obra Sindical*-era zuzendu neban irugarrena, orren bion azalpena egiñez eta gañekoz. Andik laster batera, neure *Caja Rural*-eko kontuan sartu eben dirua.

Geienetan, iñoz onartu baeben protestaren bat, bertara *Beiena*-ra juatie eskatzen eben: da an ezta-baidatu, eta eunetik 90etan esku utsik; eguna ta gastua galdu bestetik, eta erdiak be ez ziran juaten. Da arei alan komeni.

Batzar nagusi famatu orren ondorengo egun da astietan burutik kendu ezinga neukan tentaldi gogor bat, *Beiena*-n bazkide ziran guztiei emoteko orri bat atera. Batzar orretara zer asmo eruan genduen, eta zelako oztopuek aurkeztu euskuezan, eta zapalketa guzti orren aurrian arpegia gogorrago emon biarra egoala eta abar, bakotxaren gogoak piska bat biztu al baziran. Neure arteko duda guztiak albora itxi eta asmo ori aurrera eruatia ebatzi neban, diktadura guztien aurka bakotxaren almenen negurrian aurre-ra jo biar zala buru-belarri sartuaz.

Ondorengo au da orri orrek diñoana:

"Markiña eta inguru guztietan diran Beiena Esne- Kooperati- bako bazkide zarien guztioi lerrotxu onek zuzentzea bidezko deri- txat, azkenengo batzar nagusian entzun eta ikusi dogunaren barri emonaz. Zer da entzun da ikusi dogun ori? Giza-eskubide guztien luze-zabalean oinperatzea, zapalketa bat da ikusi doguna. Orain arteko batzarretara sukaldeko, eleizpeko, tabernako kontuekin, kejakin bakotxa bere aldetik juan izan gara. Baña aurtengo one- tan piska bat alkartuta juan gara batzar txiki batzuen bidez. Zer eskatzera juan garan?...

Garrantzitsuenak bakarrik esanda:

1^a.- Zergaitik ez bakotxari dagokion izkuntzan orritxu baten bidez aurretiaz emon gora-berarik inportantienak, zer onartu edo ez jakiteko?

2^a.- Aurretiaz jakin biar dogula zein zonari-eskualderi toketan jakon batzorde edo Junta-Gizona aldatzea, bakotxak geuk auke- ratu daigun.

3^a.- Zergaitik ainbeste deskontu edo multa? Zer egiten da eu- rekin.

4^a.- Zergaitik bardin zigortu beiak emoten daben moduko es- nea bialtzen alegin guztiak egiten dituana eta ura botateko oitura txarra daukana? Zergaitik batzueri arpegi emon dabelako atzera bigurtu batzuetan? Zer esan nai dau orrek? Onek eta beste min emoten dauskuezan gauza batzuk eskatze asmoz juan giñan al- karregaz apur bat gertautu, baña ez euskuen lekurik, erreztasunik emon. Ta aundiena: ago bete-betian esan euskuen, multa guztiak ura botatigaitik bakarrik zirala.

Baña guzti oneri nik erantzuten dautsadana auxe da: "Ori esateko agoa zabaldu daben guztiak, ondo baño obeto dakie gu- zur biribil bat dala". Gizonon artian neuk, naiz beste edonok, iñoz pekaturik eztabela egin esatia, naikue pekatu litzateke gizon eta kristau mallarik ez merezi izateko be. Alan da guztiz be, onetan zi- gur nago: ardua guztiz ibillita, iru bider etorri jat zigorra, eta zigur nago beste askori be alan jazo jakola. Batzar nagusi bat bakotxak eta guztiak euren erebxiak azaltzeko izaten da, guztiei erreztasun bardiñak berba eta entzu egiteko emonda. Zer jazo zan? Zuzen- daritzaren aldetik egiten zan berbie kalien be ondo entzungo zala- ta nago, alako tresna bidez. Ta oster, an neuregandik bost me- trora egoan gizon bat jagiten zan zerbait erantzuteko eta ez zan entzuten berba ala garrasi egiten eban. Eskualde edo zona bako- txari berak aukeratu biarrian euren juna-gizona, or be Bilbotik etorrita eurak aukerutzen dauskue, ta bezperan, azkenegunian gañera, makiña edo robot batzuk bagiña legez beste guztiok. Erri izkuntzak, euskerak, eztau leku txikienik. Bazkidien-soziguen ar- tian, itxura dagonez, mailla desbardiñak edo diskriminaziñoak be

badagoz. Iñok be eskatu barik bazkide-sozio biren kartak zirela ta irakurri ebazan. Beiena-ren gorantzaz betiak biak. Au ikustean, oker ezpanago, neuretzako artu neban ostikada ori. Egun gitxi aurretik artuta eukan nire laugarren kartie, azkeneko biok illabete barruan. Ta ainbat bidar eskatu neutsan neurriak be irakurteko, baña arek ez ziran komeni, zapi loiak eguzkitara ateratia zan eta. 1972ko azaruaren 25ian Bilboko Koliseuan entzun da ikusi dogun onek orain bi milla urte atzerago Erromako Koliseuan jazo ziranen antz geiago eban, nik iñoz Kondairan, Istorian, irakurri dodanez beintzat. Baña lerro onek amaitu baño leenago, beste zerbait esan biar deuzuet: esan doguzan bigurrikeri guztiok zuzentzeko alegintzeko asmotan asita gabizan ezkerro, zelan jokatu biar dogu geure aldetik?

1^a. esnia beiak daben modukoa bialdu.

2^a. urik iñoz be ez bota.

Batzuk badira esaten dabenak: "Bota zein ez bota, bardin dator zigorra". Baña biak dira kendu biar diranak; lenengo kendu biar dana pekatua da. Botaten jarraiten badozu, eztozu iñor engañauko zeure burua baño: galtzen be zeuk urtengo dozula zigur nago. Ta gañera ura botatia iñok be eztoqu nai aldezerik, guzurra eta engaiñua aldeztia litzake eta. Geure aldetik zuzen bagabiz eta zigorrak jarraitzen badau, ez itxi, bertan egunien idatzi. Zeuk ezin badozu, auzoko bati lotsa ta bildur barik zeaztasunak eskatuz, mesedez laguntzeko, beiak ikustera etorteko deituaz; edo, besterik ezpada, erriko abadiak lagunduta. Ta gañera komeni dana da erri bakoitzian onekin arduratuko dan gizon bat egotia. Eta guztiok noznai alkartutia inguru onetatik batzorde edo juntako danagaz.

Amaitzeko, orri au Beiena-ko bazkide diran guztientzat komeni da; mesedez arduratu zaiteze guztiena eldu dadin. Ta batzarrian irakurri gura ez zituen eskutitzak be gura daben deneri emongo jakuez.

Ta geiago barik agurtzen zaitue,

Gerrikagoitia'tar Tomas-ek, Besik.

Orri ori garbian ipintera bialdu neban lagun bategana, ta multikopian mordo bat atera dagien. Da alan egin eustan. Onei itxaroten gengozan bitartian, beste batzar baterako deia genduen, oraingotan Markiñan, igande goix baten. Beste onakotan legez, au ez zan Beiena-rena bakarrik, ekintza guztietakuak baño. Iñozkorik geien giñan egun onetan; lau euskal Lurraldetatik an giñan beintzat, da ez

jakin González da Guerra be an baziran... Batzarra amaitzerako irurak aldia zan. Ordu erdi bat aurre-rago, an dator lagun bat besakada papelez: zer ete dakarren, da neuk aterateko agindutako orriak ziran. Eneban uste izan ain bizkor atera al izango ebezanik. Bapebe uste barik, ondo etorri ziran. Norbaitek nik baño obeto pentsau eban ain bizkor aterateko. Dana dalako orrek batzarrari begira egin eban eta ondo etorri ziran. Batzarrian gengozan danok irakurri eta, batzuk geiago, bestiak gitxiago, danak eruan ebezan. Batek esan eban an, nire be-larrira etorrite:

–Karta balientia.

Bere gañian komentario batzuk egon ziran, da batek, euren artian, esan eban:

–Geuk be zergaitik eztoigu egiten Tomasek egin daben legez?

–Asi biarko dogu –erantzun eben batzuk.

Beiena-ri jarraituez, egiñak egin, beriagaz jarraitu eban gure zezenak. Ez ziran il asko pasau, guk txistik eztakigula, gure eskualdeko batzorde bi berak ipiñi eta, beti legez, esne batzalleagaz danei izenpetu eragiñez, gizona berak bialdute. Ez eutsan ardure nor zan izenpetu biar ebana, sano zala izena bota eragin, da aurrera! Nire lagunaren lekura eldu zanian, onek alto emon eutsen eta beragaz jua ta berak batu andik aurrerago egozanak. Lista orretan etorren bata geuk be ontzat geunken. Baña bestiak olako kargu baterako ez eban balio, zarra batetik eta gorra bestetik, da bagenkien gañera ez ebala nai olako arazo nastekorik. Olan, beste baten izenian batu ziran andik aurrerako izenak. Laguna izenak artzera jua zan; eta ni, orren gizonorregana. Eta esan neutsan zer jazoten zan, eta berak ez ekian ezer Juntako izatearen gañian. Egun aretan bertan, erriko idazkariagana jua da *Beiena*-ra idazki gogorra egin da bialdu eban, kargua ukatuz.

Andik laster, illero edo birik baten ateraten eben Boletinian, gure Rutako berak ipiñi zituan bien ize-nak, biak irurogetalauna boto eukela, biak bardin. Baita, bai ekarren guk ipiñi genduanak be amasei boto euki zituala, naste bat sortzearren edo dana aldrebes. Da baita, baekarren nik boto bat bakarra euki nebala. Auxe azken au zan bakarrik egirik naste guzti orretan. Urrengo egunien geuk ipiñi genduen gizon orrek esan eustanez, bere buruari boto ori ez emotiagaitik niri emon eustala. Baña berak ogetamarretik gora euki ebazan, izen orrek batzen juan zanak ondo ekian legez. Ara emen nun agertzen zan guzurrezko bola bat: ogetamar da geiago orrek, ez eutsen emon botorik batari eta bestiari, eta bixak ezin euki irurogetalau bardin. Bistako bolie zan. Agiri ori gorde egin neban, eta ardurez gorde be gañera. Olan jokutzen euskun beste askotan be.

Andik urtebete ingurura beste tope bat izan genduen. Bitartien, esne ugelga bi be egin ziran eta euren artian, beste ekintza batetan, Bilboko *Gran Vía*-n esne kantin bi be ustu genduzan, salnegurriaren geitzia eskatuz. Baña, egiñak egin, iñoz pitxerrik apurtu ezpalebe legez jarraitzen eben gizon orrek. Ni arritzen ninduana au zan.

Urtebete inguru, *Beiena* bitarteko zala, Markiña-ko liburutegian aste bateko ekintzak-kursilluak ipiñi zituen kooperaziñoi eta kooperatiben gañian. Ekintza onetara etorten ziran guztientzako egun guztian autobusa, eta bazkaria libre gañerako egun baten. Eta olako gozoki usaiñera, baserritarra zurra dana badakie eta, olan subertau zan: kursilluotara arratsalde bat edo beste juan ezkerro ta izena emonda egotie, naikue zan; da Markiña inguru guztikoak ziran legez, asko batzen giñan liburutegian, astele-nian asi ta zapatuan amaitu.

Lenengo egunian, Bizkaiko sindikatuen nagusia etorri zan asierako berbaldia emotera; da bitarteko

egunetan beste batzuk, eta zapatuan, azkenengo egun orretan, amaiera gure *Beiena*-ko zuzendari orrek, Bizkaitik Kortietako prokuradore zan Sindikal aldetik eta.

Onek, bere ekiñaldi guztian, asikeran esan dodan legez, iñoz platerik apurtu ez daben itxura ateraz, dana zan garbitasuna eta garaipena. Iruntsi eziñeko bolak ziran an gengozan askorentzat; txistua arpegira botatia beste zan neuretzat. Azkenian, amaitzeko esan eban:

–Iñok ezer esatekorik badauka...

Lenengo momentuan, danok mutu. Nik ezin neutsan itxi. Neure erderako erreztasun oso murriz da guzti be, baña, onetarako albuari neukan gure Kooperatibako jerente zana perito agrikola zan au, eta ipiñita neukan nik asi eta onek jarraitzeko. Eskua jaso eta onan eskatu neutsan: mesedez argitu daigula, Kooperatibako sozio legez, zer diran gure eginbiarrak eta eskubidiak, oso ezjakiñak giñala olako gauzetan baserritar legez eta.

Asi zan andik-emendik. Orduan, esan legez, sartu zan nire alboko ori, eta laster preguntatu eutsan:

–*Beiena*-ko bazkide-soziua zara?

Beste onek erantzun eutsan bere aita zala, eta geienetan berak ateraten zituela esniek, biarrera etorriaz. Gure jaun orrek orduan diñotso:

–Kooperatiban bakarrik soziuek dauke berbie eta zu alperrik zabiz berbetan.

Orduan asko bidia samurtu eustan, neure erdera motrollo ta guzti barriro neu asteko:

–*¡Vaya sorpresa!* –esan neban edo esan neutsan–. *¡Un hijo de un socio no tiene ni derecho de hablar en una ocasión de éstas!... ¿Cómo se entiende esto. cuando a la hora de elegir un vocal de la Junta tenemos pruebas que vale la firma del que sea hijo, hermano, pariente, lo mismo da que sea su criado, todo*

vale? De esto tenemos pruebas. En eso, como ésa su costumbre de no dejar hablar”.

Onakuetan betiko bere bideari elduten eutsan, bere berba iturri ugariz, guzur nai egiz:

–Aurreko ori ixildu dadilla!”.

Baña nik eskatuten neutsan neure berbia amaitzen isteko mesedez, baña beriagaz aurrera. Da orduan atera neban kolkotik bere *Boletin* ori, guzurra ugari ekarrela esanaz:

–Ondo gordeta darabit arduraz, au ikusten dodalako ispillu, egia eta garbitasuna oso urri dabizala zure zuzendaritza orretan nire ustez, da gure ruta orri dagokionez beintzat. Emen datorren egi bakarra da, nik boto bat euki dodala.

Orduan, bere lagunak eldu eta erdi arrastaka ateraten asi ziran; eta atian kanpora urtenkeran, onan diñotse:

–*Señores: hoy en ocho tenéis día de excursión con todo pagado. Vendréis primero a Beiena; allí se os demostrará que todo lo que ha dicho este señor no es verdad.*

Eldu zan egun ori. An giñan bi edo iru autobuskada, ni be bai, badaezpada Boletine be kolkuen. An ibili giñan *Beiena* ori tuterrez ikusten. Amaiketako edarra be emon euskuen, baña jauntxu orren gerizarik be ez eban guretarikok ikusi. Madrilgo Batzar Lekuan urte askuan ebillen. An iñogaz toperik euki baeban eztakit, baña emen bat euki eban, uste asko barik nundik etorri leiken.

Beiena onek ondiñok nun edo an ikutu eragingo deuste lerro onek amaitu baño leen. Baña pixka bat atzera jua, da eldu dagitzan beste arlo bateri.



Tomas bere lobekin.

Ipar-Amerikan

Urtiak aurrera doazan neurrian, bizimoduan be aldakuntzak. Seme nagusiak eta etxian neukan alaba bakarrak, biak batera ezkontzeko egun bat ipiñi eben. Semie etxera eta alabie kanpora. Neuk irurogetairu urte, ta osagilliak aginduta nenguan derrigorra nebala ebakuntza bat egitia eskumako mokorrian. Da pixka bat kantsaute be bai ainbat biar gogorrez, eta erabagi neban lau bat beirentzat beste sail bedarrerako itxi, eta bestian piñua sartu. Etxian ontzat euken idea ori, eta alan egin genduen. Lau bei eta beste iru txalik txikienak itxita, beste guztiak gizendu ta saldu genduzan. Eta diru mordotxu orrek poztuta, Amerikara ibillaldi bat egitia pentsau neban, ebakuntza egin baño aurretik.

Seme-alabok 1972ko garagarrillaren 31n, San Iñazio egunez, ezkondu ziran. Andik ixte urtebetera, maietzaren 31n, neure asmue zan anguei ezer esan barik sustotxu bat emotie; baño norbaitek emendik azaldu eutsen nire ixileko asmo ori, eta ango alabiak idatzi eustan olakorik ez egiteko, bera an urte asko egindako bategaz jua zala, baño alan da guztiz be bide bildurgarria zala, batez be berbetie aitzen ezta-benarentzat.

Alabiaren barri au baño aurretik neukan juatiaren eguna eta jua-etorria ordainduta, ixilian juateko asmoz. Neuk ajentzian beti esaten neutsen juate ori abiorik aldatze barik izan dedilla. Beti baietz erantzuten eusten; baño, atxaki ta matxaki, ez zan olan izan: New York-en aldatu eta Denver-en be bai. Iru ontzitan jua biarra izan neban; baño, alan da guztiz be, bardin jarraituko neban, alabiak ezer ja-

kin ezpaleu be; baña jakiñian egoan ezkeru, aitzen emon neutsen egazkiñon orduok eta guzti.

Ibillaldiari eguneroko agiri bat egitia neban bu-ruan, eta onan asten dot:

1973ko maiatzak 31. Goixeko zortzi t'erdietan ur-ten dot etxetik lenengo neure bizitzako oporraldira, eta illuntzeko zazpi t'erdietan eldu nintzen Madrilgo geltokira trenez. Anai Pilipe ta bere emaztia be neugaz jua ziran, euren lagun batzuk ikusiaz. Gelto- kian itxaroten egozan arreba monjie eta anaiaren la- gunok. Onen etxera jua giñan afaldu eta lo egitera, arreba monjie ez, bestiok.

Ekaiñak 1. Onei "illuntzera arte" esanda, jua gi- ñan monjarengana, da arrebiagaz urten genduen, erosketa batzuk egiñez uri aundi orri ikusi bat emo- tera. Baita jua giñan an egozan nire emaztiaren lengosuen etxera be, eta onek, derrigor bazkaria ber- tan eragin euskuen, eta lo egitera gabian ara juate- ko gelditu giñan anaia eta biok, onen kotxian urren- go goixian egazkiñera juateko. Illuntzian agurtu nituan monjak eta anaiaren lagunak, bueltara arte.

Ekaiñak 2. Goixeko sei t'erdietan urten genduan, lengosua da bere semia eta anai biok *Barajas* egaz- kin zelaira. Emen maleta edo zorruari bere elbidiak eta abar ipiñi, bidaiar txartelak artu, eta egazkiñari itxoiteko lekura pasetako rejistro gogorra norberari, baita eskuko zorruari be. Uste genduan lauroi itxiko euskuela itxaron salara pasetan, baña ori galerazota egoala esan euskuen, sekuestruek eta abargaitik. Emen agurtu nituan lagunok.

Itxaron leku orretan jende asko egoan, danak abio orretan jua biar ebenak, tertulietan berbaz da barrez. Ordu bat oso geunkan egazkiña artzerako, eta neuk, kontuak esanez juateko, lagun bat aurki- tu gura neban, baña ez neban entzuten neuk uler- tzen neban berbarik. Danok ingelesa egiten ebela ikusten neban, baña ezin sinistu ainbesteren artian

ez euskerarik ez erderarik ez entzutia. Ordu oso ori egin neban ezarlekuan jarri be egin barik, egonleku guztian ara eta ona, da beti bardin.

Ordua urreratu zanian, an egozan bulegoa-ofiziñan ordenantza bi. Onengana jua nintzan, eta onei azaldu neutsen zer jazoten jatan: ez nebala entzun itxaroten egozan guztien artian ulertzen neban berbarik. Onek esan eusten guztiak zirala Amerikako U.S.A.-kuak, ikasliak geienak, San Isidro jaietara etorriak. Eskerrak oneri, atera ninduen duda gogor batetik eta. Orduan erakutsi neure agiriak, nora eldu biar neban, eta mesedez eskatu neutsen orri baten ipiñi dagiztela eztoela euskera edo erdera besterik ulertzen. Txartel onek asko lagundu eustan andik aurrera. Egazkiñaren sarrera atiaren onduan egoan gazte orretako bata, eta au esan eustan bere aurretik igaroeran:

–¡Buen viaje! Pero tiene que andar despierto, que va al aeropuerto mayor del mundo.

–Gracias por su atención –nik.

Egazkiñ aundietarikua, “Tawa” edo olan. Ezarleku uts gitxi eroiazan. Agindu eusten lekuan ezarri nintzan. Nire eskumatik, leioaren ondoan, beste gizon bat. Albo bietako ezarlekuak biñakuak ziran; erdian, banakuak, da bi pasillu alde bakotxetik.

Nire eskumatik joian ori biajante edo komerzianteren bat zan. Ni onduan ezarri nintzaneko ziarduan papelak pasau eta numeruak egin, koka-kola edo zerbeza ontzi bat albuan, noz-beinka zurrut bat egiñez. Edan be parra-parra egiten eban, da uster a be sarri jua biar: eta zerbait esaten bera, eta ni mutu. Señatik edo abar, aldetako esaten ebana konturatu nintzen; berak urtengo baeban, ni jagi egin biar nintzan eta. Eta atzera etorrenian, bardin. Bigarren aldiz be laster jua biar izan eban; da bere zeregiñori egin da atzera etorri zanian, bere traste guztiak artu eta jua zan beste leku batera.

Ni orduan, leio ondora, andik beera nozian begirada bat emonaz, lañu tartetik Pozu Aundiari begira. Bitartian, neuk be, nagus kontu apur bat egitearren, *Zeruko Argia* eta *Anaitasuna* irakurriz juaten nintzan. Jana ta edanagaz etorten ziranian, nire nagus kontuok naikue labur geratzen ziran, baña tira! Konpontzen nintzen, atzamarrez apuntau ta abar; ekarten ebena jan ekarten eben guztitik, atzekuaz aurre-ra bazan be, ainbat txutxilleri nik ezagutzen ez nituenak ziran eta.

Orretariko jan oste baten, geltokira eltzeko ordu erdi falta zala inguruan, orri bana emon euskuen, da bertan, gatzeleraz be esaten eban zertarako zan: geratzen giñan lekuan nora jua geinkian deskantsetara, jatera, naiz egotera; eta, orri ori beteta, emoteko azapatiari. Onegaz pentsetan nenguala, atzeko alde-tik lepuan ikututa diñosta emakume batek ia ezarri leikian utsik egoan alboko ezarlekuan, da gañera gatzeleraz! Ez ain ondo, baña naiku ulertzeko bestian.

Nire erantzuna, zerutik aingeru bat etorri balitz beste estimetan nebala, eta ezarteko.

Ogetalautik ogetamar urtera emoten eban. Ni gañe altu bazan, da naikue sendo, baña bere erropa gixiak pentsakor ipiñi ninduan, bikini utsian egoan da. Beste ardurarik egon ezipalitz nire kolkuan, biarbada... Baña neurera jo neutsan lenengotik: ia nundik etorren, da Madrildik, oporretan jua zala gazte-lera pratikauaz, ikasten ebillela eta. Da aurrera neuriagaz: erakutsi neutsezan nire agiri guztiok, da zer asmoz da guztiak. Aurreratxuego artu neban: orri orri erantzutia biarrezkua ete neban be galdetu neutsan; da nire kasuan ezetz erantzun eustan. Pozik nengoan bere laguntzagaz. Ogei minutu egin zituanian, "gero arte" esan da jua zan, baña ez zan atzera etorri.

Andik amabost minutura lurra artu genduan. Jentia lurreratu zan. Geiena, nik aren laguntasuna

gura neban. Atze aldera juan zan; ni nenguan lekutik pasau biar eban urteteko, baña ez zan agertu, eta onetan azken urten neban. Ez aurretik ez atzetik eneban ikusi aren jantzikerakorik. Benetan lenengo berbie esan neutsenatarikua izan ete zan ba?...

Barrero lagunik ez, da zirt edo zart egin biar. Etxatan bururatu be egin morrala jasotera juateik; uste neban Reno-ra arte ez ebalu aduanan pasau biar.

Lenengo, bertako arduradun jantzia eukan bategana zuzendu nintzen, eta Barajas-en mutillak emon eustan agiria emon neutsan eskura. Onek eruan ninduan beste bategana, eta onan laugarren bategana arte: ogetasei urte inguruko emakume bat zan. Baña berak gazteleraz nik ingeles baño apur bat geiago ekian... Baña jestuak, seña eta abar, baginon entendiduz. Lenengo arduratu ta galdetu eustana, ia eskuan neroian poltsia baño ez neukan, da baietz. Berari jarraitzeko seña egin eustan. Maletak jasota egozan, baña nirie an egoan bazterrien; da esan eustan ia aragirik edo frutarik neroien, da ezetz. Aduanan pasautakuaren agiria ipiñi eutsan, eta zabaldu be egin barik, aurrera. Ezetz esan neutsan, baña kilo bi lukainka emon eustazan andra batek osabiari eruateko eta...

Aurrera jarraitzeko txartelak ikusi eustezan, da andik urrin jua biar zan txartela aldatu ta beste Denver-erako abioie artzeko. Jarraitzeko seña egin eustan, eta eruan ninduan autobusak etorten ziran lekura, eta esan eustan: "*Autobús rojo y blanco*", sartu an eta juateko. Orri bat emon eustan gidatzaillari emoteko. Autobusak, bat etorri eta bestie jua, atzera ta aurrera dabiz.

Alako baten, badator zuri ori antzeko bat. Dudan nenguan, baña urten eban gietan etorri zan baltz batek, eta emon neutsan orri ori. Eta sartu ninduan bere ezarlekuaren onduan. Beste aingeru bat! Bide luzie

iruditu jatan: ainbat lekutan geratuten zan, eta guztietan jagiten nintzan, da berak ezarteko agintzen eustan. Eldu giñan, da berak txartela aldatzeko lekura eruan ninduan. An itxi ninduan da aldatu neban.

Baña iru ordu geruago urten eban egazkin orrek. Emen, jua da etorri, ara ta ona, jente asko ebillen, egazkiñak sartu ta urten ebizan eta. Ni an nebillen, bide guztietan legez, lagunen bat aurkitu nairik, ara eta ona, geratu be egin barik. Alako baten, nun entzuten deusadan gizon bati, eskuko ordulariari begiratuaz:

-Me voy a poner la horita.

Laster nintzen beregana; da eskua emon neutsan, esanaz:

-Primera palabra que he oído en español desde las nueve de este día, que he viajado desde Madrid.

Da ain subertez, Denver-era arte egazkin baten jua biar genduen. Ni Madrildik legez, bera Paristik etorren. Mejikoko *policía interpol* bat zan, berak esan eustanez. Berrogetabost urte inguru zituan, oso kanpetxano ta kontularia. Andik aurrerako orduetan ez giñan banatu. Denver-en banatu biarra geunken: arek Texas-erakua artu biar eban, nik Reno-rakua. Biok alkarregaz jua giñan nik txartela aldatu biar neban bulegoraño; berak aurrerago jua biar eban beria aldatzeko. Nik ordu erdira neukan egazkiña, berak ordu batera. Urrin jua biar eban. Esku estutu bat emon genduan, baña bere txartela aldatutakoan ostera etortekotan jua zan: neuk eskatu neutsan, ain ordu atsegin orrek-gaitik, neuk ordainztie gura nebala.

Aldatu neban neure azken txartela, eta "4" zenbaitik jua biar nebala egazkiña artzeko esan eusten. Ate ori ondo zaintzen neban. Lagunak juaten ziran arte trankil nenguan beste ori etorteko zain; baña ez zan agiri eta ate aretatik etxoian iñor azken minututan. Neu be kezkatu nenguan, da bertara sal-

tau nintzan. Eta buleguan egozan emakume bat eta gizon bat, besterik inor be ez.

Emon neutsen eskuetan neban agiria. Ezarteko agindu eusten. Agindu eustena egin neban, baña arrautzak egon balira, ipurdia ipiñi biar neban lekuan ez ziran apurtuko, aidian gelditzen nitzen da. Eurak alkarri berba erdi egiten baeutsen, neuretza-ko zalakuen bolanderie legez jagiten nitzen, da jarteko agintzen eusten. Telefonoz ziarduen bata, berba eta berba, da gero konturatu nintzan egazkiñagaz izango zirala berbak.

Andik minutu batera, badator leku orretan male-
tak eruaten erabilten diran burdiATEGAZ baltz aundi bat. Ezarteko agindu eustan aurreko puntan eukan ezarlekuan, da, or narroia! Bidian burura etorri jatan "Oraintxe balego emen nok argazki bat atera!?...". Sarrerako ateraño.

Sarrerako ate orren barrutik, alde bietatik, piloto, nagusi eta azafata eta diran guztiok, danak tinko, Etxe Zuriko Nagusia bera banitz legez agurtuaz; kaxondeo apurren bat izango ebala-ta geratu nintzan neuretza-ko. Baña ni enitzen asarre, esture guztiak gainditu nituela ta ordu ta erdi barruan dana amaitzen zan eta.

Ogeitaz orduak aurretik, goixeko orduetan argiz urten neban, ordu guztiok eguzkia ganian dogula; illuntzeko argien biztueran urten dogu emen, Renora gabaz eltzeko. Goitik begiratuta, argiak zoragari emoten eban. Lurreratu giñan, da itxaroten egozan egonlekura. Ara juateko, pasajeruak juateko aldetik bakarrik, poliziak eta enpleauek egoten ziran aldetik juateko agindu eusten, da andik jua nitzen. Sarrerakuak be dudak emon badeustez, onek be, txorien arteko mozoloztat artu ete naberen pentsetan ipiñi ninduen.

An egozan zain guztiak, besarkatzeko zain, eta alabiaren etxera. Kontu-kontari egin genduen ego-

naldi bat, nire bideko kontuakin barre naiku egiñez. Bixamonie domekie zan, eta baegoala denporie, eta oera giñan. Eberdira arte oian, eta arratsaldian bostetako mezatara. Emendik, erriari ikusi labur bat emotera. Emengo ikuskizunik gogorrenak, kasinuek edo joko-etxiak dira, batez be jaietan. Emen pasau genduen ibillaldi geiena.

Astia biarrian asi biar dabenak geienetan goiz oeraturen oituta dagoz, da suiñak be biarrian egon biar eban sei t'erdietan; eta osabie be oilluekin batera lotara oituta dago, eta guk be axe onena.

Nire oporren asiera emonda dago. Goixian, alabiak "tasak", emen kontribuziñoiek legez dira, eta ordaintzera jua biarra eukan, da beragaz da lobiagaz jua nintzan *Kortiak* deitzen dautsen etxe aundi batera. Jente asko egoan, ezarlekuak beteta; alabiak esan eustanez, ezarrita egozan geienak, diborzio arazoetan ebizanak ziran. Guk legez ordaindu biarra eukenak, laster ziran andik kanporako. Artzeko ontziak emen be naiaguak dira, eta beste lekuetan legez iñoz bete eziñak.

Emendik, supermerkatu denda aundi batera sartu giñan, alabiak erosketa batzuk egiñaz. Denda onetan be, beste guztietan legez, urterako atiaren inguruan joko makiñak, danak biarrian, eta atzian beste batzuk zain aurrekuak aldetako, antxe sobre urten dautsen txanponak jokatzeko. Guk ezkenduen egin, alabiak berak ez eukala oiturarik ez astirik an egoteko. An ikusten ziran andra nai gizon naiku urte askotakuak.

Arratsaldean, Gernika aldeko familia batena jua giñan. Olan jua ziran lenengo egunak. An, biar egune txarra da bide luziak egiteko; an urrian eztago zer ikusi, joko-etxe edo kasinuak ezik. Da, nire amesik gogorrena, artzainen ango egoera, bizimodua, sarri entzuna, baña begiekin be ikusi nai. Da Reno ingurua ardi gitxikua da; abelgorri talde ba-

tzuk, da eurak be ez ain aundiak. Inguru au olgau zaliena da.

Zapatu baten juan, amabost egunera edo olan, bazkalostian, Virginia Siri-ra –*Virginia City*–giñoiezan etxeko guztiok. Reno-tik ara bitartian dagoan mendia gaindituz giñoiezala, artalde bat, giñoiezan bide-tik ur gañera. Suiñek esan eban:

–Geratu ta ikusi egin biar dot ardiak dagozan lekura biderik dagoan.

–Karruak pasauta dagoz –esan eban.

Da bertatik juan giñan aurrera ta aurrera, ardien parien astiro, zaintzaillie ikusi nairik, da aurrera. Da landatxu baten, toldozko pipentie –an ibillitakuei asko entzune–, eta alboratxuan, txakur bat lotute. Onek, zaunke gogor egiten eban, baña ez zan iñor agerten. Suiñe bera be lenengo zazpi urtiek artzain egindakua zan; da ikusi eban iñor ez egoala ta esan eban:

–Euskaldune izango da, ta karrue etortzen ikusi dabenian, ezkutau egin izango da, eurekin ez berba egitiegaitik. Ez da gañera bera lenengo euskeldune izango ori egin dauana.

Ibili zan ara eta ona topau nairik; da karruan bagatoz da azken begirada bat egiñez, da gengoan lekutik irureun bat metrora, gizona ete zan... Da txakurra ebillen inguruan, da suiña juan zan. Alkar besarka ta ondoren, gu be juan giñan, da ez genduen uts aundirik erabili. Euskalduna, Abadiñokua, au be baserrikue; urte bat pasau juan zala.

Kontu aldi gogor bat egin genduan. Kanperua eballa etorteko, gu giñoiezan bide ori beste aldera pasetako; pasuan joiala beste leku batera, gengoan lekutik urriñera, Reno bistan egoan-da. Alabiak emon eutsan orri baten bere etxeko zuzenbides Reno-n, esanaz ara juaten danian. ez pasetako sartu barik afari bat egiteko. Agurtuaz, jarraitu geuntsan geure bidiari.

Turista dirala, nai eztirala, guztien ikusleku dogu Virginia au. Ikusle utsak dira erri onen bizibide. Dana da aintxiñeko moldera, pelikulak egiteko leku berezizat egoana. Olan zaintzen dabe: bere inguruetan ezta ikusten nun berakatz ale bat artu leiken; dana da atxerre edo miñe-zulo. Baña an ikusten dira zar da barri. Diran artista entzun guztien irudi ta argazkiak. Euren artian, munduko jantzirik karuena, urre-zillarrezko, artista baten gañeko jantzia. Rta beste olako zer ez?

Illuntzera bajatu giñan *Karson Siri*-ra -Carson City-. Au Nevada-ko uriburua da. Reno-tik amairu millara dago. Ezta uri aundia, ez, biztanlez: Durangon beste inguru; bizilekuok askoz banatuago bai. Emen dagoz Nevada Estaduko zuzendarien Batzar-Etxiak. Emen lasai ezarrita dagozan lekutik menderatzen dabe dana; da, gañera, egunian ordu gitxi eginda, da urtiaren asieratik barrenera oporraldi bat edo bi baño geiago artuta eta guztiak ondo ordainduak.

Egun onetan, ospetsuen ibil-lekuak edo egon-lekuak ikustera urten genduan, munduan diran barri-emolle bide guztietan eragin geien dabenak. Asmo bakarragaz urten bagenduan be, egun orretan buruan be ez genduan beste artista moeta bategaz, usterik gitxien genduela, topo egiteko aukera izan genduan. Da neuk orren barri jakitia zan buruan neroian asmorik garrantzitsuena: artzain euskalduna. Bi milla ardi zituan aurrian, txakur bi lagun: bata, bere pipentie zaintzeko; bestie, berari ardiak zaintzen laguntzeko. Astien bein, bere lagun kanperue juaten jakon, jana ekarri ta pastue aldatzeko. Urte ta erdi Euskal Erritik etorri zala, ta lenengo opor eguna artzeko. Emendik ibilitako askoren agotik entzunak guzti onek. Bertsolaria banitza, iru artista moetoi iruna bertso aterako neukioez, zein goren jarri, baña au Sebastiani ixtia oba izango da.

Gautu eban, da uri onetan afaltu genduan, jokotxian. Afaria ordaindukeran, dolar bat erregalau euskuen, beragaz jokuen asi nai bagenduen. Naikue berandu zan berez jokolaria eztana jokuan asteko, baña ekiñaldi bat egin genduan, da zerbait irabazian alde genduan.

Bixaramona, domekie. Euskaldun talde aundi batek *pikinik txikia* egin eban –“jai txikiok” esan nai dau, eta urtian bi-iru egiten ditue–, eta ona jua giñan. Reno-tik ogetabost millara, Kalifornia-ko partia: *Portola* erriaren izena, dana piñuz inguratua. Erri onetatik kilometro erdi, batera Gobernuak orretarako baimena emonda eukan lekua, ibai baten onduan agiri zan piñudian. An dago orretarako gertautazelai aundi bat. Aurrez txanda artu biar. Da emen erre ziran arkume pilluek!... Gero, gañetik onek biar daben txurrit da abar, guztiak umore onez, zar da gazte dantzari.

Guztiak jokuan eta dantzan itxita, bazkalostian, suiñak eruan ninduan bera artzain ibili zan lekuak erakutsiaz: Kalifornian da paraje orretan ibillia da; ondiño edurra guztiz kentzeko egoan. Andik illabetera barrero juateko geratu giñan. Ardiak beetik gorra etozan janaz, eta ara eltzen ziran udazken guztirako. Onan, ba, buelta artu genduan. Ibili orretan piñu ta zugaitz aundi asko be ikusi genduen. Karrotik urten da norbera betian gerria neurtu be bai batzuei.

Gure aita piñu biarran ibillia zan Boise aldian, da onek esaten eban eurak an bota ebezan piñuei, bera botata, gizonak eskillaria biar ebala gañera igoteko. Orrek guri, bola aunditxuak zirela bururatzen jakun, baña egiztatu ziran niretzako egun onetan. Ez genduzan aundienak ikusi, baña seitik zazpi metro-ra ni betian eukenak bai, da au nik igoteko goitxu jarriko zan. Da urrengo jua giñanian, ixte metro bi geiagokuak negurtu genduzan.

Arkume janez, zurrutez, jolasez da bakez, etxera. Onan, banaka baniñoen neure ikus gogoak betiaz.

Aste azken guztietan, ikuskizun barri batera. Urrengo zapatuan, *Lai Tajo*-ra juan giñan. Au da beste artista geienen, guztiena ez esatiagaitik, atsenden, opor eta euren bizitzaren oldozt-reflexiño leku. Milla milla bueltan dituan lago bat da, buelta guztian mendi aundiz inguratua. Da gu juan giñan bi diak be, gan-beera asi giar genduanian, zortzi milla oin alture marketan eban, eta albo bietatik altura aundiagoak da edurrez zuri itxi genduzan atzera.

Goitik beera urreratuaz, badagoz begiradak emoten gelditzeko lekuak. Itxaso txiki bat emoten dau, bare-bare. Bere inguruko espalda guztiak, uraren onduan asita, piñudi zarratuak. Ia bertara eldu arte ezta ikusten piñu eta ura baño. Bertaratutakuan, dana dago banan-banan, or da emen txoko ondo-ondo apainduz beterik. Esan eustenez, emen olako kaiolaren bat eztaukan famoso gitxi dira. Lekuan-lekuan dagoz orretako kirolak egiteko toki bezeziak.

Ementxe dago *Ponderosa* kantxa, aldi baten ainbeste entzuten genduzan pelikulak egiteko leku aprapos ori: eta bertara ondora juan arte ez da ikusten. Emengo mobimentu guztia orretarako zaindu ta gordeta dago ardura guztiz. Erria be bertara barrura sartu arte ezta ikusten. An dago, otel da kasinu da joko-etxez beterik, oso apaiñe.

An be beste bat geiago ikusi genduen, da beste bide bat artu genduen etxerako. Emen be, bide zati baten, dana piñu tarteko kaiol apaiñak. Onek be pipentia, baña ez arkitetu baten asmorik barik egiñak. Emen ez zan ardi korotzik inguruan.

Barriro etxeruntz. Mendiari igon da laster, begien aurrien lautada aundi bat: etxe moltzo txiki bat, ganau gorri ta baltz, taldeak an da emen. Erriaren izena, *Garden Bille* -Garden City-, esan eustenez. Iru

napartar ziran emengo jatetxe bateko nagusiak, da emen afaldu genduan. Gau berandu etxeratu giñan.

Bixamona domekie. Mezie entzun da mendian bazkaria egin genduan. Da etxerantzian, suiñaren lengusua ikustera, eta etxera.

Onan joiazan egunak aurrera. Aste bitarte orretan, osabiak San Franzisko uria ikusi biar genduala esan eustan. Andik, lau orduko bidia egoan autobusion, Sacramento-n geldi egiten eban ordu erdia kontaute.

Astelenian, amarretan urten genduan an aste osua pasetara, ikusiez erri ospetsu ori. Ugartia, *isla*, dala emoten dau. Gu sartu giñan aldetik, uraren gañian dagoan zubi luze batetik sartu giñan; zubi orrek erdian geltokia ta guzti dauka. Erri zar itzela emoten dau. Alderdi zarrak, Europako egitura geiago emoten dau, da parte barriak be beste Iparreko egituran eztator bardin. Ori bai, antxiñako denporetan be, emen baño kale zabalaguak. Emen be parte zar guztia zartasunian zaintzen dabe: kale aldatzak eta traketsak...

Aintxiñako tranbi zarrak, baña benetan zarrak, momentuan be eztira geldi egoten, eta dabizenetatik, eunetik larogetamar turistak dira. Ontzi zarrok, erdi txintxilian darabille jentia; eskerrak astiro dabizena... Erri au ikustera etorri diran guztiok ibili dirala esango neuke, geu legez.

Onek pasetan diran lekuan dago txino utsak bizi diran erriaren zati aundi bat, millaka asko; biarbada milloiak dira. Erri orretan ikusten diran biztanle guztien euneko irurogetamarretik gora, Orientekua da: Txina, Japon..., da baltza be asko. Emen esan dogun barrio onetan, dana da denda, jatetxe... Danak dagoz txinoz da ingelesez siñatuak. Onek tranbi zarrok aurrera jarraitzen dabe, batian aldatz gora eta bestian beera, aurrerago, beste turisten ibil-leku batera.

Au, itxasuan egitekua zan: ontzi bi ebizan talde bat itxi eta beste bat artu, geratu barik egun guztian, eta jentia zain zeukan. Ibillaldi bakotxa ordu bat eta ogei minutukoa zan. Ugarte bat egoan. Gu jua eta sartu giñan onen eskuma aldetik, errira zubi luze orren azpitik pasauaz; eta emen buelta artzen eban.

Bide guztian juaten zan zubi, erri, isla eta inguruen istoria kontauaz, iru-lau izkuntzatan –bat gazteleraz–. Ugarte ezkerretik bueltan, onen istoria be: leen zer izan dan, gaur zer dan... Enaz gogoratzen zein urtetan, baña isla ori Españiak berrogetamar dolargaitik saldu eutsen amerikanuei, eta onek penal-kartzela biurtu eben. Bera zaintzeko, indarrak besterik eztabe arreskau.

Ibillaldiak, beste zubi aundi baten azpitik pase-tan danien artzen dau buelta, urten daben lekuen amaitzeko ibilia. Beste zubi ori erriaren beste aldetik Los Angeles-era urtetan dabena da. Onek ezagun dau barriagoa dana. Ez neban goguan artu, baña bere zeetasun guztiak emon zituan: zenbat urte egin ziran bera egiten, zenbat burdin da zementu gastau ziran, zenbatek bizia galdu eben egin zan bitarte orretan, eta zer ez? Da au be ikusita, atzera tranbi zarretara, urten genduan lekura arte.

Osabiak ondo ezagutzen eban erri aundi ta zar au: urte bi osuak eginda egoan emaztiagaz erri orretako zulo guztiak ikusten. Bertako barri dakienarentzat ondo organizauta dago ibilgailluekaz. An barruan ezta biar karrorik, asko gastau gura ezpadozu eta ibili asko. Goixian asi ta gabera, jateko denporie bakarrik geldi eginda, dolar bi gastau barik egin genduan bion arte. Goixian txartel bat artu biontzako, eta biar diran aldakuntzak tranbiatik trolebusera, da emendik autobus edo atzera tranbira. Bakarrik, jakin egin biar zein artu biar dozun.

Beste ikuskizun askoren artian, iru parke zoolo-giko aundi dagoz: bakotxa astiro ikusteko, egun oso

bat biar da, eta naikue banatute dagoz, baña ikusi dezente bat emon geuntsen egun bi pasauan.

Oe biko gela bat artu genduan juaneran; da onengandik urrin, jan, nun genbizen, an egiten genduen. Ori erreza zan. Osaba onek zulo guztiak ekizan, eta ez genduan denpora alperrikorik janen zain galtzen. Artu fuente bat eskuetan, koillara ta tene-dorra eskuetan; ogia, saillian gertu dagoanetik bakotxak biar dabena; ordaindu; jarri utsik dagoan mai baten; itxi dagoana dagoan lekuan, da kalera. Onan, ondo aprobetxau genduen garrantzi geien ebenak ikusteko. Egun bat aurreratu genduen bueltie. Osabie, janan ganien artzen zituen sendagai batzuk aztuta juan zan; da, egiñalak egin, ez zituan lortu al izanda.

Dana dan legez, oso atsegiña izan zan. Ez bakarrik uri aundi orretan ikusten diranak; orra bidian autobusetik ikusten diranak be bai: maastiak, gari, arto, alpalpa, belardiak, itxaso erdian doian ontziak alde guztietara begiratu ta ura besterik ikusten eztaun legez; da, onek amaituten diranian, alan piñua eta piñua. Emen bitarte guztian eztago lur alperrikorik.

Ekaiñak 30. Badoiaz opor egunak azkenduaz; gaurko au oso garrantzi aundikoa: Elko-ko *Euskal Jai* ospetsua.

Goixeko seiretan urten genduan lau euskal familiar, alkar zainduetz juateko. Alan dabe oitura. Iru-reun millatik gora dira erri bi onen bitartian. Bide ona dago bide guztian, baña emen urten da milla laurden batera sartzen zara Nevada-ko desiertuen, da Elko-ra urreratu arte, bitarte guzti orretan, indixuen *Reserba*-ren bat dago onetan bakarrik. Au amaitu ta laster *Winemoke* -Winnemucca-erri txiki bat. Aurretik be, andik asko ibilitako artzainei asko entzuna: "Binamoka". Emen, guztiok gosaldu genduen da laster giñan Elko-n.

Telefonoz artuta genduzan jan da lo-leku, ara juaten diran geienak estalperik eztabe aurkituko ta. Zapatu arratsalde geiena, errian desfiletan dabe, emen legez, idiak buztarren, laixak, segak, azkorak, arriguek, ezkon barriek, panderu, filarmonika... Aitatu ditugun guztion aurretik, Ikurriñaren ondoren, tanbolin da txistu; da bi onen ondoren, Alkatiak ma-killiak. Lenengo aitatu doguzan guztiak, onen ondoren. Afalostian erromeri itzel bat, zurrut eta dantz. Guk ordu bietan alde genduan.

Garagarrillak 1. Domeka goixan amarretan, mezagaz jaiaren asiera. Reno-ko obispuak emon eban mezie. Beste bi eukazan lagun, da euren artian, Arbazegikue, Montezuri baserrikue, fraillie. Onek, obispuek ingelesez esandako ebanjelixue, euskeraz barriztau eban. Da gotzain onek, onan esan ei euskun: euskaldunak bakarrik giñala meziagaz jaiari asiera emoten geuntsenik. Izkuntza be bakarra da; oitura be alan da. Rz da gureztat lotsagarria beintzat. Abestiak be euskeraz, da Jaunartzen be asko be asko urreratu ziran. Ondoren, jaiak.

Asten dira arri jasote, gizon proba, aizkora, txingaru eruate... Umienak be bai: soka saltaka, lapiko apurtze.... Da baita bertan artzainak dabezan abildade batzuk: ardi, zekor, nai zaldi –“Bronkuek” eurak esaten daben moduan–zeñek bizkorrago menderatu, ta abar. Da guzti onen tartian, bertsuak. Onek danok ikusita, bazkarie naikue berandu.

Da, urrin jua da astia. Biarrian asi biar dabanak etxerako bidiari ekin biar, guk be alan egin genduen eta.

Elko ori ezta uri aundia, apaiña bai; beti be, euskaldun jentia jokera aundia dabena, da olako egunez, zer esanik eztago, usterik gitxien dozunagaz tope egiten dozu, nik be egin neban legez.

Garagarrillak 4. Egun au osperik aundienekua, U.S.A.k askatasuna lortu ebanekua. Egun orretan

askok galtzen dau bere bizia istripuz eta txurrutaren erruz. Guk, famili bik, *Karson* aldeko onen famili bien ezagune zan arrantxu baten pasau genduen, jan da musian egiñez da txanpana edanez.

Garagarrillak 7. Emendik amar egunera onuntz-ko bidia artu biar neban, da aspaldian plana eginda neukan zapatu da domeka onek Martzel nire suiña artzain ibili zan lekuak ikusiaz pasetako. Eta ain subertez, kanpo orren ugazabak gure errikue dan emaztie dau, da onen anaiak be Markiñekuek. Da biok dira Kalifornia-n jaixo ta aziak; da gurasuak be anguak, da eurak gazteleraz naiku ondo egiten dabe. Eta etorri ona, andrak emendik eruan da, ardi ta arrantxu, ondasun askoren jaube dira. Da mendi-gizon utsak, da ganau zaliak: da, ango andrak nok euki mendian? Onek biok argi jokatu eben. zortzi milla oin alturatik gora dauka mendiak, udan umiak opor-rak artzen dituenian, an pasetako iru olezko etxe, bat aundi xamarra: iru eratako su-lekuak da kanpuan laugarrena, janleku, gela bi, telefonu, telebixi-ño, argi, eta zer ez? Da urren dauken errira berrogeitamar kilometro dago; da bitartian, mendi-guarda baten txabola dago bakarrik. Gu zapatu eberdirako eldu giñan; da aurreko egunian juanda gure erriko alaba ori, an egoan alaba gaztiagaz bakarrik, gaba an pasauta trankil etxe dotore aretan.

Ara bidian egon giñan aren artalde birekin: beetik goruntz janez, bata mendi barrenian egoan. Bixamona domekie: triskillau, lania moztu, da orretarako gertauta egoan lekura eroezan. Gure begientzako ardi normalak zirala emoten eben, baña bildotxak ei ziran. Bi millatik gora zituan.

Bestia beste, ainbeste ardi aurrian zituala, bide erditik gora aurkitu genduen. Onek b, biok euskaldunak, Bergarakuek, da kalian biarra itxi eta ara juan ziranak. Eurak esan ebenez beintzat, emen irabazi bai, baña ezin aurreratu txanponik, da, artzain,

iruna urte eroiezan, da beste irune egin biar ebezela iñuen, pixutxu bana emen erosi al izateko. Pentsakera guztietakuak gatoz mundura: aldakuntza edarreko bizimodua eurak artu dabena!

Gu gora elduta, leen esan dodan legez, ama-alabak bakarrik, gaba an pasauta. Amabiak aldia zan, da ugazaba falta zan, baña laster azaldu zan. Kanpoko sua biztu eban. Bildotx-txuleta edarra laster genduan aurrian, andriak ekarritako sopa ta letxuga ontzikada bategaz. Ganerakorik be ez zan ezer falta izan. Gu lau, da eurak beste lau, alaba nagusia aitagaz etorri zan eta; amalau eta amaika urte zituen alabok.

Bazkalonduan, eguraldi epel da alaia egoan, da danok bere *pikapian*, mendi utsez, zortzi milla oin goi orren nibelian giñoiazala emoten eban. Orduak egin genduzan juan da juan; bitarte batzuk mietzago edo utsuneren batzuk baegozan be, dana zan piñu eta piñu. Txabola moduko batzuk or-emen pasetan genduzan, da Lincoln-en denporako bizilekuak, etxiak, zirala esan eben. Ez giñan bide guztian gelditu, orduak aurrera joiazan da.

Eldu giñan alako etxe txiki baten ondora, mendizaiñena. Albuan eukan, amar-ogei metroko alturako parapetuaren gañian, kristalezko gela bat. Emendik, esan eikian Euskal Erri osoko lurak beste ikusten zirala. Dana piñudia zan ikusten zana, da emendik zaintzen ebezan inguru guzti orretan sortzen ziran suak. Au ikustera eltzen ziran guztiak, baktxaren izen-abizenak norberak idazten zituan liburu baten, da nik be alan egin neban; da an dago, nai dabenak ikusi.

Etixeruntz beste bide batetik ekarri ginduzen. Bide onetan, ainbat urre mina-zulo antxiñakuak eta barriaguak be bai; da Lincoln-en aldiko etxe eta basaauntz saltakariak ikusiaz, gaututa etxeratu giñan. Afaldu eta oera.

Goixeko bostetan ugazabaren *pikapiek* urten eban andik, bildotxak mozten egozan lekura. Bede-

ratziak aldera jagi eta gosaldu ondoren, suiñak eta biok ankaz ibillaldi bat egitera urten genduen. Ikustekuek ziran ango ardi larrak, bedar loratsuek... Ez laar ez ota bakar bat ezta ikusten. An uda azkenian aldi bat besterik eztabe egiten ardiak, da arritzekua da ain garbi egotia. Basa-auntza bat edo beste ikusi genduzan. Orren da beste pizti askoren ibil-lorrazak be bai; lagunak ondo ekian lorraz onen barria. Onek ikusiaz da beste piñu aundien batzuen gerriak negurtuaz, etxera giñan amabiak aldian.

Bazkaldu eta atiak giltzez itxi eta ardi moztailiak ikustera, etxeruntz etorriaz. Triskilladoriok lau ziran da laguntzalle bi, eta seirak mejikarrak. Ondo ikasita euken ofizioa: makiña eletrikuak eukezan, eta ardiari eskua ezarri eta biar dana egitera lau minutu pasatxuago egiten ebezan. Artzaiñak ikusteko gogo berezia banaban be, gañera uste ez neban ardi-mozte au ikusteko be aukera izan neban.

Beste guztiok agurtu genduzan eta etxerako bidia artu genduan, illuna urreratua zan eta. Amaikak aldera Reno-ra giñan. Jatetxe batera juan, afari ederra jan genduan, eta oera.

Oporren azken egunak eldu ziran, da onuntzko bidiagaz pentsetan asi giñan. Alabiek, *Nubaiorr*-en -New York-Iberia egazkiña artzeko moduan txartela aldatu eustan. Onuntzko bidia be bardiña zan bidez: Reno, Denver, New York. Baña aldakuntza batez, Denver-en eneban aldatu biar egazkiña, berak jarraitzen eban aurrera.

Eta piska bat gazteleraz egiten eban azafata bati aitzen emon eutsan, eta bide guztian ondo konpondu giñan. *Nuayorr*-era -New York-eldu giñanian, an biarrian egoan lagun bati agindu eutsan Bilbora joianen bat lagun ipinteko. Eta onek, andik lasterre- ra, berari jarraitzeko agindu eustan. Onek be, gazte- lera lorrinzen eban, da an aruntzago egoan gizon batengana urreratu ninduan da esan eustan:

-Gizon ori Bilbora doa.

Da orduan, eskerrak emonaz, agurtu neban emakume ori eta zuzendu nitzen gizon orrengana. Txapelagaz-da egoan, da euskeraz esan neutsan:

-Zu be Bilbora zoiezala esan deuste.

-Bai -euskerazko erantzuna. Berrogeitanar urte inguru zituan. Amabost egun egin ebazala esan eustan. Osaba gaixorik, txarto, bera ikustera etorri zala, eta sei egunera il zala Idaho-ko uri nagusian, da andik etorren.

Neuk esan neutsan asko pozten nintzala lagune aurkitziagaz, lenengo aldiz nengoala an; eta berak erantzun eustan:

-Ni laugarren aldiz nago emen, da gaur ulertzen dot gitxien emengo nundi-nora ibilli biarra.

Onek be izkuntza ez eban ezagutzen da ez zan nasai aurkitzen. Autobusai itxaroten egoan, Bilborako egazkiña artzeko lekura juateko. Nik aruntz juankeran egin neban ibili bardiña egin biar genduen autobusez. Emen be baltza zan gidatzalle; oni erakutsi neutsan nora juaan biar neban, da bere onduan ezarri eragin eustan. Noz-beinka geratzen zan lagunak artzeko edo isteko. Nire laguna be, ni aruntzian legez, konturatu barik eta abar, jagi egiten zan da oni be ezarteko agintzen eutsan. Ni, onen ardurapian, trankil. Azkenaurreko geldialdian, "*Iberia*" kartel bat irakurri neban, da urrenguan geratzeko agindu euskun. Baña geltoki au, *Tawba*, onuntz etorri nintzena zan. Esan neutsan:

-Oker gogorra daukagu.

Berak abioi orretan juaan biar eban, baña nik alabiari *Iberia*-ra aldatu eraginda neukan. Bion agirien azalak *Tawba*-renak ziran, baña nik barruan bestia neukan, eta, zer egin?

-Bertan esango dauskue.

Berak bota zituan agiriok, eta jo eutsen aurrera jarraitzeko seilluz; eta nik be bota neutsen, da bestia

orri legez, bardin, niri be txistik egin barik. “Zerk ur-
tengo ete dau emen?” neure buruari; eta biok sartu
Tawba-n da Madrillera. Emen maletak jasotera jua
giñan, da ninerik ez zan azaldu. Lagunak agurtu nin-
duan, atuan artu biar eban Bilborako egazkiña eta.
An egozan biargiñei esan neutsen zer jazo jatan, eta
onek esan eusten:

–Ointxe dago lurra artzen *Iberia*.

Alan izan biar eban, gu etorri giñanak baño ordu
erdi atzerago urten eban eta. Biargiñok esan eusten:

–Geu goiaz aren maletak datoza lekura.

Eta onekin jua nintzen. Da laugarren maletia
neuria agertu zan, da neure buruari esan neutsan:
“Ara emen nun amaitu dan nire misterio guztia”.

Pasau neban aduana. Eta an ikusten nituan
monja bi eskuari eraginga, bata arrebia. Onen kapi-
llan pasau nituan egun bi, *La Castellana, uno*-n.

Da trenez etxeratu nitzen, lenengo oporrok agur,
lengo bizimodura. Baserrian eztago parorik biar al-
detik, eta al dana egiñez, aurrera.

Lerro onek idazten dituan eguna, ain subtertez
1987ko otsaillaren 27, aurreko egunez Jose Antonio
Ardantza bir aldiz lendakari aukeratu eben eguna.

Berari eskutitz bat egitia erabagi neban, da ara
emen diñotsatan guztia:

“1987ko otsaillak 27, Bolibar.

Ardantza ta Garro'tar Jose Antonio Lendakari Jauna

Nire zorion agurrik beroenak biotz biotzez.

*Ainbat ixkanbilla ta zalantzaren ondoren, bir aukeratze orren
poza azaldu nairik, nire lerro ta idazte molde trakets guztiz idaz-
tera ausartzen nok.*

*Jazokera bategaz gogoratu nok, ire amaren amabitxi zuan ni-
re ama; da emengo oitura, Pazkuetan opil bat bere besuetakuari
eruatia, gitxienez ezkondu arte beintzat.*

*1941ko Iraillak 11, niretzat egun gogoangarria benetan, ezkon
eguna.*

Donostiara egun batzuk igarotera beste askoren edo geienen oiturari jarraituaz urten genduan.

Nire amak etxian egindako ogi bat emon eustan bide batez eruateko; orduan erregalurik aundiena zan ori.

Olan, Lasarten gelditu giñan da Txikierdi etxian aurkitu genduan, lau illabeteko semetxua seaskatxuan lo gozotan ebala, andra gazte bat. Nik espetxetik urten nebala il gitxi ziran. Niri albotik edo an esan baleuste, "Aurtxu au zu bizi zaran arte Euskadiko Lendakari bi aldiz aukeratua izango da", sinistuko ete neban?... San Juan izan banitz biarbada, baña ni Santo Tomas izenda, ikusi egin biar sinisteko.

Aurrera kemen guztiz, Jose Antonio!

Besarkada sendo bategaz, Zorionak.

Gerrikagoitia'tar Tomas.

Gura ez neban lekuan

Lenengo oporraren ondoren barriz, irurogeitairu Lurtegaz, gizarte burruka geruago eta indar geiago artuaz alde guztietatik, eta geienetan nasteko. MI-BA alkarteko lendakaritza lau urterako gañian neban; Franco-ren garaiko azken udalak aldatzeko arazoetan be, nasteko artzen ginduezan laguna ta biok, eta aurreko ate nagusitik sartu eziñekuak giñan biok aldi areetan. Da egun da aste geienak ziran batzarrak an edo emen.

Garagarrillaren 20an etxera nintzan oporretatik, eta urte orren abenduaren 29an, laugarren aldiz espetxera laguna ta biok. Zergaitik zan? Ni ez nitzen argitu garbi, baña bildurra sartuaz, zerbait aurkitu al baeben, guri anak geldituaz edo dirua kenduaz.

Amar bat egun edo geiago aurretik, naparrak esne-ugelga bat asi eben, da guk be, aren lagun, zortzi eguneko ugelga eginda gengozan. Da baserritarra be kantsau egiten da egun askuan esniagaz beste bide batzutan jarraitziaz, eta Bizkaian ateraten asi giñan, da Gipuzkoan be asko bai.

Eta illaren 28ko illuntzerako deia artu genduan Gernikan batzeko. Ez genkian guk biok beintzat nun egingo zan batzar ori, baña esan euskuen Andra Mariko sakristian zala. Bastante barruan gengozala emoten eban: emen, goixeko ordu biak arte esne-ugelga, eta gañera beste guztiak eragiñez, ogetaz giñan batzarran lau euskal lurraldetakuak eta geiago. Esne eta beste gai asko ez baitu ziran. Ugelgari barriz be jarraitzie erabagi zan, naparrak jarraitzen eben bitartian.

Ez zan barri egokia baserritarren aurrera juateko, baña berbia emon genduan da jua egin biar. Lagunak da biok banandu genduan nundik nora barri ori emotia. Eta erdi lo abar bat egin ogean bueltaka, etxeko goixeko zeregiñak lorrindu, ta ni beruntz eta bestia goruntz. Esne atxaki orregaz batera, piñu batzar bat egiteko genduan MIBA-ko kooperatiban: an sartu genduan disimulagarri, ugelga barriz astiaren zergaitia obeto azaltzeko asmoz, illuntzeko zortziretarako MIBA-ra batzarrera etorteko esanaz. Ondarru aldian amaitu neure zeregin ori, eta goruntzian *Caja Laboral*-ian sartu biarra neukan, diru apur bat artuaz. Da ona sartukeran, bulegoko langille guztiak begiak aundi zabalduta, da diñoste:

-Zer pasetan jatzu?

Da nik ezer ez nekienetik, txarrena bururatu jatan, etxian ezbiar gogorren bat sortu izango zala. Benetako atsekabia sortu zan nire barruan, da batek diñost:

-Zure billa dabiz poliziak inguru guzti onetan.

Barri au niretzako trankiltasun itzala izan zan. Ez diru ta ez barbarik egin barik, sartu kotxian da zuzen kuartelera. Atezain egoanari galdetu neutsan:

-*Me han dicho que los policías andan buscándome.*

Erantzuna:

-*Sí, y están en su casa.*

Barriz sartu kotxian, da etxera. Amabiak aldia zan.

Etxiaren lau eskiñetan lau txapel oker, da barruan beste iru, barru guztie ondo arakatuta, auzuetatik eta abar eurak eruandako lau testigugaz. Etxekorik, erreña bakarrik, aur biki jaio barriekin. Semie, ain subertez, MIBA-ko zeregiñen bategaz kanpuan.

Sartu nitzen barrura, da sukaldeko maia, papel idatziz beterik, tontortuta. Euskeraz idatzita egoan

guztia, ta gazteleraz be bai. Nire letra moldez eginda egoan guztia, idatzi ta zabaldutako guztien borradoriekin ateratakuak: *Beiena*-ren, nitxuen da beste askoren gañian; da, euren artian, urte batzuk zirala lagun batek idatzitako kartari erantzuna emoteko lau bertso edo poesia, eskutitzian garbian ipiñi baño leen, pentsu zaku baten idatzi nituanak. Arek enekien nun egon eikezan aspaldi erreta ziralakuan, da arek be beste guztien artian mai gañian, da barriak urten eustan. Tenientiak diñoste:

-Usted se ríe, ¿eh? Mejor, mejor... Señal de que no hay nada grave para usted.

Etxe guztia astinduta, *Atestaua* agiria egiten ebizan, ni etxera nintzaneko. Da au diñoste testigueta-ko batek: nire oe ondoko mesillean gomazko pistola bat neukala, begiratu baten egizkua emoten ebana. Amerikako lobiak andik ekarria zan urte bi aurrerago; eta emen itxi eban, da mesillan neukan. Da au ikusikeran, txapel oker orrek artu ei eban poza! Da boltsillotik atera moko zapia eta ardura guztiz eldu ei eutsan puntetxutik, baña gomazkua zala ikustian, atsakabez bertan itxi ei eban. Testigu orrek berak be, benetakotzat artu ei eban lenengo ikusian.

Jaso eben agiri orren ordain bat emen daukat aurrian. Onan dau bere asikera:

141 Comandancia de la Guardia Civil. 4ª Compañía.

Acta de registro domiciliario.

En Marquina (Vizcaya) a las doce horas del día 29 de Diciembre de 1973...

Emendik aurrera, dana naste bat bigurtzen da neuretzako. Guzti onen azpian, amairuk izenpetuta dago. Ondoren esan eusten:

-Usted nos tiene que acompañar.

Da eurekin Markiñako kuartelera. Eta an egoan nire lagun ori be; niri legez bardin egin eutsen oni be. Zulo banatan sartu ginduezan, da andik laste-

rrera, *jeep* banatan artu eta Gernikara. Emen be, kuartelera. Nire ardura guztia, aurreko gabian edo bertan egunian ipiñitakuaren barri jakinda ete egozan neban bildur pixka bat, baña mutik ez eben aitatu. Baña barri ori bizkor zabaldu zan batzarrera deitutako batzurengana, da gabian ezjakin batzuk etorri ei ziran. Jazotakua jakin ebenian etxeke suntuondora bizkor. Besterik zer egin?

Ordu biak aldera Gernikan gengozan. Markiña, Ondarru ta Lekeitio aldeko amabost txapel oker gugaz juanda egozan; da euroatik amairuk tabernara bazkaritara. Eta esan euskuen ia ogi bitarteko bana ekartia nai genduen, da guk, baietz. Andik lasterre-ra, ia eurakin naste jatera juaan nai genduan, da bardin baietza. Au esan euskuenian, an alborago egozan iru paisano jantzik eta morrosko batek diño:

–Eso es mejor: comer bien y quitar miedos para cantar las cosas claras.

–Miedo, ¿de qué? –erantzun neutsan–. No hay ningún crimen por medio. Y además, con la de hoy voy por cuarta vez detenido; he sido juzgado, pedida la pena de muerte para mí por el fiscal, firmada la cadena perpetua y he pasado cerca de cuatro años en prisiones.

Gizon ezezagun orri orrek esanda, jarraitu geuntsen bestioi bazkal-lekura, amairu txapel okerren tartian: baserritar bi, milla metro inguruko bidian oiñez, *txaka-txaka*, kuarletek *Abuelo*-ren tabernara bitartian. Batek baño geiagok esango eban, nigaitik batez be erren aundia egiten neban da gañera urte asko nituana bistan:

–Ollo lapurren batzuk?

Bazkaldu genduan danok alkarregaz. Alkarren arte orrek lagundu eutsan bazkariari on egiten. Akeitik ez eben maira ekarri, gura ebanak mostrodorean artu eban; guk ez genduan artu, eta barriz kalez kale. Biarbada, gu erriaren aurrian lotsatu

gaitezan asmo guztiz ebizan. Olan bazan, oker egozan.

Barriz kuartelian. Aurretik paisano jantzita egoan morrosko ori, kapitan jantzita, da gañera galako jantziagaz. Berak esan eustanez, arratsaldian Carrero Blanco-ren mezia eukan, amar egun aurretik il egin eben eta. Nik bazkaurrian ixilleko guztiak autortu neutsazan ori, kapitan Hidalgo zan, da zigur nago nik esandako eta geiagoz be ondo jakitun egongo zala. Gela zulo banatan sartu ginduezan, eta urrengo egunekeo amaikak arte ez genduan alkar ikusi.

Bazkalonduan, Hidalgo ori sartu zan nire gelara beste bategaz. Asi jatan neuk buruan be enebazan gauzeekin, erdi mozkortuta dagoen lagun aundi batek beste bati esan oi deutsazan moduko kontuekin:

-Usted sabe vivir: según tengo entendido, hablar bien a los caseros y barrer para casa...

Eta zenbat orren antzeko, konfiantza guztiz baliendu legez! Nire erantzuna:

-No le entiendo a dónde va, porque ese camino que dice que llevo yo suele ser de corta vida, y yo cincuenta años llevo con la misma línea.

Egin eustazan berba guztietatik, nigaz tanteo bat egitera etorri zala atera neban. Lagunari esan eutsan bera Carrero-ren mezara joiala eta, nire euskerazko idazti guztiak Bermiora eruan da tradutzeko gaberako agindu eta bakarrik itxi ninduen gabeko amar t'erdiak arte.

Illuntabarreko edo olan, seme gaztia etorri zan, da oni ogibitarteko aundi bat ekarri eragin neutsan. Gabeko bederatziak pasa arte, nire laguna euki eben galdera eta tira-bira utsetan. Da oni be andria etorri jakon etxera eruan al baeban, baña ezetza, eta etxera ixilik; gañera onena lenengoz zan, eta kezka geiagoz.

Lagun ori gelara, eta ni aparteko sala orretara eroan ginduezan. Mai baten onduan ezartzeko agin-

du eusten. Eskuma aldetik jarri zan Hidalgo, beste aldetik teniente bat, aurrez aurre beste teniente bat idazteko tresnagaz, da beste amarren bat saloian atzerago jarrita eta abar. Asi ziran zirika ortik eta emendik katxondeo utsetan; neu be poztu egin nin-duen bide orretatik astiak:

Markiña aldian lotsia galduta egoala, parrokoa da beste bate, abadiak, biak neskakin olan da alan ebizenak, eurak ondo ekiezela zer egiten daben...

Da nik:

–Gaur zuen agotik lenengoz entzuten ditut ibille-ra orrek. Abadiak gizon da andra guztien ardura bardiña dauka, eta niretzat ondo dago.

Eurak:

–Plaian be bai?

Nik:

–*¿Andan en pelota o qué?*

Eurak:

–*¿Le parece poco en bikini?*

Onako funtsik bako gauzak. Eta aurrera! Amar t'erdiak ziran asi giñanian, da bixaramoneko amarrak pasa arte.

Beiena-gaz egin ziran esne-ugelga ta tira-bira guztien errudun giñala autortzia gura eben. Kapitana asi jatan galderak egiten:

–*¿Usted ha sido el organizador de la actual huelga?*

–*No, señor. Navarros empezaron y Guipúzcoa y Vizcaya se sumaron.*

–*Pero, usted ha sido uno de ellos, que les ha dicho a los caseros que no saquen la leche.*

–*Yo no he ido a decir nada, pero a todo aquél que me preguntaba qué había que hacer con la huelga, yo le decía que mi leche no la iba a sacar hasta que los navarros no la saquen.*

Baña idazten egoanak nik esan legez ez eban idazten. Irakurri neban, da batekoz beste: “ez aterateko agintzen neutsela”.

–Yo no he dicho así, y escribe en balde, que no firmaré.

Ori itxi, ta aurrera, erdi katxondeo eta abar.

“Persona peligrosa”-ren famia neukala, ETA-ko bat be etxian gordeta euki nebala, peligroko gauzak ondo gordetan dakidala, ETA-ko taldiak eukiten nitala etxian... Amairik bako errosarioa.

Alako baten, papel bat eskuratu eta diñoste:

–¿Cómo pretende usted ser concejal de Franco con las cosas que dice en los versos, que una de ellas dice que para pisar Euskadi trajimos moros, italianos y alemanes? Y, ¿dónde nos deja a los españoles? Y eso, encima que me olvido, que con todos éstos, noventa días nos costaron invadir cincuenta kilómetros. Con todo esto, ¿cómo puede ser uno concejal?

–Me han pretendido y lo acepté. Y más de uno me ha echado a la cara que he cambiado de chaqueta. Estoy nombrado; a primeros del año entrante entrábamos a ejercer. Pero con todo esto de la detención y demás, no podré ejercer, y todo esto quedará para la historia, y así estoy satisfecho. Voy a ganar mucho en lugar de perder.

Da au entzutean, an atzian egoenetako batek diño:

–Ese tío todavía quiere más fama.

Onan, aurrera joian gaba, onako ganora gitxigaz. Neuk be, katxondeuari jarraitziarren, galdetu neutsen:

–Pero, ¿ustedes no han encontrado allá en mi dormitorio una pistola?

Iñok mutik be ez, da nik barriz galdera bardiña. Da an aurrian, erdi lotan egoan batek diño:

–Sí, pero de goma.

-Pues a mí me sabía como si fuera de verdad, que viendome apuntar con ella, perdería el culo huyendo.

Onek ez eban aurrera jarraitu.

-¿Por dónde saca usted que Euskadi no es España?

-Yo no he tenido oportunidad de estudiar historia, pero, he leído aquí o allí que Euska Erria existía siglos antes que la llamada España apareciera, y que se gobierna por sí sola. Mi padre decía que Euskadi estaba usurpada por la fuerza entre España y Francia.

Barrero Beiena. Emen atera gura eben zerbait; da gero konturatu nintzen ugelgaren errua guri leporatzeko bidetik asi baziran, itxura utsez baño ezpada be, Beiena-ren kontra gugaitik atera gura ebela. Zurrumuru gogorra ebillen Beiena-ko nagusia eta Hidalgo alkar apurtu nairik ebizela, eta jokera onetan agiri zan zer edo zer gogorra egoala euren artian. Hidalgo-k esan, da bestiak idatzi, Beiena-ko zuzendariren kontra:

-Baserritarrei esne garbia eta gradu aundikua ekarri eragin, berak erriarentzat esnearen koipiakin mantekilla egin, da graduan ipinteko, kaballuen koipea sartu.

Au eta beste zikinkeri gaur gogoratzen enazanak ipiñi eragiten eutsazan agiri orretan. Sinistu be eziñekuak ziran.

Da guzti au guri bioi izenpetu eragiteko zala esan, da nik erantzun neutsan, or idatzitako guztian gauza bat egoala nik nekienik: esne ona ta garbia ekarri eragiten euskula, "beste guztian dituan agiri-rik, ez dot izenpetuko. Orrek zikin guztiok egiak dirala dakienik badago, ori topau biar da alik eta bizkorren", erru gitxiago dabenik espetxetan badagoala eta.

Gabonetan eguna nekez argitzen dau, baña egin-da egoan. Gure aurrian ziran amarretatik, bi geratu

ziran bakarrik; aspertuta edo, alde eben beste guztiak. *Beiena*-ko zuzendaritzaren aurka guk izenpetzia nai badau, onan izan biar ebala esan neutsan: esnia ona eta garbia ateratia egoala ondo, baña *Beiena*-ko bazkide legez geunkezan beste eskubide guztiak zapaldu egiten euskuzala; geuk aukeratu biar genduzan Juntako gizonak, gure barri barik, berak aukeratzen euskuzala berari komeni jakozanak; batzar nagusietan ez euskula guztiak entzuteko tresna bidez berba egiten isten; geienetan, berari konbeni etxakona danian, mikrofonua mutu:

–Berba egin biar dabena derrigor bera izan biar dau, bere semia edo beste bat geiago dakielako eta abar izan biarrian; da berak gura dituen gizonak aukeratzia danian, bardin da aita, semia, morroia nai auzokua, izenpetu eta aurrera! Da beste onako asko. Da onekin danokin egiten dozun agiria izenpetuko dot, eta nire lagunak be baietz uste dot”..

Da azkenez, ainbat tira-biraren ondoren, azkeneko au ondo eragin eutsen da izenpetu genduen bion aurrian, geuri be irakurteko emonda.

Derrigor zer edo zer egin biar izan eban *Beiena*-ko zuzendari orren kontra, da au egiteko, ez lo eta ez jan ogetalau orduan.

Amar t’erdiak aldera, paisano egoan bategaz bialdu ginduezan. Da onek, aguazillen kuartelien gela illun baten sartu ginduzen jueza etorri arte. Da aguazillei itxi eutsen guri artutako karta ta abar mordo bat; beste batzuk atzera neuri be emon eustezan.

Ordu batak aldera etorri zan Juezeko idazkaria eta atera ginduzan. Paper oiei ikusi bat emon eutsen da gañera bera euskalduna zan, da papelok Madrillera bialtzekuak ziran. Da tratu txarrik emon badeuskue galdetu eban, da ezetz. Onan, etxerako aske giñala esan euskun. Geratu jakun kezkatxu bat, etorriko zala multa bat edo... Baña ez zan ezer be agertu. Kontzejaltziek be egun gitxira asi ta aurrera.

Andik ille bi-irura, Italia-ra amar eguneko ibillaldi bat ipini eben Markiña ta ingurukuentzat, eta arantzen ni be. Autobus baten irurogei lagun ingurujuan giñan.

Mediterraneo itxasora jo, ta andik Erromaruntz. Erri guztiak ikusiaz da uri nagusi ori arakatur pasau genduan 1974ko Aste Santua. Egun orretan, ikusle eta zer ikusia be, ugari egoten da: San Pedroko eliza, bere enparantza ondo betia mundu zabaleko lagunez, *Coliseo*-ko Kurutz-bidiak, danak ikusgariak, sartzeko kontagarri. Pablo VI-ak emon eban Pazko meza entzun genduen, Aberri Egunagaz be gogoratuaz. Lo eta jan egiten genduen etxe aundi ori, olan oporretan dabizenentzako leku berezia da. Monjak dira bertako zuzendari.

Pazku arratsaldian, denpora guzti ori, iñora urten barik, erromeri utsian egin genduan, radio ta kaseten bidez, dantza ta abesti, euskal giro uts baten.

Pazko bigarren goixian urten genduen Italia goialderuntz, bueltan, etxeruntz etorriaz: Venecia, Milan, Niza, da onuntz, Monaco ta Monte Carlo ta abar ikusiaz. Franzian, erri istoriko baten gaba igaro genduan; enaz gogoratzen bere izena. Aita Santu bi batera egon ziranian, batek erri onetan eban bere egonlekua. Da emengo zeetasunak aztertu ondoren, Lourdes-era, eta emendik etxera. Benetan ibillaldi atsegiña, eta ikusiaz batera, ikasgarria. Bigarren porraldia be juan da, eztadilla izan azkena.

Barrero Ameriketako

Eguzkiak, ondoren lañua ta euria be baditu, eta urte åretako abenduaren lenengo egunetan aspalditik aginduta neukan eskumako kaderako ebakuntza egin neban, desgastiarena. Aurreko egun baten erakutsi eusteaz burdin toko bi: azurra kendu eta traste orrek aren lekuan ipiñi. “Agur Tomas! –esan neutsan neure buruari–, jua dituk ire ibiltiok!”.

Dr. Bearan-ek, Virgen Blanca-n egin eustan. Arreba monjie egon zan zaintzalle etorrite. Bera be, amasei urte Rodesia-n eginda, ebakuntza bat egiteko gertetan ebillen Madrillen; da onek esan eustan bost ordu iraun ebazala nire ebakuntza orrek. Osagilliak oso ondo urten eustala esan eban, baña barriz oñez ikasten egunak jua ziran.

Gabon egunez etxera bota ninduen, baña ondiño enitzen asko. Aste guztietan ikustera da sendagilliarantzat ondo baño obeto, baña nik makillak jaurtie gura neban, da erren barik ibiltie. Da medikuak, ori olan izateko urte asko aurretik egin biar zala, eta orain beti makilliagaz ibili biar nebala agindu eusten, da alan jarraitu dot. Errena, eta gañera ebakuntza orren ondoren, aurretik baño obeto, gañera-ko amar bat urtian beintzat.

1975eko maiatzak lenenguetan arreba ori operau eben ulzera gaizto bategaz.

Da ain subertez, Udaletik San Isidro Feriara kontzejal bi juateko aukera emoten dabe, eta gastu guztiak Udalaren kontuz, eta au aprobetxau neban bes-

te lagun bategaz. Da onan, tiro batez txori bi bota nituen, da gizenak gainera: astie osorik, bide eta jan da lo, erriaren kontura.

Ebakuntzatik zortzi egunera ikustera eldu nizen; da oso ondo eta itxaropentsu egoan; da urrengo egunian bialdu eben bere etxera. Ta bere moduz jagi, jantzi ta abar egiten eban. Egunik geienetan juaten giñan; da geu beragaz gengozala artu eban Buenos Aires-ko lengosuen eskutitz bat esaten pis-ka bat sendatzen zanian il bat edo bi egitera juateko eurengana, juan-etorria eurak ordainduko ebela eta. Da bera zan ibilte zaliagaz, poz ikaragarriz artu eban albiste ori.

Eta, ni beragaz juatia gura eban. Nik be atxaki asko ipinten neutsazan: bateko, urte bi be ez zirala Ipar-Amerikan da gero Italian ibili nintzela; ondiño il gitxi ebakuntza egin nebala, eta olan milla atxaki; txintxiña be, olako baten... Baña neu be bere antzeko, eta kili-kili. Eta erdi baiezkoa legez emon neutsan, eta arentzako baiezko osua zan nire erdia. Maietzeko berbak ziran onek.

Abenduaren lenenguetan, Buenos Aires-en da bere inguruetan genbizan; sei familitan parte artzen genduen. Anaia alargundu barri au bakarrik tintore-ria baten; bere semie eta alabie, euren lekuetan ez-konduta; beste iru lengusuak, onek be irurak ez-konduak, kanpo ta piñu sail aundien jaubiak: Tigre-n, aserradero aundi bat euken, "Aserradero Euzkadi" izenekua. Onek gogor txanpon aldetik. Sei familiok, Bilbotik Santurtzerako antzera danok, eten bagako soka antzera, uri nagusian asi eta Tigre ibaia jo arte. Sei familiak alkartzen giñan leku batera jai nagusietan, da Gabon aldian asko dira orrek be. Parrillan erretako aragi-jan ugari egin genduzan.

An udia zan legez, bero gogorak be artu genduzan. Andik bosteun bat kilometrora dagoan plai batzuetara eruan ginduezan: Mar del Plata, Necochea,

Kent, Mar y Sol –au Oriente errian dagoana, uririk onduan eztaukana–. Urrineko ibilliok orrek ziran. Urran eztago ondartzarik. Uri aundi inguruko ur guztiak dira emen ujeltietan lakuak. Paraná ibai aundi orrek dakartzanak Brasil-en sortzen dauz–. Ibai onetatik asko pasau giñan lantxaz Rio Carabelas-era. “Islak” esaten deutse eurak. Noz-beinka urak artzen ditu. Lur aberatsak dira.

Emen dauke iru lengusuok euren jaiotetxie eta beste lur zati aundi bi: leen, fruta artzen zan, baña orain dana piñu eta txopo. Arbola-lur onak dira, piñu eta txopo eta beste bat “sauce” –saatsa-diñotse-na. Azkeneko au papelgiñako geienbat.

Beste ibiliok, emen uri nagusian ta abar egin genduzan. Ikusgarri asko ditu, ikaragarri apaiñak eta zabalak, jardin, baratz da kale. *Laurak Bat*-en bein baño geiagotan egon giñan.

Beste apartekorik, egun baten, *Luján* ikustera juan giñan: Arjentinaren zaindari daben Ama Birjiña, ikusgarria benetan.

Emengo museo baten dagoan egazkin bat ikusteko aukera izan genduan, gu oso gazte giñala, ainbeste berba eragin ebana: Franco-ren anai batek, *Mecánico Rada* ta beste irugarren batek egin eben abentura ospetsuan erabilia. Egazkiña an dago, bere bidaiaren agiri guztiakin; “*Plus Ultra*” edo olako deituraz aditzen da. Ikustia merezi dau: garai areetako ainbeste ospe emondako egazkin eskeletua ikusi eta gaurkuak ikusi, badago alderik. Barriro diñot, ikustia merezi dau.

Oporrak aurrera ta atzera bigurtziagaz asmotan asiak giñala, Ipar-Amerikara telefonoz berba egitie subertau jakun. Onek, monjiari *ya-ke-eta*, oporretarra urten daben, bide batez, eurekgandik bueltan etxeruntz juateko plana ipiñi euskuen.

Arek be, burua gitxi kantsetan eben: guk ordainduta geunken atzera Madrillera, baña etorritako bi-

detik. Da egin genduzan azterketak: Madrillera jua da andik Madrid-Reno jua-eterri osua eskatzen euskuen. Garbi egoan: bertatik jua edo Madrillera eterri ta jua, diru bardña biar zan. Gañera, dola- rretan ordaindu biar, da guk ez geunkan diru ori, tta ez gitxiagorik. Baña erek, origaitik ez isteko, berak ordainduko ebezela bidaiak: osabiak monjiarena, eta alabiak nirea. Orrelan, laster genduzan eskuetan garbitasun guztiak.

Bide au zan: Buenos Aires, Lima, Colombia, Me- jiko, Los Angeles. Emen afaria eta logelak ordaindu- ta, da goixian lenengo orduan, egazkiña Reno-rako. Egotik Iparrera guztia, gainetik; da euretatik asko- tan, lur gainian *txaka-txaka* be ibilteko aukera izan genduan.

Barriro il bat pasau egin genduan Reno-n, orain- gotan negu gogorrian. Uurte bi ziran udan an egon nintzala. Olan, ondo jakiñian nago udan zelan bero- tzen dabean da neguan be benetan otza dala. Orain- goan mendi-ibili gitxi egin genduen; baña *Virginia Si- ri* ta *Lai Tajo* ta orrek, ondo ikusi genduzan.

Joko-etxiak geiago aztertu genduzan, da jokatu be, beti egiten genduan geiago edo gitxiago. Galdu-iraba- zi, gora-bera gitxikua da diru bajuagaz jokatzen bado- zu. Ez nitzen arduratu dolarra batera jokatzeke baño makina aundiagorik dagon ala ez; iñoz egon nitzen be- gire dolar osua jokatzen dabenei, baña ez neban iñoz ikusi parrastada aundirik ateraten. An dauka idatzita beste makiña guztiak legez, "Gorengiak urteten ba- dau, dolar osokuarenaz betiko aberats". Eztakit zigur esateko moduz, baña millo dolarra dala uste dot.

Egunak eztagoz geldi, eta bixaramon goixeko be- deratzietan onuntzko egazkiñe artu biar genduan, da joko-etxe nagusian bertan artu genduzan txutxi- lleri batzuk ona ekarteko. Berrogetamar zentaboko bat eta ogetabosteko bat geratu jatazan eskuetan, da esan neutsan arrebiari:

-Biok jokatu biar ditugu golpe banatan.

Ogetabosteko makinara jua da sartu neutsan, da uts. Urreratu giñan berrogetabostekora. ASn ziarduen batek sartu ta sartu, eta beti uts. Onek alde ebanian, esan neutsan¶

-Nik sartuko dot, eta zuk palankiai eragin.

Eta, egiñagaz batera, ogetabost eta berrogetabosteko aurreko platerera, da makiñia txilin joka! Da goian marketan eban larogetabost dolar zirala guztira atera genduzanak. Da makinaren txilin otsera etorri zan enkargadu bat, sartu eutsan dolar erdi bat eta ixildu zan tresna ori. Eta emon euskuzan larogetabost dolarrak, eta gu, barre purrustadaz ta pozik, berrogeina dolar pasauz biok irabazi genduzalako. Banandu genduzan, da geiago ez genduan diru aundiz jokatu, denpora emokarriz beti legez baño.

Etxera giñanian, kontagarri geunkan; baña guzurra zala uste eben bai alabak da bai osabak. Eurak oso gitxiten jokutzen ebela, baña iñoz ez eutsela batera ainbesterik atera. Osabiak, barriz, irurogei urte an daroaz, da iñoz bere diruagaz ez ebala jokatu esan eban; iñoz da beti jokatu dabela lurrian jausita topautakua bada, besterik ez. Baña olako parrastadarik ez ari be, berak diñoenez.

Biaramonian zazpiretan egazkin-zelaiian egon biar giñan. Oeratuan ez egoen edurrik mendietan, baña goixeko lauretan irolera jagi nintzan, da aurreko etxiaren tellatuan edur geruzetxua asita egoan. Andik ordu bira, oin batetik gorakua egoan; da botaten egoanagaz, lau metrora egoana ez zan ikusten. Alabiek buelorik ez zala egongo uste eban; telefonoz deitu eban badaezpada. Artian ez egoala ezezkorik erantzun eben.

Ordua zan, da jua giñan osaba-izekuak euren karruagaz da gu alabiagaz, argiak biztuta eta karakolaren pausuen. Alako botaterik! Zorruak egazkiñera genduzan, da geu be agurtu giñan geuriokin, da

barrura. Orduak pasau, ta egazkiña geldi; juan beste ordu bat, eta bardin. Da alako baten, ez egoala ur-teterik; da urten da aterpera giñanian, alabie bertan badaezpada be, ta beragaz etxera, metro erdiko edurretan.

Arratsaldera atertu eban. Da bixaramonian ordu bardiñian jagi giñan, da barriz edurra zan naikue gogor, baña ez aurreko egunian bestian, da urten genduan: Reno-San Francisco-Denver-New York zan ibili ori. Ontzirik aldatu barik izan zan.

Ego aldiñ dago San Francisco, da emen be egazkin-zelaia zuri egoan, da bestietan eztago esan biarrik. *Nuayorr*-era –New York–eldukeran, lurra artzeko laiñu baltz artera sartu zan, da ordu erdi inguru an. Irureun lagunetik gora giñan barruan, da euli baten zaratarik ez zan entzuten, beian tellatu zuriak eta argiak ikusten asi giñan arte, eta gañera ur-urrian. Zer ete egoan gure buruetan bitarte orretan?...

Oraingo onetan ez genduan ibillera txikienik egiterik izan. Oñak lurrian be ipiñi barik, saloi batera pasau giñan, da arratsaldian geuk Madrillera artu biar genduan egazkiña eun metrora ikusten genduan. Orduan ez neukan bildurrik uri aundi ori guztiz arakatzeko be, naita neu lengo aña nitzen; baña arrebiek inglesa ondo ekian da... Ibili gogorrak egin genduzan, da neure aldetik ardura gitxi arpegia emoteko, lagun ona neukan eta, batez be izkuntza aldetik.

Goixian goix giñan Madrillen. Monjari bazkaria jan da Bilborako trena artu genduan. Arrebia Burgos-ko uri nagusian, euren etxian, geratu zan, sendatu zan ezkeroztik emen egoan da. Euren taldiaren izena, "*Hijas del Calvario*" edo "Kalbarioko Alabak" da. Nik aurrera jarraitu neban; da anaiaren etxera etorri ziran etxeko kotxiagaz semie ta lobatxu bixek. Agur nire opor bikote orri!...

Eguneroko burruka

Barriro bizitzak dituen eguneroko burrukara: biarra: al dan negurrian, etxian; da kanpotik beti neban loturen bat, eta orduan baten lekuan bi nituan.

MIBA-ko lendakaritza bata, onek be beti emoten ebazan arazoren batzuk, baña ez sortukeran emon euskun bestekorik. Baña alkartiak ondo doiazala eta, ezin leikez gauzak egintzat legez baztertuta itxi, ugertzen asiko litzake eta.

Udalian be barruan nintzan, da erdiok edo geiago atzeko atetik erdi tranpan sartuak giñan, da alako aldia sartzan asita egoan diktaduraren gain. Frankismua kili-kolo egiten asia zan.

Olo-lokiari jazoten jakona ikusten zan: beti egoian egoten aspertuta, azpitik urten da lepora igoten daben txitak legez, erria alde guztietatik oztopuak ipinten ebillen, bakotxak al daben negurrian, berrogei urte ta geiagoan ogibide erreza eroan daben lagunak ebezan leku garrantzitsuen guztietan da beti alan izan biar ebala buruan ondo barruan ebenak. Udal guztietan be, ori jazoten zan.

Da alkatiak, eunetik larogetaemeretziak atzamarrez egindakuak, da ingurukuak be zer esanik ez. Gureak be betiko bere bidetik aurrera juatia nai. Baña gugaz ori ezin eban egin, da alkatetzagaz batera Udal itxi eban. Orduan gure artekua egin genduan, da gaur arte bera dago, amar-amaika urte geruago, erriak alan aukeratu dabelako. Datorren ekaiñian be, erriari aurkezten bajako, bardin geratuko dala-ta nago.

Aurreko ori buru zan arte sortu zan alkatién mo-
bimentu gogor bat. Euskadiko alkate-mordoska ar-
tean, Rejimenaren aurka, Patxi bera be bizi zala, ba-
tzar gogorrak egin ziran.

Euretatik bat, Bergaran. An giñan gure Udaleko
geienok, alkatiáz eztabaida gogorrak erabili ondoren.
Bergarako eliza nagusia gañezka mezatan, ildako
abertzale guztien alde. Udaletik eleizara, Udal bako-
txa bere erriko ikurrak da gañera Ikurriñakin; da
bardin meza ondoren bueltan Udalera. Udal da bere
inguruko enparantzà, lagunez da ikurriñez beterik.
Alkatiak irakurri eban agur luze bat, oso aberkoia,
“Gora Euskadi Askatuta!”-gaz amaiera emonaz. Or-
du bat eta geiago enparantzà orretako ekiñaldia.

Askatasun osua eskuratua egoala emoten eban.
Siñistu be eziñezkua zan Patxi bizi zala izan leikenik.
Bizi zan arte kokuak sortu jakozan. Nok esan amar
urte aurrerago olakorik? Egun arek komunikabidie-
tan da abar, burrundada gogorra atera eban, da egu-
rra gogortuten ekin eutsen.

Andik il batzuetara Etxarri Aranazko deia egin
zan Euskadi guztira. Bildur da guzti be, jente asko,
aurrekuan baño geiago, bideratu zan. Baña au piko-
tara bota eben. Aurreko egunian da gabian mendiz
sartu ziranak bakarrik barruan. Kilometrotako soka
giñozan gure aldetik, da bestietatik be antzera izan-
go zan. Albiste bat emon eben gure aldetik gengoza-
nentzat: “Batzuk Arrasateko Udalian, da bestiak
Bergarakuan”. Da bigarren orretara juan giñan; da
aurrekuan antzera, alkatiak irakurri eban Etxarrin
irakurtekua zan agiri ori. “Eusko Gudariak gera”
abestuaz, amaitutzat emon zan. Da otz egiten eban,
da tripa utsik gañera, subertie izan eben inguruko
janlekuok. Sabela eta soiña ondo berotu genduzan-
nian, abestu be asko obeto egiñez etxeratu giñan.

Aitatu ditudan ekintza biok alkatetzari itxi aurre-
tik gertatuak dira, baña laster itxi eban bere ordez-

kuaren eskuetan. Baña onek, erdi edo oso bakarrian ikusita, mesedez laguntzeko eskatu euskun: berak be dimitidu egingo ebala, baña dimixiño orren baimena etorri arte. Eta alan egin zan; gaiñera gugaz ondo konpontzen zan aurretik be, da aurrera bere aldia amaitu arte. Ziñegozi jarraitu eban.

Emendik aurrera, askatasunari tiraka eta begira ziran gure udal-batzarrik geienak. Gobernadoreak *inpugnatutakoen* agiriak be elduten jakuzen. Patxiren agurra urreratuaz ikusten eban erriak, da berak be bai, da guztia ondo lotuta gura eban itxi.

Ondoren agintza artu biar ebenei zer egin biar eben erakusteko, Txiki ta Otaegi eriotza zigorrez epaitu eta garbitu zituen, 1936tik 1940rako urtietan egoalakuan. Errian be, asko indartsu jagi ziran. Elizaren aldetik be, ekintza ori gaitzetsi egin eutsen: ez zan konturatu Patxi, *Cardenal Gomá* eta *Segura* eta aren lagun asko leenago juañak zirala, da berak be larogeitaz urtiak eukazala eta arengana juañ biar ebala egun gitxi barru. Guzti ori ezer eztala, mundu zabaleko erririk geienak –danak ez esatiarren–jagi jakozan ekintza orren aurka. Emen be ez zan konturatu Hitler da Mussolini ilda egozanik.

Utsegite guztiok aurrian pilloratu jakozan azken egunetarako. Pozkorragorik, atsegiñagorik da gozoagorik be ikusita juañ zan, askorentzat zorionez da beste batzuentzat naigabez, batzuk barrez da besitiak negarrez. Goikuaren legiari iñok ezin iges...



Tomas, baserri-lanetan. Ondoan, Aitor Inda.

Israel-en

Beste ebakuntza bat egin biarrian aurkitu nintzan bat-batian, esateko moduz. Neuk igarri neutsan ernia zala. Ta sarri entzunda neukan zenbat eta barriagotan egin, oba zala, eta *Lagunaro*-ko segurutik juan nitzen Gimon-ena. Eta onek ipiñi ninduen biotz eta gañetiko zeetasunak aztertzen, da egun gitxira egin eusten ebakuntza. Oso ondo juan zan legez, laster nitzen etxian.

Gauza bat gogoratzen jat ebakuntza ori burura jatorrenian. Bixamonian etxera aginduta nenguen. Barri ori artu eta ordu bat barruan, osatetxe guttian, ao batez, Ibarra, egun batzuk aurretik baituta, *sekuestratuta*, eukena, ilda aurkitu ebela mendian. Bazan gaitzetsi biarra egunkari, radio, telebista ta abarretan, baña egiña eginda. Egintza benetan tamal da lotsagarriak gure erri maite onen arpegia loitu besterik eztabena egiten. Da au azkena izan baltz, gaitz erdi...

Irurogei urtera arte osagilleak auzokuentzat ziralakuan egon banintzan be, irurogetamarrerako, ebakuntza bi egin biar. Baña nire ibili edo opor guztiak irurogetairu urtetik gora datoz, da emen dator irugarrena.

Aurkeztu eban geienetan edo betiko asmatzalle onek Israel-erako ibillaldia, amar-amabi egunerako, ta ni be barruko laster nintzan entzun nebanian. Da gañera, nire arreba monjie sendatu zanién, ara bialdu eben: tiro batez bi txori jausten ziran emen be. Ta, ibillaldi oso atsegiña izan genduan, zer esanik

eztago, kristau erriaren zuzter guztiak lurralde onetan sortzen diran ezkerero. Da gañera, gure elizetako kulpitu zarretatik, zenbat trumoi ots eztozuz entzun, batez be Garizuma, Aste Santuetan?

Eldu zan eguna. Goixian, naikue goix, autobuskada baten Sondikara; eta emen artu genduan egazkiña, da Madrillera. *Alitalia* deiturazko egazkiñak, zuzenian Atenas-era.

Emen lurra artu genduanian, itxaroten geunkan autobus bat da gañera guri gia egin biar eban emakume bat, Grezia-ko uriburu entzutetsu orren garrantzizko zeetasun guztiak erakusteko. Erakustaldi bat emon euskun goix parteko orduak aprobe txauaz; eta eruan ginduezan jatetxe aundi batera, eta emen bazkaldu eta barriz autobusera. Gia ori gazteleraz ondo mintzatzen zan, dejetxuren bat eban arren. Da arrasti guztixe barriro beragaz, ikuskizun bakotxari bere zentzunaren zeaztasunak guri azalduaz. Erri onetan dagoz oso istorikuak diran gauza asko eta asko; da euren artian, "*Colinas de Atenas*" dabela izena uste dot, oker ezpanago.

Zarraren zarrez desegiñez dagoz, da onek zaintzen ardura guztiak darabillez. Begiekin ikusteko eztauke besterik, direla arrizko arku eta monumentu batzuk, baña liburuetako gizonentzat zentzu aundia dabe, eta onek ikustera, egun guztietan doaz mundu zabal guztitik, da andik pasetan diren guztientzat be bai, guri alan emoten euskun beintzat. Aren inguruetan ez dozu aurkitzen ez arritxiñarrik be jasoteko, da ez autsik. Atera kontu zelan arduratzen diran uskeri uts dala emoten daben ori zaintzeko.

Gaberuntz giñan; da otelera eruan, da an agurtu ginduzan emakume orrek eta autobusak; da gu, afaldu eta lotara.

Goixian, illuntabarrez artu genduan egazkiña. Mediterraneo pozu orren gainian ordu bi pasa ondo-

ren, *Telavit*-en –Tel Aviv-Yafo–lurreratatu giñan, eguna barri zala ondiñok.

Emen, bardin: autobus bat itxaroten geunkan, da emen be beste gia bategaz emen egin biar genduan egun guztietarako. Ain subtertez, Aita Uriarte franziskotarra zan, Dimako semie. Gure gerran be kapillau ibillia dala uste dot). Urkiolan eskuko lergailluak eskumako eskuan errementau eutsan, da eskumotz geratu. Da arrezkeroztik Jerusalem-en gia dabil; berak esan ebanez, lau izkuntzatakuak ibili al dauz biar orretan. Ba olan eztau paro bildurrik an...

Lenengo erakutsi euskuna, uri onen inguruan, San Pedroren jaiotetxia zala ta aretzaz bista baten emon euskuzan zeetasun batzuk.

Da baguaz Jerusalem-era bidian, da bi-iru orduko bidia edo geiagokua da, eta bide guztian etxe edo auzo gitxi ikusten da, baña bai ondo landuta eta zainduta dagozan igali, naranja, sagar, maats, melokoto, eta zer ez aberastasan? Moeta guztikoak ardi, abelgorri; zelai ta belar...

Eldu giñan Jerusalem uri nagusi ingurura. Da erri orren arresiak, *murallak*, ur-ur geunkazan. Jettsemani-n gengoazan. Emen ikusi genduzan eleiza bi. Eta emen asten zan Jesusen apalosteko otoitz-leku: olibo-zugaitz aundi ta urte asko dituen orrek millak urtiak dituela ta abar. Emen, Judas-ek fariseuen eskuetan etxi eban Jesus. Emen gure gia orrek berba asko egin eban, dudakuak diranak dudako legez, da egizkuak egiazko legez.

Da emendik muralla orren bitartian dago sakon bat, dana ondo ikusten zan gengoazan lekutik, da ori zan ainbat aldiz entzun dogun Josafat-eko Zelaia. Bertan, or-emenka ikusten ziran arrizko bola edo atx punta batzuk zirala emoten eben, da illobiak ei dira, antxiñako judutar pariseu entzunenak. Oso txiki iruditu jatan danok egun baten an batu al izateko, gure sinisgaien artian gaur antsitsuena dogu-

na, baña Guztia-al-dabenarentzat eztago ezkuturik da eziñik.

Belen-era bidia jarraitu genduan. Au be muralla orrez kanpo dago, berrogetamar kilometrotara edo olan. Bide au artu ta laster, arresi orren ondotik igarokeran itxaroten egoan nire arrebie gugaz jarraitzeko. Belen inguru orretan ikuskizun asko egoan; da egun bi inguru egin genduzan alde orretan diranak ikusten.

Atzera etorkeran, Jerusalem barrura sartu giñan. Emen, ormez barrutik eztabil ez automobil da ez zaldi-karro: astuak bakarrik, bardin manduak, da lepuan kargak. Barruti orretan biztanle asko dira, eta beste millaka asko dabil egun guztietan, mundu zabal guztietatik, ikusmiñez.

Da zer esan ez barru orretan ikusten dozunez? Biblia eta Idazti Zarrak asko maskatu dituanarentzat, da guri, olako jakintzarik ez dogunontzat, eretxi bardina emotia gatx dala uste dot.

Nire arrebie urte bi aurretik egoan an. Kalbario-tik irureun bat metrotara dauke euren etxia, ta "*Colegio Español*" dau etxe onek izena. Iru egun egin genduzan barru au aztertzen, da iru egun orretan, nik geienetan jan be egiten neban an da lo, iru egunetan eurakin. Egunez, arrebie be geugaz taldean ibiltan zan.

Emengo kale-bidiak ain dira desbardiñak! danak arriz, da lau malla gora, beste iru edo lau beera aurrago. Da onan etxeak be: etxe barruetan, kalietan legez, mailla batzuk gora eta beste batzuk beera ori sukaldera eltzeko, da jantokira, logelara, danera mallak gora eta beera. Da an monjen kolejio orretan arrizko orma senduek ditue, etxerik geienak legez: metro bi inguru sendo, ta leio gitxi. Aurreko patxada dabe askok bistan; gorputza lurpian eztaukenak, arrizkua tellatua be..., Onako etxe asko dagoz barru orretan. Da or barru orretan dagoz relijiño eta siniskera guztietakuak; da jazkerak be, siniskerei dagoz-

kienak bakotxak darabillez. Benetan txirotasuna ta arpegirik urtian baten garbitzen eztabenik be ikusten dala esan leike, nire eritxiz.

Monja-etxe orretan egin nituen iru gau orretan ez ziran ixildu zarata aundizko otoitzak, alako tresna bidez barruti guzti orretan ondo entzuteko moduz, bere erriaren izkuntzan, nik eneban ulertzen-da. Diñoenez, olan dira egun guztietan otoitzak.

An dago beste toki bat, "*Muro de las Lamentaciones*" deitzen jakona, egun guztietan ikusle asko dabilena. Emen, leku banatara juan biar dabe: emakumiak eskumara da gizonak bestera. Barrura juateko burua estalita juan biar da. Nik txapela neukan, baña beste lagunak sarreran artu biar izan eben an daukezen papelezko txoto sinple batzuk, uskeri bat ordainduta. Baña barrura juan barik ikusten dira orma zulo guztietan gizon da andra, zulo orretara euren konpesiñuak egiten; buruagaz ormarri topeka diarduela esan leike.

Barruan ikusten zana, gure aldetik beintzat, mina-zulo bat zala emoten eban. Gela moduko batzuk, da bakotxian bost edo sei lagun, euren jantzi raro batzuekin, ikasketa edo ejerzizioen batzuk egiten-edo. Da onen sarreran egoan zulo oso sakona; ogetamar-berrogei metro ebazala emoten eban. Argiagaz naiku ondo ipiñita dago; bestela an eztago eguzkiaren argirik. Zulo onetara limosna egiteko oitura dago; baña diru monedia, ez papela. Olan ikusten da barrura begiratuta. Guk be, parte izatiagaitik, bota genduan txanpon bat edo beste.

Zulo onen barri azaldu euskunak diñoanez, Jesukristo emen ibili zan baño leenagoko Jerusalem egoan lur azpian, da orretariko bat dala; da antza emoten dau, beste orren antzekuak erakutsi euskuezan barruti orretatik urten baño leen eta.

Guazen orain Kalbario-ra. Egitura naiku zarreko emoten dau; dana estalia dago, eliza aundi bat dala

esateko moduz. Bertarako Kurutze-bidiak nire arrebie dagon lekutik laster asten dira. Kale tarte estu batzuetan zear doia. Geltokietan, 25-25eko plaka txiki bat etxiaren paretian josita, "au edo beste egonaldi da" diñoana. Gure inguruetan bada luju geiagoko kurutze-biderik. Zazpi egonaldi dagoz kaleetan; bestiak, Kalbario barruan. Emen ezta ikusten aparteko lujurik ezertan be: kurutze aundi bat utsik oial bategaz, da aldare bat. Eskallera batzuetan bajatu eta *gruta* estu baten, Kristoren illobia. Emen otoitz egin da oni mun eginda amaitzen dira Kurutze-bidiak. Bariku guztietan egiten ei dira Kurutze-bidiok, da guk be alan egin genduzan. Baña barruti onetan bertan badago beste Kalbario bat be; eztago eztalita, bigarren au egizkotzat gurtzen dabenak gitxi dira: anglikanuak, euretatik batzuk.

Baña zer eztago emen? Auzune aundi bat be emen dago: ondiñok Mesiasi itxaroten dagozanak, Salbatzalle ori jaioteko itxaroten dagozanak. Onen begiak kurutzerik ezin dabe ikusi. Auzo orretan gengoza, nire arrebiek berba emon eutsan an egoan emakume bati, eta arpegi emon eran kurutzia ikusi eutsan bular ganian: atzia azkar emonda igesi eban erantzunik barik. "Rabinos" deitzen deutsela-ta nago. Esi barruti orretan dagoz, da auzo aundia da. Eurak alkarregaz dabe artu-emonik bakarrik, esan euskuenez.

Barruti orretan bai dagoz garrantzi aundia emoten deutsen etxiak, "*mezkitak*" dabela usten dot euren deitura. Euretatik irutan, oin-utsik ibili biar da barruan. Atez kanpo itxi oiñetakuak. Geuk be olan egin genduan. Oneetan bai badagola aberastasunik da lujurik.

Da barruti onen ikuskizunen barri amaia emoteko esan biarra dago or-emenka eskabaziño batzuk dagozela; da, emen agertzen danez, azpi ori orain urte asko erria zan, iñoz Elizako irakurgaietan entzun

dogun legez: Jesusek esan eutsela judutarrei, arririk ez zala geratuko arriren gañian. Da olakoren bat jazo da.

Baita, esan biarra dago ibil-leku inguru guztiak tratulariz beterik dagozala. An aurkitzen eztan txutxilleririk eztago, on da eskas, karu eta merke..., Guztiak ango gomutakiak. Erri orren geiengua lan orretatik bizi dala dirudi. Egunaren ogetalau ordue-tan zabalik dagoz geienak; itxi eziñak dira eta sal-tzeko eta erosteko eztago ordu txarrik.

Jerusalen uri-barruti ori itxi dogu; eta juañ gihan, bitartian desierto naiku aundi dan bat bidian atzera itxiaz, Jordan ibai ingurura. Emen dira Jesusen da bere jarraitzaileen jazoera garrantzitsuenak. Lenengo emen ikusi genduen, *Mar Muerto* deitzen dana izan zan.

Iñoz edo askotan entzun doguzan Sodoma eta Gomorra, Jaungoikoaren zigorraz desagertu ziranak, ei dagoz or ur azpian; da onen inguruan badagoz orain milla urte asko bizileku izan ziranen azterrenak, orain be arduraz zaintzen dituenak.

Itxaso aundia emoten dau, baña gaziaren gaziz eztago arrainik. Gure taldian genduzan iru emakume, bañu jantziz an ibili ziran Donostiako Kontxan balebiz legez. Eta beste geienok be oiñok emen garbitu genduzan.

Onek ikusten jente asko dabil eta onetarako, parapetuz antolatuta, egurrez egindakuak egozan ikusten egoteko bakarrik: eztago txalupa, ez ontzi, ur gañian ibiltekorik. Baiñua artu dabenak eta gura daben guztiak, dutxetako lekuak, janlekuak eta abar egur da olez egiñak daukez. Biarbada, esango euskuen zergaitia egur orri buruz, baña urtiak dira ta eztago buruan. Emen inguruan au da ikuskizun bakar legez, da egon laburra da emengoa.

Itxaso batetik beste itxaso batera ikusi doguna: ikusi doguna larregi gatz-tsua, da beste au, guztiz

motela da arraintsua. Itxas bion bitartian dago Jordan ibai entzun ori. Onen inguruan bada beste ikusgai ugari; da guztioi ikusi labur bana egiñez eldu giñan pozu aundi orretara. *Itxaso* izena daben arren, lago aundi batzuk dira biok.

Bigarren au, *Mar de Tiberiades* deitzen jakona da. Jesus eta bere ikasle eta jarraitzaillien artian diran ibillera da mirari ugarienak emen inguruetan dira. Emen bai ugari dirala arrantza-ontzi eta gañerako bel! Guk emen autobusa ligorrez bialdu genduen *Kafranera*, da geu itxasontziz jua giñan. Da ontzian bostean giñan biarbada, mundu zabalekuak, gu legez taldetan. Taldeko buruak, alan oitura dalako-edo jentiarixilik egoteko eskatuz, berba egin eban, Bostamar minutuko aldi mugatua da guztientzako, bako txak bere izkuntzan, zer esanik be ez. Eztago esan biarrik guztiak gai bateri buruz izan zirala: Jesus ta bere ikasleen itxas aretako ibillerak da ekintzak.

Beste askoren ondoren, gurekin emendik jua zan buruak, abadia batetik da azkarra olakuetan bestetik. Neure lerroetan pertsonen izenik sartu ezpadot be, ementxe sartu biarra ikusten dot: itxaso miraritsu orretako berbaldia don Julianek egin euskula; bakarrik bere izena "geitzia" naikue da. Bestia be euskalduna genduan, baña jazoera guztiak gazteleraz emoten ebazan. Asi zan don Julian ori gure izkuntza zar onetan. Da an egozan belarri geienetan oso ezezaguna zala emoten eban, kuriosidade jakin-min gogorra sortu ebala argi ikusten zan, alkarri arpegira begiratu eta galdetuz. Eztakit gure izkuntza zar onek alako urterarik izan badau toki aretan, baña orain zigur egon beintzat baten baietz, eta zorionak!

Erri entzute aundikua *Kafarnaun*, au Jesusen ekintza askoren leku dan aldetik. Emen gau bat eta egun biren partiak igaro genduzan, ikuskizun asko dan ezkeru inguruetan. Egunak be aurrera joiazan. Ondiño asko zan ikusi biarrekorik.

Itxi dogun erri orretatik ur dagoz, oker ezpanago, Nazaret, Kanaan, Tabor Mendia... Eta beste mendi batzuk be ikusi genduzan, da euren izenakaz enaz gogoratzen, da beste ikusitako askorenak be ez. Abraham-en illobia ikusi genduan. Baña au lenengo bi egunen barruan ikusi genduala-ta nago. Belen aldian, Testamentu Zarreko lurreko Jaungoiko eben gizon au. Ama Maria juaten zan iturria be emen inguruan ikusi genduan; Emakume samaritarrarena be bai, baña eztakit zein aldetan.

Amerikara oporraldian egunerokoa egin neban, da ibillaldi onetan lerro erdi bat be ez. Ez neban orduan onako asmorik artuko neban usterik, da ez gixtiagorik, da orain emen nabil azpikuz gain.

Azkenengo ikuskizuna, Karmelo mendia izan zala-ta nago. Au, Mediterraneo itxas gañian dago. Erri aundi bat eta itxas portu aundia dagoz mendiaren oiñian. Karmelo-tik bajatukeran, erri orretara doian bide azpian, beste ikusgai bat dago: "*Jardín Persa*" deitzen deutse. Emen be oin-utsik sartu biarra egonan barrua ikusteko; da, gañera, emen barruan zengozan denporan ez eguan barbarik egiterik zeure lagunagaz be: auxe danetatik gogorrena! Da urrin da Jerusalem barrutik. Emen dagon erri ta portu onen izena, oker ezpanago, *Haifa* dala uste dot.

Ikuskizun guztion barri amaitutzat emoteko, esan biarra daukat beste ikuskizun garrantzitsu bat, Bibliaren inguruan zer ikusirik eztabena berau: azken urtiotan sortu barria dan Israel-go lurgintzako "*kibutz*" izena daben alkarte entzutetsua. Au ikusten, goixetik illuntze ingurura, da bazkari ederra be euren jatetxe aundi ta ederrian emon euskuen. Gizonak ziran jana aurkeztu euskuenak, da etiketaz jantziak, pajaritakin.

Bazkalonduan, alkarte orren baldintzak zelan ziran berbaldi luze bat emon euskuen gazteleraz. Baña baziran beste talde bi be gu legeaz ebizenak; baz-

karitan be, iru taldiok giñala uste dot. Alkarte orretako baldintzak aidian jasotakuak eta abar diran legez, utsen bat edo beste egon leike, baña onan entzun genduzan:

Alkarte onetan sartu leike emakume, zein gizon; eztauka zer ordaindu biarrik. Zer ofizio, ikasketa edo karrera, edo ez bat ez beste, bakotxak daukan ofiziuari izango dau bere biarlekua. Guztientzat dago zer egiña. Ezkongai bada, ezkondu al dau alkarte barrukuaz nai kanpokuagaz, baña barruko baldintzen barruan. Gaixotasun guztiak osatzeko da biar diran osakari da gañerakoa, dana dago barruan. Semerik badau, ille bian dago beragaz ama; andik aurrera, amak eztauka aur orren ardurarik artzerik; illuntzetan biarrari ixten deutesenian, orduan bai.

Geinenetan gurasuak umiekaz ordu bat inguru artzen ei dabe; da gero, umiak batera ta gurasuak bestera. Urtian il bat ala bi, eztakit, oporrak dituen guztiak ordainduta: errian, mendian edo ondartzan, bakotxak gura daben lekuan, da baldintzen barruan. "Alkartiagaz kantsau dalako edo alde gura badau, eztauka oztoporik: etorri dan legez jua leike, txanponik barik; andik daroan irabazi bakarria Seguridade Sozialaren agiria daroie. Orixe irabazi bakarria".

Entzundako guzti oni atera geuntsana: "*comunismo voluntario*" izan zan bere bautismoa.

Baita, beste *kibutz*-alkarte baten barriak bertan emon euskuezan. Onek be, lurgintzakuak dira. Onek, bakotxak bere familian bizi dira. Da sortzen daben labore, ganau, esne, aragi ta guztia, alkartera pilloratzen dabe, ta emengo nagusi toketan diranak, preziuakin eta saltziakin arduratzen dira. Alkarteko famili guzti orrek biar daben erosteko guztia, orrek erosten dabe. Beste zeaztasun geiago be emon ebezan, baña eztagoz buruan. Gauza bat bai: batzar txikiak egun guztietan, da nagusiak il guztietan. Alan

biar da. Esperimentu gogorra benetan dala esan biar guzti au.

Eldu zan eguna, arratsaldeko bostetan etxerunzko egazkiña artu biar genduen. Aparia, Turkia-ko uri nagusian genduan egiteko; da emen be, Grezia-n egin genduan legez arantzian, goixean ikusi batzuk egin, da gaberako etxera.

Baña azken onek uts emon euskun tamalez. *Telabit*-era –Tel Aviv–egazkiña artzeko orduan gentozala, zurru-murrua eldu zan gure belarrietara: itxasotik tranpaz sartu uste bagian, da ainbat eriotza da triskantza egin ebezala arabiarrak. Da turisten batzuk be tartian illak izan ei ziran.

Israel da Arabia gerra bero baten barruan egozan, da ori ondo genkian. Da urtiak aurretik egozan: Israel-ek, *Sei Eguneko Gerran* Arabia guztia beregandu eban. Da ixte ogei urte dira, geiago ezpadira, eta ondiñok be gerran dagoz. Au argi ikusten genduan ikusketan genbizen leku guztietan, geiago edo gitxiago: metralletak eskuetan soldaduak, lurrian da ainbat tellatu gañetan.

Eldu giñan *Telabit*-era –Tel Aviv–, eta an aurkitu genduan gudari mogimentu itzel bat. Andrazko ta gizonetzko, autobus da kamioietan sartzen ziran da juaten ziran. Gu sartu ginduezan otel aundi baten, ondartzat aundi baten onduan; da buelo guztiak galerazota egozala, eta bixaramon guztia be an. Da urrengo goixaldian, illuntabarrian urten genduan Erroma, Madrid, Bilbora. Ona eldu giñan arratsaldeko ordu bietan; da emen geunkan Rabanete bere autobusagaz, eta etxera, bakez da osasunez.

Ibillaldiaren aintza ta gorantzak aitatuaz laguneren artian, barriz etxeko biar da erriko naste geienetan beti legez murgildurik, da aurrera!



Tomas, etxeko loba bixkiekin.

Franco il barrian

Berrogei urtian gizon da erri eskubide guztiak zapaldu ebazan Patxi il barri zan, da tira-bira gogorrak: batzuk leenguari jarraitu gura, da onetarako almen aundiak euren esku. Baña erriaren geien-gua aldakuntzaren aldeko burrukan murgilduta.

Gaur amar urte geroago baño bat egiñago jokatzen eben aldakuntzaren aldekuak, da eskerrak oni. Askoren bildurra zan gogortasunari emongo ete eutsen *sartena* ondiñok eskutik eben orrek. Baña zorionez, bigunetik, eta naikue bizkor da zabaltasunez, nai ta batzuen aoetan leen baño atzerago gauezala autortu. Da au diñoen geienak aldakuntzaren aldeko taldekoak dira; da guztia, etxiari euren gustoko margua emon etxakolako. Konturatzen ete gara orain anar-amabi urte ixileko batzarretan zer eskatzen genduen? Diktadurarik ez” zan guztion lema bakarra. Amar urte geruago diardut lerro onek idazten.

Patxi il zanetik, da Euskadiren lenengo lorpena, Ikurriña legez onartzia izan genduan. Da ondoren, banaka-banaka burruka egiñez, Alkartiak eta Batzokiak ideki, Kontziertua barriz eskuratu, Eusko Estatutua barriro eskuratu, ta Jaurlaritza; Euskal Telebista; Ertzaintza bat dogu geure bidietan zaindari, eta erririk geienetan eurak dira esateko zaindari... Gitxi ete dira amar urte barruan? Niri eta beste askori esan baleuskue onan izango zirela, ez genduen sinistuko.

Lenengo gure lorpen ori, barriz Ikurriña, barriz nun-nai txintxiliz ikustiak, erriaren goguak asko indartu zirala erakusten eban: 1977ko urtarrillaren

19-an, egun orretatik aske zan. Da larunbata; aurreko egunian egin genduan Udal batzar berezian artu genduan erabagia: egun orretan eberdiko amabietan, Udaletxe ingurura inguratu dedilla, deia erriari, Ikurriñaren jasoera ospatzera. Onan inguratu zan barru eta kanpo inguru guztia. Kultura salletako zinegoziak berba gozuak esan zituan ikurriñari eta bere lorpenari buruz, da, “Eusko Gudariak” eta “Gora ta Gora!” abestuz amaitu zan.

Bixaramonian, illak 20, Goillebarren bardin ipiñia geunkan ordua, meza nagusiak urtenkeran, amabiak aldera emen be. Batzuk erdi sinistu eziñik egia izan leiken da abar; baña ikusle asko. Da, emengo zinegozia nitzenetik egin nebazan berba batzuk Ikurriñaren gorantzaz. Ara emen esandakuak, erdi saltoka baño ezpaziran be:

–Egun da eberdi on guztioi! Gure Ikurriña dala eta zertxubait esateko asmoz nator, berbatxu bi baño ezpada be. Biarbada erdi aldrebek botako ditut. Baña parkatu aurrezaz mesedez. Atzo Markiñan ospatu genduan da gaur emen. “Zergaitik ez?” esan genduan, da aurrera.

Gure azkenengo illeroko batzarrian artu genduenaren barri emonaz asiko naz. Il onetako Udal-batzarrian, beste batzuren ondoren, onek eskabidiok egiten genduzan Gobernura:

1-goia: Udal batzarretan euskera erabili da alan “Aktak” be jasotia.

2-goia: Ikurriña Udaletxe eta beste leku guztietan ipintia aske izan dedilla.

3-goia: Amnistia oso bat espetxeratu eta erbesterratu guztientzat.

4-goia: Azkenik, euskera ikastetxe guztietan, gaztelera negurrian gitxienez.

Eskabide onek ondiñok bide erdian joiazala uste genduenian, Madrilletik etorri zan baimena, berrogei

urtetan oinperatua, lurperatua eta odolez gorritua izan dogun ikurriñ au kalera, eguzkitara geinkela. Benetan lorpen zoriontsua euskaldun guztientzako.

Baña danok dakigu gure ikurriñ onen askatasuna emon dabela oso egun gitxi dirala. Da zenbat berba eta komentario olako edo onako eztoguz entzun, bai egunkari, radio eta telebistan? Eta berba egin daben geienok, danak ez esatiagaitik, bere benetako izatiaren garrantzia kendu nairik eta abar. Bateko, Sabinok asmau eban zapi bat dala, bizkaitarren bandera edo ikurriña legez, Partidu baten trapu bat legez bota nairik, uskeritzat artu dagigun eurak gura daben legez. Da orrek gitxi balira legez, gañera eztaukala kondairarik edo istoriarik eta abar baño eztabe esan azken egunotan.

Baña nik diñot; guzti au olan ete da? Zentzudun euskaldun guztiok dakigu Euzkadiko Zazpi Lurraldiok au onartzen dogula geure bandera-ikurriñ legez, bakarra. Ni ibili naz Ipar da Ego aldeko Amerika lurraldietan, da euskaldunen batzar leku guztietan au dabe euren ikurrin bakarra.

Olan, bada, guzurra da talde edo partidu baten zapia dala. Egia dana beste au da: beste erri guztien bandera legez, euskaldun-Euskadi guztiaren ikurriña dala, nai ta askori tripalak egin.

Guazen kondaira, istoria aldetik apur bat begiratzera.

Nik egun gitxi barru irurogetazortzi urte ditut lepuan, da urte orren inguruko ainbat zagoz entzuten. Eta, nik legez dakizue eta ikusi dozuez gure Eusko Lur au zapaltzera, legez kanpo eta indarrez etorri ziralara España eta Afrikako ejerzituak bat eginda, Franko buru ebela; eta, onek gitxi balira legez, Alemaniako eta Italiako gudarostiak, euren gerra-tresnarik aurreratuen guztiokin. Da indar bi onen buruak, Hitler da Mussolini, buru-belarri gu zapaltzen. Onei indar guztioi gure lur gain onetan, kemen guz-

tiz, eusko gudarostearen buru jarraitu eban tinko gañera. Durango eta Gernikako triskantzak be ez eben kikildu, tinko jarraitu eban gudarien buru, azkenego oinkada lurra genduan arte. Da aurrera be, gudarien da euskaldunon biotzetan gorde zan.

Emen gagozan askok eztoгу iñok esan biarrik, aitatu doguzan indar guztiok irutik lau illabete biar izan ebezala irurogei kilometro aurrera egiteko. Ez ete dauka istoriarik? Ala historia eukiteko auzo-erriren batzuk zapaldu egin biar ete dira derrigor? Istoria aundia eta garbia dau gure ikurriñ onek. Euskaldun guztiontzat berrogei urte onetan eguneroko burruka gogorra izan dogu euskaldunok, au eta geure-geuriak diran eskubidiak lortu nairik. Da emendik aurrerako burrukan, lagun indartsu bat geiago dogu geurekin, au Ikurriñ au Guazen beronegaz, askatasun osuaren egunera arte berau lepuan artuta, da aurrera begira! Gora Euskadi askatuta!!!”.

Da onan amaitu zan Ikurriñaren jaia.

Nire ziñegozitza azkenduaz doia. Lau urte aurre-rago kargu au artu nebanian, baldintza bat leporatu eusten auzo eta erritarrak, neure gogorik aundiena be alan zan legez: geure iru auzuotako argiak barriztu.

Geure iru auzoetako argiok au eben irugarren al-dakuntza. Lenengo bi ipintaldiok, aldakuntzok, or aurreko lerroetan agertzen diran ezkerok, irugarren au be azpimarragarria dala esango neuke.

Lenengo ori, 1944tik 1945era ipini genduan. Ordu batzuetarako argi xingle bat zan, da pozik bera-gaz. Baña onek lau urtetik bostera iraun eban bakarrik.

Bigarren ori, 1950 inguruan zan. Au egiterakuan sortu zan konpondu eziñik eta zenbat alperriko ixkanbillarik! Baña azkenerako danak onez gaintitu eta ipini zan martxan. Danok pozik: indar aundikua zan eta ipini al genduzan radio, plantxa eta abar. Da

betirako ipini genduela ustez, baña andik amabost urtera naiku txiki genduen. Lar kargauta dabillen asto txikiarena jazo jakon: lokatzak pasau ezin, da etzun lokatzen. Onan, ogetairu urterako izan genduen au be bakarrik, eta buruko min uts biurtu jakun azkenerako, batez be kontuan izanik gure lepo zirela aberi eta arrisku guztiak.

Iberduero-k sistema aldatu eban urte batzuk aurretik: baserrietara be, bere ardurapian argiak ipintia; "baldintza", berak emoten zituan baldintzen barruan egin (artu biar dabenak guztia ordaindu, eta andik aurrera bere ardurapian guztia itxi biar zan). Au danok ondo ikusten genduan.

Irugarrenari asiera: Udaleko agiri bidez eskatu geuntsan Iberduero-ri, guztiaren plano, estudio eta guztiaren dirutza zenbatekua.

Esakera da gazteleraz: "*las cosas de palacio van despacio*", eta onek be urte bat inguru iraun eban gure eskuetara eldu zanerako. Jakiña dan legez, luma zorrotza dabe orrek: amabost milloian pasa. Aurreko argia egiterakuan, irurogetamabi giñan iru auzoetan, baña amar gitxiago oraingoan, baserriak ustu ziralako eta abar. Leen iru transformador genduzan, da barri onetanzazpi ipinten euskuezan. Orregaz ez giñan asarre.

Aurreko argi orretan, soluetan, basuetan, argindar ori pasetako ziran oztopo guztiak; oraingo onek alde orretatik txikienik be ez. Baña oraingotan, osterara, diru zor aundi ori oztopo, eta zenbat duda-muda askoren artean!

Eta, guzti ori aurrera juango bazan, egin biar ebanak, baldintza onek ipini euskuzan: argia artu biar eban bakotxak, 30.000 pezeta; Udalak, 1.500.000; *Kaja Rural*ak, 50.000. Onek guztiok aurrezki kutxa orretan egon biar eben biarrian asterako.

Guzti ori olan zanerako, zenbat berba, zenbat promes aideko botaten genduan, diru ori baño askoz

Ez zan inor be asarre. Baña onegaz ez zan amaitu guztia. Aurreko argi orretako tresneri guztia guretzako geratzen zan: burdiñe, kobre eta gañerako onek, txatarrara saldu eta aurreko argiko kostu guztiak baño geiago artu genduan.

Guztiaren azken garbiketa zanian, Gabon aurreko egunak ziran, da erriko gaixo-etxian ziran gaixo eta zar guztientzako txanpan da turroi pillo bat bialdu geuntsen. Jaien ostian, argi artzaille guztiok bazkari sendo eta umore oneko batez, guztiaren amaiera izan genduan.

Guzti au, goixero gure gañera datorren eguzkia baixen egia da.

Nire zinegotzitzako sestra, buruauste ta garaipen pozaren ondoren, ondiño poz aundiagoa izan neban Ardanza Lendakariari egindako gutunaren erantzuna artzean, pasau dan illaren 17an. Ara emen zer diñoan:

*Eusko Jaurlaritza
Lehendakaria
Gazteizen, 1987ko Martxoaren 27an
Tomas Gerrikagoitia Jauna
Bolibar*

Tomas adiskidea:

Atsegin-atseginenez irakurri dut, Lehendakari izendapena izan dudala-eta, zuk bidali didazun zorion-agurrezko gutun adeitsua.


Maite-maite ditudan nire haurtzaro eta familia didate zure hitzak gogora.

Izan ere, nok esango luke haur hura gaur Euskadiko Lehendakaria izango zenik?. Nik neuk ere oraintsu arte ez nuen sinisten hori.

Garrantzi haundiko erantzukizun hau hartu arren eta hartu dudalako, itxaropen aundiz eta lan egiteko gogo biziz aurkitzen naiz orain Herri au aurrera ateratzeko. Eta hori denon artean lortuko dugulakoan nago.

Besarkada haundi batez,

Jose Antonio Ardanza



Santa Luzia ermita. Bolibar.

Geruago eta biziago

Burruka geruago eta biziago, baña bildur guztien gañetik, odolik ez ixurtzeko bidetik jotzen eben geienak. Burruka ori beroenian joian aurrera, lantzian lorpen bat eskuratuaz, Patxiren betirako ustez egindako legiak eta loturak banaka-banaka askatuaz: berba, idazte, batzartze, askatasunak, eta abar eta abar. Auteskunde libriak be urreratuaz. Geldika, baña aurrera.

Da or egunetan gaixo maltzur batek jo ninduan. Lenengo, anketako, pantorrilletako miña. Au arindu zanian, ustez obeto nengualakuan, baña amar maila eskillara igon, da arnasik bueltau ezinga; neure burua jazten egiten neban mobimentuan bakarrik, eta bardin. Geruago eta txarrago. Nekez, baña guretu nitzen sendagille berezi bategana juatera, da:

-Zer jazoten jatzu? -galdetu eustan.

Da nik, neuk uste nebala biotzarena zala, neure gañerako zeetasunak emonaz. Astindu ninduan bere tresna guztiokin, da esan eustan *embolia al pulmón* neukela, eta gogorra ganera!

-*Embolia al pulmón*, eta gogorra gañera. Biotza zaldiak baño senduago daukazu golpe guzti orri eusteko.

Da segiduan, *Cruces* gaixo-etxera bialdu ninduan.

Da emen, tubuak ortik eta emendik, sueruak eta sastadak bestetik. Irugarren egunerako igarri neutsan bizitzarako nitzala oraingo alditik. Oetik jagiten asi nintzanien, eskumako belarritik izpirik be ene-

ban entzuten. Da denporaldi bat aurretik be ez askorik, da esan neutsan neuregana etorten zan sendagilleari; eta onek bialdu ninduan bertan barruan egoan senda-gela batera.

Emen egin eustezan eurak egin al ebezan prueba guztiak iru-lau egunetan, da eurentzat naikue baño geiago zala, eta prueba zeatzagoak egin gura banituan Madrillera edo Barzelonara jua biarko nebala, da bertan be, *kara-kruz* bat, da utsa seguruago. Onenbestegaz itxi neutsen danari.

Amaseigarren egunian etxera agindu eusten, eta pozik, baña ainbat osakai edo sendagai artzen jarraitzeko agiri ta agindu gogorak emonaz, batzuk egun guztietan ardura guztiz artu biarrekuak, beste batzuk birik bat, da asterik bein da abar, errosario luze bat. Da lenengo sei illabetian, amabost egunetik bein jua eragin eusten odola atera eta bere analisisa egitera, odolaren kuagulua zaintzeko. "*Cintron*" deitzen dautse ekintza oneri. Sei illabetiok pasau ziranian, illero ipini eusten; da emen nabil, ixte zortzi urtien ardura eta maleta guztiokin. Da onek guztiok derrigorrezko badira nabillen bestian bizirik jarraitzeko, segi daijala beste zortzi bat gitxienez.

Barrero etxian, ogei egun geruago, pixka bat sendotuaz. Nai ta irurogetamar urte lepuan, lengo txoriak buruan. Egundik egunera aldakuntza gogorak joiazan askatasun bidian. Egun gitxira, lenengo auteskunde libriak ziran berrogei urteren buruan. Da onekin batera edo inguruan zan *Amnistiagaz*, kartzelak utsik geratu zirala, euskal politika buruzkue-na beintzat, da bardin igeslariena. Pausu ikaragarria zan au guretzat.

Preso eta kanporatuen alde dirua batzen genduan; da azken bi-iru urtietan ainbeste lan egiñaz genbizan gauza onen alde. Danak ixilpian, ori bai, bestelan baekian zer eukan: emoten ebana, batzen ebana, onek bere destiñura eruateko emoten deu-

tsena, irurak bildurrez, da ori, erriak bildurra asko uxatuta eukela azken urtiotan. Ez zan bardiña izan berrogei urte aurrerago bizikleta zarragaz egiten nebana lakua, lotsa ta bildur ezer gitxi batzeko; samurrago batzen zan azken alderuntz, da usterik gitxien zenduen eskuetatik be bai iñoz baño sarriagotan, da aurreko urte aretan besterakuak be askotan baziran arren, bildurrak eragiñak. Bestetik, borondate ona, baña zer emonik ez. Dana dala, azkenengo presua kaleratu zanian, danei onan esan neutsen:

–Orain eztago diruagaz ixilpetan ibili biarrik. Bakotxak daki, edo jakin biar dau, diru ori nora eta zertarako doian, da onetarako bidiak izango dira, aldakuntzak daben itxuraz.

Da onenbestegaz, nik eneban geiago iñoren txanponik eskuratu, da buruauste bat gitxitu neban alde onetatik be.

Emendik laster zan San Isidro eguna be, da nire lendakaritzaren laugarren urtia osatzen zan. Da emen be beste arazu edo buruauste bat gitxitu neban, lau urtekua zan kargu bakotxaren aldia eta. Eldu zan egun ori. Da, beti legez, Xemeinen amarterdietetian meza. Andik ordu betera, batzarraren asiera. Oitura legez, etorri diranei da eziñez geratu diranei ongi etorria emonez, berba batzuk zuzenduaz lendarikari legez. Onan ziran gitxi gora-bera:

–Egun on guztioi. Da zorionak batzar-leku au gañezka bete dogulako, da etorri eziñez au edo beste gaitik geratu direnak be goguan ditugula. Emen batu gara, urtero legez, San Isidro egun bat geiagotan geure urteko Alkarte onen gora-berak zelan jua diran ikusteko; pultsua artzeko da, gaixotasunik badau, sendagaiak ipinteko. Zelan goiezan? Nik aurre-ratuko dautzuetana ta orain egun batzuk nire eskura eldu zan agirian atera nebana, ta laster ikusiko doguz gora-berak emon eran: salketa, bazkide eta diru aldetik gora ta aurrera egin dogu. Da beste

akatsen batzuk badirela uste dabenik badago, zuek dozue berbia gaur emen, da ez itxi biarko. Alkarte au sortu genduanian, urte beteko bizia luzeena emon euskuen, lenago sarritan esan dogun legez. Da gaur osatzen dogu amazortzigarrena, ta beti ta urte guztietan egin dogu aurrera. Ta, orain arte legez, garbitasunez, itxaropenez, alkartuta jokutzen badogu, urrin juango garala zigur egon. Barriketaldi luzerik enoie egitera. Ondiñok aste bat edo bi baño eztira larri aurkitu nintzala gaixo maltzur bategaz. Neu asi ta ingurukuak, zurezko trajie jantzi biarko ete jatan-da egon giñan. Baña, zorionez, bezperan ezin leike il; derrigor eguna eldu biar. Batzar onen amaitukeran amaitzen da nire lendakaritza. Da eskerrik beroenak guztioi biotzez azken lau urtietan ondo portau zarielako. Besterik barik.

Orain jarraituko dau idazkariak ganerako goraberak azaltzen”.

Batzar ondoren, beti legez, sari batzuen banaketarako zozketa. Ondoren, azkena, junta barriztatzia, urte birik baten erdiak egiten zan eta. Ta ni baño urte bi atzetik sartua zan nire lendakari ordia, eta bera geratu zan lendakari aurrera. “*A rey muerto, rey puesto*” da gaztel esakera.

Banoie lepuan daroiaten zama au arinduz: orretarako obeto nago zorro barria leporatzeko baño-eta.

Aldakuntza ekintzak pausoz pauso aurrera joiazan: 1979an udal auteskundiak, berrogei urtian Patxitarren esku bakarpian egonak. Da errian, geienak beti alan dirala uste dabenak egozan, batez be baserri ta erri txikietan, da jentia itzartu egin biar zan. Kontzientzia barriztu egin biar zan da onetan gogor ekin biarra egoan. Da alan, esakeria dan legez, *zazpi alegiñak* egin genduzan, da alan urten eban gure errian da beste geienetan. Gure errian be, bederatzitik zazpi atera genduzan P.N.V. alderdikuak. Emen be, beste zorro bat bota neban lepotik, gaztiak eta bizkorrak ipi-

ñita; da neu, nai ta erren ta erdi gor egon, atzetik al dodana egiteko prest, neure almenen negurrían.

Gizarte ekintzak beti tire gogor bat sortzen eben nire barruan. Ori beti egon da nigan, bein ogei urtera eldu nintzanetik, eta aurrera. Iñoz esan dautsat neure buruari au be berez etorri biar dabena dala, gaixoti bat izan edo osasuntsu bat izan legez. Da esakeria da: “auntza larrera”, eta “astuak nun maki-lladak artu, barriz be ara sartu”; da nik be soka aretatik ezin aldendu.

Baña esan biarra daukat niretzako denpora emokarri gogorrak izan zirela gure artian edo errian sortu ziran aldakuntzak, tira-birak. Egunero ziran albiste barriak, zeñek baño zeñek opil ederragua, gozuagua aurkeztu gure begien aurrian. Esakeria dan legez, “zenbat buru, ainbat aburu”.

1979 ingurutik tira-birarik geien sortu ebana, beste askoren artian, Gernikako Estatutu onen inguruan izan zan. Garrantzirik aundiena be beronek eban, zer esanik be eztago, batez be abertzale sentiduten ziran alderdientzat. Da euren artian be ikuspuntu desbardiñak sortu ziran. Guztiak egozan ados, opil biribilla osorik atera al izan balitz labatik; baño txakur gogorren ortzetan egoan, da osorik ez erdirik be ezin zala argi eta garbi ikusten eben batzuk, eta atera al zan kopaua kentzia onartu eban guztien artian talde nagusiak, kenduten geuntsen zati ori gure erriaren askatasun bidian lenengo oinkada ipintia zala ikusten ebelako, Euskadiren galdua genduen oiñarritzat ikusten ebelako. Ainbeste gerra eta odoluste jasan dituan erri onen bake pausu legez, indarrez ez giñala iñor ezagutuaz, da bizi-pozez askatasun osoaren bidian almen barriak geganatzen genduzela garbi egoan pausu onen bidez. Baña talde bat guzti onen aurka egin da esan eztabenik eztago. Zenbat izen illun da baltz eztautsaz emon oni eta au onartu dabenei!

Zoritxarrez, naparrak 1936kuan be kanpuan geratu ziran euren guraz, da bigarrenian bardin egin dabe. Onek min aundia emon euskun euskaldun guztioi, anairik zarrena barruan ez izatiak. Da au dabe beste atxaki gogor bat iñun diranok esateko Itun orren aurka; onen eretxiz, opilla osorik biar eban izan. Da nok ez erosi negurri bardiñian bada-go? Da, “zatika izatekotan, geratu dadilla guztia txakurren esku”... Odol bero utsak nora garoiazan be pentsetan astia, nik ondo deritxat.

Gernikan, ainbeste batzar da tira-biraren artian geienguak onartuta urten eban Akordio edo Itun orrek, Madrilgo Kortietan ontzat emon dagien. Bizkorren ibili ziranak, euskaldunak, da bigarren, katalanak, biok erri kontzientziz gogorren jokutzen ebanak. Emen be onartuak izan ziran. Da besterik ez eban biar, erriaren geienguak ontzat emotia baño.

Onan, Kontseju Jeneralak ipiñi eban referendum-aren eguna. Da, jakiña, olakuetan oi dan legez, txakur da katu, alde ziranak eta kontra. Abertzale talde bat egoala emoten eban Euskadin, da bera Estatutu orren aurka amorratuen egoana, buru belarri ta guzti. Beste guztiak salduak edo traidoriak ziran. Da zer alternatiba onen orde? Opilla osorik, da napar anaiak be barruan, alan edo olan.

Aurrerago esan dot atsegingarri nituala aldakuntza onetako tira-birok. Baña askotan lua be kentzeko naikue zan egunkarietan, astekarietan, radio eta telebistaz agertzen ziran eskutitz eta berba negurritik kanpo ziranak entzutia.

Geienbat Patxiren denporan be gure izkuntza utsez urteten ebalako, ogetamar urte aurretik *Zeruko Argiaren* arpidedun nintzan. Au be, azkeneruntz, bide txindor barriak artuaz joian, da lantzian beinka arpidedunen eskutitzak irakurten ziran. “*Zeruko Argia* au *Inpernuko Argi* bigurtu da, eta aurrera ez niri bialdu geiago” idatzi neutsen. Nik, orrenbesteko as-

mo gogorrik ez neban iñoz artu, gure izkuntzak onen biar izan gorria eban da.

Gañera, gurian beste bat *Anaitasunaren* arpidedun be egin zan sortu zan egunetik; baña bigarren onek, berak itxi ginduzan. Biok be, opil osoari gatz geiago emoten eutsen, batez be bigarren orrek. Lenenguan be, idazki bat Estatutuaren alde baekarren, iru edo lau aurkatuak.

Eta, arpide nitzenez, neuk be bertan neure erexidun eskutitz bat bertan ateratia buruan sartu jatan, referendum eguna lar urreratuta egoan arren. Da gabian oian buruan pasau edo pentsau, dana egunez aurrera eruan biar. Aurrerago esana legez, "auntza larrera...". Nire idaz-molde trakets arek edo onek beste esku baten pasau biar eban zuzendaria-
ren eskuetara juateko; emon neutsan lagun bati konpontzeko, baña denporaz ezin izan zan bere lekura eldu. Baña, beste batzuekin egin dodan legez, au be bere akats da guzti jarraian dator; tira-bira guztion artian neure ikuspuntuak emen doaz:

"Gure Gernikako Estatutuak ainbat gatx izen. Abertzaliok: zein baño zein abertzaliago agertu gurarik gabiz, naiz eta guztion elburua bat izan azken baten: Euskadiren askatasuna ta nortasuna, naiz eta bakoitzaren geigarrirako berbak edo sigla batzuk aldatuak ezbardiañak erabilli. Baña guazen lepo-narrutik oratuaz gaiari. Gure Estatutu au, geiengo batek onartu eta izenpetua dan ezkerero, sortu diran ixkanbilla guzti onek ez dauke izenik. Elburua bat dogula esan badot be, elburu ori iristeko jokera edo bidia oso ezbardiaña dogula esan biar. Batzuk, Estatutu onen alde almen guztiak egiten izerdi patsetan. Bestiak aurka buru ta bellarri sartuta guzti au birrindu, triskau gurarik. Batzuentzat Euskadi, euskera eta guztion bake anaikor baten lenengo oiñarri be-
deinkatutzat ikusten dabe. Eta bestiak, ostera, guzti orren ondamendi. Utsa bera baño utsago, inpernuko Patxi bera be naiago. Batzuentzat zuri dana, bestientzat guztiz da baltz. Zuri ori illun antzeko dala, edo baltz ori argi illun antzeko dala esatia, tira ba!, ori normala litzake. Begietako sendagillea ala betaurreko barriak biar ete doguz? Ala ez bataz ez bestiak osatu eziñeko gaixo txar ori, "biste ona baña ikusi eziña"? Nok esan gure jokerei begiratuta elburu bat dogunik? Tamalgarria benetan gure artian jazoten jakun au. Aurka dagozanentzat, bestiak beste dira-

la, euren eskusarik nagusixena, garrantzitsuena, Naparrua dabe. Emen oiñarritzen ditue Estatutu onek euren ustez dituan naigabe eta zoritxar geienak: kanpuan itxi dabela, saldu egin dabela betirako, samatik sokaz lotuta itxi dabela urkatzeko zorian, abar eta abar... Zenbat oneen antzeko? Eurena bakarrik entzunda, batek gitxienez be pentsetan asi biar zakuan sartuta itxasorra bota ete daben gure anairik zarren ori. Baña Estatutu alde dabizenak beste au diño: Nafarrua eztala, diñoen moduan, kanpuan, barruan baño, Euskadiren lur zatirik zabalena bat dala iñok ukatu eziña danez. Lau atiak zabalik dagoz, da barruan diran beste iru anaiak besuak eta biotzak zabalik ditue besarkatu nairik anai aarren ori. Da ondiñok geiago be badiñue beste anaiok: eurentzako lortu dabezan erreztasun guztiak dituela anai orrek be. 36ko Estatutuak irutik bik baieztu biar eben gitxienez. Da oraingo onek erdiak eta batet, bakarrik. Da onan eztago esan biarririk bide ori zabalago eta laburrago dala guztiontzat, biste ona eta gogo ona daben guztientzat baizik. Geiago be badiño ondiñok gañera: nafarrak eurak gura izatia bakarrik dabela naikue gugaz barruan egoteko. Zuria zuri, eta baltza beti baltz. Au onan gagoz entzuten, ez baten da birritan bakarrik, egunero baño, belarriko gaixorik eztaben guztientzako beintzat. Alan da guzti be, leengo leengoan jarraitzen dabe aurka dagozanak. Baña ortik aurrera eztabe garbi azaltzen zer sistema moeta daben barruan egon al izateko. Eurak diñoenetik ateratzen ez danetik, batzuen ustetan xistema au izango dala-ta dagoz beste iru anaion artian, batzuk lepo-narrutik elduta, bestiak metralleta eta bonbaz bildurra sartuta indarrez barrura. Baña ekintza au ontzat artuko ete deuskue gure anai naparrok? Eta geuk be, onako ekintza indarkerizko bat eginda, ez ete genduke kezkarik izango, ain demokrata eta askatasun zale garian ezker? Baña emen dabil beste sistema moeta bat, bigunagua, demokratagua dana. Itxaron beste anaiok astiro, besoak zabalik, naparrok erri kontzientzi geiago artzen daben arte. Esakerie da, "itxarongo baleu, erbixe bera be tiro barik atrapau". Bai orixe! Neuk be, daukadan erren da guzti gañera. Gai oneri buruz Jose Antonio Agirrek bein baño geiagotan esan eban naparrok erri kontzientzia artzen ebian, Euskadi askatuko zala laster. Jaun onek berbok esan ebazala berrogeitaz urtiak dira. Beste anaiok, urte orretan asko aurrera egin dogula-eta gagoz erri kontzientzi malla orretan. Baña, itxura danez, ez ainbeste gure Anai Naparrok.

Beste iru anaiok, leen esan dogun legez, besuak eta biotzak zabalik ditugu Napartar, da bai Iparretar, barruan besarkatzeko zain. Gaurko trena ezto gu galdu gura izan, biarkua obiagua edo merkiagua izango dan itxaropenez. Kondairak-Istoriak eskintzen dauskun almenik ezto gu ostikoratu nai. Trenaren azkeneko burdian sartu al izan dogu eta emen goaz Euskadiren onerako almen

guztiok egiñaz. "Urrengo geltokian itxarongo dogu" diñoe barruan diran iru anaiok. Naparrok kanpo edo barru dirala, nori emon errua? Berandu dabillenari. Baña onez gain, bestiak beste dirala, eun ta berrogetamar urte dira gure eskubideak galdu edo indarrez, maltzurkeriz da engaiñuz kendu euskuezala. Arrezkero naigabez da kezkatu agertzen ziran gure aitona zarrak. Eun urte ditugu gure Sabino Aranak kemen guztiz burua jaso ebala; gure bir jabetasunerako bide barriari lenengo oiñarrizko pausuak emoten asi zala. Baita erriak gogo guztiz jarraitu be. Andik eta berrogetamar urtetara Izarra-Estellako Estatutua Madrilgo Bartzarian onartzeko bidian ikusten eben. Da, rojo-separatistas giñala atxakiz, gerra zibil madarikatu bat sortu eben gabetik goixera. Au sortuaz batera genduan egun gitxira bai beintzat Estatutu ori. Baña Euskal Erriko lur zatirik aundienererioen mende egoan. Estatutu ori benetan da gogoz artu eban geiengo aundiak, eusko gogo eben guztiak.

Erriak eskuak utsik zituan, baña al zan negurriakin mendi-ratu zan areriuaren aurka. Euskadiko ibar, zelai eta mendiak eusko odolez ondo gorrituak ditugu, bai. Au ezagutu genduenok, ezin opa beste olakorik, sano dagonak burutik. Askatasuna lortzeko badago beintzat beste bidezindorrik. Gañera emen galdu edo kendu euskuezan Fueruetatik genduzan ondarrak: ertzaiñak, foral, mikelate, miñon da abar. Da guretzat ain garrantzi aundia eban Konziertu Ekonomikua. Guzti onen ondoren zenbat eriotza, epai, espetxeratu eta negar familietan! Gernika be geuk erre genduela arpegira bota eta ixilik, eta millaka orren antzeko. Barrua nasaitzeko baño ezpada be ezin esan Euskadiren ikurriñaren eta beste antzekoren izenik be. Olan igaro ditugu ia berrogei urte. Baña guzur utsak be bere azkena alako baten. Eta gaur egiari zor dauz saguna be esan egin biar. Askok ain arin uste ez genduzan askatasunak eskuratuak ditugu, era guztietako erriaren burrukari esker. Emen eldu gara Izarrako Estatututik Gernikakora. Lenenguagaz eusko gogo guztia ados bazan be, bigarren onetan zatitua ikusten da. Eta ori lenengua baño aldi egokiagua eta egokitasun geiagoz beterik izan arren, itz bitan esanda, gure Gernikako Estatutu au Babelgo Torre bigurtu da.

Barrero noia leengora. Bere alde dagozanak oso onuragarritzat, eun ta berrogetamar urtian lurrian etzunda euki gaituenetik jagitera eldu gareala eta eskillaren berengo maillan ankia ipintera eldu garianian, edo auzoko lapurrak egun baten milla pezeta artu eskuzan eta guztiz ukatu gaur arte. Eun pezeta, amarretik batekua, eskuratzeko almena ikusten dabe batzuek, eta beste berderatziak be guriak eztirela ezin dau esan. Baña bestiok amarrak batera edo bapere ez. Etxeko soluan artu dogun kalabazia aundiagoa dogu, bera batera egosteko ontzia baño. Da txarria gosez okoiluan. Batzuk zatika egosita, txarria gizontzen jua dadin nai.

Eta bestiak, dana batera ez egostekotan, usteldu dadilla kalabaza ori, nai ta txarria be gosiak il. Emen nok daben errezoia jakiteko nor ipiñi epaille? Erria. Norbaitek esango dau, lerro onek irakurtean, filosofia merkia erabili dodala. Baña parkatu, enaz eltzen geiagora eta. Nire luma atxurra eta sega izan dira beti. Zelai, solo eta mendi eta espetxe, ikastola eta unibersidade. Amaitzeko besarkada bana. Eta Euskadin bizi garan guztiok, bai sendo eta biribil bat Gernikako Estatutuari, Jaungoikuegaitik!

Gerrikagoitia-tar Tomas (3-9-79)".

Lerro onek idazten zortzi urte geruago diardut, eta ondiñok lelo bardiñegaz jarraitzen dabe. Urte orrek, diñuenari begira, besuak batuta egon baziran beste guztiak, zer genduan gaur geiago askatasun bide orretan? Askatasun ori urte orretan lortu izan bagendu, baztertzekuak izango ete ziran askatasun orri da bere bidari begira emon diran pausu guztiak? Euskal Legebiltzar bat? Kontziertu Ekonomiko bat? Eta guztion bidez gure euskera eta kulturari dakarren laguntza? Ta, ori gitxi balitz, Ertzaintza ain aurreratua, diran urte gitxiri begiratuta? Badakigu ez dirala guk eta zuek gura gendukezan añako onak, ez biribillak; baña ez guztiz baztertuko direnak be, biribil guzti orren oiñarri dira eta. Orrek eta beste batzuk be aitatu leikez, biotza eta begiak gaixo ez dituanak ikusteko beste batzuk be aitatu leikezen moduan. Okerrago? Okerrago ete gagoz? Orri erantzuteko, Erria dogu epaille.

1980ko lenengo auteskundiak Euskal Legebiltzarrrerako. Emen alperrikuak ziran aiku-maikuak. Guztiak ziran eskubide bardiñez erriaren aurrian euren opil ori aurkezteko. Irurogei batzarkide atera biar diran lekuan amalaugaz geratu, da ez zan nok esan faltarik euren artian: "Urrenguan nagusi". 1984an, irurogetamabost atera biar guztira, amaika atera bakarrik, eta atxakia, eztagoala demokraziarik. Erria dogu epaille; eztoгу engañako kaletako zarata utsez, gitxiago lepotik tiruak emonez, gogoko eztoгun guztia bonbaz desegiñez. Olako biderik eztoгу gura. Estatutuari jarrai daioгun zentzunez.

Talde oni buruz, zer esan? “Zenbat buru, ainbat aburu” esan biar. Lenengo egunetik ostikoz bota ebezan, genduzan eta ekarri genduzan eta doguzan instituziño e guztiak, udalak izan ezik; da bertan, ixkanbillarik ugari.

Urte onetako otsaillaren 26-an guztiok giñan pozik Eusko Legebiltzarreko ezarlekuetan lenengo aldiz zortzi urtian ikustiagaz, guztiak patxadaz ezarrita, talde onen lendakari-aurkezpena entzunaz, Ioldi gaztiak emon eban eta, da ondoren Ardantzak, oizko dan legez. Goixetik ziran aurkezpenok; arratsaldian asi ziran deskarguak. Eta lenengo aldian egin eben euren, eta guztiak alde egin eben aurrerako guztia itxita. Noz arte?

Gatxa oni erantzuna emotia. Goixekuak beste edo garrantzitsuago zan arratsaldeko ekitaldi ori, guztia amaitu arte jarraitzeko, baña ez eben izan astirik edo gogorik beste guztien patxadan jarraitzeko. Berba artu eban euretako batek, eta beste guztien pentsakerak eta gobernu-plan guztia lurperatu zituan osorik, *erdi por erdiz*-ik be itxi barik. Guztiak jagi eta juan ziran, mantso-mantso gañera, da eskerak beroni, egun orren aurretik zituen legez, atiak zabalik dituela, “aurrera be gura dabenian juan”, esan eben barruan geratu ziran beste talde guztiak “Zorionez” esatera enaz ausartzen, da “zoritxarrez” esan biar. Gure artian jazoten diran aldrebeskeriak, benetan abertzale diranentzat mingarri eta tamalgarri dirala eztago birritan esan biarrik. Aurrerago esan dogu abertzaliok elburu bat dogula; baña elburu orretara eltzeko bidiak bat egin eziñak, goian aitatu dogun talde orregaz beintzat, aldakuntza gogorren bat emoten eztaben arte, demokrazi bide bat aske dogun arte. Odola, gorrotua eta mixeria eztitu maite gure erri onek, asko dira gaur artekuak eta.

Baña zer esan biar dogu oraindiño il gitxi jazotako zatiketaz? Larogetamabi urte dituan partidua nai-

ku zapuztuta geratu da zoritxarrez. Emen be, bateratu eziñeko oztopuak ete ziran ba? Au izan da askoren galdera, baña geien aundi baten erantzuna, “txikienik be ez”, apurtziari begiratzeko beintzat. Bakotxa bere gogoz jua gara barruan dituen bere baldintzak ontzat artu eta onek diñoena egiñez. Barruan aldakuntza biar dala baderitxo, egin al dau berba eta biar aldaketa ori lortzeko? Urte birako dira karguak; baña bere asmuok ezpadabe aurrera urten, leenguak dira agindu edo barruko lege eta barruko demokrazi.

Zer jazo da orduan zatiketa etorteko? Azkeneko bi edo iru urte onetan barruan kabidu ezinga ebillen talde gogor bat sentitzen zan; barruko geiengoaren erabagiak, batzar rejionalak nai nazionalak oinperatuaz. Nundik edo andik alderdiaren agintiaren jaube egin gura ebela argi eta garbi erakusten eben. Batzokietara eta abertzale askoren etxietara egunero ziran eskutitz anonimuak, iñundikuak esanez, alderdiko zuzendaritzaren jokera ondamentia zala euren erara kontauaz, iñun diranak eta ez diranak esanez: naparrak partidutik botatia atxaki nagusi, bestiok beste dirala. Baña geienok genkien naparrok *bota por bota* ez zala izan, Batzar Nagusiaren aginduak zapaldu zitualako baño. Beste onako guzur azkogaz, Alderdiaren barruan dudia sortzen ebena baekien bazkide ziranen artian.

Eldu zan 1985-ian alderdiko karguak aldatu biarra. Urte bi ziran, eta orain bai etorri zala anonimo barik bakotxak bere opillari nai daben gatza emoteko ordue. Emen agertu ziran, uts aundirik emoteko arrisku barik, askoren arpegiak; da eurak asko uste ez ebena, ipurdikoak be bai. Nundikuak ziran anonimuok eta gañerakuak, ikara sartu eben alderdiaren barruan. Da genduzan buruzagiok onan esan eutsen bazkideei, erri eta batzoki guztietan:

-Uste genduen baño artilleria aundiagua ipiñi dauskue aurrian: orain ikusi egin biar.

Atzeneko berbia erriak dau, eta ez ziran eldu agintera. Eta kokua leenguan geratu zan itxura atera dabenez, beste bi urtietan itxaroteko astirik ezta-be izan eta. Ta, gañera, urte bi orren barruan, 1977-an Iruñan amar urterako artu ziran Partiduaren barru egiturak aldatu biar baziran, buru ziranok bein baño geiagotan esaten egozan izango zirala aukera guztiak. Da zer? Guzti onek entzuteko ezta egon belarririk, da gitxiago astirik. Naikue argi ikusten dana, abertzaliak dirala miñez, aginte zale utsak egiñez; esan batera, egin bestera, da lotsarik ez. Olakuen burdian baño, oba oñez. Alderdi bat istiak, beste bat artziak, nai barria sortziak, gure gizarte onetan eztira arritzekuak; baño bai gizontasun apur bateri begiratuta egin biar diranak.

Ara emen, zatiketa orren errurik aundiena daben jaun orrek zelako itz maltzurak erabili dituan egunkarrietan eta bere itzaldietan –da gazteleraz datoz–; eta diño berak:

–Argi eta garbi diñotzuet: bene-benetan maite dodala neure erri au da neure Partidu au, P.N.V. Iñok ezin leike onartu partidu au zatitzerik.

Da geiago diño arpegi guztiz:

–*Y menos que sea yo quien lo encabece*, (1984-VII-1). Nik esaten deusat partidu oni eta bere zuzendariei, beste iñori baño leen, alderdi onen nastatzaille edo banatzalle izango nazan baño leen, “Zuen eskuetan itxiko ditut aginte guztiak, *manzana de la discordia* izan baño leen” (1984-IX-30). “Iñoz ez dot laguntzarik emongo P.N.V.ren zatitzean –diño–. Guztien aurka ipiñiko ditut neure almen guztiak, bizia bera be jokuan ipiñi biar bada be zatiketaren aurka” (1984-X-10). “*No debemos olvidar en ningún momento: es el P.N.V., a mi entender, y hago profesión pública y sincera, más convencido que nunca, si cabe, que es al P.N.V. a quien corresponde hoy por hoy el liderazgo de la construcción de Euskadi. Debemos reforzar, pues, quienes creemos en esto, y no dividir nuestro partido, que es el P.N.V. Quiero hacer votos y poner de mi parte todo lo que pueda por la unidad y fortalecimiento de este Partido*”. (1984-XII-19). Bostgarren: “*Nunca estaré enredando entre bastidores (...). Y no hurgaré en las heridas del P.N.V., ni acentuaré la crisis en que se encuentra sumido. Seguiré siendo leal a*

mi partido, que es estar a las duras y a las maduras con quien lo dirige, aunque se discuta con ellos" (1985-II-26). "Os llamo como a un solo hombre a todos los que estáis aquí, para que no déis el gusto a quien quiera estar buscando ruptura o escisión en el nacionalismo vasco (...). ¿Qué puede suceder si para regocijo de algunos se crea una crisis? ¿Se hace una escisión en el P.N.V.? Es una obligación de todo nacionalista, empezando por mí mismo, no hacer juego a quien quiera dividir el nacionalismo vasco" (1985-III-13). "El ex-Presidente del Gobierno Vasco, Carlos Garaikoetxea, manifestó ayer en Vitoria, que si para que se resuelva la crisis del P.N.V. es preciso que él permanezca en el ostracismo de por vida, en quedarse encerrado en su casa (...)" (1986-III-26). "La ruptura del P.N.V. sería un grave problema no sólo para el P.N.V. sino para este País. No queremos ni plantearnos esta hipótesis" (1986-VII-6)

Aurrekuak, periodikotik artuak dira-.

Esandako guztiak zatiketaren aurreko egun baten esanak dirala sinistu leike? Eta eskintza guzti orrek egin dauskuzana bera buru dala gañera? Nok iruntsi orrenbesteko traiziñozko bolarik ain batera? Bada gure P.N.V. onek ixte eun urtegaz guzti au iruntsi biar izan dau, da zutunik eutsi gañera. Zer burubide erabili dabe gizon orrek guzti onen inguruan? P.N.V.ko buru diranak profezia au esaten izan deuskue, guzurrez da maltzurkeri guztiz jokatuko dabela Partiduko eta beste aginte guztien buru, gizon bat ipinteko, gizon ori Partiduaren eta Euskal Erri guztien *Aingeru Jagole* bakarra balitz legez aurkeztuta. Eztira aldrebes ibili P.N.V.ko buruzagiok: urte luzietan burdia zaindu biarrak gauza asko erakusten... Da gañera, dudarik barik esaten euskuen Partiduaren jabetzara eltzen ezpaziran, apurtzia zigurra zala. P.N.V. benetako *Aingeru Jagole* eta gañera *igarle* be badogu, eta eutsi beroni.

Guztion begien aurrian daukaguz ondoren jazo diranak. *Aingeru Jagole* bakar orrek ainbeste zoritxar ikusten izan ditu, partiduen zatiketa orren errudunik izatekotan. Da ara emen noraño eldu garan azkeneko illotan. Partidua zati bi eginda, beronen erruz Eusko Jaurlaritzaren autzeskundiak urte bat aurreratu biar izan dira. Da guztion aurrian di-

tugu berak ekarri dauskuzan zoritxarrak: ainbat illabete Gobernu barria sortu eziñik, zatitze orren erruz, osorik jua da eskuan egoan txoria galduz. Da deskalabru guztia gañera jakunian, ezta iñor errudun aurkeztu gura dabenik, nai ta ez egon erruduna nor dan eztakien tontorik.

Baña ondiñokuak eztira naikue; geiago dago esan biarrian. Zatiketa onen aurretik, iru partidu abertzale giñan, da beste iru-lau abertzale ez ziranak. Baña P.N.V.k beste bostek aña indar eban bakarrik, da ez zan arazo gogorrik Gobernu osatzera kuan, abertzale utsez da gañera P.N.V.ko utsez sortzeko. Baña gaurko onetan guztia aldrebestu da, eta koaliziñua andik edo emendikorekin izan biar eban. Da erriaren gogokoena, abertzalien arteko koaliziñoa eskatzen zan, gure batzoki geienetako eskabidia be onan zan eta. P.N.V. beste iru zati abertzalietako aundiena zan, larogetamar milla boto geiagogaz. Beste iruetatik bi, alkarregaz gobernu barria osatzeko asmotan jo eta ke ebizan. Beste irugarren orregaz ez egoan zer pentsaurik. Onek kaletako zaratak ditue bakarrik euren egiteko nagusi. Baña beste biok be labur geratzen ziran, irurogetamabost ordezkarietik ogetabi baño ez zituen bien arte eta, da beste biderik ez eben ikusten Karlos barrero Ajuriaen sartzeko. Da euren asmo ori aurrera eruan al izateko, atzeko buztanian emon gura eutsen lekua sozialistiei, lagun izateko. Beste burubiderik ez eben erabili iru illabetian, P.N.V. bakarrik kanpua istia baño... Partidu onek zatiketaz artuta eukan belarri ondokoaren min beroa eban arren, beste belarri ondua emon eutsan, eskiñi eutsan, bein baño geiagotan, *pasauak pasau*, alkarregaz Gobernu abertzale naikue sendo baten proposamena aurkeztuaz da min guztien artian be eskua luzatuaz. Da zer erantzun artu eban? Au ondo eztakienik be gitxi gagoz, begietako ta belarrietako gatzik eztogunok da biotza bere lekuan da odola otz. Benegas-ek onen proposa-

men guztiei erantzun au emon eutsen “*Que es un Gobierno de chanchullos*”. Eta orduan ez zan geratzen beste biderik: auteskunde barriak edo al zan negurriko Gobernu bat osatu, emen daukagun au. Euren errota parian bera urak iges dabenian, bada gaizki esanik eta garrasik ugari. Abertzaliak ala aginte zale utsak? Ainbesteri entzun jakona da:

–Gizon orri sinpatia aundia izan badeutsat be, gaur izena entzutiak iguin emoten daust.

Esanak, promesak... Da ain egun gitxira guztiak jan da ukatu baditu, zer beste gauza esan leike? Nun geratzen da euskaldunen berbia? Auzuen barregarritz engañau nai erria? Opil osuaren billa juan da geratu jatzun ixte erdia engañau dozu. Aingeru Jagola bakar zarala ustez, bota dozu trumoi arria erriaren gañera, da urte askotarako galdu abertzaliok genduan indarra. Erri au aurrera aterako badogu, “zu pekataria” lekuan, “ni pekataria” be jatortasun guztiz esan biar. Aldatu daigun gaia, eragiñago eta mingarriago baño eztan ezker. Gai oni jarraitziak 1987ko jazokeretaño eruan nau, baño iru eta lau urte atzeragokuari eldu biar deutsat aitatu biarrekua dan ezker.

Usterik eneban oporraldia

Usterik eneban oporraldia barrero Buenos Aires-era, sei urte aurretik an egonda nengoan eta. Urte orren bitartian, an genduan anaia, iru tronbosis-kolpek alkarren ondoren emonda, leenguak leengo zirala, azkenekuak itsu itxi eban. Da olako egoera baten dagoanian bat, eztago esan biarrik, bera txartuen, eta inguruen direnak be naikue zeregin larri.

Bilbon bizi dan anai Pilipek jubilaziño gizen zamarragaz geratu zanian, anaiaren egoera eta abar, lurralde arei be ikusi bat emoteko asmua artu eban. Asmo garrantzizkoa benetan, anaikorra bestetik. Baña bakarrik baño naiago eban lagunagaz, da niri tiratzen eustan.

Nik be gogoia bai, baña batetik leen be egonda; ta, txarrena, bildurra sartzen eustana. Ango anai ori egoera orretan geratu zan baño il gitxi aurretik neu egon nitzen embolia-golpe maltzur aregaz. Da onen ondoren agindu eustazan osakai eta ardurak. Onek emoten eusten kezka gogorra. Sei urte aurretik izan nintzarian be, mokorretik ebakuntza egin da urte betera izan nintzan erren gogorrakaz, baña makillaATEGAZ arrebari laguntzera bildur gitxiago eruan neban. Baña onek be ainbeste alegin egin eustan, eta aurrera bota neban pausua.

Urte orretan berakada gogorra ikusten neban neure almenetan, da batez be ankiaren makaltasunian; baña ondiñok makilATEGAZ justo-justo banebillen be aurrera. Neure buruari bein baño geiagotan egiten neutsan itaun au: beste iñor ausartuko ete zan, nire egoera oni begiratuta? Baña bein baño

geiagotan esan oi da bildurra askotan lagun ona dala.

Gertau genduan ibillaldia, eun da ogetamairu milla pezeta inguru bakotxaren juaan-etorria: Bilbo, Madrid, Río Janeiro, Montevideo, Buenos Aires. Madrillen aldatuko genduen egazkiña, *Iberia-tik Aerolíneas Argentinas* artuaz,

1982ko abenduak 19, arratsaldeko sei t'erdietan. Etxeko kotxian Sondikara nitzen, etxian giñan guztiokin. Da an egoan anaia be bere sendi guztiagaz. Geunkezan morralok eruan euskuezan egazkiñera, Buenos Aires-a arte ez ikusteko. Eta geu be agurtu giñan, da ordu erdira Madrillen giñan. Emen, gabe ko amaika t'erdietan artu biar genduan beste egazkiña. Da denpora sobre genduen, baña laster igarozan, ogitarteko bana trago bategaz egiñez.

Aurrerako egazkiñ ori artu eta laster, afaria emon eben; da ordu bat pasau inguru zanian, wiski bana emon euskuen, da Canarias ugarte ganian giñoieza la esanez, baña bitartian lañua egoan da ez zan ezer ikusten. Pozu nagusi orren gañian, pelikula ikusiz da lo eta abar, da eguna argituta be ondiñok ur gañian. Artu genduan lurra Río Janeiro-n. Da emen egazkiñetik urten egin izan izan genduan; da ordu batera barriz aidian giñan. Da bardin egin genduan Montevideo-n be.

Beste salto txiki bategaz, arratsaldeko ordu bietan *Ezeiza* egazkin-zelaiian gengoza. Egazkin ori itxi eta zorruak jasota, esku-burdi baten artu eta urtererako atera. An urriñera ikusten genduzan, besuekin da zapiekin agurka, Buenos Aires da inguruko ditugun sei familietakuok. Bazan laztandu eta besarkatu biarrrik! Anaia eta bere emaztia ez beste guztiok an ziran.

Juanen semiek artu ginduzen bere kotxien geure morral da guzti, eta bestiak, guztiok alkarregaz bazkaltzeko lekura zuzenian juaan ziran, esan ebenez.

Baña guri, Juan gure lengusuaren seme orrek, bide luziek eragin euskuzan uri nagusi orretarako lekurik garrantzitsuenetarik eta juanez bide orretan ikusten genduenaren zeetasunak emonaz. Arratsaldeko irurak ziran gu be eldu giñaneko bazkal-lekura: Juanen etxian zan; da guztiok an giñan.

Anai gaixo eta bere emaztia be an egozan. Anaia, burpildun silla baten, ikusi eziñaren eta abarren penaz, negar egiten eban gizarajuak, da olako alkartze batek, daben alaitasunagaz, larrosa tartian arantza sortzen eban. Gauza bat ona eukan, jateko gogo ona, beti be alan izan eban eta. Baña geienak iñok emon biar, izpirik be ez eban ikusten da. Ogetalau lagun giñan.

Juan geratu zan egazkin-zelaira etorri barik, anai onen emaztiagaz, euren oiturazko asadu famosua egiñez. Emen etxe guztiak dauke asauak egiteko leku berezia, burduntzian da parrillan okelie ipinteko. Bazan ensalada eta gañetikorik; ardo, gozoki, txanpan, da zer ez? Arratsalde guztia jan-edanian jua zan, grabaziño bidez da abar soiñua, eta dantza egiñez. Ogetamar-berrogei graduko berua egiten eban; ez zan soiñian zapi astun biarrrik an egin genduan egonaldi guztian be. Gaberako banandu giñan bakotxa bere lekura. Gu gau aretan anaiaren etxera jua giñan. Uri nagusiaren barruan bizi zan, eta *Laurak Bat*-en ur samarran, irureun metro barruan. Ez genduan afaldu biarrrik, bide luzian lorik ez da kantsauta giñan da.

Urrengo gaberako Maria del Karmen lobiaren etxera jua giñan: emen ipiñi genduen geure *kuartel jenerala*, nai ta beste seiren etxietan be egun biña edo geiago egin eragin euskuezan. Sei urte aurrerago be au izan genduan geure egonleku, nai ta bardin ibili bestietan orainguan legez. Karmen au da anaia-aren alaba bakarra, anai orde bat daben arren. Ama gallegie zan; gazte zala seme bategaz ara juandakue, da 1938an ezkondu ziran. 1975ian il jakon, da

1978an gaixozain-enfermera batekin ezkondu zan. Da urte bat eta erdi aldera gaixo txar orrek artu eban, eta pozaldi orrek atze mingotsa laster ekarri eban. Eskerrak enfermera zana, eta modu itzel batez artzen eutsazan berari egin biarreko ainbat ekintza, geuk ikusten genduen, da eruapen aundiz gañera. 1984an il zan, eta beretzako be aundiena zan bakia izan eben inguruko guztiak be, benetan egoera tristia zan ikusteko eta. Goian Bego.

Leen esan dodan legez, Buenos Aires uri nagusi orretan bizi zan, da seme ordia be, Jerardo, uri orretan; baña uri aundia dan legez, ez ain ur.

Beste lau sendiok uri nagusitik Tigre errira bitartian dagoz; guztiok garraio-burdinbide bat dabe. Alabie, Martinez errian. Onek, iru alaba ditu; neba ordiak, seme-alaba bi; ondo bizi dira. Beste lengusuok iru anai dira, Ilario, Juan eta Oskar. Lenenguak aitaren izena daroa. Aita, ni jaio barri nintzala jua zan: Ilario Urionaguena Garro. Ama an jaioa, gurasuak Tolosatik juanak: Gaztañaga, abizena. Aita 1943-an il jakuen, ondiñok ume edo gazte zirala; ama be, guztiak solteru zirala. Baña benetan iru anai jator dira, alkar artuak gauza guztietan. Oso gitxi aurkitu leike olakorik gaur egun. Ilariok seme bat dau; Juanek seme-alaba bi, da Oskarrek alaba bat. Eurak benetako euskaldun sentitzen dira, baña ezkon laguna nagusiak an jaioa dauka; baña gurasuak italiarrak. Gaztenak, Oskarrek, Portugalen jaioa; eta Juanena be ezta euskalduna. Baña arrokeri gitxi ta alkar artuak eta alaiak dira. Nagusia, San Fernando-n bizi da; bigarrena, Tigre errian, eta gaztiena, Río Carabelas-en. Paraná ibai aundi ori beste aldera pasauta, Karabela ibaiari jarraitu biar jako ogei bat kilometro. Ibilgaillu bakarra ur-ontzia da. Emen jaioak dira irurak, au zan gurasuen etxia eta.

Gu an egon da urte bat pasaura, 1984-an, iru-lau metro alturako urez estalita egon dira lur guzti

orrek urte bat baño geiaguan, Paraná ibai orrek izan eban ugaldiak zirala eta. Iñoz lenago izan ditu, baña ez negurri orretakorik. Kalte ikaragarriak izan ditue ugarte orretan bizi izan diranak. Gu an genbizela, aurrez abixue baebillen ugaldi ori bidian etorrela. Oskarrek, gu an gengozela, erosi eban Tigre ibaiaren ondo-onduan etxe edar bat, anaia bizi dan errian bertan, da onek gaitz-erdi. Baña ugarte orretan asko bizi dira eta danak ezin egin olakorik. Arrezkero emon dituen albistietan esan dabenez, bertako etxian, ain ondo ipiñia zanez, naiku kalte; gañerakuetan, iru-lau urtetik berako plantaziño guztiak barriztu egin biar. Oraingo au iñoz ezagutu eztana, diñoenez.

Gabonak eskuetan, da asi giñan ara-ona mobiduten; bestiok biarra eukenian, biok bakarrik ara eta ona. Anaiaren lepo isten nituan diru-aldaketa eta orrek guztiok, ni baño argiago zan orretan eta. Aurrekuan be, arrebiak geiago ulertzen eban arazo orretan, da dana zan aren esku; da orainguan, bardin. Aurrekuan pezetia bakarrik aldatu genduan, baña bigarren onetan ez eben artu gura, eta dolarra bakarrik aldatu biar izan genduan. Pezetiak 352 peso balio ebazan ofizialian, baña iñok ez eban gure artu, da dolarra aldatu biar: 200 aldatu genduzan lenengo aldian, 12.000.000 peso (60.000 dolar batek, oker ezpanago). Sei urte aurrerago, pezetia aiku-maiku barrik artzen eben, da 200dik gora balio ebazan. Guretzako buruausterik gogorrena emoten ebana, gauza uskeri bat ordaindu biar zanian, peso barriakin da zarrakin ateraten eben nastia; bati burutik eragiteko be naikue zan. Bai arreba ta bai anaiak, etxera kaletik etorri ta lapitza erabilten eben, da askotan biar dan argitasun guztiz ez ziran geratuten.

Gabonak, da emen asten dira ango uda oporrak. Jaiok, emen legez, famili giruan igaroten dira an be geienbaten. Da guk be, Gabon gaba anaiaren etxian

igaro genduan; da Natibitate eguna, guztiok alkartuta betiko lekuan, Juanenian, onek eukan leku aukerakuen eta. Ilariok be lekua baeukan, baña etxe barrizatzen ebillen, da olakuan oztopuak nagusi. Gabon Zar, iru anaiak Jerardo seme ordaiñanien igaro genduen; da Urte Barria, danok alkartuta.

Jai ondorengo ibilliok. Nire emazte zanaren lengusuak, guztiak an jaiok, euretako bat urte bi aurretik emen ibilita egoan, tarteko giñan etxe guztietan egun batzuk eginda, eta idatzi egin neutsan Buenos Aires-era giñoezela eta ikusi al bagiñan. Eta ara eldu ta laster batera, telefonoz deitu eben anaiaren etxera. Geu etxian ez giñan aurkitu egun aretan, da albiste au emon eutsen anaiari: eurak zelan bizi ziran ikustera juaten ez bagiñan, betiko asarratuko zirala. Ez genduan gura asarrerik, *ya que* gu an gongozan ezkerok, nai ta milla kilometro pasau bitartian egon.

Juateko planak egiten asiak giñan geure kabuz, trenez edo egazkinez; da lengusuak au entzutean, oporrak eukezan, da gañera jua biar giñan erria General Pico zan, Pampa Central-en, eta ona juateko bide erdi inguruan, zortzireun ektareako lur zati aundi bat erosita euken iru urte aurretik, eta au be erakutsiaz eruan ginduezan euren kotxian.

1983ko urtarrillak 4, goixeko sei t'erdietan, urten genduan bidera. *Luján*-dik pasau biar genduan: emengo katedralien entzun genduen mezie, da emen argazki batzuk atera, eta jarraitu genduan aurrera. Eun ta irurogetamar kilometrora, *Carmen de Areta* deitzen jakon paradorien jan genduen ogitarteko bana, pernil, gazta eta abarrez; da iruron arte lau botilla *fanta* edan genduzan, da guztiak amazortzi milla peso. Gure dirura jo eta berrogetamaika pezeta guztia.

Arratsaldeko irurak aldera eldu giñan *Junín* erriara. Emen dauke lur erosi barri ori. Erri txikitxu ori albora itxiaz, zuzen jua giñan finka orretara.

Emengo zuzendari-aministradore egoana Juanen koiñatua zan, da gertu eukan bazkari edarra. An jan da loaldi labur bat egin genduen, da bertako *landrover* bategaz lurralde guzti ori arakatu genduan; danna, ondartzatik begiratuta itxasua dan legez, lau: zelai, piñu, platanu eta txopo. An egoan biarrien talde gogor bat euren tresna guztiakaz. Egunero doiaz andik Tigre-ra traillerkadak. Udan botaten dabena, neguan atzera plantau egiten dabe. Lengusuaren asmua edo elburua da, urte guztian eurak ebai al daben egur guztia euren lurretan sortu dadilla. Baña ondiño eztira eltzen, da geiago erosteko asmua dabe. Mutil bizkorrak! Arratsalde orretan zeatz-meatz ikusi genduan aberastasun zoragarritzko ori.

Argiz etxeratu giñan. Baña bidian genbizela, zenbat egazti edo txori, guk ezagutzen genduen da ez genduenak, bidian banaka eta aldraka? Ta ez ori bakarrik: erbi ta konejo be alan. Ezagun zan Eibartik urrin egoana, bai...

Etxia dago baratz aundi baten erdian; da zaindariarena, baratz-eskiña baten. Etxe nagusi orrek ama-lau gela ditu, eta ogeitaz gora oetan, eta alan onek eskatzen dabezan gañerako beste adornu guztiak. Gela eta gañeraketan, zazpi bañu-gela, saloi aundi bat ogei metro luze eta zazpi zabal; pizsina bat... Ektarea bat pasau dan baratz edo jardin onek, eundazka zuzgaitz daukaz, da guztiak orain irurogetamar-larogei urte Euskal Erritik eruan da ipiñitakuak: aritz, pago, urki, gaztaiña, urritz... Da olan guztiak.

Euskalduna zan saldu ebana, guztia iru milloi dolarrian. Sinistu be eziña! "Larrin" izenez ezagutzen zan gizon au, beste zeaztasunik ez dot. Baña gizon au benetan abertzalia zan, da berak be ez ekiala gañera. Olako euskaldun asko bizi dira, eta il dira, munduko lur zabaletan euren *aitaren etxiagaz* aaztu eziñik...

Urtarrillak 5, biderako jana artuta, illuntabarrez urten genduan bidera; irurak aldera eldu giñan Ge-

neral Pico-ra. Telefonoz deituta egozan gitxi gora-bera noz elduko giñan, eta emen lau familietakuak gugaz bazkaltzeko alkartuta egozan. Bazan agurtu biarrik, laztanik,... orretan eurak diranez!

Guztiak ziran an jaiok. Emendik juandakua aita zan: Pedro Olabe. Urte asko aurretik ilda egoan, da beste anai bat be solteru il zan. Pedro orren lau seme-alabak ziran, da laurak ezkonduak, erri inguru aretan bizi diranak.

Bazan jan-edanik ugari da parrillako saieskirik. Illuntze aldera erria be erakutsiaz erabili ginduezan:. Etxe aundi gitxi dau eta erria zabala da, etxiak be Ondarrun baño banakago dagoz eta. Afaldu be, leku berean egin genduen, guztiok alkartuta.

Inguru au ganau eta lurgintzatik bizi da geien-gua; euren aita be azken urtietara arte be bai. Baña gaur, guztiak erri biarretik bizi dira. Aizta biak etxian bertan dauke pintura erakusteko sala bat, makinaz da guzti, akademi bat legez; da onen gizonak, bata trenbideko enpleaue, eta bestiarena, bi-jantie. Mutil bixek, onek be, etxien dauke taller bat beste biargin bigaz, tratorrak, motosierrak da abar konpontzeko. Guztiok biarra egiñez oso eroso bizi dira, lurekuak baño arri ta abar bildur gitxiagoz. Ama bizi zan. Gu an giñanian guztiz makal ebillen, da andik urte pasaura il zen. Goian Bego.

Urrengo egunian, goiz urten giñan Oriente deitzen jakon errira. Emen Ilarion lengusu bat bizi da, Gaztañaga aldekie. Onek labore lur utsera diardu iru makiñe aundiz: gari ebaten ziarduen bistia galdu egiten zan soluetan. Onek be pozik ziran, aspaldiko urtez ezagutu zan kosetxarrik onena egoala eta. Onen etxian gaba igaro genduan; eta gosaldu, ta Mar de Plata-rako bidia artu genduan.

Bidian, Necochea, Kent... Emen dagozan gariz, artoz, garagarrez da abarrez beteta dagozan silo aundi eta ugariok ikusiaz. Emendik munduan ziar zabaltzen

dabez, da lurrian biarra egiten dabenak ez beste guztiak aberasten dira sail onetan. Ondartza eta portu eta ikusgarrienok ikusiaz, gau bat igaro biar izan genduan. Jana ez zan falta, baña lo nun egin aurkitzen ez zan erreza. Errietako baten “*Taberna Vasca*” kartela ipinten eban lekuan jan genduan. Da Ilariok ezagun eban aleman baten etxian lo, da goixian, tirada baten, Buenos Aires-ko bidia artu genduan.

Etxera giñanian, iru milla kilometrotik gora marketan ebazan erabili genduan burdi orrek, ez eban atzeko otzik illaren 4-tik 9-ra bitarte orretan. Ola, bera zuzentzen ibili zanari be atsedena ondo etorriko jakon, zer esanik be ez.

Gu be, egun bi-irurako *Rio Carabelas*-ko Oskarren etxera juan giñan. Emen, benetako bakartaduan, ibaian amuagaz peskan egiñez, uste barik opporen atzenengo egunetara giñan. 16-an azken domeka zan, eta danok batuta, Juanenian pasau genduan. Egun bira, onunzko egazkiña artu biar genduen, seiretan. Azken eguna eta gaba anaianian igaro genduan. 18ko goixian agurtu onegaz naiku penaz, eta morralak egitera onen alabaren etxera. Egun orretan trumo-euri ikaragarria egin eban goixpartetik. Morralok egin da bazkaldu genduen.

Juan da beste batzuk etorri ziran akeita artuaz, azken jai legez. Da benetako antzerki batek urten eban. Guztiok mamurru jazteko aiña traste atera eben, eztakit nundik. Dantzan egiteko be, gitarra, flauta, pianu ta panderu, da guztiok genkien bata edo beste joten be. “*Baile de máscaras*” emoten eban, iñoz entzun dodanez.

Egazkiñerako ordua, eta an giñan guztiok, anaia ta emaztia ezik. Onek negarrez itxi bagenduzan be, bestiak alaitasunez agurtu gaitue. Bizitza, arantza eta larrosa, orain eta beti.

Bildur izan banitzen be ibillera ori egiteko, oztoporik txikienik eztot izan osasun aldetik eta ez klima

aldetik. Bildurra, aurrerago be esan dot-eta, nozi-
pein lagun ona da. Anaia, oster, bildurrak nire le-
puan itxita jua zan; eta, ara elduta, eztarriko miña
etorri jakon. Eta ori pixka bat arindu jakonian, en-
patxue: bi aldiz sendagilleagana jua biar izan eban.
Eta azkeneko zortzi egun egon zan ondo samar. Pe-
nagarria, olako ibillera baten. Eguraldi txarrari ar-
pegi ona ipiñi biar, gogoaz bestera geienetan...

Barriro geure txoko gozo onetara. Da agur opo-
rrak, betirako, esan biar.

Amaiera

Lerro onek iru urte geruago idazten diardut. Orduan ondiñok makilla batekin naikue ondo nebilla; gaur, bigaz da txartuago. Aurrera begirata, obarik eztago. Etorri giñan eta juan biarra dago. Miñik eztaukat eta pozirik nago.

Azkenduaz doaz nire kontakizunok. Sei illabete daroaz buru zar onetatik atera eziñik, al dan zeatzen atera nairik. Larogei urtegaz asi naz begira igaro dodan guztiari, eta ule zuriok ondo astintzen alegindu naz, baña geratuko ziran utsen batzuk tarteka... Baña orrek be badau bere konponbidia, bein baten eiztari batek esan eban legez. Eiztariak eliza atadian, meza ostian, bere kazako abildadiak gora eta bera:

-Tiro eta erbia! Tiro ollagorri, tiro eperra nai ba-sauntzari, danak bera!

Albotik badiñotso batek:

-Baña ik, olan, bat be utsik barik, danak bera?

-Ai! Nire utsak jakin gure badituk, nire auzoko Joxe Mariri preguntau...

Nik be, lerro onen artian, aurrerago esan biar nebana, uts egitia, Joxe Marik barik neuk esatia oba dala pentsau dot.

Aldi gogor bat ezagutu genduan orain ogeitaz urte eta abar: erri txikiak, albuhan egoan aunditxua-guak irunsten zituan, onian edo txarrian; gure Zior-tza-Goillebar au be bai, iñok ezezkuaren ostikadarik txikienik be bota barik gañera. Andik urte batzuetara kanposantu eta nitxuak zirala-ta atera nituan orrien ingurua zan, da diñostee batek edo bik:

-Nun egon intzan onakorik atera barik, erria eruan euskuenian?

Da nire erantzuna:

-Da eu nun egon intzan gaur arte ori esateko?

Or biok barrez geratu giñan. Da gañera esan neutsena:

-Au zan aldi aretan nire itza nai eskutitza. Suari egur geiago botatia besterik ez zan izango.

Lenengo pausua da gaxena emoten, baña nixuen inguruan urten eban lako burrundadiak urten baleu, zigur nago enitzela atzera geratuko, xaxatu aundirik eneban biar zaunkez urteteko eta. Bein baño geiagotan esan dot orren gañian orri batzuk banandu eza damutu jatala. Orduan beintzat, agiri bat egongo zan, txiki edo aundi, "guztion naimen osoz juan zala" errian esan al izateko, gero beti entzun dogun legez. Gauza onei aldakuntza aundia etorri jakke azken urtiotan; banaka badira atzera jabetuaz doiazanak. Nun dira gure mutillak? Zuriketa merkia, baña zuriketa, eta ez dot itxi gura izan Joxe Mari bekok egiteko. Segi pixka bat aurrera, eta aurkituko da Joxe Mari, Pedro edo Juanik bere utsegitiak nire lepora bota gura dituanik be.

Au, azkena emoteko neure kontakizunoi: orain dala ogetabost urte sortu genduan MIBA alkarteko bazkide zanATEGAZ jazotakua da. Bazkide au sortu zanetakua zan. Gauza benetan uskeri bat zala bitarteko, salnegurri bateko gora-bera zan guztia, eta ni Juntako nitzen legez, nigana etorri zan kejaz. Da nik emon neutsan neure eretxia, eta norengana juan biar eban zuzentzeko, biderik bada ikusteko. Gizon ori zan erosi ebana eta salnegurria ipini eutsena. Onegaz ez eban lortu berak gura ebana.

Andik iru bat egunera, nire etxera etorri jatan Kooperatibatik urten egin ebala esaten, gizon batek bakarrik agintzen ebala Kooperatiba orretan esanaz. Da bronka gogorra bota neutsan, kanpora urtenda

etzirala gauzak konpontzen, barruan jarraituta baño, da gizon bakarrak barik, Junta osuak eukala azken berbie. Beriagaz juañ zan nire aurretik.

Amabost egun ingurura, tope egin dot kaliañ, ni gora eta bera etorren bera, eta geratute diñosta atzera Kooperatibañ sartzia nai ebañ. Da ain subertez, illaren azken zapatua zan, da illuntze orretan geunkan illeroko batzarra Juntako giñanok. Da esan neutsan gabian geunkala batzarra eta sarreraren eskaera egiñez lerro bi isteko MIBA-ren buleguañ; da alan egin ebañ. Batu giñan beti legez, amalau bat batzorde, erri eta auzune naiku zabal giñanetik. Eguneko gaiak aztertu ondoren, eldu geuntsan gizon orren buru-arinkeri orri; ez buru eta ez anka ez eukan gauza bategaz, jokera kaxkar guzti orri. Guztien agotik urteten ebañ,

-Olakuek kanpuañ dagoz onduañ!

Auzua nebañ legez, neuk aldeztu nebañ apurtxu bat, da azken erabagia onan artu zan: egun aretatik urte betera ez eukela sartzerik; andik aurrera bai. Eskutitzez emon jakon albiste au, baña ez zan sartu. Zelan sartuko zan ba? Guztiak berak azpiañ ez eukitekotañ? Da baltzana: andik ogei urte pasaura etxera bota eustan eskutitza, esaten MIBA-tik kanpora egotiagaz milloia eta erdireñ okerra euki dabela, eta guzti onen errudun neu bakarrik nazala. Sinistu leike? Ikusita, bai, da onan da. Baña guzti onek ez dauste lorik galdu eragin. Oni begiratuta, MIBA-ko kidiok badogu zegaz poztu.

*Amaitzera noia lerro traketsok.
Or dira birtute edo akatsok,
arantza eta larrosa dira baratzok,
da nire gomutako lorrotzok.*

Tomas Besi, 1987.



Tomas Gerrikagoitia Urionaguena, (1909-1997).

Aurkibidea

Aurkezpena	13
Jaiotza ingurua	15
Eskola girua	21
Morrontza	27
Comillas	29
Barrero morrontza	35
Soldadutzara arte	39
Soldautza	45
Gerra aurreko girua	51
Gerra sorrera	57
Batallo baten frentera	67
Prisioneru	81
Epaia	91
Espetxetik espetxera	95
Kartzelatik kanpora	111
Ekontza eta ogei urteko ondorenak	121
Bat-bateko alarguntza	141
Aize barriak	147
Familiaren gora-berak	159
Kotxea	161
“Itziarren semea”	173

Kanposantua	183
<i>Beiena</i> esne-kooperatiba	189
Ipar-Amerikan	205
Gura ez neban lekuan	227
Barrero Ameriketari	237
Eguneroko burruka	243
Israel-en	247
Franco il berriari	259
Geruago eta biziago	267
Usterik eneban oporraldia	283
Amaiera	293

Auspoa-ren bizkaierazko liburuak:

Balendin Enbeita:

Nere apurra, 1974, (117-118)

Basilio Pujana:

Egi batzuek aixetaratzen 1986, (191)

Deabruak ostutako urteak, 1991,(211)

Oiuak, 1997, (251)

Jose Maria Etxaburu:

Neure lau urteko ibillerak, 1989, (199)

Ondarroa ko Kontuak, 1995, (226)

Faustino Etxeberria:

Nor garan azaldu, 1990, (208)

Nire gazte denpora, 1996, (237)

Lino Ayesta:

Gure izkuntzaren mugatik, 1992, (217)

ikusiak eta entzunak, 1997, (245)

Jose Manuel Etxebarria:

Zeberriko kantanak, 1999, (259)

Aurki argitaratuko dana:

Andoni Basterretxea:

Ene Ondarru, 2000, (270)



1051107

G-129/18



Tomas Gerrikagoitia Urio-
naguena jauna zana (1909-
1997), Bizkaiko biotzean,
Markiña ondoko Bolibarren, jaio eta bizi izandako
gizon bat degu.

Berak dion bezela “laroegi urte atean” zituala, bere bizitza idazteari ekin zion, “Ipar-Amerikan ogetairu urte daroazan alabiek gurari au agertzen daustalako”. Ekin eta jarrai, liburu mardul au bete arte, guri mesede ederra egiñez.

Alde batetik, izan ere, alako bizkaiera jatorra eta garbia eskeintzen digu. Bestetik, bere bizitza edo autobiografia ez-ezik, beraren gizaldiarena ere azaltzen du, denbora berean bera jaio eta bizi izan zan euskal lurralde eder orren berri zeatza emanaz.

“Aixe onik eztabil buruan, urte onekin luma artzeko eskuan” dio liburuaren asieran. Ez, Tomas jauna, ez. Bizitzaren udazkenean baziñan ere, udaberriko aize garbia zebillen egun artan zure buruan. Eta orain zauden eta aizeak jotzen ez duten leku ortatik jaso ezazu, arren, gure esker beroa.



MARKINA-XEMEIN-GO
UDALA



G